

Ondarruko arrantzaleen lexikoa eta toponimia

Egilea: **MIKEL ETXABURU OSA**

Urtea: 2005

Zuzendaria: JUAN MANUEL ETXEBARRIA AYESTA

Unibertsitatea: UD-DU

ISBN: 978-84-8438-321-5

Hitzaurrea

Aita arrantzalea eta ama jostuna. Hiru seme eta bat bera ere ez itsasorako. Ez zen xamurra itsasoaz besterik ulertzen ez zuen itsas gizonarentzat, itsasotik bueltan itsasoarekin baino amets egiten ez zuen arrantzalearentzat. Hiru seme eta denak lehorrerako, hau komeria!

Horrelakoa da gure familia, eta horrelakoak dira Ondarroako familia asko. Atzeak ez duelako beti erakusten aurreak nola dantza egin. Pausua galdu genuen, eta pausua galduta jarraitzen dugu. Itsasoa bainu hartzeko bakarrik baliatzen dugu, eta inor gutxik galdetzen du porturatzen diren ontziek zer arrantzu dakarten.

Nik behin galdegin nion hori neure buruari; zer ote dakarte ontziek? Ametsak eta nekeak, arrainak eta kalatxoriak, haizeak eta kresalak... eta horrela bihurtu nintzen "arrantzale", ez ordea "marinel". Sareak atondu, amuzki egokiak aukeratu eta lehenengo marean otzara bete berba arrantzatu nituen.

Merke eta erraz bildu nituen berbak, asko zeuden eta nork arrantzatuko zain. Hainbeste zeuden ezen benetan kezkatu ere egin nintzela; nola zitekeen? Nola ulertu niezaiokeen aitari, aipatzen zituen berbak ere ez banintzen konprenitzeko gai? Eta aita ulertu nahian, bera ulertzeko beharrari eutsita, otzara gehiago prestatu, tertzak sukaldeko aulkian atondu eta bazter guztiak harrotu nituen hau galdetu eta bestea jaso, milaka berba arrantzatu nituen arte. Marinelaren esanak ulertu nituen arte. Hori da nire tesiaren helburua; izan ginena ulertzeko berbak bildu eta izan gaitezkeena aberasteko baliatu.

Behin, Leipzig-eko Wundt irakasleak honako hau esan zion Jose Miguel Barandiarani: "*Zeuk bizi duzun kultura aztertu nahi baduzu, zeure herririk hara egin ezazu*". Eta On Jose Miguelek erantzun: "*Ba, nire herria Euskal Herria denez, bertotik hara ikertuko dut*". Eta halaxe egin zuen.

Nik neuk ere beste hainbeste egin nahi izan dut neure tesi lan honetan. Ondarrutarra izanik, Ondarroako arrantzaleen lexikoa jaso eta aztertu bertotik hara, berandu izan baino lehen, etorkizunari begira, gaurkook gure aurrekoengandik hartutako euskara bizia zor diogulako gerokoei, aberasbideko batasun bidean.

Orain, pixka bat hobeto ulertzen dut gure aita zena. Ez da agian nahikoa; baina ez da gutxi.

Mikel Etxaburu
2010



1. SARRERA OROKORRA

1.1	Sarrera.....	3. orr.
1.1.1	Euskararen normalizazioa.....	3. orr.
1.1.2	Hizkuntza-sistema: lexikoa eta konbinazio arauak.....	5. orr.
1.1.3	Ondarroako Arrantzaleen Lexikoa: tesiarene argumentazioa, helburuak	6. orr.
1.1.4	Status Questionis.....	11. orr.
1.1.5	Euskara biziaren dokumentazioa: corpusaren garrantzia.....	14. orr.
1.1.5.1	Corpus berezituak.....	15. orr.
1.1.6	Ondarroako Arrantzaleen Lexikoa: oinarri nagusiak.....	18. orr.
1.1.7	Ondarroari buruzkoak.....	20. orr.
1.2	Ondarroako Arrantzaleen Lexikoa:.....	23. orr.
1.2.1	Lan metodologia.....	23. orr.
1.2.1.1	Datu bilketa.....	24. orr.
1.2.1.2	Elkarrizketak.....	24. orr.
1.2.1.3	Galdetegi motak.....	24. orr.
1.2.1.4	Grabazioak.....	25. orr.
1.2.1.5	Datuen erkaketa.....	25. orr.
1.2.1.6	Transkripzioak.....	25. orr.
1.2.1.7	Hiztegia klasifikatu eta informanteak.....	28. orr.
1.2.1.8	CD-ROMa; edukiak.....	29. orr.
1.2.2	Lexikografia.....	29. orr.
1.2.2.1	Hiztegiaren ezaugarriak.....	29. orr.
1.2.2.2	Ondarroako Arrantzaleen Lexikoa: hiztegia.....	29. orr.
1.2.2.3	Hiztegi orokorrak eta hiztegi berezituak.....	30. orr.
1.2.2.4	Hiztegi entziklopedikoak; linguistikoak	30. orr.
1.2.2.4	Hiztegiaren gainestruktura eta mikroestruktura	31. orr.



ONDARROAKO ARRANTZALEEN LEXIKOA

SARRERA

1.2.2.5	Elebitasuna.....	32.orr.
1.2.2.6	Sarrereren fitxa teknikoa.....	33. orr.
2.	Ondarroako Arrantzaleen Lexikoa: <i>Hiztegia</i>.....	49. orr.
3.	Transkripzioak.....	580. orr.
	Boni Laka.....	580. orr.
	Transkripz. Domeka Markuerkiaga.....	617. orr.
	Transkripz. Miren “kantale”.....	629. orr.
	Transkripz. Trini Larrañaga/ Begoña Arauko.....	636. orr.
	Transkripz. Patxi Etxaburu.....	650. orr.
	Transkripz. Andoni Basterretxea.....	681. orr.
	Transkripz. Jose Mari Ibazeta.....	694. orr.
	Transkripz. Agustin Arantzamendi.....	701. orr.
4.	Ondorioak.....	705. orr.
4.1	Ondorio koalitativoak.....	705. orr.
4.2	Ondorio koantitativoak.....	711. orr.
5.	Bibliografia.....	729. orr.



1.SARRERA OROKORRA

1.1 SARRERA

Doktorego Tesi honen zuzendari eta bultzatzaile izan dudan Juan Manuel Etxebarria Ayesta irakasleari entzun nion On Jose Miguel Barandiaran jaunari Leizpzig-eko Wundt irakasleak esan zion hau: “ *Zeuk bizi duzun kultura aztertu nahi baduzu, zeure herririk hara egin ezazu*”. Eta On Jose Miguelek erantzun: “ *Ba, nire herria Euskal Herria denez, bertorik hara ikertuko dut*”. Eta halaxe egin zuen.

Nik neuk ere beste hainbeste egin nahi nuke neure atal honetan. Ondarrutarra izanik, Ondarroako arrantzaleen lexikoa jaso eta aztertu berandu izan baino lehen, etorkizunari begira, gaurkook gure aurrekoengandik hartutako euskara bizia zor diogulako gerokoei, aberasbideko batasun bidean.

Ondarroako arrantzaleen lexikoa lanerako sarrera gisa, hona hemen lan hau egiterakoan kontuan ditudan hainbat hausnarketa desberdin.:

1.1.1 EUSKARAREN NORMALIZAZIOA

Jakina da Euskal Herrian euskararen erabilera garapen desberdinak nozitu izan dituela.

- Hogeigarren mendearen erdian erabilera pribatuetara mugatuta zegoen neurri handi batean.
- Erabilera publikoan, gaztelania eta frantsesa ziren nagusi.
- Diglosia egoera honek, orduan euskal gizarteak bizi zuen industrializazio eta modernizazio garaian, kaltetu zituen bai euskararen prestigioa, erabilera eta bai euskaldun askorentzat zuen baliagarritasuna ere.
- Hurrengo bi hamarkadetan, hizkuntza ordezkatzeko masiboa gertatu zen.

Egia da azken lau hamarkadetan euskararen normalizazioan urrats



garrantzitsuak eman direla. Garrantzitsuak bai, baina inola ere ez nahikoak. Eman diren urratsekin, nola edo hala, hiztunen galera konpentsatzea lortu da. Bestalde, oraindik, ez dugu lortu hizkuntza-ordezkatze prozesua etetea eguneroko jardueretako harreman-sareetan, harreman-sare hurbilenetan.

Hau guztia arrazoitzeko hainbat argudio ditugu:

- Hiztunen tipologia: hiztunen tipologia errotikako aldaketak bizi izan ditugu. Lehengo euskaldunen profila nahikoa homogenea zen: bakan batzuk salbu, euskaldun gehienek euskara zuten eta euskara erabiltzen zuten familia eta lagunarteko harremanetan eta nekazari eta arrantzale lanekin lotutako jardueretan, gure herrian –Ondarroan- kasu. Egun, euskararen hizkuntza-komunitateko hiztunok askotariko historia soziolinguistikoak ditugu, jabekuntza prozesuari dagokionez, erabilera maiztasunari dagokionez, eta esparruen araberako erabilerari dagokionez ere. Nolabait laburbiltzeko, egungo euskaldunen tipologia aniztasuna eta heterogeneotasuna dituela ezaugarri nagusienak esango genuke.
- Honek hiztunen komunikazio-gaitasunean zuzen-zuzenean eragiten du. Hiztun askoren kasuan, hurbileko erabilera-esparruetan azaleratzen dira komunikatzeko gaitasunaren mugak: hiztun horiek ez dute erabilera esparru horietako errepertorio linguistikoa ezagutzen. Ez dira gai, -nahiz eta eremu berean, herri berean bizi- erabilera-esparru jakin batean erabili ohi den mundu lexikala bere ikuspegi semantiko guztian ulertzeko.

Oraindik ere gauzatzeke daukagun helburua, hizkuntza komunitate normalizatu bateranzko bide sendoa urratzea da. Horrela, hiztunen arteko harreman-sare arinak eta oparoak ahalbidetu beharko genituzke hainbat erabilera-esparru desberdinen artean.

Horrela, jatorrizko erregistroez baliatuz, era askotako erregistro desberdinak eta estiloak, esangurak garatzen dira. Komunitate horietako hiztunek, gradu desberdinetan bada ere, beren hizkuntzaren gramatika ez ezik, beren komunitateko kideekin partekatzen dituzten arau soziopragmatikoak ere ezagutu beharko lituzkete: komunitate horretan hizkuntza-baliabide bat noiz, norekin,



zein testuingurutan erabil daitekeen jakitera eramango lituzketen komunikazio gaitasuna izan beharko lukete hiztunek.

Horretarako, ezinbestekoa da egun erabili ohi ditugun erregistro eta sarrera desberdinak biltzeko sistema bat antolatu eta modu iraunkor batean bildu eta katalogatzen joatea. Hau egin ezean, erabilera esparru jakin baten ondare lexikala galtzeko arriskua izateaz gain, komunitate-linguistiko honetako ikuspegi zein erabilera soziopragmatikoa arrantzale izan ez baina kostaldeko herri den heinean, hain hurbil bizi duen itsas kultura –orpoz orpo-, uztartzeko aukera galduko genuke.

Berez, *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanean, Ondarroako arrantza munduko hiztunek beren egunerokotasunean erabiltzen dituzten berbak bildu eta antolatu dira. Egon badagoena jaso nahi izan da. Jakina denez, hau aurreneko lana izan behar litzateke, dagoena jaso eta antolatu, alegia. Baina hau ez da nahikoa aurrean aipatu ditugun gaiei irtenbideak bilatzeko. Hizkuntzaren erabilera esparru bat identifikatu eta horko mundu lexikal, gramatikal, entziklopediko eta abar jaso ondoren, horien normatibizazioari eutsi beharko genioke, eta ondoren, honen zabalkundeari. Horrela, komunitate-linguistiko bakar baten baitan bizi diren esparru desberdinen arteko uztarketa eta aberastea elikatuko genuke.

1.1.2 HIZKUNTZA-SISTEMA: LEXIKOA ETA KONBINAZIO ARAUAK

Euskara komunikazio-tresna bilakatzeko, infinitu konbinazio egitea posible egiten digun gramatika-sistema behar dugu. Horretaz gain, hizkuntza komunitate batean hizkuntza-esperientzia partekatuaren bidez garatzen diren hotsen eta esanguren edota zentzuen arteko konbinazio arbitrarioak, eta testuinguru pragmatiko jakin baterako finkatzen diren errutinak ere ikasi behar ditugu. Hain zuzen ere, erabilerarekin lotutako azken alderdi hau da huts egiten duena. Hiztun komunitate desberdinen arteko harreman-sareek huts egiten dute normalizatu gabeko hizkuntza batean. Gainera, erabilera hori oparoa izango bada erabili ahal izateko baina, lehenengo eta behin dagoena jasotzea ezinbestekoa da. Eta batez ere eraldaketa prozesu bortitza eta etengabea jasaten ari den arrantza munduaz ari garenean. Kasu honetan –eta ziur nago beste hainbatetan ere horrela izango dela- erlojuaren kontrako lasterketa bat da. Erabili ohi diren heinean egon badauden berba zein hauen testuinguru pragmatikoa jaso eta biltzetik etorriko da



Ondarroa bezalako herri batean elkarbizi diren hiztun mota desberdinen arteko hurbilketa eta elkar-aberastea.

Hizkuntza sistemaren ikuspegi lexikalista soil batetik abiatuta, hizkuntza-sistema hiztunek duten ezagutza lexikotik abiatzen da konbinazioak egiteko. Honi, Lexikologia Bertikalaren Ikuspegia¹ gaineratzen badiogu, eremu berrietan hiztunok ditugun hizkuntza-esperientzia berriek hiztegi-elementuen informazioa aberastuko dute esparru jakin bateko baldintza pragmatikoekin, esangura berriekin e.a. Ondorioz, sistema gauzatzeko moduari berari eragingo diote erabilera berriek².

1.1.3 ONDARROAKO ARRANTZALEEN LEXIKOA: TESIAREN ARGUMENTAZIOA; HELBURUAK

Izena duen guztia, errealitatean edo fikzioan, egon egon dela edo eta egon dagoela esaten da gure atsotizetan.

Mendez-mede, semantika balorez betetzen etorri zaigun izena duen edo eta izan duen guzti hori, ahozkotasunetik idatzira ekartzen saiatu da gure gizartea, belaunaldiz-belaunaldi, bere historia luzean zehar.

Hipotesi gisa, gaur egungo euskararen *status questionis* ezagutu eta gero, ahozkotasunaren altxor diakroniko-sinkroniko guztia ez da jaso euskara idatzian.

Bilketa horretan, batzuetan kanpo semantiko osoa geratu da jaso gabe, beste batzuetan bizitzaren joaneango balore semantiko bat edo beste.

Eginbehar urgentea dela uste dugu hau biltzea. Altxor honen iturria hiztunengan dago, batez ere hiztun zaharren bizikeran. Bizitzaren legeak barkatzen ez duenez, jakina, gure hiztun zaharrak, hots, “entziklopedia biziak” ez dira betiko

¹ Lexikologia Bertikala: ikuspegi lexikalista gogorra. Ikuspegi honen gaineko oinarriak Cabré (1999) eman zituen: hiztegi-elementuek informazio semantikoa eta gramatikala ez ezik, erabilerari buruzko informazioa eta informazio entziklopegikoa ere izango lukete

² *Terminologiaren Teoria Terminologikoak* (Cabré 1999)

Cabré, t. (1993): *La terminología*. Barcelona: Editorial Antártida/Empuries.



–dagoeneko, berriemaleetako bat baino gehiago hil egin dira, eskerrak grabazioetan geratu dela euren testigantza-.

Beharrian eta urgentzia honexek bultzatu nau tesi hau egitera, lanhipotesi bidean, Ondarroako arrantzaleen euskarak baduelako oraindik jaso gabeko zer eskaini etorkizuneko *Orotariko Hiztegiari* eta azken baten euskarari berari, gure kasuan Ondarroatik bertatik hasita, beti ere K. Mitxelenak esandako bi aipu hauetan oinarriturik:

1.– *euskalkiak ez ditezen elkarrengandik gehiago hurrun eta alden, lehenik;*

2.– *ahal ditekean neurrian, elkargana bil ditezen, gero.*

Ez dago dudarik, kostaldeko herrietako kultura, arrantza giroan eta honen balore zein bizipenetan oinarritzen dela. Honen guztiaren adierazgarri da arrantza mundu horren hizkuntza-erabilera, zehazki, arrantza sektore desberdinetan erabiltzen den lexikoa. Hizkuntzaren atal honen azterketa sakon batek, aipatu dugun arrantza giroko kulturaren hainbat klabe modu errazean ikusi eta hartaz jabetzeko aukera ematen digu.

Egia dena zera da, arrantza bera bezain antzinakoa den lexiko zabal eta oparoa inoiz baino murriztagoa dela gaur egun. Beti-betikoak diren hainbat hitz, beste hitz eta esamolde batzuek ordezkatu dituzte, batez ere hitz teknikoak; beste hitz batzuk desagertu egin dira eta beste hainbeste desagertzeko bidean daude.

Eremu lexikal honen higadura, arrantza sektoreak izan duen maila guztietako eraldaketarekin batera joan da. Arrantza, arrantzuntziak, arrantzarako baliabideak, tripulazio beraren ezaugarriak –jatorriak-... oso bestelakoak dira orain dela mende erdi ezagutzen zenarekin alderatuz.

Arrantza munduaren eraldaketa eta bertakoek darabiltzaten baliabide lexikalek ez dute garapen bera izan, ordea. Gaur egun arazoa ez da soilik arrantzale jatorren hizkeraren testigantza gutxiegi daukagula jasota, –bestalde, geroz eta lekuko jator gutxiago geratzen dira. Egun daukagun arazoa ez da soilik geroz eta euskara gutxiago erabiltzen dela gure herrietako itsasontzietan. Erreferentzia lexiko-kulturalak galdu eta errealitate linguistiko konplexuez aparte, arrantza



munduaren eraldaketa honen aurrean gure hizkerek izan duten ahuldadea ere benetan da kezagarria. Gauza berriak, datozen moduan –edo ahal izan diren moduan- hartu eta jaso dira azken hiru hamarkadetan. Horrela moldatu dira gure arrantzaleak egoera gainera etorri zaien, –zaigun– bakoitzean . Hala ere, honekin ez dut esan nahi derrigorrean hitz berriak sortu behar zirela edo direla –maileguak ere, geure bihurtzen diren heinean hitz berriak baitira –. Daukagun ondare lexiko-kulturalari hautsak astindu eta berarekin baliatzeko aukera –ahal den neurrian- izatea da bilatu behar duguna.

70eko hamarkadan gaztelaniar jatorrizko hainbat eta hainbat hitz egin genituen geure –batzuk mailegu moduan, beste batzuk, "*Ondarrutar erara*" moldatuz-, azken bi hamarkadetan, tresneriaren garapenarekin ingelesezko hitz batzuk ikasi genituen hainbat arrantza aparailu berri izendatzeko; etorkizun hurbilean, agian, wolof hitz batzuk ere jakingo dituzte gure arrantzaleek -arrantzaleek diodanean, eremu honetako giza talde guztiak diot; saregileak, arrantzaleak, kontserberoetakoak ...-.

Honetaz gain, aipatu egoerak eragin zuzen-zuzena dauka arrantza eremu zehatzetik haratago dagoen "*kaletarron*" aberastasun lexikalean. Argi dago kostaldean jaio eta arrantzatik bizi diren herrietako biztanleen erregistro lexikalak, nahiz eta denak ez izan arrantzale, sarejostaile, talaiero... hein handi batean arrantza giro horretatik jaso eta moldatu ohi dituela. Hitzak berezko duen kontestutik atera eta lexikalizatuta agertzen diren hainbat hitz zein lokuzio ezagutzen ditugu gure herrietan.

Honekin guztiarekin zera da esan nahi dudana; gure herri arrantzaleetako hizkera bildu, landu eta gaurkotzeak ikerlarion partetik arreta berezi eta ahalegin handiago bat eskatzen duela. Horretarako, daukagunetik abiatu behar gara, eta daukaguna ez da gutxi. Daukaguna, ordea, ez da beti erabiltzen dugunaren sinonimo. Daukaguna, oraindik, altxor eder eta oparo bat da. Ondare lexikal eta kultural oparo baten jabe direnak arrantzale jator asko dira oraindik gure sendietan. Hortik jarraitu behar da.

Bide beretik, aurrean daukagun lan honen helburua ez da izan soilik hitz kopuru bat biltzea; helburua ez da izan lexiko pilaketa soil bat aurkeztea. Ondarroan oinarritutako arrantza kulturaren azterketa etnolinguistikoa egitea izan da lan



honen helburuetako bat.

Etnolinguistikak, herri-eremu desberdinetako egitura linguistiko-sozialen ezaugarriak biltzen ditu. Lan honetan, unitate kolektibo erreal baina partzial baten azterketa bilatu dut, aktibitate linguistiko komuna duten Ondarroako arrantza munduko eremu desberdinek *izenei ze izan* ezartzen dioten, alegia. Hitz batek horrela baino ez baitu hartuko benetan daukan adiera eta aberastasuna.

Bide honetan, informazio etnografiko franko ere eskaintzen da lanean. Goian aipatu dugunari kasu eginez, bildutako hitzen inguruko kontestua, honen gaineko informazio entziklopediko zein etnografikoa jasotzeak garrantzia berezia hartzen du. Honi egiten dio kasu aurrean daukagun lanak.

Lanketa etnolinguistiko egoki bat egin nahi baldin bada, garrantzitsua izango da oso gure inguruan gertatzen diren hizkera berezituen gaineko lanketa espezifikoa burutzea (bildu, sailkatu, proposatu...). Ondarroako arrantzaleen lexikoa, lokuzio eta bestelakoak, ondarrutar moduan jo genezakeen hizkeraren barnean hizkera berezitua dela ulertzen dut. Hizkera berezitu honek, noski, jakintza berezituekin du harreman zuzen-zuzena. Arrantza munduaren gaineko jakintza berezitu hori adierazi ahal izateko, hizkera berezituak sortzen dira, eta honekin batera lexiko berezituak.

Hizkera berezituak dituzten ezaugarriak, aurrerago aipatu dugun moduan, eragin zuzena dute hiztegian eta hizkuntza-sistema gauzatzeko moduan ere. Hizkera berezituak bildu eta sailkatzeak daukan garrantziaz ari naizenean, ikuspegi lexikografiko batetik begiratuta, hiztegian –lekuan lekukoan zein orokorrean– eragiteko daukaten gaitasunaz ere ari naiz.

Hizkuntza-sistema, hiltunek duten lexiko ezagutzatik abiatzen da konbinazioak egiteko. Baina lexiko ezagutza hori, hizkuntza-esperientzia jakin bati lotuta joango da. Horrela, hizkuntza esperientzia hauek, hiztegi elementu berriak aportatzeaz gain, hiztegi elementuen informazioa bera ere aberastu egingo dute esparru jakin bateko baldintza zehatzekin, esangura berriekin ...

Jakina da, hizkuntza-sistema, hiztegi-elementu bakunez osatuta dagoela. Hiztegi-elementu bakun hauek hots bat dute, hots hauek errepresentazio grafiko bat eta errepresentazio grafiko hauek esanahi edo adiera bat –adiera hau, normalean,



erabat arbitrarioa izaten da, hotsaren erabilera pragmatikoari zuzenki lotua-. Berez, hiztegi-elementu hauetako hotsen eta esanahien arteko lotura da ziurtatu behar dena, honek guztiak komunikaziorako tresna moduan balioko baldin badu, behintzat. Hori dela eta, lan honetan ematen diren sarrera lexikalen gaineko informazio entziklopedikoak berezko balioa duela uste dut. Finean, hau baita hizkuntza-komunitate bateko pertsonen bata bestearekin komunikatzeko baliatuko duten ezagutza partekatua³. Ezagutza partekatu honetan sakonduz gero, ondarrutar kaletarron eta portuan lan egiten dutenen arteko ezagutza komunitetan sakontzen dugu. Ezagutza komun hauetan sakontzeak, ondarrutarraren hizkuntza-sistema aberastu eta orain dena baino zabalagoa eta zehatzagoa bilakatuko luke.

Ondarroako arrantzaleen lexikoa biltzea bide horretan urrats txiki bat da.

Ondarroako arrantzaleen jakintza berezituaren adierazle diren hitzak bildu, erkatu eta sistematizatzeko ondarrutarren hizkuntza-sisteman eragin zuzena izango luke duda barik. Modu lexikalizatuan txertatu eta hitz beraren erabilera pragmatiko desberdinak baldintzatutako esanahiarekin erabiltzeko agian. Ez dakigu, baina argi dagoena zera da, Ondarroako arrantzaleen lexikoa bildu eta zabaltzeak, ondarrutar guztion –arrantza mundukoa izan edo ez– hizkuntza-sistema aberastu egingo lukeela.

Ondarroako hizkuntza-sisteman era zuzenean eragiteaz gain⁴, aurrean daukagun lanean agertzen diren hainbat eta hainbat sarrera espezifikoko hiztegitza orokorrerako ekarpen interesgarria izan litezke. Lan honetan, orain arte dokumentatu gabe dauden hainbat hitz jasotzen dira –hau berezko ekarpena da– eta honetaz gain, gaur egun jasota dauden beste hainbat hitzen esanahiak,

³ Igone Zabala eta Agurtzane Elordui *Euskara zientifikoaren normalizazioa: hizkuntzalarien ekarpena* Mendebalde Kultur Elkartea. (2005).

⁴ Igone Zabala eta Agurtzane Elordui idatzitako Euskara zientifikoaren normalizazioa: *hizkuntzalarien ekarpena* artikuluan esaten dutena ekarriko dut gogora: hizkuntza-komunitate normalizatueta harreman-sare arinak eta oparoak izaten dira erabilera-esparru askotan. Hori dela eta, era askotako erregistroak eta estiloak garatzen dira. Komunitate horietako hiztunek, gradu desberdinetan bada ere, beren hizkuntzaren gramatika ez ezik, beren komunitateko kideekin partekatzen dituzten arau soziopragmatikoak ere ezagutzen dituzte: komunitate horren hizkuntza baliabide bat noiz, norekin, zein testuingurutan erabil daitekeen jakitera eramaten dituen komunikazio-gaitasuna dute hiztunek.



erabilera arauak eta abar aberasteko balio lezakeen testigantzak biltzen dira goian aipatu dugun jakintza berezituen filosofiaren arabera.

1.1.4 STATUS QUESTIONIS, erreferentzia nagusiak eta lanean txertatzeko moduak

Euskal kostaldeko itsas lexikoa biltzeko ahalegina aspaldiko gauza baldin bada ere, batez ere azken urte hauetan ari da gaiaren gaineko monografia zabal eta sakonak egiten. Orain arte egindakoak gauza solteak dira; arrantzale presturen batek jasotakoak; hemen edo hango filologoren batek bildu eta aztertutakoak; horko artikulua eta harutzagoko eskuizkribuak.

Hala ere, gauza guztietan bezalaxe, egon izan da hemen ere salbuespenik. Lehenik R.M. Azkue ekarri behar gogora (**Dok. Azkue**). Berak, *Diccionario vasco-español-frances* hiztegiaren hainbeste hitzen artean, arrantza inguruko ehunka hitz bildu zituen. Egia da batez ere Lekeitio oinarritu zuela bere ikerketa, baina bere ama Mundakakoa –kostaldeko herria- izanda, eta Lekeitiotik Ondarroarako tarte laburra kontuan izanda, baditu eduki Ondarroan nola esaten den zehazten dituen hainbat eta hainbat adiera ere. K. Mitxelena *Orotariko Euskal Hiztegia*-ri (**OEH**) eskerrak aro berria hasi da euskal hiztegi gintzan. Bestalde, Ibon Sarasolaren *Hauta Lanerako Euskal hiztegia* ere aportazio garrantzitsua izan da euskal hiztegi gintza garaikidearentzako. Belaunaldi berri horretakoak dira *Elhuyar* hiztegiak, Lur-ek argitaratua eta, orobat, Vox-en oinarritzko elebiduna. Euskal hiztegi gintzak azken hogeitau urteetan egin duen aurrerabideaz jabetzeko, aski da ikustea 1977ko *Euskal Hiztegi Modernoa*-ren eta 1996ko *Elhuyar* hiztegi elebidunaren artean alde guztietatik dagoen aldea. Ia izendegi itxurako hiztegietatik, egiazko hiztegien mikroegitura agertzen duten hiztegietara igaro gara.

Bestalde, eta hau da garrantzitsu, hitzak testuinguruan kokatzen ikasi du euskal hiztegi gintzak, finean, hizkuntza bat, esapide eta esaldi bilduma bat baita. Hortaz, hizkuntza baten hiztegiaren betekizuna hizkuntza horretako esaldien berri ematea ere bada.

Mitxelena parte izan den *Orotariko Euskal Hiztegiak* (**OEH**) sarrera bilduma benetan zabal eta sakona ematen du euskaldunok erabili izan ditugun eta egun



darabilgun hitz moldeen gainean. **OEH** oinarrizkoa izan zait *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lana burutzeko.

Gure herriko Augustin Zubikarai ere temati aritu izan da urte luzeetan zehar Ondarroako herriaren erradiografia desberdinak lantzen. Atal ezberdinak, anitzak dira benetan Augustinek jorratutakoak, baita itsas lexikoari dagozkionak ere; arrainari, arrantzari dagozkionak, alegia. Derrigorra da honek egindako lana gogora ekartzea, eta batez ere bi; (1989): *itxas-aize. Esaldi eta iztegi antzerakoa - AZ(01)* - eta *Sits eta bits -gure gaiak- AZ(02)* - . Lehenengoak, ekarpen txukuna egiten dio Ondarroako itsas lexikoaren gaineko bilketa lanari.

Eneko Barrutia da azken garaietan gaiaren gainean gehien sakondu, ikertu eta bildu duen laguna. Berak bildutako, eta batez ere biltze lanari eskaini dion metodologia oinarria da nik azpimarratuko nukeena. Esku artean daukagun lanerako ezinbestekoa izan zait Barrutiaren ekarpena, bai eduki zein planteamendu aldetik. Berak argitara emandako hiru liburuak izan ditut etengabeko kontsulta euskarri, *Mundakako arrantzaleen jakintzaren lexiko eta entziklopedia -EB(01)-*, (Deustuko Unibertsitatean aurkeztutako doktorego tesia), *Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia*, Udako Euskal Unibertsitatea, *Bizkaiko Arrantzaleen Hiztegia*, *Léxico Marinero Vizcaino - EB(02)*, Labayru Ikastegiak argitaratua, alegia.

Jakin badakigu badirela bidean kostaldeko beste herri batzuetako lan monografikoak. Laster ikusiko ditugulakoan gaude Pasaia, Mutriku, Lekeitio eta beste hainbat lekutako lanak.

Karmele Rotaetxe andreak landutako tesi lana, *Estudio estructural del euskera de Ondarroa*⁵, ere erreferentzia garrantzitsua izan dut. Rotaetxe andrearen tesi doktoralak makina bat irizpide ematen ditu ondarrutarraren inguruan. Hizkuntzaren ikuspegi estrukturaletik abiatuta egindako lan hau ekarpen txukuna da.

Itsasoa liburu bildumak ere ondo baino hobeto ematen digu arrantza munduaren dimentsioa. Liburu bilduma honetan itsas giroko makina bat gai lantzen dira.

⁵ Rotaetxe Amusatagi, Karmele. *Estudio estructural del euskera de Ondarroa* (1977) tesi doktora



Benetan da baliagarria hango terminologia zerrenda oparoa, haren mamia eta batez ere argazkiak, kanpo-lanerako egokiak izan zaizkidan argazkiak, alegia.

Lan solteak ugari dira gure inguruan; artikulua izan, hitz zerrenda soilak izan ... horretan aberatsak gara oso. Hori bildu egin behar baina, logika bat eman behar zaio, osotasun batean eskaintzeko ahalegina egin beharko genuke. Azken garaietan urrats garrantzitsuak ematen ari dira aipatutako azken honen karira. Hona hemen baina, itsas lexikoa bildu izan duten zenbait artikuluren aipu zerrenda. *Ondarroa* aldizkarian, esate baterako, oparo landu da gaia:

- (1985): "*Oiturazko arrantza, sistemas tradicionales de pesca*", *Ondarroa* 55-61 / (1986): "*Oiturazko arrantza, sistemas tradicionales de pesca*", *Ondarroa* 48-51/ (1988): "*Oiturazko arrantza, sistemas tradicionales de pesca*", *Ondarroa* 11-17. Ik. Bibliografia.

Esan beharrekoa da *Ondarroa* aldizkarian idatzi duten ondarrutarrek bestelako zenbait bakarkako lan ere argitaratuak dituztela; Andoni Basterretxeak – informante moduan izatearen atsegina zor diodana-, eta Jose Mari Etxaburu bezalako lagunak.

Karmel aldizkarian ere badira arrantza giroarekin zerikusia duten eta, bidenabar, honen lexikoaren erakusle diren hainbat artikulua eta entsaio: *Karmel* 1994-3, 36-42/*Karmel* 1990-2, 32-43 /*Karmel* 1994-3, 36-42 /*Karmel* 1990-2, 32-43/*Karmel*, 1987-3, 95-102.

Orain 8 urte Jose A. Eizagirre (Motrollo) deitzen zela –edo deitzen ziotela- aditzera eman zidan gizon batek deitu zidan eta berarekin txikito bat hartzera gonbidatu. Berak ba omen zituen, gaztetik berbak biltzeko zaletasuna zeukan aldetik, arrantzale garaietan orri zurietan apuntatzen joan zen hainbat hitz eta adiera.

Jose A. Eizagirre (Motrollo)k, eskuz idatzitako hitz zerrenda oparoa helarazi zidan orain 8 bat urte (ikus tesi-lana bera). Urteetan bildutako hitzak, haien gaztelerazko itzulpena eta bere erara emandako hainbat azalpen txukun gordetzen zituen altxorraren zaindari bihurtu ninduen –gorde ere horrela egiten dut, altxorrik kresalena bailitzan- Eskerrik asko, Jose A. Eizagirre (Motrollo).

Bestalde, etxeko izkutuko bazterren batean orain urte asko gordeta neukan beste



hitz zerrenda bat aurkitu nuen (**BZZ**). Ez dut jakiterik izan nork eman zidan – makinatutako fotokopiak ziren–. Orrietan agertzen den izenburu bera errespetatu dut “Berba Zaharren Zerrenda”, eta eskura izan ditudan bestelako materialei eman didan trataera bera eman diot honako honi ere.

Hauek denak euskaraz idatzitakoei dagokienez. Gaztelaniaz idatzitakoei begiradaxo bat emanda bi argitalpen azpimarratu nahi nituzke: Garmendiaren *Diccionario Marítimo Ilustrado Castellano-Vasco, Vasco-Castellano* eta Julian Amichen hiztegi entziklopedikoa. Garmendiaren *Diccionario Marítimo Ilustrado Castellano-Vasco, Vasco-Castellano* hiztegiak aparteko aipamena merezi du. Garmendia izan da gaiari monografia bat eskaini dion lehenengoetakoa. Hiztegiak dituen ilustrazioek ere sano erraztu didate egin behar izan ditudan galdetegietarako irudi eta argazki egokiak bilatzeko lana. Beste maila batean, Julian Amichen hiztegi entziklopedikoak ere (**Dok. J. Amich**), modu oso txukun batean bildu ditu arrantza lexikoaren gaineko deskripzio eta definizioak. Erkatze lanetarako zein dokumentazio lanerako material benetan interesgarria suertatu zait.

Piarres Lafitte Lapurtar idazlea ere aipatzekoa da lan honetan. Piarres Lafittek makina bat artikulua, idazlan, hitzaldi eta abar eman zituen argitara. Hauen bidez, garaiko euskararen gaineko lanketa anitza eta oparoa gauzatu zuen -batez ere Lapurdi, Zuberoa, eta Behe Nafarroako euskarari dagokionez-. Guk hemen bere bi lanen aipamena egingo dugu; 1941, *Vocabulaire français-basque*; 1953, *Lexique français-basque*. Aipatutako bi lanak aportazio garrantzitsuak izan ziren euskal lexikoari dagokionez.

1.1.5. EUSKARA BIZIAREN DOKUMENTAZIOA: CORPUSEN GARRANTZIA.

Orain arte ere corpusari garrantzia berezia eskaini diotena makinatxo bat lan egon da. Nik ere horrela egin dut nire lanean. Gaur egunerarte jaso den Ondarroako arrantza munduaren gaineko corpora oso murrizta da. Nahikoa testimoniala izan dela esango nuke nik. Hala ere, garrantzi handikoa deritzot corpus egoki eta luzeak bildu eta dokumentatzea. Agian oraindik asko faltako zaigu euskararen corpus handi bat biltzeko, baina bide horretan ahalegin handiago bat egin beharko



genukeelakoan nago. Corpus egokiak bildu ahal iateko –batez ere jakintza berezituari dagozkienak-, informatzaile egokiak behar dira derrigorrean. Eta urteak joan ahala, garai jakin bateko informazio egokia emateko gai diren pertsona geroz eta gutxiago geratzen dira. Geu ere nagusitzen ari gara. Ahozko euskararen corpora biltzea hizkuntzalarion lehentasunetako bat izan beharko litzateke.

1.1.5.1 Corpus berezien interesa.

Corpus berezituaren garrantzia: erabilera-eremu espezifiko baten hizkuntza ezaugarriak hobeto aztertzeke aukera ematen du.

Aztergaiak hizkuntzaren aztertze-eremu askotakoak izan daitezke: lexikoa, morfosintaxia, semantika, pragmatika, diskurtsoa... Nik, *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* tesian Ondarroako arrantzaleen itsas lexikoa dokumentatzeko baliagarria izan zaidan ezaugarrietako corpora bildu eta landu dut. Betiere ikuspegi etnolinguistikoko batetik abiatuta, baina helburu lexikografiko argi batekin: jakintza berezitua dokumentatu; hiztegi-elementuak diagnostikatu eta landu; hiztegi-gintza orokorrari zerbait ekarri; ondarrutarron hizkuntza-sistema aberastu; ezagutza partekatuaren oinarrietan sakondu.

Corpusa gure interesekoa den alorreko hizkuntza erabileraren adierazgarri izatea da horretarako ezinbesteko baldintza. Baldintza hori betetzen bada, hizkuntza erabilera edo aldaera horretaz eskura ditzakegun datuak aberatsagoak eta zehatzagoak izango dira corpus orokor batetik eskura ditzakegunak baino.

Corpusa, berez, ez da nolana bildutako testu multzo handi bat. Corpusak, hizkuntza datu adierazgarrietan oinarritutako deskribapenak egiteko, ondorioak ateratzeko edo hizkuntza tresnak eratzeko balio duen baliabide eraginkorra behar du izan.

Horretarako, zera da zehatzu behar dena:

- 1.– *corpusaren helburua*: corpora zeren adierazgarri izatea nahi den, zertarako nahi den, zein eduki mota bilatzen duen –kasu honetan, Ondarroako arrantzaleen eta arrantza munduarekin zerikusia duten pertsonen baliabide lexikalak jaso eta honen gaineko klasifikazio eta dokumentazio lan sakona egitea izan da helburu-.



2.- *corpusaren adierazgarritasuna*: corpusean biltzen diren testuen ezaugarriak eta datuak aztertuz helburuak ezarritako aztergairako ondorio fidagarriak atera ahal izatea. Helburuak corpusa zeren adierazgarri izatea nahi dugun mugatzen du.

Horretarako, honako gai hauek aztertu ditut:

A.- *kantitatea* (corpusaren tamaina): gehienetan, tamaina hitz-kopuruarekin lotzen da. Horrela, *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanean hainbat eta hainbat transkribatutako testu aurkezten ditut. Transkripzio hauek izan dira 1.300 sarreratik gora dokumentatzeko oinarria. Berez kopuru hotzak ez dira inola ere esanguratsuak. Hala ere, Ondarroako arrantza munduaren ikuspegi oinarrizko bat izateko nahikoa eta sobera dela deritzot. Egia da, gainontzeko beste hitzkuntz eremu bezala Ondarroako arrantzaleen mundu lexikala, nahiz eta geografikoki mugatua izan, sarrera lexikalei eta hauen adierei dagokienez infinitua dela – hizkuntzak bizirik dirauten bitartean hitz zein adiera berriz hornitzen joango baita-. Horrela, arrantza mundu horretan erabili ohi diren hitzen jasoketa zabal eta anitza ziurtatzea izan dut helburu. Aldez aurretik banekien hau bukaezina den lana dela, etengabea eta konstantea. Gaur harri bat ipiniko dugu eta bihar beste bat. Barrutiak (1996) dioen moduan, horrelakoetan hobeto izaten da motz baino zabal jokatzea, eta baliteke norbaitentzako berbaren bat sobera egotea; beste batzuentzako, agian, motzegi geratuko nintzen.

B.- *oreka*: corpus-diseinuan oreka lortzeak esan nahi du corpusean biltzen diren laginen tipologia, banaketa eta maiztasuna bat datozela errepresentatu nahi den populazioaren era bereko ezaugarriekin –kasu honetan, Ondarroako arrantza munduarekin zerikusia duten hainbat tipologia desberdinen jakintza lexikal eta entziklopedikoa biltzea izan da helburu; aipatu tipologoa hauek, normalean, lanbide espezifikoeekin – eginkizun eta funtzio desberdinekin– identifikatzen dira. Lanerako beharrekoak izan zaizkidan corpus espezifikoak bilatzen saiatu naiz. Ez baina ikuspegi koantitatibo soil batetik, batez ere elkarriketatuen eta hauen hizkuntza erabilera eta jakintzari erreparatu baitiot. *Ondarroako*



arrantzaleen lexikoa lanean bildutako corpora anitza da, arrantza mundua bera den bezain zabala. Denek dute hala ere zerikusi zuzena arrantza munduarekin.

Lanean aurkezten dudan corpus idatziaren helburua ez da inondik inora arau-emaile izatea. Aitzitik, corpusean hizkuntzaren errealitatea islatzea izan da helburu.

3.- *corpuserako euskarriak*: testu idatziak eta argitaratuak erabiltzeaz gain (Augustin Zubikarai, Txomin Agirre...), ahozko komunikazioari eman diot garrantzia handiena. Horrela, aurrean esandako irizpideei kasu egindako hainbat elkarrizketa eta grabazio ordu transkribatu ditut paperera. Hau modu egokian bermatu ahal izateko mota desberdinetako euskarriak erabili ditut:

A.- Arlo semantiko bakoitzari lotutako inkestak.

B.- Azalpen libreak emateko argazki bilduma zabalak.

C.- Azalpen libreak emateko gai eta komentario bildumak.

D.- Augustin Zubikaraik egindako lana erkatzeko inkesta berezituak.

E.- Aztertu nahi den lekuan, bertatik bertara, egindako elkarrizketak.

Euskara biziaren biltze lana eta honen tratamendua ere helburu du tesi lan honek, alegia, oraindik bizirik dirauen ahozko euskara jatorra biltzeak berak daukan garrantziaz oharturik, argi dago berandu gabiltzala hainbat arlotan. Ahozko euskara bildu eta dokumentatzeak lehen mailako garrantzia dauka. Batez ere, betiko galtzeko zorian dauden altxor asko ditugulako gure herri guztietan.

Euskarak betidanik izan dituen esparruak berreskuratzeko ahaleginean urrats bat ematen da tesi lan honetan: hizkuntza baten normalizazio soziolinguistiko eta linguistikorako garrantzia handia du esparruak irabazteak, edo gehiago ez galtzeak, bederen. Berez, ondarrutarra –edota ondarrutarrok egunerokoan darabilgun euskara-, oso hitzun gutxik osatutako diskurtso komunitatea da. Horretaz gain, historikoki itsasoarekin zerikusia izan duten hainbat esparruk eragin zuzen-zuzena izan dute egun darabilgun ondarrutarra osatze bidean –



fabrika, arrantza bera...-. Bereziki arrantza lanbideari lotuak egon dira hauek eta ekarpen handia egin diote ondarrutarraren corpus lexikalari.

Euskarak betidanik izan duen esparrua dela deritzot arrantzaleek egunero erabili ohi duten lexiko, ikuspegi etnografiko eta abarrak. Hala ere, Ondarroan kaletar garenontzako –arrantzale edo arrantza munduarekin zerikusirik ez daukagunok, alegia– aipatu erabilera esparru horretako erreperitorio lexikal eta linguistikoa behar baino arrotzagoa egiten zaigu. Egia da egon badaudela era lexikalizatuan eguneroko hizkeran geure egin ditugun hainbat hitz, termino eta lokuzio, baina oraindik mundu oso bat dago jaso, handik ikasi eta beraz baliatu ahal izateko.

Ondarroako arrantzaleek eguneroko jardunean darabilten Corpusa bildu, informazioaren berreskurapena eta honen erauzketa egitea ere izan da aurrean daukagun lanaren beste helburuetako bat.

1.1.6. LANAREN OINARRI NAGUSIAK

1. Arrantza mundurako baliabide lexikal berririk sortu ez eta hainbat hitz, lokuzio eta abar galtzeko zorian gaude.
2. Arrantza munduak izan duen eraldaketa prozesua eta bertokook darabilgun unibertso lexikalak ez dute garapen bera izan. Bata berritzailea izan da, indartsua, hurbileneko beharrei erantzuteko gai izan dena. Gure hizkuntza ordea, normalizatu gabea, eta erronka berriei aurre egiteko gaitasun gutxikoa.
3. Egoera honek eragin zuzen-zuzena dauka arrantza eremu zehatzetik haratago dagoen “kaletarron” aberastasun lexikalean. Arrazoi hauengatik eta beste hainbestegatik ere, benetan dela garrantzitsua deritzot gure herri arrantzaleetako hizkera bildu, landu eta gaurkotzeko egiten ari diren saio desberdinak indartu eta biderkatzea. *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lana, hau guztia gogoan izanda burutu da.
4. Lan honen helburua ez da izan hitz kopuru zehatz bat aurkeztea (ez asko, ezta gutxi ere). Hitz bakoitzaren atzean Ondarroan oinarritutako arrantza kulturaren azterketa etnolinguistikorako elementuak ekarri ditut.
5. Unitate kolektibo jakin bat aztertu nahi izan dut. Aktibitate



linguistiko komuna duten Ondarroako arrantza munduko eremu desberdinetako pertsonak *izenei*, ze *izan* ezartzen dioten bildu eta landu dut. Dokumentazio entziklopedikoa/etnografikoa eta geografikoak jasotzen dira bertan. Ondarroako arrantza munduan ari direnen jakintza berezitu hori nahi izan da dokumentatu.

6. Arrantza munduaren gaineko jakintza berezitu hori adierazi ahal izateko, hizkera berezituak sortzen dira, eta honekin batera lexiko berezituak. Lexiko berezitu hori dokumentatzea izan da lanaren beste helburuetako bat.

7. Hiztegi-berezituek, eragin zuzena dute hiztegian –orokorrean- eta hizkuntza-sistema gauzatzeko moduan. Egindako lanak, hizkuntza-sisteman era positiboan eragiteko bitarteko bat eskaintzen du (bai kuantitatiboki –hitz kopurua- zein kualitatiboki –hitz horien esanahia-).

8. Hizkuntza-sistemaren garapenean ezezik, hiztegi orokorretan zein partzialetan ere eragina izan lezake. Lanean, gaur egun arte sekula dokumentatu ez diren hainbat hitz agertzen dira, etorkizun batean, hiztegi arau-emaileraren baten tripetan erortzeko zain daudenak.

9. Aztergai izan dudana alorreko hizkuntza-erabileraren adierazgarri den corpusa bildu eta transkribatu dut.

10. Ikerketa honetan zehar jasotako corpusak bi helburu desberdin ditu: alde batetik azterketa iturri da, testu hauetaz baliatu naiz interesatzen zaizkidan hitzak bildu, testuingurua ulertu eta azalpenak emateko. Baina, bestalde, lanean jasotako corpusa bera berez bilakatu da helburu. Jasotakoak beste hainbat ikerketa desberdini zabaltzen dizkio ateak: hainbat grabazio ordutako testigantza idatzia herriaren berezko ondarea da. Horrela, corpusa ere lanari atxikituko diot, modu horretara, hitzaren esanahia hobeto eta era zehatzagoan ulertzeko aukera izango du hala nahi duenak.

Hona hemen Gotzon Garate lagunak bere *Erdarakadak* argitalpenaren sarreran idatzi zuena. Garai batean izandako kezkek oraingoak ere badirela baieztatzen



ditut:

Azken denborotan, euskaraz hobeki ikasteko, liburu klasiko-zaharretara jotzen dugu. Oso ongi. Ez da aski, baina. Gutxi idatzi dugu. Liburuetan, zoritxarrez, ez dago jasorik herriak erabili duen eta egun erabiltzen duen zatitxo tipia baizik. Hondikotz, asko galdu dugu... Bildu gabe dagoen eta jendearen ahotan dagoen altxorra jaso beharra dago. Zoaz, beraz, euskaltzale, baserrietan gaindi, hel zaitez mendiko sakanetara eta batu euskaldunen aberastasunak. Galderak egin jende zaharrari, ahal den zaharrenei, erdaraz gaizki eta euskaraz ongi mintzatzen, gauzak euskaraz ikusi eta burutan euskaraz irauli-biribildu egiten dutenei. Euskal hitz, esaldi, esamolde eta atsotitz bakoitza harribitxia bezala jaso, gorde, maite, erabili beharko genuke. Herriak darabiltzan hitzak baztertzea geure burua murriztu, maxkaldu eta ahultzea da. Landarbason 24.000 urteko giza hondakinak aurkitu ditugula eta pozik. Ez ote dute askoz gehiago balio oraindik bizirik baina herrietan izkutaturik dauden euskarazko hezurak? Egun jasotzen ez badugu, bihar galdua izango da. Herri bakoitzean egin beharko genuke lan hau eta gero, lanaren kopia bat Euskaltzaindiara igorri.⁶

Hala ere, beste ezertaz aritu baino lehen, jakin dezagun zein den ikerketaren testuingurua, ikus dezagun, azaletik bada ere, Ondarroaren gaineko zenbait ezaugarri. Ziur nago era horretara, behin ingurune geografiko zehatzean kokatu ondoren, errazago izango zaigula datozen orrialdeetan dagoenari punta zorroztea.

1.1.7. ONDARROARI BURUZKOAK:

Ondarroa, kokapena.

- **Lurralde historikoa:** Bizkaia
Eskualdea: Lea-Artibai
Luze-zabalera: 3,6 Km²
Kokapen geografikoa: 43° 19' 50" I eta 2° 25' 40" M

⁶ ERDARAKADAK. Euskaraz ongi mintzatzeko hiztegia. Zazpi probintzietako adibideak. Gotzon Garate Gero Euskal Liburuak 1988



Ondarroa Bizkaiko kostaldean dago, Gipuzkoa herrialdearekin muga egiten. Herri osoa zeharkatu ostean, Artibai ibaia Ondarroan itsasoratzen da. Ondarroa oso lur maldatsu batean kokatua dago. Kostaldea harkaitzez jositako itsas-labarra da; haitz guztietatik aipagarrienetakoa Fraile haitza da. Barruko aldera eginez gero, ostera, mendi-tontor hauek aurkituko ditugu: Arrigorri (158 m.), Santa Kutz (336 m.), Arrikuntzalde (400 m.), Pertika, Kalamendi (314 m.), Urzelai (212 m.) eta Mustutxurru (147 m.). Lehen, Berriatua udalerria (19,85 Km²) Ondarroa barruan egon zen 1974 urtetik, eta geroago, 1983an desanexionatu zen.

Artibai da ibai nagusia, Oitz mendibularreko iturburutik datorrena. Ibaiak dakarren urak hain lur sendoa zeharkatu behar duenez, bidea irekitzearekin batera ibar estu bat sortuz doa itsasora datorrenera arte. Ibaiak Zaldu eta Amalloa erreka txikiek isuritako urak hartzen ditu. Itsasoratu baino lehen badia txiki bat sortzen da, eta bertako zati batean kokatzen da Ondarroako Portua.

1996ko Biztanleen erroldako datuen arabera, 10.246 biztanle daude herrian. 2000ko urtarrilaren 1eko datuen arabera, 9.925. Biztanleria jaisten doa. 1960-1970 bitartean %31n hazi zen biztanleria; aurreko hamarkadako hazkundea ostera, %16koa izan zen. 1970az geroztik egonkortu egin zen biztanle kopurua, izan ere 1970-1975 urte bitartean batez besteko hazkundea %4 besterik ez baitzen izan. 12.150 bizilagunetako errolda egon zen 1981ean, eta handik aurrera joera beheranzkoa izan da eten barik, Bizkaia osoan bezala, baina hemen are nabarmenagoa, arrantza sektorearen gainbeheraren eraginagatik.

Honekin batera, Euskal Herriratu diren etorkinen kopurua ere kontuan hartzeko gauza da. Bizkaian, orokorrean, hiru aldi nagusi bereiz daitezke argi asko: 1975. urtea bitarte, migrazio saldo oso positiboa izan zuen garai honetan Bizkaiko demografiak –industrializazio garaiaren eraginez, hain zuzen ere-. 185.883 lagun baino gehiago izan ziren 1960-1975 bitartean Bizkaira etorritakoak bertatik joandakoak baino. XX. mendeko azken laurdenean, berriz, saldo negatiboa izan da nagusi Bizkaian. 118.062 lagun gehiago izan ziren 1975-2001 bitartean Bizkaia utzi zutenak, kanpotik etorritakoak baino. 2001 urtetik 2005era, azkenik, berriro ere gehiago izan dira herrialde horietara etorritakoak horietatik kanpora joandakoak



baino: 6.222 gehiago, alegia⁷.

Gaur egun, Afrika eta Latinoamerika jatorri duten etorkinak dira migrazio mugimendu nagusienak eragiten dituztenak. Ondarroan ere horrela gertatzen da. Senegaldarrak diren hainbat herritar daude gaur egun gure herrian. Makinatxo bat dira beren herrietan duten giza-baldintza okerrei gain hartu eta gure kostaldeko lanak deituta bertaratu direnak.

Hona hemen zenbait datu orokor:

	<i>Populaz.</i>	<i>Ondarroan jaiok</i>	<i>Estatu Espainoletik etor.</i>	<i>%</i>	<i>Estatu Espainoletik kanpo</i>	<i>%</i>	<i>Guztira %</i>
Ond.	9.642	8.075	965	10,01	602	6,24	16,25

2004ko
datuak

Esan beharrik ez dago, atzerritarren etorrera honek aldaketa sakonak eragiten ari dela gure herrietan. Inmigrazio prozesuek sortu ohi dituzten aukera eta arazo ohikoez gain, oraindik ez gara gai ikusteko honek guztiak nola eragingo duen Euskal Herriko errealitatean, bereziki kultur eta hizkuntza esparruetan.

Ondarroako ekonomian lehen sektorea da nagusi. Nagusitasun hori arrantzatik dator, arrantza baita beste jarduera guztiak baino pisu handiagoa hartzen duena; lehen sektoreko jarduera guztiak kontuan izanda ere nekazaritza eta abeltzaintza %8a besterik ez dira. Arrantzak berak garrantzia eduki ezezik bere inguruan sortutako beste jarduera batzuk ere aipatu behar ditugu, batetik, zuzenean arrantzari lotuta daudenak, esate baterako: kontserbagintza, eta bestetik, zuzenean ez bada ere haren itzalpean sortutako lantegiak, metalgintza eta tailerrak, hain zuzen. Zerbitzu sektorea bera ere administrazio arloa izan ezik, arrantzari nahiko lotuta agertzen zaigu, herriko arrantzaleen erakundeak eta antzekoak horren adibide dira.

⁷ EUSKAL HERRIA datuen talaiatik 2006. Txalaparta



Arrantza sektorea

Ondarroa herri arrantzalea izan da beti. 1327an hiria sortu zeneko agirian ere hala agertzen zen. Arrantzaleek elkartzeko joera eduki dute, belaunaldiz belaunaldi. Santa klara arrantzaleen kofradia aspaldiko elkarte da, baina ez dago zehazterik zein urtetan sortu zen, batzuen ustez, 1400 urte inguruan sortu zen. 1909an kofradia bi ezagutu ziren, arrantzarekin zerikusirik ez zeukaten iskanbilengatik kofradiako lagunak sakabanatu eta, ondorioz, bigarrena sortu zutelako, San Pedro izenekoa. Baina biak elkartu ziren berriro 1927an, Santa Klara kofradia bakarrean.

Herriko arrantza mota bakarra 1935a arte baxurako arrantza izan da, handik aurrera hasi zen alturako arrantzan, eta 1940an garrantzi handia hartu zuen.

Ondarroako portuak. Arrantzarako portua da, zalantza barik, eta arrantzaren nagusitasuna nabaritu egiten da herritar asko ari direlako arrantzarekin lotutako lanetan (untzijabeak, mekanikariak, lemazainak, makinetako ofizialak, e.a.). Arrazoi beragatik, merkantzia trafikoa, berez, oso gutxi da.

Industri sektorea

Azpimarratu behar dugu arrantza jardueraren menpe daudela industri jarduera gehienak, nahikoa da lantegietako jardueren zerrendari begiratzea horretaz konturatzeko, oro har, kontserbak eta elikagaiak ekoizten dituzte lantegi gehienek; Freskoan saltzen diren arrain guztiez gain, kontserbagintzan, arrainen gaziketa eta izozketa dira aipagarrienak.

Beste batzuk ere aipatzeko modukoak dira: metalurgia, untziak konpontzeko tailerrak, galdategi txikiak, izotz-fabrikak, eta abar. Ondarroako herriaren erdian daude industria gehienak, eta besteak berriz, Berriatuako herrian, Gardotza industrialdean.

1.2 ONDARROAKO ARRANTZALEEN LEXIKOA:

1.2.1 LAN METODOLOGIA:

1.2.1.1 Datu-bilketa



Egindako lanari eusteko aurreneko eginkizuna, oinarritzko materiala pilatu eta bilatzen dudana helburuen arabera antolatu eta prestatzea izan da. Materialaz ari garenean, alde batetik, elkarrizketetan erabili behar izan ditudan galdetegiak antolatzeko materialaz ari naiz (bibliografia materiala/ testu idatziak/ aldizkariak/ aldeztatik egindako bildumak jaso ...), eta bestetik; lanaren helburuekin bat datozen informanteak aurkitu eta haiekin harremanetan jarri behar izan nahiz (lehenengo kontaktuan, nire asmoen berri eman eta haien adostasuna izateko)

1.2.1.2 elkarrizketak

Elkarrizketak izan dira informazioa eta datuak batzeko erabili dudana bitarteko nagusia. Elkarrizketak, berenbereziki prestatutako inkesten bidez egin dira. Inkesta hauek elkarrizketaren oinarri izan badira ere, behin elkarrizketan hasiz gero beste hainbat gauza ateratzen dira –bata bestearen atzean-. Horrela, inkestak elkarrizketaren abiapuntu izan dira, galdera zehatzetarako baino azalpen luzeagoetarako aukera ematen duten elkarrizketa eredu bidez aritu izan naiz. Elkarrizketek, ordu bat edo ordu bat erdiko iraupena izan dute, gehienez.

Bestalde, hitz jakinen gaineko informazioa biltze aldera, hitz zerrenda berezituak –gaika antolatuak- ere erabili izan ditut.

Beste hainbat kasutan, askotako argazki bildumak erabili izan ditut han agertzen diren irudietako hitzak deskribatu eta haien esanahian sakontzeko.

1.2.1.3 galdetegi motak

Bi galdetegi mota izan ditut eskura: galdetegi orokorrak eta galdetegi zehatzak.

Galdetegi orokorrak. Normalean, gai zehatz bat hartu –arrantza mota bat, arrainak, txaluparen zatiak...- eta gai honen inguruko ahalik eta informazio zabalen bilatzea izan da nire helburu (ez soilik ikuspegi lexikografiko batetik, jakintza etnolinguistikoan sakontzea ere bilatu dut).

Galdetegi zehatzak: galdetegi zehazetan, normalean, aurreko elkarrizketatik argi geratu ez diren gauzak bildu izan ohi ditut – etxera bueltatu eta gauzak txukundu ostean beti geratzen diren zalantzak argitzeko-.

Bestalde, Augustin Zubikaraik urteetan jasotakoa erkatzeko inkesta berezituaz,



espezifikoz baliatu naiz.

Bestalde, honi guztiari modu egokian eusteko Euskaltzaindiaren Hizkuntz Atlaserako erabili zen inkesta metodologiak ere kontuan izan ditut⁸.

1.2.1.4 grabazioak

Elkarrizketak 60 eta 90 minutuko zintetan daude grabatuta. Corpus idatziaren oinarria informanterekin izandako hainbat elkarrizketaren grabazioak dira. Zinta hauetan dago jasota laneko corpus guztia. Zinten azaletan honako informazio hau ematen da:

1. informantearen izen-abizenak
2. elkarrizketa izan zeneko data
3. elkarrizketa gaia zein den
4. ze luzerako zinta den (60 edo 90 minutukoa)

1.2.1.5 Datuen azterketa

Behin elkarrizketak grabatu ondoren, datu-hustuketaren garaia izan da. Horretarako, lehenengo eta behin, elkarrizketetan esandakoa transkribatu dut.

1.2.1.6 Transkripzioak:

Orain arte honelako lanetan erabili den transkripzio ereduari jarraitu diot. Oraindik modu desberdinetan ager daitekeen eta zehaztu ez den eredu honi Barandiaranek⁹ eman zion hasiera bere etnografia lanetan. Batzuek “semifonetikoa” edo erdi-fonetikoa deitu diote. Izen bat eman behar bazaio, “pertzepzio transkripzioa” dela esango nuke. Pertzepzio hutsez eta hizkuntzaren eguneroko alfabetoa erabiliz (gehiketaren batekin inoiz) bereizteko gai den soinuak irudikatzen ahalegintzen dena.

⁸ Aurrekoetxea, Gotzon (1986): “*Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA): Inkesta Metodologia eta Ezezko Datuak*”, *Euskera* XXXI (1986, 2).

⁹ Barandiaran, Joxemi (1985): *Etnografiatzko Galdeketa Batetarako Gidaliburua eta Berriemailearen*



Lan honetan agertzen den transkripzio motak ez du balio euskara idatzirako eredu moduan.

Orain arte egin diren transkripzioek, bakoitzak eredu desberdin bati egiten diote kasu. Ez dago ahozko euskara transkribatzeko era bateraturik. Aurrean daukagun lan honetan, hiztunaren ahoskerari egin diot kasu eta era horretara transkribatu ditut sarrerak eta hauen inguruko komentarioak. Egia da ere, hiztegiko sarrera-hitzei dagokienean, azken unera arte izan dudala gogoia irakurgarritasunaren eta ulergarritasunaren izenean txukunketak egin eta elkarrizketatuek esandako moldea zertxobait aldatuta aurkeztea. Ez dut egin hori, ordea. Aurrean aipatu dudan moduan, elkarrizketatuak esandakoari eta esandako moduari al bait zuzenen lotu natzaio.

Honako hauek dira transkribatzean kontuan izan ditudan irizpide orokorrak:

.- Bokaletan, euskalki gehienetan gertatzen den sistema berbera daukagu; hots, bost bokale ahokari: i,e,a,o,u. Eta hiru irekidura maila: "i" eta "u" itxiak, "e" eta "o" erdikoak eta "a" irekia.

.- Bigarren elementutzat "i" duten diptongoak (ai, ei, oi), bizkaieraren hurrengo kontsonantea bustiz desagertu egiten dira: *Noiz* > *nox/Gaitz* > *gatx*

Aurkeztutako lanean sarri ditugu horrelako kasuak, eta batez ere kasu behatz bat: *arra(i)n*, diptongo hau, hurrengo kontsonantea bustiz desagertu egiten da, nahiz eta sarri benetan den zaila ea guztiz desagertzen den edo ez zehaztea, izan ere, hau, hiztun bakoitzaren arabera izango baita. Nik burututako elkarrizketetan denetako aukerak aurkitu ditut: *Arraiñ* / *Arra(i)ñ*, batez ere gero bokal batek jarraituko badio, *Arra(ñ)*

Elkarrizketen transkripzioak egiterakoan, entzundakoari fidela izateaz gain, elkarrizketatu bakoitzak esandako moduan saiatu nahiz bertan zehazten.

.- bokal erkaketa



. Era honetara transkribatu ditut ; -a +a > -i / -e +a > -i /-i + a > -ixe > arrixe / -u +a > buró

.- /j/ fonema [x] –belarea- ahoskatzen da: *jausi / jarri / jun / jan* .

.- /t/ren palatalizazioa "tx" eran ematen da: haitz > atx (*atxeta jun*) / *maitatu* > *matxetu*

.- bustidura: oro har bustidurak egiteko joera nabarmena dauka ondarrutarrak. Aipagarriena -tx hots bustiaren nagusitasuna da zalantzarik gabe -t naiz tz-ren sabaikaritzeak berau sortzen dute-. Hitz amaieran, hala ere, ez dago bustidura joerarik.

Diakroniaz ohartxo bat: Lehenik, tt > tx bilakabidea aipagarria da. Urte asko ez dela, Ondarroako hizkeran t > tt bilakabidea bizirik zegoen. *aittitte* eta *atte* erabiltzen zen lehen, *aitxitxe* eta *atxe* aldiz gaur egun.

.- Ondarroan /h/ ez da ahoskatzen, hortaz, ez da markatu.

.- Elkarriketatuek esan didatena transkribatzean lotura kontsonantikoei eman diedan trataera informanteak berak esandakoaren araberakoa izan da, horrela, kasu gehienetan lotura kontsonantikoak –Ondarrutarrean ohikoa den legez– batuta eman ditut.

.- azentua: azentuari garrantzia berezia eman diot. Ondarrutarrez –bizkaieraz egiten dugun gehienon antzera– azentua elementu bereizlea da. *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanean agertzen diren sarrera lexikal guztiek daukate azentua markatuta. Hona hemen azentuari buruzko zenbait argibide.

▪ Berbak bereizteko erabiltzen da.

Astú (= astoa)-*ástu* (= ahantzi, ahaztu)

Góra (=nora)-*gorá!* (=biba!)

Zártu, sártu (=zahartu)-*sartú* (=sartu)

Astéko (=asteko) - *ásteko* (=asteko)



- Singularrak eta pluralak bereizteko balio du: *umí / úmik* (pl.)
- Ondarroako hizkeran, absolutibo singularrean, hitz gehienek patroï prosodiko berbera erakusten dute: tonua bigarren silaban goratzen da (edo lehen silaban hitza bisilabaduna bada), eta azkenaurrekoan beheratzen. Hitz batzuetan, aldiz, goiko tonua azken silabaraino mantentzen da: *an **di** xe / a **lan** bri /bru **so** la*
- Hitz markatugabeak, talde prosodikoaren erdian daudenean, goiko mailan ahoskatzen dira, prominentziarik gabe inongo silabatan.
- Hitz markatugabeek ez dute berez azenturik. Azentua talde prosodikoaren mailako azentua da, galdegaiaren azentua, hain zuzen ere; eta ez azentu lexikoa.
- Aldiz, hitz markatuak azentu batekin agertzen dira beti, esan bezala, ingurune guztietan. Azentu lexikoa hitzaren azkenaurreko silabara mugitzen da.
- Oinarri markatugabeekin singularra eta plurala bereizten dira azentuaren aldetik, pluralezko morfemak azentudunak baitira. Oinarri markatuekin, aldiz, ez dago bereizketarik.
- Ondarroan, azentu bereizgarria erabiltzen da forma bikoiztuak ezberdintzeko: *aréntzat /árentzat*

1.2.1.7 Hiztegia klasifikatu eta informatizatu.

Elkarrizketak transkribatu ondoren, arrantza munduarekin zerikusia daukaten hitzak ACCES datu base batean antolatu ditut. Behin antolaketa bukatu ondoren, sarrera bakoitzaren gaineko informazioa eta zehaztasunen bila aritu naiz –honi guztiari buruzko informazioa *hiztegia* berari dagokion atalean-. ACCES datu basean sarerako unitate lexikala onetsi dut. Gainontzeko informazio guztia honen arabera antolatua dago. Ahal ere, beste hainbat azpi-atal ditu antolatutako datu baseak. Antolatutako azpi-atalak *fitxa teknikoan* agertzen diren berak dira, hau da: sarrera zenbakia/ elkarrizketatuaren izen-abizenak/kategoria gramatikala/ sinonimoak/ definizioak/ lokuzioak/ iturri desberdinetako dokumentazioak (R.M^a. Azkue - Eneko Barrutia- Augustin Zubikarai- Mitxelena- Ibon Sarasola-



Julian Amich)/ zitak/ hizkuntza desberdinetan (ingeles- frantsez- latinez) / Hiztegi Batuan bai ala ez/ sailak (20 sail desberdin)/ oharrak.

Modu honetara erkaketa maila desberdinak landu ditzaket.

1.2.1.8 CD-ROMa, edukiak

Tesi lanaren aurreko orrian CD-ROM bat gehitu dut. CD-ROM honetan informante bakoitzarekin izandako saioen audio grabazioa dago.

1.2.2 LEXIKOGRAFIA:

1.2.2.1 Hiztegiaren ezaugarriak

Hiztegiaren mugak

Hiztegiaren sarrerari dagokionez, ez da lan samurra izan corpusa ondo mugatzea. Sarri suertatzen dira zalantzak berba jakin batek lekurik ba ote duen hiztegitxo honetan edo ez... horrelako kasu gehienetan sartzearen aldeko hautua egin dut, beti ere, arrantzako mundu lexikal hain aberats horretan esangurarik baldin badauka.

Honekin batera esan behar dena da lan hau ez dela inola ere lan bukatua. Edozein hiztegik, historiako une batera arte izandako sarrerak jasotzen ditu, baina zientzia guztiak dira dinamikoak, baita zientzia hauek ikertzen dituzten gaiak ere, eta zer esanik ez lexikografikoa bera. Ziur nago zenbait hitz jasotzeke geratu direla, eta beste hainbatek lanketa sakonagoa mereziko dutela. Lan honen helburua ez da izan zerbait borobila eta bukatua aurkeztea, beste arrazoi batzuen artean, ezinezkoa delako hori horrela egitea. Nik matazaren ari puntari tira egin diot, nahi duenak jarrai dezala bertatik tiratzen.

1.2.2.2 Ondarroako arrantzaleen lexikoa: hiztegia

Hiztegigintza eta lexikogintza bereizi egiten dira normalean. Hiztegiek ez dute lexikogintzarik edo lexiko-sorkuntzarik beren helburutzat: Lexikoa biltzea eta kodifikatzea dute beren xede soila. Esku artean daukagun hiztegi hau, berriz, neurri handi batean sortzailea ere bada: lexikogintza edo lexiko-sorkuntza eta hiztegigintza batean daramatzate. Arrazoiak honako hauek dira, besteak beste: gai



berezituez ezer gutxi idatzi eta jaso da euskaraz, eta, beraz, teknolektoak eta lexiko tekniko-berezituak landu gabe daude.

1.2.2.3 Hiztegi orokorrak eta Hiztegi bereziak¹⁰

Hiztegi orokorra da hizkuntz komunitate jakin baten lexiko-multzo osoa kontutan hartzen duena; hiztegi berezitua, berriz, hizkuntz komunitateko hizkera bereziren baten lexiko-multzoa kontutan hartzen duena. Hizkera berezi horiek izan daitezke, ordea, maila edo alor ezberdinetakoak: dialektoa, edo leku geografiko jakin batetan erabiltzen dena; soziolektoa, edo gizarteko klase edo maila jakinean erabiltzen dena; teknolektoa, edo arte, zientzia, teknika edo bestelako jakintzaren batean erabiltzen den hizkera berezia eta lexiko teknikoa.

Ondarroako arrantzaleen lexikoa hiztegi berezitua da, Ondarroako arrantza munduan erabili ohi dena, alegia.

Sarritan ez da mola ere erraza lexiko orokorra edo arrunta eta lexiko tekniko-berezitua banatzen, hau gero eta gehiago, batez ere komunikabide sozialen bidez, hizkera arruntean sartzen han delako. Eta lexiko arruntaren eta teknikoaren artean badago tarteko hizkera eta lexiko modu bat, bi haiek lotzen dituen.

1.2.2.4 Hiztegi entziklopedikoak, linguistikoak¹¹

Hiztegiko sarreraren edukinari begira, bi hiztegi mota bereiz daitezke: *Hiztegi entziklopedikoak* edo gauzen hiztegiak; *hiztegi linguistikoak* edo hizkuntzaren hiztegiak.

Hiztegi entziklopedikoa esaten dugunean, ez dugu adierazi nahi jakintza guztiak biltzen dituen. Entziklopedia orokorra izango litzateke. *Hiztegi entziklopedikoak*, ordea, zera adierazten du: Hiztegiko artikuluburuetak hitzen inguruan azalpen linguistikoak (semantikoa, sintaktikoa, fonetikoa, ortografikoa, paradigmaticoa, etab.) emateaz (edo sarritan horietan batera luzatu gabe), gaiaren beraren azalpena egiten duena, jakintzaren gaurko egoeraren puntua emanaz eta agertuz.

¹⁰ *Hiztegi Tekniko-Berezituak. UZEIren Hiztegiak* - Paulo Agirrebaltzategi

¹¹ *Hiztegi Tekniko-Berezituak. UZEIren Hiztegiak* - Paulo Agirrebaltzategi



Hiztegi linguistikoa, berriz, hitzaren –sarreraren– alderdi linguistikoan finkatzen da: semantikoa (definizioa edo itzulpena), gramatikala, sintagmatikoa (hitzaren erabilera eta lekua perpausaren barruan), paradigmaticoa (hitzaren sinonimoak, antonimoak, etab.).

Ondarroako arrantzaleen lexikoa lanean biak izan ditut helburu eta langai, bai entziklopedikoa zein linguistikoa. Horrela, modu osatuago batean eman nahi izan dut bildutakoaren berri. Horrela egiteak badu hainbat abantaila. Hasteko, alderdi etnografiko zein entziklopedikoak indarra hartzen du. Gainera, berba askok eta askok, ezezagunak izanda, beste batzuen inguruan zentzua hartzen dute. Azkenik, atalez ataleko azterketak edo bilketa-lanak egiteko erraztasunak ematen ditu

1.2.2.5 Hiztegiaren gainestruktura eta mikroestruktura

Bestalde, edozein hiztegi kontuan hartzeko moduko bi gai nagusi ditu. Alde batetik hiztegia beraren gainestruktura: unitate lexikoen ordenamendua aintzat hartzen duena. Eta bigarrena, unitate lexikalen adiera eta esanahiak kontuan hartuko dituen edo hiztegiaren mikroestruktura¹².

Lehenengoari dagokionez –hiztegiaren gainestruktura, alegia- bi mota desberdin uztartzea dela egokiena iruditu zait. Horrela, hiztegirako unitate lexikalak antolatzeko unean irizpide *bertikala* eta *taldekakoa* kontuan izan eta horrela antolatu ditut. Antolamendu *bertikala* ohikoena da: alfabetikoki antolatutako unitate lexikalak zerrendatu. Honek erraztasun handia ematen du bai hiztegia bera lantzeko unean, baita kontsulta lanetarako ere. Taldekako antolamenduari dagokionez, hauek kanpo semantikoka antolatzen dira. Hau da, eremu jakin batean izandako esperientziak determinatzen du antolamendu hau; eremu jakin bateko jakintza hori erreferentzia izanda, honen barnean agertzen diren beste hainbat azpisailen arabera antolaketa egin dut¹³.

Bi antolamendu hauek uztargarriak direla uste izan dut: bertikala (alfabetikoa) eta

¹² *Lexicografía española*; A. Medina, Ariel, 2003.

Lexicography; Jackson, Routledge, 2002

¹³ *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* hiztegian, **saila** atalaren bidez adieraziko dut *taldekako* antolamendua.



taldekakoa (sail edo eremu semantiko espezifikoen arabera). Beti ere, ahalik eta informazio gehien, erabilgarrien eta aurretik aipatutako helburuak erdiesteko eraginkorrena bilatzea asmo duen antolamendua bilatu dut.

1.2.2.6 Elebitasuna

Nire helburua hitzak euskaraz ematea izan da, eta ez gaztelaniaz edo eta beste hizkuntzaren batean. Hala ere, arazo batzuk planteatzen dira batzuetan, bi hizkuntzen erabilera eta funtzioak gurutzatu egiten direlako. Horrela, gaztelaniazko zenbait hitz eta termino ere sartu egin ditut. Informanteak gaztelaniaz esandako hitzak eta esaldiak ere dauden-daudenean transkribatu ditut. Hauetako hainbat hitz era lexikalizatuan pasatu dira arrantzaleen hizkerara.

Hiztegiaren mikrostrukturari dagokionez, unitate lexikalaren hausnarketa egiteko egokiak iruditu zaizkidan parametro guztiak hartu ditut aintzat. Hona hemen unitate lexikal bakoitzarentzako erabili dudan erreferentzia fitxa, fitxa teknikoa alegia.



Aldez aurretik aipatu behar dena zera da, behean azalduko ditudanek nire irizpide jakin eta arbitrario bati baino ez diotela erantzuten. Seguruenik egongo da beste norbait bestelako antolamendu edo eta erreferentzia parametroak kontuan izango lituzkeena. Hona hemen, hitzen fitxa teknikoan jaso ditudan oinarriak eta hauen gaineko zenbait zehaztasun gehigarri.

1. sarrera hitza:

- Berben sarrera burua letra lodiz ematen da.

.- **abixói** (*Atherina presbyter*)

- Sarrera arrain izenen bat edo itsas-animaliaren baten izena baldin bada, latinezko hitz zientifikoari ere emango zaio sarrera.

.- **Sarrera 1: abakándo//abakandú:** (*Homarus gammarus*)

- Esku artean daukagun lanean, sarrera hitzak elkarrizketatuek beraiek emandako forma zehatza errespetatuta adierazi dira. Aurretik ere aipatu dut hiztegi honen helburua ez dela arau-emailea. Aitzitik, horrelako lanen bidez, tankera honetako lexiko pilaketatik abiatuz bai eman daitezkeela urratsak erabilera bat edo beste arautu eta arestian esandako jakintza konpartitu horretarako zubi lana egiteko. Horrela, nahiz eta sarrerak irizpide fonetiko/fonologikoak kontuan edukita antolatu, bildutako sarrerei –behar denean-, hauen forma etimologikoa edo ahal den estandarrena ere gehitu egin diet. Honek, hiztegiaren kontsulta lanak errazteaz gain, sarreren ulergarritasunari ere laguntzen diola uste dut.

Sarrera 4: aberia: aberíxa//aberixí

Badakigu, lexikografia araei era zorrotz eta zurrunean kasu eginez gero, hiztegi honetako sarrerek hots bakunak baino ez lituzketela bildu beharko. Hala ere, hiztegi honetan forma konplexuagoko esaldiei ere tartetxo bat utzi diegu.

Euskal hiztegi guztien usadioari kasu eginda, sarrera nagusi baten



azpi sarrerak, edota, hitz nagusi hori oinarri duten sintagma konplexuak ditugunean, sarrera hitz nagusi horren azpi-hitz bat izango balitz moduan landu dut. Hauek hitz larriz eta sarrera hitz nagusiaren azpian adierazi ditut. Dena dela, erabilera berezia edo propioa duten azpi-sarrerak agertzen direnean, hauei, berezko sarrera eman diet.

.- Sarrera 2: abant: abánte

.- 2.1: ABÁNTE LÍBRE

- Mugagabeak ezezik, forma mugatuak ere aurkezten ahalegindu naiz. Hitzaren gaineko informazio gehigarria emateaz gain – ahoskera, entonazioa...-, morfologian eman daitezkeen moldaketen berri ematea da honen helburua.

.- abario: abaríxo//abarixú (*Pollachius pollachius*)

- Hiztegian atzizkiak ere kontuan hartu ditut, baita hauen arabera aditzaren era burutuarekin lotzen dituztenak ere.

.- saregille // saregilli

- **Azentua:** *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanean agertzen diren sarrera lexikal guztiek daukate azentua markatuta. Aurretik ere adierazi dugu, bizkaierari dagokionez, azentua dela elementu bereizle nagusia. Azentuaren bidez desberdinduko ditugu sing./pl.-ak, erakusleak, lexema bat edo beste –ikuspegi semantiko batetik ere... Hori dela eta, benetan garrantzitsua dela deritzot ematen diren sarrera desberdinak ze silabetan azentuatzen diren jakitea.
- **sarrera zenbakia:** egindako bilanaren ondoren derrigorra da izandako sarreraren balio kuantitatiboa ere kontuan hartzea. Nola edo hala, aurrean dugun lanaren bertuteetako bat bildu eta dokumentatutako sarrera kopurua bera ere bada. Hiztegiko hitz bakoitzak, sarrera zenbaki propio bat dauka. Modu honetara bai kopurua zein sarreraren ordena ere zehaztu ahal da.



.- Sarrera 14: aigúra//aingurí

14.01 AINGURATÓKI

2. elkarrizketatua: (Elkarrizk.: formarekin adierazi dut)

Informanteak modu egoki batean sailkatzea garrantzitsua da. Sailkapen honek, laburduren bidez elkarrizketatua zein den modu arinean identifikatzeko aukera eman behar du. Hona hemen hiztegia lagundu didaten informanteak zeintzuk izan diren adierazteko erabili ditudan laburdurak .-Ikus *laburdurak* atala.-:

- (AA) Agustin Arantzamendi
- (AB) Andoni Basterretxea
- (AO) Agurtzane Osa
- (AZ) Augustin Zubikarai
- (BL) Boni Laka
- (DE) Doroteo Etxaburu
- (DM) Domeka Markuerkiaga
- (JM) Jose Mari Ibazeta
- (M) Jose A. Eizagirre (Motrollo)
- (N/I) Nekane Akarregi / Itsaso Beitia
- (PE) Patxi Etxaburu
- (T/B) Trini Larrañaga / Begoña Arauko
- (ME) Mikel Etxaburu

Informatzaileak

1. Boni Laka Iturriza: 1928 urtean jaioa. Bera ibilitako enbarkazio batzuk:



Estrellita (kostan ibiltzen ziren bolintxean, 48an zerbitzura joan arte bertan ibili ziren) / *San Rafael* (atunetan ibiltzen ziren) / *Sagrada Familia* / *Bizkargi* / *Nuevo monte Bizkargi*. Informante bikaina.

2. **Andoni Basterretxea:** Don Andoni Basterretxea 1914ko urtarrilaren 17an jaio da. Abade egin zen Ondarrutar hau. Soldadu 36-39 urteetan Zeutan, abade egin eta seminaria joan zen irakasle. Dozena bat urte egin horretan, eta misioetara: Ecuador, Venezuela... Hamazortzi urte Hegoamerikan horrela. Ondoren, Don Andoni bere sorterrira bueltatu zen eta bertan beste hogeitatu bat urte egin ditu parrokiaren lanean eta arrantzarekin zerikusia daukaten gauza, izen eta abarrez interesaturik eta ekinean.

3. **Domeka Markuerkiaga:** Domeka Markuerkiaga 1922 urteko uztailearen 9an jaio zen Ondarroan. 8 urtekin hasi zen familiako txalupan lan egiten zuten arrantzaleak goizetan esnatzen. 3 txalopa izan zituzten. Bapozkoak 35ean 2 egin zituzten eta beste motor berri bat. Lanean itsasoan 13 urterekin hasi zen Simonenean. *Eskolan sumar, restar multiplicar*, ikasi ostean *-ordurako suficiente-*, itsasora egin zen. Bilbon 37Markuerkiaga txalupan ibili zen; bolintxean ere ibili zen Domeka. *Josefina Fina*, *Reinaku* eta *Markue* ziren zituzten txalupen izenak. Fogonero lanetan ibili zen *Markuerkiaga* txalupan 17 urterekin. Arrastean ere ibilia da patron de costa moduan. *Tobaneku* txalupan patroia. 59 urterekin jubilatatu zen. Oraindik bere motor txikiarekin ibiltzen da.

4. **Begoña Arauko Akarregi:** Begoña Arauko Akarregi 1941 urteko maiatzaren 31ean jaio zen Ondarroan. 4 urtetik 14 urtera bitarte EGB deritzona eskuratu zuen. Berez ikastea asko gustatzen zitzaion –eta zaion– emakumea da berau. 12 urtetik 17 urtera bitarte atxoaren salazoiaren aritu zen, ondoren gabean portuko arrain karga-deskargetan aritzen zen eta egunez sare-josten. 26 urterekin ezkondu zenean, karga-deskargak utzi eta sarejostera dedikatu zen, izan ere, lanbide hau izan da beti berak gustokoen izan duena. Begoñak gaur egun oraindik -euria, hotza edo eguzkia egin-, sareak josi, konpondu eta berritzen ditu lurretik 10zm-ra baino ez dagoen aulkian eserita.

5. **Trini Larrañaga Arantzamendi:** Trinidad Larrañaga Arantzamendi 1925eko apirilaren seian jaio zen Ondarroan. *Trini San Isidro* moduan ezagutzen da herrian eta bere bizitza portua izan da ezbairik gabe. Gazte



gaztetatik arrain karga-deskarga lanetan, Orlando enpresan filetera lanetan eta azkenengo urte luze guztiak sarejostaile bikain eta langilea.

6. Patxi Etxaburu Ajarrista: 1929 urteko urtarrilaren 15ean Ondarroan jaioa. 13 urterekin ikastetxea utzi eta urtebeterako baserrira joan zen. 15 urte bete bezain laster bolintzeko arrantzan hasi zen. Handik urte bi ingurura atunetarako makinako laguntzaile aritu zen. 19 urterekin 2. mailako itsas mekanikari titulua atera zuen eta 24 urterekin 1. mailako itsas mekanikari titulua atera ostean arrasteko arrantzan aritu izan zen. 41 urterekin itsas mekanikari nagusiari dagokion titulua atera eta 60 urte bete ondoren jubilatu zen. Orain, berogailu artean hari meheari eutsiaz ekinean, betiko eran.

7. Agurtzane Osa Etxebarria: Agurtzane Osa, 1930eko urriaren 10ean jaio zen Ondarroan. Arrantzaleen sendikoa izanik, txiki-txikitatik hasi zen arrantza giroko lan desberdinetan. Txalupako krixadatzan aritu zen bere gazte garaiko zenbait urte (txalupak lehorrera zetozenean laguntzaile egoten zena), ondoren fabrika eta harrez gero, jostun iaioa, sukaldari bikaina eta niretzako, inon den amarik hoberena. Doroteo Etxaburu, nire aitarekin ezkondua. Pribiligiozko laguntzailea izan dut.

8. Agustin Arantzamendi Mugartegi: Agustin Arantzamendi Mugartegi, 1900urteko ekainaren 4ean jaio zen Ondarroan. Beran nahiz eta aurreko mende hasierako arrantzale petoa izan, primer maquinista naval titulua zeukan. Arrantzale, arraunlari handia izan zen Agustin. Edonork nahiko lukeen buru argi, jakintza eta gizatasuna zeukana. Maisua.

9. Jose Mari Ibazeta Nuño: 1930 urteko ekainaren 25ean jaio zen Ondarroan. 22 urterekin 2. motorista nabala titulua atera zuen; 32 urterekin 1. motorista nabal titulua eta 46 urterekin makinako kapitan nabala titulua. Jose Mari gerra osteko 11 urte eman zituen arrasteko arrantzan. Ondoren, beste 22 urte baxurako arrantzan eta azkenengo 18 urteak arrasteko arrantzan berriro ere. Jose Mari, 15 urterekin Ingalaterrara joan zen 2. makinista moduan. Petrolioa egitera heldu baino lehen laguntza behar izan zuten. Porturatu ondoren ikusi zuten minatuta zegoela (gerra ostea zen), beraz, kontu handiarekin ibili ondoren ondo iritsi ziren. Bidaia aprobetxatuz bidoi utsak eramane zituzten gasoil gehiago egiteko asmoz. Baina ez zioten utzi bidioletara



gasoilik botatzen, beraz, tankeak bete behar izan zuten. Itsasora irten ondoren, kalako gasoil guzti hori berriz esko-bonbaren bidez atera behar izan zuten eramandako bidoiatarara.

10. Miren Arrizabalaga : Miren Arrizabalaga Aranburu 1919 urteko irailaren 19an jaio zen Ondarroan. Eskolan 12 urtera bitarte egon ondoren, antxoari burua kentzen hasi zen lanean. Ondoren, fabrikako lanei eutsi zien handik aurrerako urte guztietan, enlatatze, sailkatze eta bestelako lanetan aritu zen. Emakume irekia eta asko dakiena.

Kontsultarako informanteak

1. **Augustin Zubikarai** (Ik. 12 orr.)

2. Nekane Akarregi / Itsaso Beitia: Arrantzale familiako alaba jatorrak. Kafe baten berotan, orain 7 urte, haien etxeetan makinatxo bat alditan entzundako hitzen gaineko zerrenda oparora osatu genuen.

3. **Jose Angel Eizagirre Badiola** (*Motrollo*): 1940 urteko martxoan jaio zen Ondarroan. 14 urte zituela hasi zen bere aitarekin itsasoan. Soldaduska amaitu arte *Kapero* eta *Kapero Txiki* txalupetan ibili zen marinel. Ondoren *Amapola* eta *Klabel* txalupetan (2 urte), eta *Kalamendi* txalupan (3 urte) aritu zen patron de peska lanetan; *Portu Txikin* eta *Ama-Lurren* (20 urtez), *Batela* eta *Plati* txalupetan (6 urte) patron de peska eta patron de kosta moduan. 55 urterekin jubilatatu zen.

4. Doroteo Etxaburu Irureta: Doroteo Etxaburu, 1929 urteko uztailaren 26an jaio zen Ondarroan. Ikasketak "Tetuanera" bidali eta 12 urterekin hasi zen itsasoan lanean. Aurrenez, arrasteroetan aritu zen, *Maria Luisa* etxeko txalopan, 6 bat urte. Soldaduska egin ondoren baxuran sartu zen; *Playa de Atxazpi* itsasontzian, gero *Benur* eta jubilatatu aurreko urteak, *Arca de la alianza* txalupan eman zituen. 60 urterekin jubilatatu zen. Itsaso egarriz joan zen. Itargi bete muxu, aita.



3. hitzaren kategoria gramatikala: (**Kateg. gram.:** formarekin adierazi dut).

Sarrera buruaren ondoan hitzaren kategoria gramatikala ezarri dut.

Izenondoak eta *izenlagunak*. Adjetiboak bi sailetan banatu ditut. *Izenondoak* [izond.] eta *izenlagunak* [izlag.] bereiziz. Lehendabizikoak dagokien izenaren ondoan -hau da, eskuinean– ezarri behar dira beti; izenlagunak, -ko edo -tar atzizkiak rantsiz eratzten direnak, berez eskerrean doazenak.

Aditz motak. Ondarroako arrantzaleen lexikoa aztertzea helburu duen lan honetako sarreretan ez ditut aditz mota desberdinak bereiztu –badakigu, aditzek, hartzen dituzten laguntzaile moten arabera ere sailkatu eta azertu ahal direla-. Esku artean daukagun lanerako, ordea, nahikoa dela uste izan dugu ñabardura horietan sakondu ez eta kategoria gramatikal soila adieraztea.

Adberbioak. Arrantzaleen lexikoa batzen duen hiztegi honetan ez ditut bereiztu *adizlagun/adberbioak*. Hitz sarreraren gaineko informazio gehigarri eskasa baino ez ligukete emango. Horrela, denak *adberbio* gisa (adb.) adierazi ditut.

Zenbat izen, adjektibo, aditz eta abar bildu diren jakiteak bere garrantzia kualitatiboa dauka. Garrantzia kualitatibo honek zerikusi zuzena dauka Ondarrutarrez esaldiak antolatzeke dagoen berezko egitura eta abarren aztarrenak sakonago aztertzeke. Sarrera bakoitzari, bere kategoria gramatikala zein den zehazten ahalegindu naiz. Hala ere, aurretik aipatu dudan moduan, hiztegi honetan ez dira soilik hots bakunak biltzen. Hiztegi honetan bestelako sintagma konplexuek ere beren tartea zein lanketa espezifikoa daukate. Horrela, sintagma konplexuetan askoz ere zailagoa da kategoria gramatikal bat edo beste ematea. Horrela, hitzaren definizioan honen erabilerari buruzko informazio gehigarri ahalik eta zabalen ematen saiatu naiz, ondoren, sarrera hitzaren kategoria gramatikala zein den modu egokian zehaztu ahal izateko.

4. sinonimoak: (**Sin.:** formarekin adierazi dut).

Esanahi bereko bi hitz edo gehiago dauden jakitea ere garrantzitsua da oso.



5. sarrera hitzaren definizioa: (Def.: formarekin adierazi dut).

1. Gai arantzatsua da hau. Definizioa, kontzeptuaren hitzezko deskribapena da eta kontzeptu horrek berarekin erlazionatzen diren kontzeptu guztien sisteman duen posizioa zehazten du. EIZIEk argitaratzen duen *SENES* argitalpenean Andoni Sagarnak dioen bezala, hiru definizio-mota leudeke¹⁴: *Intentsiozko definizioa*: kontzeptu jakin baten ezaugarri guztien multzoa agertzen du. Hurbileneko generotik abiatzen da eta kontzeptu hori bere segida horizontaleko beste kontzeptuetatik bereizten duten ezaugarri murriztaileenetik abiatzen da.

2. *Hedadurazko definizioa*: genero bereko eta abstrakzio-maila berekoak diren espezieak edo osotasun baten atalak zerrendatzen ditu definizio-mota honek.

3. *Testuinguru bidezko definizioak*: definitzen den kontzeptuari dagokion terminoa esaldi batean aurkezten da. Nik, *intentsiozko definizioa* eta *testuinguru bidezko definizioa* hartu ditut kontuan. Biak guztiz uztargarriak direla deritzot eta horrela, unitate lexikalaren gaineko definizio zabala emateaz gain, testuinguruak determinatzen duen esanahia ere zehaztu eta landu daiteke. Hitz testuingurudunek, aldiz, beren ahalmen osoa atxikitzen dute. Hitzen definizioak jasotzerakoan, kasu guztietan, elkarrizketatuak berak eman izan didana lehenetsi dut. Egia da elkarrizketatuek zail dutela aurrean dituzten hitz guztien definizio zehatza ematea. Gehienetan deskriptiotik hurbilago egon ohi gara definitiotik baino. Horrela, aztertu beharreko hitzak egoki definitu ez direla ikusi dudan kasuetan beste iturri batzuk arakatzea erabaki dut. Ibon Sarasola **(IS)** eta Eneko Barrutia **(EB)** izan ditut aurreneko kontsultarako abiapuntu. Ibon Sarasolaren hiztegiak, nire ustez, modu egokian jasotzen ditu makinatxo bat hitzen gaineko definizioak. Baina kontsultetarako esku artean izan dudan erreferentzia nagusienak, Eneko Barrutiak idatzitako *Bermeo eta Mundakako Arrantzaleen Hiztegia* zein *Bizkaiko Arrantzaleen*

¹⁴ EIZIE. *SENES Terminologiaren teoria orokorra*. Andoni Sagarna



Hiztegia, Léxico Marinero Vizcaino izan dira. Ezbairik gabe bere lana izan da nire lanaren euskarri nagusienetakoa, batez ere sarrera hitzen definizioa eta hauen gaineko informazio entziklopediko gehigarria biltzeko unean. Aipatutakoez gain, neure burua ere zenbait sarrera hitzen gaineko definizioa emateko gai ikusi dut. Izan ere, nire aita zenak – Doroteo Etxaburu Irureta- eta bere emazteak –Agurtzane Osa Etxebarria- ondo baino hobeto ezagutu dute arrantzale izatea zer den. Hortik edan dut nik ere. Arrantzale ez baina arrantzaleen seme izateak eman didan eskarmentu urri baina aberatsetik ausartu naiz ondo ezagutzen ditudan hitzen gaineko nire iritzia ematen.

Finean: definizioetan informanteak esandakoa hartu dut kontuan; informanteak, baina, ez du beti ematen ekintzen definiziorik. Kasu horietan, informanteak hitzen bat ez badu definitu, argitzeko eskatu diot bigarren buelta batean, eta hor ere ez badut lortu edota lortzeko zailak badira, arrainen definizioak, adibidez, Ibon Sarasolaren hiztegiara jo dut; eta ez informanteak, ez nik nire ezagutzaren arabera, ez Ibon Sarasolak ez badu jaso, Eneko Barrutiaren tesira jo dut definizioa bilatzeko momentuan.

6. dokumentazio entziklopedikoa: (**Datu entziki.:** formarekin adierazi dut).

Sarrera atalean adierazi dudan moduan, hizkuntza-komunitateak partekatzen duen ezagutza lexikoaren garapenerako garrantzia handia dute testu entziklopedikoek, batez ere, normalizazio bidean dagoen hizkuntza batez ari garenean. Testu entziklopedikoek, hizkuntza-komunitatearen jakintza lexiko-entziklopedikoa biltzen dute, eta beraz, eginkizun garrantzitsua da hau hizkuntza jakintza-alor espezializatu batzuetan behar bezain normalizatuta ez dagoen faseetan.

Esan gabe doa sarrera hitz jakin baten gaineko informazio gehigarria biltzeko antolatu eta erabili dudan atala dela berau. Atal honetan, R.M. de Azkuek jasotakoa garrantzitsua izan lan honetarako. R.M.de Azkue Lekeitiarra izanik ere Ondarroan erabiltzen ziren eta diren hainbat hitz bildu eta dokumentatu



zituen. Ondarrutarroi benetan izan zaigu hori onuragarri. Ondarroako seme den Augustin Zubikaraik ere berebiziko ekarpena egin dio aurrean dugun lanaren martxa egokiari. Augustinek urte luzeetako eskarmentu eta lanaren ondorioz argitaratu dituen liburu eta esku-orriak, ondarrutarron imaginarioaren gaineko informazio iturri ederra dira. Ondarroaren ezaugarri nagusia arrantzari begira dagoen herri bat izan de eta egun oraindik ere badela kontuan izanda, Augustinek berak atal bereziak eskaini izan dizkio errealitate honi. Aipatu errealitatea bere aspektu lexikalean egokien eta era zabalenean *Itxas aize* liburuan bildu du. *Itxas aize* liburuan Ondarrutarrez esandako hitz asko eta asko agertzen dira. Horrela, nire aurreneko lana sarrera horietatik guztietatik arrantza munduari zegozkionak hautatu eta sailkatzea izan da. Hortik abiatu naiz bildu ditudan sarrera- hitzen gaineko informazio gehigarria bilatzeko. Hala ere, Augustin Zubikaraik jasotako hainbat hitz-sarrerek erkatze lan bat eskatzen zutela iritzi nion. Ez nengoen oso ziur AZ-ren argitalpen desberdinetan agertzen diren zenbait sarrera ondarrutarrek esandakoak edo beste nonbaiteko arrantzale eta pertsonen esandakoak ote ziren. Horrela, inkesta berezituak prestatu ditut Augustin Zubikarairen *Itxas aize* liburuko berrehundik gora sarreraren gaineko informazioa bildu eta neuk ere dokumentatzeko ahaleginean. Inkesta hauek burutzeko, lan hau egiteko bi arrantzalaren laguntza izan dut: Patxi Etxaburu eta orain dela gutxi zendu zen Boni Laka. Inkesten bidez eskuratutako dokumentazio linguistiko zein entziklopedikoa *hiztegia* atalaren barruan sartu dut –hiztegiaren ordena alfetikoari jarraituz eta gainontzeko beste sarrerei eman diedan traera emanaz-.

Ezinbestekoa izan zait ere Barrutiaren aportazioa, bai eduki zein planteamendu aldetik. Berak argitara emandako hiru liburuak izan ditut etengabeko kontsulta euskarri; *Mundakako arrantzaleen jakintzaren lexiko eta entziklopedia*, (Deustuko Unibertsitatean aurkeztutako doktorego tesia)/*Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia*, Udako Euskal Unibertsitatea / *Bizkaiko Arrantzaleen Hiztegia*, *Léxico Marinero Vizcaino*, Labayru Ikastegiak argitaratua.

Hala ere, eta batez ere kontuan izanda ondarroarrez adierazten diren hitz askok gaztelaniaren mailegu edo eta honen aldagarri bilakatu direla, interesgarria iruditu zait gaztelaniaz emandako hitzen hiztegiren bat ere erkatze lanera



biltzea. Julian Amichen (1956): *Diccionario Marítimo* hiztegia egokia iruditu zait eginkizun horretarako. Berton era zehatz eta egokian biltzen dira, gaztelaniazko sarreraren bidez, itsas giroko ehunka hitz eta terminu. (**Dok. Azkue.** / **Dok. Zubikarai** / **Dok. Eneko Barrutia** / **Dok. Julián Amich:** formekin adierazi ditut)

7. *Egindako dokumentazio lanean sakondu nahian*, nik bildutako sarrerak *Orotariko Euskal Hiztegiarekin* –argitaratutako azken atala barne– eta *Hiztegi Batuarekin* alderatu ditut. Nik dokumentatutakoak ea aipatu hiztegi hauetan bilduta dauden, ze adiera ematen zaien... Azken alea argitaratu berri den *Orotariko Euskal Hiztegia*, etengabe kontsultatu eta kontuan izan dudana hiztegia izan da. Ez soilik hitz-sarrera jator asko eta zabala eskaintzen duelako; baizik eta sarrera bakoitzaren gainean ematen dituen azalpen entziklopediko eta linguistikoen aberastasuna benetan delako aberatsa eta lagungarria nirea bezalako tesi lan batentzat. Modu honetara atxekitu dut bi hiztegi hauetan egon daitekeen informazio gehigarria.

.- **OEH:** AINGIRA (gral.; Urt, Lar, Añ, VocBN, H), anguila; tbn. En algunos sitios congrio

.- **Hiztegi Batua:** (+) ibai-aingira

Bestalde, *Hiztegi Batua* arau-emaile den heinean, hiztegi honetan agertzen diren berba zein adierak kontuan hartu eta lanera gehitzeaz gain, nik bildu baina *Hiztegi Batuan* agertzen ez denean (-) signoarekin adieraziko dut.

.- **Hiztegi Batua:** (-)

Sarrera hitzen inguruko informazio gehigarria ematen dut ***Ik. Trans. (PE) ... orr.*** formarekin. Informazio gehigarri hau transkripzioak atalean dago. Atal honetan, sarrera hau eman didan elkarrizketatua zein den eta ze orrialdetan aurki daitekeen adierazten da.

8. zitat: (**Zitak:** formarekin adierazi dut).

Ziten helburua, elkarrizketatuak emandako hitza erabili ohi den bestelako testuinguruak eskaintzea denez, ezinbestean, erreferentzia nagusia



elkarrizketatzaileak berak esandakoa da. Horrela, esan bezala, elkarrizketatuek beraiek esandakoaren transkripzioak gehitu ditut. Badira baina Eneko Barrutiak edo Augustin Zubikarai berak jasotako beste hainbat ere.

9. zenbait hizkuntzatan: (Ingl. / Frants. eta Gazt: formarekin adierazi ditut).

Sarrera hitza bestelako hizkuntzetan emateak bertute desberdinak ditu; hala nola, bestelako hizkuntzetan entzunak ditugun hitzak euskaraz bilatu eta konparatzeko balio digu. Beste alde batetik, egindako bilana borobildu egiten du. Borobiltzea diogu aukeratu ditugun itzulpenak hizkuntza jakin eta alde zurretik erabakitakoei kasu egiten diolako. Hasiera batean, euskaratik abiatu eta ingeles, frantses eta gaztelaniako itzulpenak bilatu ditut. Hiru hizkuntza hauek dira euskararen lehena oraina eta geroa “aberastu-baldintzatu” zuten eta dutenak. Batez ere gaztelania eta ingelesa. Bi hizkuntza hauen sarrera Ondarroako arrantzaleen erregistro lexikalean ziklo migratorio eta teknifikazio zein globalizazio elementuei zuzenki lotuta doaz. Arrain eta abarren sarrera latinez ere emateak identifikaziorako asko baino gehiago laguntzen du. Sarri askotan “kaleko hizkuntzan” termino beraz gauza bat edo gehiago adierazi ohi da. Latinez ere jasota izatearen argibidea garrantzitsua da gauzak zehatz egiteko.

10. arrain eta abarren gaineko informazio gehigarria

arrainen gaineko informazioak berez duen “pisua” handia da. Lanaren helburua ez da izan gauza jakinen gaineko informazio kuantitatiboa pilatzea. Hori elementu gehigarri bat da, aberasgarria, alegia. Modu horretan, lana borobiltze ikuspegi horretatik ulertu behar da ataltxo hau gehitu izana. Atal hau dokumentatzeko iturriak anitzak izan dira, besteak beste: *guía de identificación peces de mar del atlántico y del mediterraneo*, gida liburutik; *Karmel* aldizkaria; han-hemenka bildutako orri txatalak. Datu entziklopedikoen barruan sartu dut hau.



11. Lokuzioak: (**Lok.:** formarekin adierazi dut).

Sarrera hitzen iruzkinean berez atera zaizkidan esamoldeak nabarmendu egin ditut. Esan behar da zerrendatu ditudan esamolde horietatik asko Augustin Zubikaraik bildutakoak direla— (**AZ**) signoarekin adierazten dut lanean-. Nik beste zenbait gehitu ditut elkarrizketatuek esandakoaren arabera.

12. Laburdurak

1. // mugatua eta mugagabearen arteko bereizketa adierazteko
2. / hitz baten gainean emandako informazio desberdina sailkatzeko
3. **AA.** Agustin Arantzamendi (elkarrizketatua)
4. **AB.** Andoni Basterretxea (elkarrizketatua)
5. **ad.** aditza
6. **adb.** adberbioa
7. **AO.** Agutzane Osa Etxebarria (elkarrizketatua)
8. **AZ(o1).** Agustin Zubikarai *Itsas Aize* liburua
9. **AZ (o2).** *Sits eta bits* liburua
10. **BL.** Boni Laka (elkarrizketatua)
11. **BZZ.** Berba zaharren zerrenda
12. **Def.** sarrera hitzaren definizioa
13. **DE.** Doroteo Etxaburu Irureta (kontsultarako elkarrizketatua)
14. **DM.** Domeka Markuerkiaga (elkarrizketatua)
15. **Dok. Azkue.** nola dokumentatzen den jasotako berba Azkueren hiztegian
16. **Orotariko Euskal Hiztegia (OEH):.** nola dokumentatzen den jasotako berba Miltxelenaren hiztegian



17. **Dok. J. Amich** bere itsasoko hiztegi entziklopedikoan bildua
18. **Elkarriz.** elkarrizketatuaren izena
19. **EB(01).** Eneko Barrutiak idatzitako *Bermeo eta Mundakako Arrantzaleen Hiztegia*
20. **EB(02).** Eneko Barrutiak idatzitako *Bizkaiko Arrantzaleen Hiztegia, Léxico Marinero Vizcaino*
21. **Entz.** Informazio entziklopedikoa
22. **Hiztegi Batua.** jasotako berba euskara batuan arautua dagoela adierazteko
23. **Frants.** Jasotako berbaren frantsesezko itzulpena
24. **IS.** nola dokumentatzen den jasotako berba Ibon Sarasolaren hiztegian
25. **Ik.** Ikusi
26. **Ingl.** Jasotako berbaren ingelesezko itzulpena
27. **Iz.** Izena
28. **JM.** Jose M^a Ibazeta (elkarrizketatua)
29. **Kateg. Gram.** Zein den sarrera hitzaren kategoria gramatikala
30. **ME.** Mikel Etxaburu Osa
31. **Motr.** “Jose A. Eizagirre (Motrollo)” (kontsultarako elkarrizketatua)
32. **Mi.** Miren Arrizabalaga “kantale” (elkarrizketatua)
33. **N/I.** Nekane Akarregi eta Itsaso Beitia (kontsultarako elkarrizketatua)
34. **PE.** Patxi Etxaburu (elkarrizketatua)



- 35. **Sin.** Sinonimoa
- 36. **T/B.** Trini Larrañaga / Begoña Arauko (elkarrizketatua)
- 37. **Zit.** Zitak edo erabilera argitzeko esaldi eta adibideak
- 38. **Elhr.** Elhuyar hiztegi entziklopedikoa

13. sailak: (**Saila.:** formarekin adierazi dut).

Sailak atala, lana antolatzeko era bat baino ez da. Ondorioetan ere adierazi egingo ditut hauek. Sailak, kanpo semantiko legez ulertu ditut. Kanpo semantiko hauen harira egin genezake, hala nahi izanez gero lanaren antolamendua.

Sailak

- | | |
|---|-------------------------------------|
| 1. <i>Anatomia eta morfologia</i> | 14. <i>Nabigazio eta portua</i> |
| 2. <i>Arrainen izaera</i> | 15. <i>Neurria</i> |
| 3. <i>Arrantza eragiketak /
maniobrak</i> | 16. <i>Ontzi motak</i> |
| 4. <i>Arrantza espezieak. Arrainak</i> | 17. <i>Ontzien eraikuntza</i> |
| 5. <i>Arrantza lekuak</i> | 18. <i>Prozesaketa, eratorriak</i> |
| 6. <i>Arrantza motak</i> | 19. <i>Sareak / materialak</i> |
| 7. <i>Arrantzako tresnak</i> | 20. <i>Pertsonen izaera</i> |
| 8. <i>Bestelako materialak</i> | 21. <i>Termino administratiboak</i> |
| 9. <i>Eguraldia eta haizeak</i> | 22. <i>Bestelako gaiak</i> |
| 10. <i>Ingurune biologikoa</i> | |
| 11. <i>Itxasoaren egoera</i> | |
| 12. <i>Jantziak</i> | |
| 13. <i>Langilea</i> | |



A

- Sarrera 1:** **abakándo//abakandú:** (*Homarus gammarus*)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** misera (UZEI)
- Def.:** BAKANDO: itsas oskoldun hamar-oina, otarrainaren antzekoa, baina urreko hankak hagin handiz hornituak dituen (IS)
- Zitak:** *atrapaten dau enjeneralin abakando bat edo beste* (BL)
- Dok. Azkue:** ABAKANDO (B-l), cierta langosta de mar. Algunos creen que no es la misma langosta, sino un pez muy parecido llamado por algunos <<bogavante>>.
- Orot. Euskal Hiztegia:** ABAKANDO (V-m), Bogabante
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(01) 27.orr.
- Dok. Julián Amich:** BOGABANTE: crustáceo conocido también con los nombres de <<lubricante>>, <<locántaro>>, <llamanto>> y otros, asimismo de carácter local; es de gran tamaño y resulta difícil hallar langostas que le



	superen en talla.
Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	common lobster / European lobster
Frants.:	homard / homard européen
Gazt.:	bogavande / bogavante europeo
Saila:	arrantza espezieak. Bestelakoak
Sarrera 2:	abánte¹
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	aurrera egin adierazten duen espresioa (ME)// ABANT: arraunean aurrerantz egin (IS)
Zitak:	<i>seuk sentiuten sendunin arek bota da suk ala etxen sendun de, abante / erria, botaten san arrixe lelengo ta asten san amu juten treotzara ta abante / barku abante juten da ta sari / beti patroik abante, ta estu te abante ta, estu te, eoten da beti defensa (BL)</i>
Dok. Eneko Barrutia:	EB(01) 27.orr.
Orot. Euskal Hiztegia:	ABANT (Vc, G, L ap. A; Aq 352), acción de remar ²
Dok. Julián Amich:	AVANTE: Expresión indicadora de delante o adelante. / Voz de mando para que se comience a remar o a moverse la máquina para hacer avanzar al buque.
Hiztegi Batua:	(-)
Ingl.:	forward
Frants.:	avant
Gazt.:	avante
Saila:	nabigazioa eta portua

¹ Aurrera esateko ere abante esan daiteke. Bestelako tresnekin ere erabil daiteke martxan dagoela esateko.

² Orotariko Euskal Hiztegian, "abant" jasotzen da, acción de remar adierazteko. Gaur egun, hala ere, "abante", txalupa martxan jarri eta aurrera egitean esaten da; baita erramo bidez ere. Eneko Barrutiak dioen legez, "abante", aurreraren ordezkotz erabil daiteke, etxera sartzeko nahiz beste hainbat kasutan.



2.01: ABÁNTE (LÍBRE) (erd.)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: itsasontzia abiadura normalarekin –abiadura ertainarekin- aurrera egin adierazten duen espresioa (ME)

Zitak: *erria, abante libre! /enpalmaten dabe, amarraten dabe grilletias a da abante libre/ iru lau metro falta dala amodera, geldi geldik ipiñi, para, atzeabe engrilleta amen, “erria” “abante libre”, amentxe be atzeko palun eukitxen dau disparadora eta beran engantxi serana eta abante libre (BL)*

Dok. Eneko Barrutia: EB(01) 27orr.

Saila: nabigazioa eta portua

2.02 : ABÁNTE (TÓDO) (erd.)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *dana emonda (BL)*

Def.: makina bere gorengo indarrean ipini eta aurrera egin adierazten duen espresioa (ME)

Zitak: *bat ureta botaten amun, bafora abante todo (BL)*

Dok. Eneko Barrutia: EB(01) 27 orr.

Saila: nabigazioa eta portua

2.03 : ABANTÍN (JÚN)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Ad.

Def.: itsasontzia aurrera doanean adierazten duen espresioa (ME)

Zitak: *ori kasan du, abantin du (BL)*

Saila: nabigazioa eta portua

- Sarrera 3:** **abaríxo//abarixú** (*Pollachius pollachius*)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** itsas arrain txikia (ME)
- Datu Entzickl.:** *bakallaun itxuri dakar bixkat, askoik es. Erditxik goratxua bixkat marroixki re bera, eta buru marroixki te besti surixki, eta jateko aragixe bigunaua ra eta gatza emoten gako ... Ik. Trans. (PE).*
- Dok. Eneko Barrutia:** Juan Franciscok Muus eta Dahlström-en liburuko "abadejo"-ari ez eze, Pllachius pllachius;"carbonero" arrainari ere, Pollachius virens, hala deitu zion. Azkenengo honegatik bastotxuagoa dela eta Bilbon merkeago egiten duela esan zuen EB (02) 86 orr.
- Dok. Zubikarai:** AZ(01)
- Dok. Azkue:** ABARIO (B-ond), (V. Abalaio) (B-l), un pececillo de mar.
- Orot. Euskal Hiztegia:** ABARIO (V-m), un pececillo de mar
- Dok. Julián Amich:** ABADEJO: Pertenece a la familia de los gádidos, en la que están incluidos la faneca y otros peces semejantes. Tiene el cuerpo alargado y todos los radios de sus aletas son blandos.
- Hiztegi Batua:** (-) / UZEI: *abadira*
- Ingl.:** pollack
- Frants.:** lieu jaune
- Gazt.:** abadejo
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
- Sarrera 4:** **aberíxa//aberixí³** (*erd.*)
- Elkarrizk.:** Trini/Bego
- Kateg. gram.:** Iz (Egon, eduki) aberia.
- Def.:** gailuren bat apurtzen denean jasotako kaltea (ME),
adibidez: *tarratara andixe sarin* (T/B)

³ Makinatxo bat kasutan gaztelaniazko hitzez adieraziko dira gauzak. Kasu honetan moduan, aberixi izena Ondarrun oso ohikoa den Sarrera da; esan nahi dut, ez dela arrotz, egunerokoan erabili ohi dela.



- Zitak:** (...) euki bir de beti albokuas kontu, aberixaik einbaik / eta atzekuk erutetxus situasiñoi utzak, aberixata dunak ixebes (BL) / Ebaixun suk treñe ta aberixi erdi-erdixan iual (T/B)
- Datu entziki.:** brasa bi te, sortzi brasa ta, eun brasa bari, orrek dis aberixak (T/B)
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(01) 28 orr.
- Orot. Euskal Hiztegia:** ABERI (Lar, Aiz). <<avería>> y <<gastos>>
- Dok. Julián Amich:** AVERÍA: Daño que recibe la embarcación o su cargamento.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Ingl.:** to sustain damage
- Frants.:** s'avarier
- Gazt.:** avería
- Saila:** bestelako gaiak
- Sarrera 5:** **abixói**⁴ (*Atherina presbyter*)
- Elkarrizk.:** Patxi E.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** ABIXOI: itsas arrain txikia, antxoaren antzekoa baina bizkarrean bi hegal dituen (IS)
- Datu entziki.:** *Abixoi re e, olako palanka txiki-txikixe ixanda lantxeik. Palanka txikixe be eoten da, palankakumi, bañe abixoi ixaten da antzeaku, bardiñe ixanda lantxeik, bixkat txikitxua. Ori gexen bat etorten san arrasteko sarin mallata, eta txikixe ixaten san da, esta arrain sabala platuxin eta lantxeik eta au txikixe ixaneran ba, aragi gitxi akar, estosu aprobetxaten jateko eta bota etxen san ori (PE)*
- Dok. Zubikarai:** AZ(01)
- Dok Azkue:** ABIXOI (G-don), pececillo sin sangre, parecido a la anchoa.

⁴ Guia de identificación; PECES DE MAR del Atlántico y de Mediterraneo liburuan bada beste abixoi mota bat ere: Pejerrey, *Atherina boyeri*. Azken abixoi mota hau abixoi txiki moduan ere ezagutua omen da, nahiz eta nik ez dudan hau jaso. Bien arteko desberdintasunak oso txikiak dira, begi handiagoak, eskama gutxiago (44-48 inguru).



Dok Eneko Barrutia: abotxaren antzeko arraina. Dimasek (Mundakako arrantzalea) abusaren barruan arrastan atrapatzen den mota hori izan liteke. EB(O2) 86 orr.

Orot. Euskal hiztegia: ABIXOI (G-bet ap. A; Arzdi *Peces*; *Fau Mar*, abixui (Zubk Ond.; *Fau Mar*)

Hiztegi Batua: (-) / **UZEI:** *abixoi*

Frants.: cabassoun + prêtre

Gazt.: pejerrey + abichón

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 6: **ábriñ // abriña** (*Galeus melanostostomus*)

Elkarrizk.: AZ

Kateg. Gram.: Iz.

Sin.: kolaio

Def.: arrain mota (ME)

Gazt.: colayo

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 7: **ábrot // abróta** (*spanis pagus*)

Elkarrizk.: AZ

Kateg. Gram.: Iz

Def.: arrain mota (ME)

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 8: **(errebísas) adosá** (*erd.*), *adosá(tu)*, *adosáten*.

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: ad.

Def.: lotu (ME)

Datu entzikl.: *errebise soki re, buelta bi emon sokiai te... (BL)*

Zitak: *bira eta enjeneralin etorten da ona gora, ta etxen dau errebisas adosa (BL)*

Saila: arrantza eragiketak/maniobrak



Sarrera 9 :	agarrá (<i>erd.</i>), <i>agarrá(tu)</i> , <i>agarráten</i> .
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	ad.
Sin.:	<i>arrañak kolpe eiñ/ arrañak ten eiñ</i> (BL)
Def.:	arrainak amua irentsi (ME)
Zitak:	<i>bi jungo ri eta onei estotza agarraten, eta agarrateotza onei, a seuk be etxesu matxetu</i> (BL)
Saila:	arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 9.01: (APÁXU) AGARRÁ**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** ad.**Def.:** arrainak apaixua irentsi (ME)

Zitak: *apaxuk juten di amabost, amasei apaxo kasan, beti patroik ikusi bir dau ia nun agarraten daben arrañak* (BL) /*da arrañe eta aiñ itxutute eoten da gero arrañak agarratetzanin lumin barrun dan amuai...* (DM)

Saila: arrantza eragiketak/maniobrak**Sarrera 9.02:** (ARRÁÑAK) AGARRÁ *Ik. Pika***Elkarrizk.:** Domeka M.**Kateg. gram.:** ad.**Sin.:** *pika* (BL)**Def.:** arrainak amua irentsi (ME)**Zitak:** *arrañak agarratetzanin lumin barrun dan amuai* (DM)**Saila:** arrantza eragiketak/maniobrak**Sarrera 9.03:** (MALUTÍ) AGARRÁ**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** ad.**Sin.:** *maluti jan* (BL)**Def.:** arrainak maluta irentsi (ME)**Zitak:** *botaten dau eta iual arratzalde gustin atunak estotza malutiai agarra*

(BL)

Saila: arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 10: **aibárt // aibárte** (*ez dut aurkitu*)
Elkarrzk.: AZ
Kateg. Gram.: Iz.
Def.: arrain mota / Azkuek, *Jibarta* lez erabiltzen du (ME)
Hiztegi Batua: (-)
Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 11: **aingéro//aingerú** (*Squatina spp.*)
Elkarrizk.: Patxi E.
Kateg. gram.: Iz.
Def.: borobil itxurako itsas arraina, kolaioen familiakoa (ME)
Datu entzikl.: *kolaxuk eta ixaten dis ba? Kolaxo sarrak ixaten dis andixauak eta txikixauak eta danetaikuk das, marraxun antzeakuk eta orrek. Ik. Trans. (PE).*
Dok. Zubikarai: AZ(01)
Dok. Azkue: AINGERU GUARDAKO (G-don), raya, pez marino de cabeza muy pequeña en relación a su cuerpo, que es casi circular; anda casi tocando el fondo (del agua).
Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 90 orr.
Dok. Julián Amich: ANGEL: Especie de peces intermedios entre los escualos y las rayas, pues en algunas clases del mismo, tanto por su conformación externa como por su estructura interior.
Hiztegi Batua: (-) / **UZEI:** *aingeru goardako*
Ingl.: angelfish
Frants.: ange de mer
Gazt.: pez angel / angelote
Saila: arrantza espezieak. Arrainak.



Sarrera 12:	aingira//aingirí⁵ (<i>Anguilla anguilla</i>)
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	AINGIRA: suge itxurako arraina, luzea eta azal-labaina, Europako ibaietan bizi eta Sasgazo itsasora joaten dena ugaltzera (IS)
Datu entziki.:	<i>aingiri ain de esaune, ba se esangotzut nik ba... aingirak andixak be baras, medianuk, txikixak. Eta orrek errixun denetaik das, da itxosun ba asixauak(PE). Ik.trans. (PE). / leatz aingiri ixaten da, aingiri, leatz aingiri (BL)</i>
Dok. Zubikarai:	AINGIRA: ezaugarr.: zirintasun ezaugarria / esamold.: aingira baltza baiño ziriñago AZ(01)
Dok. Azkue:	AINGIRA (AN, B, BN, G, Sc, Sal), anguila. Hay varias especies, 1/ aingiramerrebaldá (B-b-l), anguila barbuda. 2/ aingira-morea (B, G), anguila de pintas. 3/ it [^] sasingira (B-l), lebatzaingira (G), congrio o anguila de mar..
Dok Eneko Barrutia:	EB(02) 91 orr.
Orot. Euskal Hiztegia:	AINGIRA (gral.; Urt, Lar, Añ, VocBN, H), anguila; tbn. en algunos sitios congrio
Dok. Julián Amich:	ANGUILA: Pez de la familia de los murénidos (<i>Anguilla anguilla</i>), de cuerpo muy prolongado, de aberturas branquiales muy reducidas, escurridiza, y del cual se conocen hasta veinticinco especies.
Hiztegi Batua:	(+) ibai-aingira
Ingl.:	eel
Frants.:	anguille d'Europe

⁵ Patxi Etxabururekin izandako elkarrizketetan aingira eta leatz-aingira gauza bera izango balire lez adierazi dit. Hala ere, bai Azkuek eta baita Eneko Barrutiak ere (baita kostaldean bizi garen beste edonork ere), badakigu gaztelaniaz congrio deritzon aingira itxurako bat badela. Hona hemen Eneko Barrutiak jasotakoa bere EB(02) liburuko 90 orrialdean: Def.: Gazt.: congrio / Frants.: congre / Ingles.: conger eel / latinez Conger Conger. M-d: sarditaren antzera egiten du, ziletik behera hezur txiki asko dauzka eta horregatik arrantzaleok ziletik gorakoa jaten dugu, hor ez dauka erdiko hezurra baino. / Entz.: M-d: zilean palu batekin jota hiltzen zen edo ganibetarekin lepoa ebakiz. Antzina zaku batekin eskegi egiten zen begitik buztanera eroan arte hezurrak. Atrapatzeko karnadak: bokarta, berdela, boga eskamatuta, txibia, tximinoia, amarratza. E-jf: ni ibilita nago aingiratan ere gaztetan. Aingiratako aparioari amutik amura lau braza edo ipintzen zitzaizkion. L-pj: inoiz zilean jota ere hil dugu.



- Gazt.:** anguila europea
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
- Sarrera 13:** **aingirá báltz//aingirá báltza** (*Anguilla anguilla*)
- Elkarrizk.:** Patxi E,
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** beltz antzeko kolorea duen aingira mota bat (ME)
- Datu etzickl.:** *kolori baltzaua eukitxen dau. Bestik eukitxen dabe griseski ero. Antzekuk dis bañe bat illunaua ra besti baño. Grisak baras txikixauak, onek errixun eta atrapatzen disenak, bañe onek itxosukuk ixaten dis orretzek baltzak. Lepo inguru, goxe, eukitxen dau ola baltzeako illune, beste batzuk es ain illune... (PE)*
- Dok Eneko Barrutia:** kostakoa da. Kanpoko baido gozoagoa jateko, gogorragoa EB (02) 90 orr.
- Dok. Zubikarai:** AINGIRA BALTZAK. Andra lizun, bizi nasaiko emakumeakaitik esaten da. "Aingira baltzak ikusten izango zīnan zu!" Au da, emakume "alaiak" ikusten. Aingira baltzak, basatza eta loietako arraiñak izaten dira. Erreka zikin datorrenean artzen dira sarri. Orregaitik beste "aingira baltzak" ori. Orrelako aingirak arrantzaten diranean laban eta likiñak izaten dira. Origaitik aingira baltzak baiño ziriñago eta antzerako esaerak AZ(01)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
- Sarrera 14:** **áiru// airú**
- Elkarrzk.:** AZ
- Kateg. Gram.:** Iz.
- Def.:** haize biguna. Brisa leuna (PE)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** eguraldia/haizeak
- Sarrera 15:** **aingúra // aingurí**
- Elkarrzk.:** AZ
- Kateg. Gram.:** Iz.



Def.: burdinazko atal aski handia, bi besoz hornituta, kate batetik zintzilik uraren hondora egozten dena, han finkaturik ontziaren higitzea eragotz dezan (IS)

Gazt.: mastillero (IS)

Hiztegi Batua: (+)

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 15.01: AINGURATÓKI**Elkarrzk.:** AZ**Kateg. Gram.:** Iz.**Def.:** ontzia lotzeko toki egokia. Kai barrua. Ondartza (AZ)**Gazt.:** mastillero**Hiztegi Batua:** (-)**Saila:** ontzien eraikuntza**Sarrera 16:** **akér mújoi// akér mujói** (*Diplodus sargus*)**Elkarrzk.:** AZ**Kateg. Gram.:** Iz.**Def.:** arrain mota (ME)**Gazt.:** sargo picudo**Hiztegi Batua:** (-)**Saila:** arrantza espezieak. Arrainak**Sarrera 17:** **akúla//akulí** (*Belone belone*)**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** AKULA: ahoa orratzaren itxurakoa duen arraina, luzea eta mehea, hezurdura berdaxka duena. Taldetan ibiltzen da uraren azalean (IS)**Datu entzikl.:** *itxura baten lantzoin lakoxi re, bañe akulak gitxi ixaten dis, bakarra ixaten san. Sarin etorten sin, e, bolintxin de treñin de nastin, gexen bat be bolintxin, txitxarruas da antxoias da, tartin bakarrak etorten sin. Barrutik berdi ixaten san, asur inguru eta ori berdi ixaten da, berde-berdi, eta esta ain estimau lantzoï lantxeik jateko, eta askotan lantzoï baño asitxuaua ixaten da, metro erdi te. Len esan ori jateko ibiltxen, iñox itxosun de jaten san, erreta jaten*



san. *Mustur lusi eukitxen dau, lantzoin lantxeik (PE)*

Dok. Zubikarai: AZ(01)

Dok. Azkue: AKULA (B, G), aguja, cierto pez.

Orot. Euskal Hiztegia: AKULA (V, G ap. A.), pez aguja

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 91 orr.

Dok. Julián Amich: AGUJA: Pez de cuerpo parecido al de la anguila, pero cubierto de escamas lisas, pequeñas y caedizas, de coloración verdosa en el dorso y plateada en los flancos.

Hiztegi Batua: (-) / **UZEI:** akula

Ingl.: pipefish

Frants.: aiguille de mer / orphie

Gazt.: aguja

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 18: **akulabiriárda//akulabiriárdi** (*Xiphias gladius*)

Elkarrizk.: Patxi E.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: ezpatarraina (PE)

Def.: gorputz luzea duen itsasarraina (ME)

Dok. Zubikarai: AZ(01)

Dok. Azkue: AKULA BIRIGARDA (B, G), aguja, pez más sabroso que akula.

Dok Eneko Barrutia: EB(02) 91 orr.

Orot. Euskal hiztegia: <<akula birigarda (V, G), pez más sabroso que akula>>

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantza espezieak. Arrainak



Sarrera 19:	ála//ála (erd.), <i>alá(tu), aláten.</i>
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	ad.
Sin.:	<i>batu /jaso (BL)</i>
Def.:	<i>sarea batu, jaso. Sarea, treina itsasontziratatu (ME)</i>
Zitak:	<i>osteabe atrapa bisu, ala, ekarri barrure, kendu orri batzuk, pasari emon osteabe ta bota osteabe / Treñe alaten aladoras, len oxo be eskuas etxen ben (BL)</i>
Dok. Azkue:	ALA (BL) recoger
Dok Eneko Barrutia:	EB(02) 91 orr.
Hiztegi Batua:	(-) / UZEI: <i>alatu</i>
Ingl.:	to haul, to pull, to tow
Frants.:	haler
Gazt.:	halar
Saila:	arrantza eragiketak/ maniobrak

Sarrera 19.01: ALÁ-ARRÍO (erd.), *alá-arriá(tu), alá-arriáten.*

Elkarrizk.: Jose A. Eizagirre (Motrollo)

Kateg. gram.: ad.

Def.: *arrantzaleak arraiñik badagon igarteko gora eta bera apaixua ibiltzea (M)*

Saila: arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 19.02: ALÁ-ARRIÓKO APAXO .

Elkarrizk.: Patxi E.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: papardoak arrantzatzeko apaixua (PE)

Dok. Entziki.: papardotan korda-arrantza luzatu ondoren eta alaten hasi aurreko unean, arrantzale bakoitzak beretzako arrantza egiteko papardotako aparailua.(PE)

Saila: arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 20:	aláador//aladóora (erd.)
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	sareak eta abar itxasontziratzeke erabiltzen den tresna (ME)
Zitak:	<i>Atzeko palu re au, aladora atzeko palun juten da ortixeik etorri bir dau treiñe barrure ta (BL) Tubu juten da beran aladoran brasun eta tubutik juten da bonba presiñoi orixune da on modernuauak sile ta tubuk (BL)</i>
Dok. Eneko Barrutia:	EB(02)92 orr.
Hiztegi Batua:	(-)
Gazt.:	virador / alador
Saila:	arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 20.01: ALADORÁN-TÚBO (erd.)**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** aladoraren zati bat (ME)

Datu entziki.: *au re aladoran tubu, tubu esateotzau / Aladoran tubu: lena sin gomak, bertan orixu juten san da presiñoi erun bir daben bonbak, eta gero kendu ein sin, eta ipiñi san tubu. Tubu juten da beran aladoran brasun eta tubutik juten da bonba presiñoi orixune da on modernuauak sile ta tubuk, bañe estaipe. Gomak ipintxen sendusen iual brasa bikuk ero, da fallu iual eukitzen dabe ta tubu beti re gaistuaua. Tubu errepuestun eukitzen sendun, eta errementaten basan akoplamentutatik etxen seuntzan kendu a ta beste tubu emoten seuntzan da bost minutun listo euala abanteako. Geurik tubu dakar bañe tubu gaistua ra, tubu errementaten baatzu “san se jodio, cayo martes”.(BL)*

Saila: arrantzako tresnak/materialak



- Sarrera 21:** **Alamédi**
- Elkarrizk.:** Agustin A.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** zumardia. Ondarroan ez da modu horretara ezagutzen; Ondarroan Alameda bezala ezagutzen dugu. Alameda, "kantxope errebuelta"ren ondoren datorren zumardiz betetako zabalunea da, hondartzarako zubia ere bertan dago (ME)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Gazt.:** alameda
- Saila:** lekua
-
- Sarrera 22:** **alánbra//alánbri** (*erd.*)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** burdin haria (IS)
- Datu entzickl.:** *onek alanbrionek esaten dau onek estile bata bestias etorri bir, enpatxa etxen di bestelanik* (BL)
- Dok. Eneko Barrutia:** EB (02) 92.orr
- Orot. Euskal hiztegia:** ALAMBRE (gral. ap . Lrq, Añ, Arch VocGr) alambre.
Burdin-hari
- Zitak:** *au alanbri, trabes dana, eruten dau amo bat, bi, eta amen beste bi* (BL)
- Hiztegi Batua:** (+) alanbre
- Gazt.:** alambre
- Frants.:** fil de fer
- Ingle.:** wire
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
-
- Sarrera 23:** **álas//alása** *Ik. Atuneti*
- Elkarrizk.:** Domeka M.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** atunak arrantzatzeke era bat (ME)

- Dok. Entziki.:** kainaberan beita biziarekin aritzeko, amurako arraintxikia arrantzatu ondoren biberioetan bizirik mantenduz (PE)
- Orot. Euskal hiztegia:** (-) / *Orotariko Euskal Hiztegian alas, aleta <<ala del pescado>> moduan agertzen da. Ez ordea, atunak arrantzatzeke era bat moduan.*
- Hiztegi Batua:** (-)
- Gazt.:** pesca de bonito con cañas
- Saila:** arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 23.01: ALASEAN//ALASÍN**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** adb.**Def.:** “a pulso”. Atunetan karnatarekin eta kainaberekin. EB (02) 93. orr.

Datu entziki.: *Apaxu saskarraua, onek atunetan; kasan juten giñan atuneta ero alasea / Ordun atune ekarten sendun kakuas sartute, da alantxe san arrantzi, ta arei esaten geuntzan alasin (BL)/ arrantza ontzia kalatuta (geldirik egonean) kanaberako aparailuan arrain txiki biziarenik (antxoa txikia, sardina txikia edo txitxarro txikia) atunetan aritu (PE)*

Hiztegi Batua: (-)**Saila:** arrantza eragiketak/maniobrak**Sarrera 24:** **alatin****Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** adb.**Sin.:** azalean (UZEI)**Def.:** uretan gorputza ur-azalean luzatuta geldirik mantentzen denean (PE) / *uretan azalin aidin (BZZ)***Dok. Julián Amich:** FLOTE: Flotadura. / Acción y efecto de flotar. / Marea entrante.**Hiztegi Batua:** (-)**Ingl.:** afloat**Frants.:** à flot



Gazt.: a flote
Saila: nabigazioa eta portua

Sarrera 25: **álatx// alátxa** (*Alosa alosa*)
Elkarrzk.: AZ
Kateg. Gram.: Iz
Sin.: kodaka
Def.: arrain mota (ME)
Hiztegi Batua: (-)
Gazt.: sábaló
Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 26: **álba//albí** (*erd.*)
Elkarrizk.: Boni L.
Kateg. gram.: Iz.
Def.: egunsentia (ME)
Zitak: *albi ikusten sanin, amen dator arrañe / beran tamañu artzen banin geatu albin sain / goxin enjeneral albias batea (BL)*

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 93 orr.

Hiztegi Batua: (-)
Ingl.: dawn of day
Frants.: aube
Gazt.: alba
Saila: nabigazioa eta portua

Sarrera 27: **albókart// albokárte**
Elkarrzk.: AZ
Kateg. Gram.: Iz
Sin.: antxoa / bokarte
Def.: arrain mota (ME)
Hiztegi Batua: (-)
Saila: arrantza espezieak. Arrainak

- Sarrera 28:** **aldágoi// aldagói**
Elkarrzk.: Patxi E.
Kateg. Gram.: Iz.
Def.: haize mota bat (ME) / zirimola, errauntzi, haizebaltza, urakana (PE)
Hiztegi Batua: (-)
Saila: eguraldia/haizeak
- Sarrera 29:** **aldára//aldári**
Elkarrizk.: Jose A. Eizagirre (Motrollo)
Kateg. gram.: Iz.
Def.: itsasontzia tokiz aldatzea adierazteko espresioa (ME) / *arrañik eztagonian, tokiz aldatzea (M)*
Hiztegi Batua: (-)
Saila: nabigazioa eta portua
- Sarrera 30:** **áldra// áldri**
Elkarrzk.: Patxi E.
Kateg. Gram.: Iz.
Def.: izurdeen nahiz txorien muntzoa (PE)
Hiztegi Batua: (-)
Saila: bestelakoak
- Sarrera 31:** **álib// alíba (Ragidae)**
Elkarrzk.: AZ
Kateg. Gram.: Iz
Def.: arrain mota (ME)
Hiztegi Batua: (-)
Gazt.: raya
Saila: arrantza espezieak. Arrainak
- Sarrera 32:** **almadrába//almadrábi (erd.)**
Elkarrizk.: Domeka M.
Kateg. gram.: Iz.
Def.: penintsula hegoaldean zimarroiak arrantzatzeko erabiltzen zuten sare sistema (ME)



Dok. Eneko Barrutia: laberinto baten moduko artea. Cadizeko golkoanegoten zen zimarroiak atrapatuko EB (01) 36 orr.

Datu entziki.: *almadrabi Mediterraneoan da surren da asko usara ori, orrek sarik eoten di leko baten ipiñitxe, bañe sarik, demasak e!... enda gero simarroï txe atrapatensan. Sartu etxen da sari ran parajea, ta gero itxi etxetze (DM)*

Dok. Julián Amich: ALMADRABA: Arte de pesca fija que llega a tener varias mallas de extensión.

Hiztegi Batua: (-) / **UZEI:** atun sare

Ingl.: mandrague

Frants.: madrague/ thonnaire

Gazt.: almadraba

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 33: **alogéra//alogéri**

Elkarrizk.: Domeka M.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: partilli (ME)

Def.: egindako lanaren truke jasotzen den dirua (ME) / *jornala (DM)*

Orot. Euskal Hiztegia: ALOGER(A) (V, G ap. A; Lar, Añ, H), salario, jornal, pago por un trabajo; premio, recompensa

Hiztegi Batua: (+) aloger

Saila: termino administratiboak

Sarrera 34: **altúra//alturí⁶**

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: ur handitan arrantzatzeko arrantza mota (ME)

⁶ Itxasontziak, euren arrantza erari begiratu, sail bitan banatzen dira: alturakoak eta baxurakoak. Arrastean jarduten dabenak, gehienetan handiagoak dira eta urrunago aritzen dira Horrei ematen zaie alturaren izena; euren arrantza alturakotzat hartzen da. Eta besteak, baxurakoak, txikiagoak dira eta gehien bat antxoba eta hegaluzetan jarduten dute.

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 95 orr.

Hiztegi Batua: (+) alturako arrantza

Gazt.: altura

Saila: arrantza motak

Sarrera 35: **amabirjína// amabirjíni**

Elkarrzk.: Patxi E.

Kateg. Gram.: Iz.

Def.: *txokoaren hezurdura* (PE)

Hiztegi Batua: (-)

Saila: anatomia / morfologia

Sarrera 36: **amántal//amantála**

Elkarrizk.: Miren

Kateg. gram.: Iz.

Def.: fabriketan aritzen diren emakumeek aurrealdean, gerriari lotuta, jartzen duten oihal zabala (ME)

Datu entziki.: *fabrikan kaleko erropak eruten genduzen. Norberak erute ban amantala, urdiñe kaleako, eta bertako sakukin einddakuk. Kaleaku etxen gendun doblata ipiñi ipurdi azpixon eta urteten gendunin tolostu-tolostu eindde. Bestelaik sakuk ibiltxen genduzen, errematikin de, sakuk josi, gerrixan eiñ erremati tela zati bateaz, egalak bebai, bizarrak kendu. Iual petuaz be bai (Mi)*⁷

Hiztegi Batua: (+) mantal

Saila: jantziak

Sarrera 37: **amari ez emana: amái es emóna.** *Ik. Karmel, 1986-4, 95-96 orr./ Ik. Ardáu-díru.*

Elkarrizk.: BZZ

Kateg. Gram.: (Lok.)

⁷ “amantal” mota desberdinak daude. Bada amantal mota bat, etxean ontziak eta garbitzerakoan jazten dena, eta bestelako “amantal” bat, sakuekin egindakoa, espreski “fabrikan” erabili ohi



Sin.: ardaun diru (BL)
Def.: egindako lanaren truke jasotako dirutik arrantzaleak
“poltsikorako” gordetzen duen diruari deitzen zaio
(ME) /ixilleko diru (BZZ)
Hiztegi Batua: (-)
Saila: bestelako gaiak

Sarrera 38: amarradéro//amarradéru (erd.)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: soka e.a. lotzeko balio duen euskarri sendoa (ME)

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 96 orr.

Zitak: amarradero bat juten da amen, eta besti amen
(BL)

Hiztegi Batua: (-)

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 39: amillótar//amillotárta

Elkarrizk.: Trini/Bego

Kateg. gram.: Iz.

Def.: freskoako arrañe artzeko otzari (T/B) / antxoa
txalopatik nasara ateratzeko (M)

Datu entziki.: otzarak etxen sin mateixal bardiñas. A ixaten san
freskoako / aretxeas amillotarras etxe ben artu te
onaxe balda bota (T/B)

Zitak: amillotarrak sin beste otzara batzuk (T/B)

Dok. Zubikarai: AZ(01)

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

zutena. Hau sendoagoa, “fabrikako” lanerako erabilgarriagoa. Normalean bakoitzak bere etxean egin ohi zutuen “amantal” hauek.

Sarrera 40	ámo//ámu
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	<i>arrantzako erabiltzen dan kakua (M) / AMU:metalezko atal txikia, kako edo aingura itxurakoa, beitzaz horniturik arrantzuan erabiltzen dena (IS)⁸</i>
Zitak:	<i>Onek di iru amuk diferentik, au txikixaua ra, bañe orretakoxe ri /txitxaste esatengakon lena, txitxaste san amu joteko / Bat ureta botaten amun, bafora abante todo / Treotzarak di e bertan planiaten disen amuk, amuk planiaten disenin karnatias ba aretxen dis treotzarak / Eukitxen dau amu te urkuli (BL)</i>
Dok. Zubikarai:	AMUA: Arrantzarako erabilten dan gaillua. Toki batzuetan "garranga" be deitzen dautse. <i>Ik. AZ(01)</i> .
Dok. Azkue:	AMU, hamu: 1 ^o (c), anzuelo. Especie de anzuelos: kat [^] sikamu, el más pequeño; t [^] silamu, para coger panchos; besiguamu, para besugos; lebatzamu, para merluza; li [^] samu, para lijas; atunamu, para atunes; proostua (B-b), amu-lapur (AN, B, G), anzuelo pequeño torcido.
Orot. Euskal Hiztegia:	AMU (c. Ap. A (+ h-); Urt I 275, Lar, Añ, VocBN, Arch VocGr, Dv, H, Lrq; h- SP, Gèze, H, -L), anzuelo (sentidos prop. y fig.)
Dok. Eneko Barrutia:	EB(02) 97 orr.
Dok. Julián Amich:	ANZUELO: este instrumento es, sin duda, uno de los más antiguos inventados por el hombre, que en las primitivas edades debió de construirlo con piedra, hueso, espinas y nácar, antes de llegar a poseer el secreto de los metales y que ha conservado a través de los siglos las iniciales características que hoy mantiene.
Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	fishhook

⁸ Ibon Sarasolak "amu" eta "garranga" sinonimotzat hartzen ditu. Bonik, ordea, ez ditu esanahi bereko Sarrerak direla ulertzen. Ik. "garrangi"



Frants.: hameçon

Gazt.: anzuelo

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 40.01: ATÚN-ÁMO

Elkarrizk.: AZ

Kateg. gram.: Iz.

Def.: atuna arrantzatzeko erabiltzen den amo klasea (ME)

Datu entziki.: *Ori guk atun amu es, atunetako amu. Lena usaten sin bakarrak, ni gasti nitxanin de, eta gero biku; pala bat bañe amo bi. Ni sartu nitxanin simarroitxako euan bakarra eta atunetako dobli. Numeruk eoten sin or; uno, dos, tres da...olantxeik. Eta atunetan apaxo laburrak, baforandik urrin etosenak, an botaten san enjeneral andixena, se an baforan egalin eotenda beran elisin uberi te, bitse, te aparra, ta, an bisti be gitxia ta, eta orretxeatxik botaten gakon an amo andixe. Eta gero atzin asko erriata datorrena baforetik, ba, arek ixaten sin txikixauak. Ordun gixon bakotxak norberan apaxu erute ban eta antxe (DM)⁹.*

Saila: arrantzarako tresnak/ materialak

Sarrera 40.02: ÁMO (BRILLÁNTI) (erd.)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *amo garbixe / amo surixe* (BL)

Def.: amua barria denean edo garbi dagoenean hartzen duen kolore tonua (ME)

Zitak: *enjeneralin, amu brillanti arrantzalintzako* (BL)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 40.03: ÁMO (GÁRBI)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

⁹ Domeka Markuerkiagak atun-amu esan beharrean, atunetako amu dio.

Sin.: *amo brillanti / amo surixe (BL)*

Def.: amua karnata ondakinik gabe ateratzen denean ematen zaion izena (ME)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 40.04: ÁMO (ÁNDI)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: neurri handiko amua (ME)

Datu entziki.: *onek amo txikixok estou usaten ixan. Au len esatzuten moure, berdeletako andixena, besiutako, papardotako. Papardotako be ixaten san andixena, besiutako bixkat amo txikixaua. Onek kabratako ta, txistoako ta; onek txikixenak dis (BL)*

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 40.05: AMO-LÁPUR

Elkarrizk.: AZ

Kateg. gram.: Iz.

Def.: amo akerra (ME)

Datu entziki.: *Esaten gakon amo okerra sanai. On olako asko ra, len gitxia. Formi san, susen baik, bixkat egalea morun eindde. Dana ra amu, susenakin de okerrakin de danakin atrapatzen da, on batzuk esaten dabe susena eta bestik esaten dabe okerra naxa dabela (DM)*

Dok. Azkue: AMU LAPUR, anzuelo pequeño torcido.

Eneko Barrutia: Lebatzetan amu-bakarrak gain ipintzen zen amu bat besegua,

txitxarroa edo arrain txikia atrapatzeko.

Saila: arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 40.06: AMO-PÁLA

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *artzabi/ amun popi/pali/amun kirtena (BL)*



Def.: amuak goiko muturrean daukan zati zapala; pita lotzen den lekua (ME)

Datu entziki.: *amo pali re sapala, eta au re kaltzairu, bai, kaltzairu re mateixala. Kaltzairu ona bara balixu eukitxen dau gexa; eoten da brillanti* (BL)

Zitak: *onei puntiai esatetzau, argollaik espauke, au sapalaua baauke, amopali* (BL)

Hiztegi Batua: (-) / **UZEI:** *amu-pala*

Ingl.: blade

Frants.: palette de l'hameçon

Gazt.: patilla del anzuelo; pala del anzuelo

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 40.07: ÁMO (TXÍKI)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def. neurri txikiko amua (ME)

Datu entziki.: *onek amo txikixok estou usaten ixan. Au len esatzuten moure, berdeletako andixena, besiutako, papardotako. Papardotako be ixaten san andixena, besiutako bixkat amo txikixaua. Onek kabratako ta, txistoako ta; onek txikixenak dis* (BL)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 40.08: ÁMO (ÚGAR)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: asko erabilitako amua (ME)

Datu entziki.: *atune jantzalli joten basu, a ugarra kendu etxetza berak auan, a enbarkaten-enbarkaten, bal-baltza bota eta surixe atatesu* (BL)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 40.09: ÁMO (SÚRI)**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Sin.:** *amo brillanti / amo garbixe* (BL)**Def.:** amua barria denean edo garbi dagoenean hartzen duen kolore tonua (ME)**Datu entziki.:** *enjeneralin, amu brillanti arrantzalintzako, piti be barrixe, amu be garbixe; on, iual atune jantzalli joten basu, a ugarra kendu etxetza berak auan, a enbarkate, enbarkaten, enbarkaten... Bal-baltza bota eta suri-surixe ra* (BL)**Saila:** arrantzako tresnak/materialak**Sarrera 40.10:** AMÚRE (EÓN)**Elkarrizk.:** AZ**Kateg. Gram.:** adb.**Def.:** bildurri egon. Kezkati. Amure egon (AZ)**Gazt.:** receloso/ estar receloso (AZ)**Hiztegi Batua:** (-)**Saila:** arrantza eragiketak/maniobrak**Sarrera 40.11:** AMÚRE (EMÓN)**Elkarrizk.:** AZ**Kateg. Gram.:** adb.**Def.:** lokarriak arindu edo ainbatean askatu (AZ)**Gazt.:** aflojar las amarras (AZ)**Hiztegi Batua:** (-)**Saila:** arrantza eragiketak/maniobrak**Sarrera 40.12:** (APAXOTÁKO) ÁMO**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** apaxoetan egoten diren amoak (ME)



Zitak: *dakas igual apaxo batek otamar amo, otamar berdel, bat ero beste solta etxen da bañe...* (BL)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 40.13: (BERDELETAKÓ) ÁMO

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: berdelak harrapatzeko amoa (ME)

Datu entziki.: *berdeletako amuk orretxeas juten dis, ollauas* (BL)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 40.14: (KAÑABERAKÓ) ÁMO

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz

Def.: *kañaberan juten disen amuk dis onek*(BL)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 40.15: (TXERMOLETAKÓ) ÁMO

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: txermolak arrantzatzeko erabiltzen den tresna (ME)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 40.16: AMÚGIÑ

Elkarrizk.: Patxi E.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: amuak egiten dituen langilearen izena (ME) / *amu egilea* (PE)

Saila: arrantzako tresnak/materialak



- Sarrera 41:** **amodéra** (*erd.*), *amoderá(tu) amoderáten.*
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** ad.
- Sin.:** *geldixa ipiñi* (BL)
- Def.:** *abiadura jeitsi* (ME)
- Zitak:** *patroik amodera* (BL)
- Dok. Julián Amich:** MODERAR: disminuir las revoluciones de la máquina y, en consecuencia, la velocidad del barco.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Ingl.:** to ease
- Frants.:** modéree, ralentir
- Gazt.:** moderar
- Saila:** arrantza eragiketak/maniobrak
-
- Sarrera 42:** **amuzki: amúski//amuskixe**¹⁰
- Elkarrizk.:** Jose A. Eizagirre (Motrollo)
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *beita/ karnata* (UZEI)
- Def.:** *arrantzako amuan ipintzen dana; karnata* (M)
- Dok. Zubikarai:** AMUSKI: karnata ondakiña (Besigutarako Berbak)AZ(01)
- Dok. Azkue:** AMUZKI (B-mu-pl, G), cebo, carnada en salmuera, para pescar.
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 98 orr.
- Orot. Euskal Hiztegia:** AMUZKI (V-ple-ger, G ap. A), amuki. <<Cebo, carnada en salmuera, para pescar>>. ¹¹
- Dok. Julián Amich:** CARNADA: el cebo que se pone en los anzuelos para excitar la voracidad de los peces. Dicho cebo es por

10 Nik jaso dudana, Azkuek diona eta Eneko Barrutiak bere liburuan (02) batu duena ez datoz bat. Hona hemen Enekok jasotakoa: M-d: itsasotik etortzen zenean apariora barrura, oraindik amuan ekartzen zen karnadari esaten zaio. B-a: antzina besegutako nahiz papardotako palangan erabiltzen zen karnata, botakar-tatoak. B-j: beseguak edo papardoak jan ez duen karnata. Amuetan datorkizu EB(02)

11 Orotariko Euskal Hiztegian, amuzkiren sinonimo moduan hartzen da beita. Nik, ordea, ez dut horrelakorik entzun nire elkarrizketetan, horrek ez du esan nahi erabili ohi ez denik.



demás variado, según sea lo que se quiera pescar, y puede ser desde pequeñas lombrices hasta moscas artificiales.

Hiztegi Batua:	(-) / UZEI: <i>amuzki</i>
Ingl.:	bait
Frants.:	appât; esche; boëtte; amorce
Gazt.:	cebo; carnada
Saila:	arrantzako tresnak/materialak.

Sarrera 43: **(sare) andána//andáni**

Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Sin.:	sare-joko / sare-andana (UZEI)
Def.:	sare " <i>etxara</i> " bat; bota aldi bat (ME)
Zitak:	" <i>askenengo andani re!</i> " (BL)

Orot. Euskal Hiztegia: ANDANA: (B, L, BN, S; Lar, Añ, Dv, H), montón, grupo; manada; tropa; en especial, con los elementos puestos uno detrás de otro; fila, hilera...

Dok. Julián Amich: ANDANA: Manera de colocar los buques dentro de puerto en posición paralela entre sí / estibar, aparejar y arreglar un buque en las mejores condiciones para navegar. / Serie de artes de pesca colocadas debidamente como <<andana de nasas>>, <<andana de redes>>.

Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	fleet
Frants.:	jeu de filets / tessure / tésure
Gazt.:	andana / flota
Saila:	arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 44: **angúla//angúli** (*Anguilla anguilla*)

Elkarrizk.:	Tribi/Bego
Kateg. gram.:	Iz.

- Sin.:** txitxardin / txitxardin zuri / txardieta (UZEI)
- Def.:** ANGULA: aingiraren kumea; txitxardina (IS)
- Datu entzikl.:** *mar de los argasos ero andik etxen dabe osteri urte gustin, amen e euran umik jaxoteko arrautzak ipintxea ero. Ik.trans. (PE).*
- Datu entzikl.:** *plati; olakoxe bateletan juten sin angulata (T/B)*
- Dok. Zubikarai:** Lok.: "lapikokorik ez eta angula mangula? Ori ez da gosea, ori da gula", jan nai ez da dabillanagaitik esaten da. AZ(O1)
- Dok. Azkue:** ANGULA (B, G), cría de anguila.
- Orot. Euskal Hiztegia:** ANGULA (V, G, AN-mer), angula, cria de anguila v. "txitxardin"
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(O2) 99 orr.
- Dok. Julián Amich:** ANGULA: larva de la anguila que después de un viaje de dos años por las aguas oceánicas, llega ante la desembocadura de los ríos europeos, tanto del Atlántico como del Mediterráneo, convertida en una especie de hilo transparente, hasta el extremo de que lo único que resalta de ella son los ojos y el tubo digestivo.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Ingl.:** elver
- Frants.:** civelle
- Gazt.:** angula
- Saila:** arrantza espezieak. Bestelakoak

Sarrera 44.01: ANGULÉRO (*erd.*)


Elkarrizk.: Tribi/Bego

Kateg. gram.: Iz.

Def.: angulak harrapatzen dituenari deitzen zaio (ME)

Datu entzikl.: *esan itxosoko gausi, errixoku sanetik baserritxarra anguleru san. Onek erreka tartekuk eta sinak; Gosikakuk eta Errenteixakuk eta anguleruk sin (T/B)*

Gazt.: angulero, pescador de angulas



Saila: lanbidea

Sarrera 45:	anillo//anillu (<i>erd.</i>)
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	espetek apaixuak e.a. hobeto eusteko eduki ohi duten borobil formako gailua (ME)
Datu entzikl.:	<i>espetin pasata juten da anillu</i> (BL)
Dok. Eneko Barrutia:	EB(02) 99 orr.
Zitak:	<i>aspixan sera eukitxen dau; soki te anilluk</i> (BL)
Hiztegi Batua:	(-)
Gazt.:	anillo
Saila:	arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 45.01: (TXANPELETÁN) ANÍLLO

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *apaxuk kostare ekarteko anillak* (BL)

Datu entzikl.: *txanpeletan anillu re ori; txanpeletan anillu re soki gora ta bera ibiltxen dabena, txanpeleta ra espetak eruten dabena. Anillu pasaten da apaxun eta a anillu gora ta bera ibiltxen da* (BL)

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 46:	ánkill//ankilli
Elkarrizk.:	Jose A. Eizagirre (Motrollo)
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	burdinazko atal aski handia, bi besoz hornitua, kate batetik zintzilik uraren hondora egozten dena, han finkaturik ontziaren higitzea eragotz dezan (IS) / <i>arlanka txikia</i> (M)

Dok. Azkue: ANKILLA (BL), ancla.

Orot. Euskal Hiztegia: ANKILLA (V ap A.) ancla. V. Aingura

Dok. Julián Amich: ANCLA: instrumento de hierro forjado, a manera de garfio o anzuelo, que, arrojado al fondo del mar y fijando al mismo un extremo de una cadena o cable cuyo otro extremo queda a bordo o también firme, impide que el buque vaya a la deriva.

Hiztegi Batua: (-)

Ingl.: anchor

Frants.: ancre

Gazt.: ancla, áncora

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 47: ankúlet// ankuléta

Elkarrizk.: Patxi E.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *burdinazko erpedun tramankulua, hondoari helduta arrantza-ontzi txikiari eusteko arlanka. Arpeo txikia (PE)*

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 48: anténa//anténi (erd.)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: ANTENA: uhin elektromagnetikoak igortzeko eta hartzeko eroale airetarra (IS)

Datu entzickl.: *palutatik puentea eoten dis edo bestelarik gañin be bai (BL)*

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 100 orr.

Hiztegi Batua: (+)

Ingl.: antenna

Frants.: antenne

Gazt.: antena



- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
- Sarrera 49:** **antéoi//anteói**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** arrasteko sareak biratzeko gailua (ME)
- Dok. Eneko Barrutia:** arrasteko sareak biratzekoa. Astuna bada, aparejo realarekin egiten da EB(01) / anteoia polea batekoa isaten da eta "aparejo real" polea bikoia isaten da EB(02) 100 orr.
- Datu entzikl.:** *amendik etorten da anteoi, eta arek etxen dau errebisak, sariai buelta bi emon eta amendik etorten da errebis bat, enjeneralin etorten da ona gora, ta etxen dau errebisas adosa (BL)*
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
- Sarrera 50:** **antxóa//antxói** (*Engraulis encrasicolus*)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** ANTIXOA: sardinaren itxurako arraina, baina hura baino txikiagoa, itsasoan sarda handietan bizi dena (IS)
- Datu entzikl.:** *arrain berdi re antxobi. Antxobi ba, bera ixan da arraiñ aberatsa, se aplikasiñoi asko dakas orrek, fabriketakuk e, bai salasoín de bai eskabetxin de, barrillan moñutan da gatsa emonda ta, era asko ra eta jaten be gusto ederreku, gosu re antxobi. (PE). Ik.trans.(PE)/antxoi ondoa esta juten, asaleku re (BL)*
- Dok. Zubikarai:** ANTIXOA: antxoa umeen tutuaren ezaugarri lez erabilten da. Bai eta mutil ezaugarri be. Eta euriagaz be joskeratzen da AZ (01). *Ik. AZ(01)*.
- Dok. Azkue:** ANT[^]SOBA (B, G), ant[^]sua (G-don), anchoa (pescado).
- Orot. Euskal Hiztegia:** ANTIXOA (AN-mer, Sal; SP, Urt, H), anchoa, bocarta, boquerón

Dok Eneko Barrutia: EB(02) 100 orr.

Dok. Julián Amich: ANCHOA: sinónimo de boquerón, aunque generalmente se emplea para designarlas cuando están ya en salmuera; constituyen una de las más sabrosas especialidades de la industria española de salazones. En las provincias vascas, a la anchoa o boquerón fresco se le denomina "bocarte" y en catalán, "seitó".

Hiztegi Batua: (-) / **UZEI:** *antxoa*

Ingl.: anchovy / European anchovy

Frants.: anchois / anchois européen

Gazt.: anchoa / anchoa europea

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 50.01: ANTXYÓA TXIKÍ

Elkarrizk.: Trini/Bego

Kateg. gram.: Iz.

Def.: tamaina txikiko antxoa. Antxoakumea (ME)

Datu entziki.: *esta antxoilli, antxoilli re leatzan familixaku arrasteku, leatz kumi ixanda morun, bañe antxoa txikixe ra antxoi bera, onek dis bajurakuk (PE). Ik. Trans. (PE)/ atuneta kasan juten giñan atuneta ero alasea, ordun, eseuales biberoik eta, antxoa txikixe atrapatzen san, atunetan ordun antxoa txiki asko eoten san, ongun es imajinateko beste, eta auxe kostiau be bera etorten sanin barrure bistan eoten san dana bete-bete eindde antxoa txikixe (DM) / oktubrin de, antxoa txikixe atrapatzen bena, guk emoten geuntzak gatz. A ixaten san besiutako ta papardotako (T/B)*

Zitak: *on enkanbio, antxoa txikixe baator ogei otzarak ixaten sin fabrikakuk (T/B)*

Saila: arrantza espezieak. Arrainak.



Sarrera 50.02: ANT XOÁ-ÁDUR

Elkarrizk.: Nekane/Itxaso

Kateg. gram.: Iz

Def. zirimiriari ematen zaion izena (ME)

Dok. Zubikarai: ANT XOA ADURRA: udabarriko euri ziriñari deitutzen
dautse arrantzaliak AZ(01)

Saila: eguraldia/haizeak

Sarrera 50.03: ANT XOBÁRA (ANT XOBÁTA)

Elkarrizk.: Trini/Bego

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *antxoi*¹² *atrapaten dan sasoi (T/B)*

Datu entziki.: *tarti eoten san, antxobarik lagataku atuneta jun bitxartin, baforak eta ein bir ixaten sin urtero galdarak ata (BL) / maxatzin antxobatai te lagata eoten sin txalopak, bentaik es ban eukitxen txikixe basan da, ordun atunetako preparaten sin, euran bixixe antxe, atunetaku san da /antxobata juten sinin sin treñak / / sari botaten san antxobatan (DM)*

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 100 orr.

Zitak: *antxobari aurrea ta kiloik bes, ta, jun ei san Arrigorrre ta Santa Rita bentanan eixeuan, "emon geuriai be seose ba", gero gexei emon eta sare gustik erun Santa Ritak; aiñ emotzala pixo andixe, da gixonak esin maneja, ba dana galdu. Estai "Bi Koñatua" es san (T/B)*

Ingl.: anchovy sasson

Frants.: saison de pêche de l' anchois

Gazt.: costera de la anchoa

Saila: nabigazioa eta portua

Sarrera 50.04: ANT XOÍLLA (erd.) *Ik. Antxóa txikíxe*

Elkarrizk.: JM Ibazeta

Kateg. gram.: Iz.

¹² sarri "antxobati" be esaten dute.



Def.: *antxoilli re leatsan famlixaku, arrasteku, leats kumi ixanda morun (PE)*

Dok. Eneko Barrutia: EN(02) 100 orr.

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 50.05: (MARTIKÓ) ANTXÓA

Elkarrizk.: AZ.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *martzun atrapatzen dan arraÑe (DM)*

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 50.06: ANTXÓA GORRÍ

Elkarrizk.: Patxi E.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *azalean dagoen antxoa multzoa (PE)*

Dok. Entziki.: izurdeak hondotik azaleraturiko antxoa multzoa edo berez azaleratua. Multzoa loditzean kolore gorrixka hartzen du eta zenbat eta lodiago kolore ilunago (PE)

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 50.07: ANTXÓA HANDÍ

Elkarrizk.: Patxi E..

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *tamaina handiko antxoa (PE)*

Dok. Entziki.: *lantegietara eramateko neurria duen antxoa (eskabetxerako, salazoirako) (PE)*

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

**Sarrera 50.08:** ANTÓA MEDIÁNO**Elkarrizk.:** Patxi E..**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** *tamaina ertaineko antxo*a (PE)**Dok. Entziki.:** *freskorako egokia* (PE)**Hiztegi Batua:** (-)**Saila:** arrantza espezieak. Arrainak**Sarrera 50.09:** ANTÓA OTZÁRA**Elkarrizk.:** Patxi E..**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** *30 kilo edota gehixeago hartzen duen otzara; antxo*a, sardiña, txitxarro, lantzo*i*, boga eta beste arrainak garraiatzeko erabiltzen dena (PE)**Hiztegi Batua:** (-)**Saila:** arrantza espezieak. Arrainak**Sarrera 51:** **aólatz// aolátza** (*Conger conger*)**Elkarrizk.:** AZ**Kateg. Gram.:** Iz**Sin.:** letxera / pospolu**Def.:** arrain mota (ME)**Hiztegi Batua:** (-)**Gazt.:** ababurda / madre de congrio**Saila:** arrantza espezieak. Arrainak**Sarrera 52:** **aót dabét// aóta dabéta** (*Chelon labrosus*)**Elkarrizk.:** AZ**Kateg. Gram.:** Iz**Sin.:** lazun**Def.:** arrain mota (ME)**Hiztegi Batua:** (-)**Gazt.:** muble**Saila:** arrantza espezieak. Arrainak

- Sarrera 53:** **ápar//apárra**
- Elkarrizk.:** Domeka M.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** bitse (ME)
- Def.:** APAR: mugitzen ari den edo dirakien isurkari baten gainaldean gertatzen diren burbulla txikien multzoa (IS)
- Dok.. Eneko Barrutia:** Enbarkazioak aurrean ateratzen duen bitza EB(02) 101 orr.
- Dok. Zubikarai:** Lok.: "*aparra ta bitsa biak anai arrebak*": bai batera nai bestera arro ikusten danetan erabilten dan esaera da. AZ(01)
- Dok. Azkue:** APAR (AN-b, Gc), espuma.
- Orot. Euskal Hiztegia:** APAR Espuma; tbn. "espuma de la boca". << espuma fresca, por ej. la levantada por el remo. La que queda sobre el agua es bits (V-m)>>.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Ingl.:** foam
- Frants.:** écume
- Gazt.:** espuma
- Saila:** nabigazioa eta portua
- Sarrera 54:** **apáxo//apáxu**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *liña, sokali*(BL)
- Def.:** arrantzan egiteko tresna (ME)
- Zitak:** *lena gixon bakotxak apaxo bat eukitxen ban eta batek iual bi (BL) / Piti, au re piti, muxarrak agintzen dau iru, muxarretan beti ibiltxen dou iru apaxo / . Bi alanbre akarren apaxuai txonbu estetzau / atzetik etorten da apaxu / ordun bakotxak berak etxeben apaxuk. Bera apaxu etxeko patroiana berana juten sas eskatzea / inox jun na ni ara plaire ertzea*



lumata gero apaxu etxeko / Ordun antxoi ipintxen san eskuas botaten a apaxu (DM)

Dok. Zubikarai: Lok.: "*andrak elixara, pio piolin, mateo txanbolin, aparixua erria ta txibikorainakin*", umetako kantua. AZ(01)

Dok. Azkue: APAI^LU (L-côte), aparejo para pescar.

Orot. Euskal Hiztegia: APAREJO: conjunto de palos, velas y jarcias que determinan toda clase de buques de vela. Así, se dice aparejo de "*bergantín redondo*", de "*bergantín goleta*", de "*polacra*", de "*fragata de tres palos*", de "*pailebote*", etc. (...)

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 101 orr.

Dok. Julián Amich: APAREJOS DE PESCA: todo lo que se compone de cordel con anzuelos u otros dispositivos para capturar peces. Todos los aparejos están basados en un mismo principio, que es un cordel llamado madre, del que penden otros más pequeños llamados hijos, pipios y otros nombres, en el extremo de cada cual va el anzuelo.

Hiztegi Batua: (-)

Ingl.: fishing tackle

Frants.: engin de pêche/train de pêche/appareaux de pêche

Gazt.: aparejo / aparejo de pesca/arde de pesca

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 54.01: (GIXÓN) APAXÉRO

Elkarrizk.: Boni L..

Kateg. gram.: Iz.

Def.: apaixoa egoki maneiatzeko duen arantzalea (ME) / *idei akarrenak apaxu zelanik maneja bir dan (BL)*

Saila: langilea

Sarrera 54.02: APÁXO (ALÉGRE) (*erd.*)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: asko arrantzatzen duen apaixua (ME)

Datu entzickl.: *karnati bota ta arraÑe datorrenin, a apaxo alegri re* (BL)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 54.03: APÁXO (BARRUKÚ)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *espetin juten dan apaxu (BL)/ Ezpetaren barrurengo partean ipini ohi duten apaxoa (ME)*

Datu entzickl.: *espetin dusenak iru apaxo ris: barruku, erdiku eta puntaku / kasako sistemi re, espetin or darus iru apaxo, eta onek atzetik datosenak popan uberaku eta tenteku. Onek dis apaxuk. Aurreko bixak txerkio, uberakuk, espetekuk, au barruku eta amen atzin dusen onek uberaku te tenteku, eta erdiku eta puntaku. Eta amen popa aspixan eruten dau beste bat, sanbrunio, kakalekuku. On komunin etxen da kaka baÑe lena itxosa, atzin jarritxe etxen ban ein bir banak. sanbrunio eta akaleku be deitzen da (BL)*

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 54.04: APÁXO (ERDIKÚ)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. Gram.: Iz.

Def.: *espetin juten dan apaxu (BL)/ Ezpetaren erdiko partean ipini ohi duten apaxoa (ME)*

Datu entzickl.: *espetin dusenak iru apaxo ris: barruku, erdiku eta puntaku /kasako sistemi re, espetin or darus iru apaxo, eta onek atzetik datosenak popan uberaku eta tenteku. Onek dis apaxuk. Aurreko bixak txerkio, uberakuk, espetekuk, au barruku eta amen atzin dusen onek uberaku te tenteku, eta erdiku eta puntaku. Eta amen popa aspixan eruten dau beste bat, sanbrunio, kakalekuku. On komunin etxen da kaka baÑe lena itxosa, atzin jarritxe etxen ban ein bir banak. Sanbrunio eta kakaleku be deitzen da (BL)*



Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 54.05: APÁXO (MÓTZ)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: luzera gutxiko apaixua (ME)

Datu entziki.: *Loru te piti: mateixala ra loru e fiñe da, klaro, orrek mateixalak numeruk dakas orrek treintasinkokuk, baras cuarenta lodixauak, cinkuenta, loru bera mateixala ra ixosidabli, enjeneralin otamabosteku, apaxo motzetan loditxua bixkat, bañe espetin jun bir dabena treintasinkoku (BL)*

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 54.06: APÁXO (PUNTÁKU)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. Gram.: Iz.

Def.: ezpetin juten dan apaxu. Ezpetaren puntan ipini ohi duten apaxoa (ME)

Datu entziki.: *espetin dusenak iru apaxo ris: barruku, erdiku eta puntaku / kasako sistemi re, espetin or darus iru apaxo, eta onek atzetik datosenak popan beraku eta tenteku. Onek dis apaxuk. Aurreko bixak txerkio, uberakuk, espetekuk, au barruku eta amen atzin dusen onek uberaku te tenteku, eta erdiku eta puntaku. Eta amen popa aspixan eruten dau beste bat, sanbrunio, kakalekuku. On komunin etxen da kaka, bañe lena itxosa, atzin jarritxe etxen ban ein bir banak. Sanbrunio eta kakaleku be deitzen da (BL)*

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 54.07: APÁXO (TRÍSTE)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: gutxi arrantzatzen duen apaixua (ME)

Datu entziki.: *karnati bota ta a ososoik baator, a apaxo tristi re (BL)*

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 54.08: (ESPETEKÓ) APÁXO**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** *apaxo klase bat(BL) / ezpetetik erriaten den apaixua (ME)***Datu entziki.:** *kasako sistemi re, espetin or darus iru apaxo, eta onek atzetik datosenak popan uberaku eta tenteku. Onek dis apaxuk. Aurreko bixak txerkio, uberakuk, espetekuk, au barruku eta amen atzin dusen onek uberaku te tenteku, eta erdiku eta puntaku. Eta amen popa aspixan eruten dau beste bat, sanbrunio, kakalekuku. On komunin etxen da kaka, bañe lena itxosa, atzin jarritxe etxen ban ein bir banak. Sanbrunio eta kakaleku be deitzen da (BL)***Saila:** ontzien eraikuntza**Sarrera 54.10:** (KAÑABERAKÓ) APÁXO**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** *kainabera joaten den apaixua (ME)***Saila:** arrantzako tresnak/ materialak**Sarrera 54.11:** (KASAKÓ) APÁXO**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** *kazako arrantza motan erabiltzen diren apaixuak (ME)***Datu entziki.:** *au ikustesu atzetik selanik dakasen amuk? diferentik dis, edoseiñ arrain atrapatzen dabe onek, lupiñi be atrapako leukie asko baleo, bañe... gitxi ranes, gitxi atrapa bir dabe (BL)***Saila:** arrantzako tresnak/materialak**Sarrera 54.12:** (LEATZETAKÓ) APÁXO**Elkarrizk.;** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** *legatzak arrantzatzeo tresna (ME)*



Datu entziki.: *kala beunak ondu joten dabenin, amu gelditzen da bixkat goraua. Lantzin beñ etxen gako onei, arrixin bara, bertan lekun errekalari. Errekalari etxen gakon, brasa bete ondutik altza bera beune enpatxa es datxin ondun. Iual amo bat eruten dabe batzuk, beste batzuk bi, lenakuk ti onek, on esta olakoik (BL)*

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 54.13: (TENTÉKO) APÁXO

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *apaxo klase bat (BL) / botaberako erdiko apaiua- EB(02) 340 orr.*

Datu entziki.: *kasako sistemi re, espetin or darus iru apaxo, eta onek atzetik datosenak popan uberaku eta tenteku. Onek dis apaxuk. Aurreko bixak txerkio, uberakuk, espetekuk, au barruku eta amen atzin dusen onek uberaku te tenteku, eta erdiku eta puntaku. Eta amen popa aspixan eruten dau beste bat, sanbrunio, kakalekuku. On komunin etxen da kaka, bañe lena itxosa, atzin jarritxe etxen ban ein bir banak; Sanbrunio eta kakaleku be deitzen da (BL)*

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 54.14: (UBERAKÓ) APÁXO

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *ubilleku (BL)*

Def.: *apaxo klase bat (BL) / ubilletik erriaten den apaixua (ME)*

Datu entziki.: *kasako sistemi re, espetin or darus iru apaxo, eta onek atzetik datosenak popan uberaku eta tenteku. Onek dis apaxuk. Aurreko bixak txerkio, uberakuk, espetekuk, au barruku eta amen atzin dusen onek uberaku te tenteku, eta erdiku eta puntaku. Eta amen popa aspixan eruten dau beste bat, sanbrunio, kakalekuku. On komunin etxen da kaka bañe lena itxosa, atzin jarritxe etxen ban ein bir banak. sanbrunio eta kakaleku be deitzen da (BL)*

Saila: ontzien eraikuntza

- Sarrera 55:** **apartá**, *apartá(tu)*, *apartáten*.
- Elkarrizk.:** Trini/Bego
- Kateg. gram.:** ad.
- Sin.:** sailkatze (UZEI)
- Def.:** arraina, motaren eta tamainaren arabera sailkatu (ME)
- Datu entzikl.:** *antxoiai buru kendu te gero aparta etxen da txikixe, andixe ta medianu, te gero juten sin osteabe tiñeta salmuera garbixe euan parajea ta antxe garbitxu (T/B)*
- Orot. Euskal Hiztegia:** APARTATU (Lcc (-adu), Urt. SP, Lar, Añ, Bon-Ond 157, VocBN, Gèze, Dv), aldaratu, urundu, bereizi.
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 103 orr.
- Hiztegi Batua:** (+) apartatze
- Ingl.:** classified
- Frants.:** triage
- Gazt.:** clasificado
- Saila:** arrantza eragiketak/maniobrak
- Sarrera 56:** **apóño**// **apoñú**
- Elkarrizk.:** Patxi E.
- Kateg. Gram.:** Iz.
- Def.:** *haize nahasia* (PE)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** eguraldia/haizeak
- 57:** **(arraíñ) ápur** // **(arraíñ) apúrre**
- Elkarrizk.:** Agustin A.
- Katg. Gram.:** Iz.
- Def.:** arrain ale bakanak (ME)
- Zitak:** *puentín patroik ikusten dabenin arraiñ apur bat, para!, bistu etxeotxu¹³ onetxek argixak eta ikusten dabenin aparatun badatorrela arraiñ bixkat (BL)*

¹³ Egiten ditu > etxeotxu



Hiztegi Batua:	(+)
Saila:	neurria
Sarrera 58:	ár//árra
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	karnatatzat erabiltzen den arraintzako jangarria (ME)
Datu entzikl.:	<i>gausi re ordun karnati bera be mobiuti, bai, mobiu ein bir de, bixik baleo morun; arras, au karramarruk, langostiñuk te...</i> (BL)
Orot. Euskal Hiztegia:	HAR gusano (sentidos prop. Y fig.)
Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	worm
Frants.:	ver
Gazt.:	gusano
Saila:	bestelako espezieak
Sarrera 59:	(tiñán) arandéla//arandéli (erd.)
Elkarrizk.:	Trini/Bego
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	egurrezko tiñak behar bezala estututa egoteko erabiltzen den gailua (ME)
Datu entzikl.:	<i>estañuas morun peateotzen bera arandeli barrun sartzeko. Bera arandeli eindde eukitxe ben semat neurriku ran eta an sartzeotzen, eta jotén-jotén, bajaten-bajaten etxen ben, bueno, aldrebeseta etxe ben, se beie eukanetik estuaua ein bir ben¹⁴ aldrebeseta. Popas gora ipintxe ben, ta tantaik galtzen baban, ango arrain gusti sikatu etxen san eta es ban balixo ixetako (T/B)</i>
Hiztegi Batua:	(-)



Saila:	arrantzako tresnak/materialak
Sarrera 60:	árbi//arbíxe
Elkarrizk.:	Jose A. Eizagirre (Motrollo)
Kateg. gram.:	Iz.
Sin.:	arraba(k) (UZEI)
Def.:	<i>arrañ arrautzak (M.) / ARRABA:</i> Zenbait arrainen arrautza multzoak eratzen duen errai; berezk. arrainak erakartzeko uretara botatzen dena (IS)
Datu entzikl.:	<i>Eta irakurritxe eta dakiaune ra orren arbixak ixaten disela kabierra esaten gakonak, beran arbixakin einddaku, eta askok kabierra deitzetza berai arrañai, beran arbixak dis kabierra ixates, arbixakin eiñ, prepara (BL)/(PE). Ik. Trans. (PE).</i>
Dok. Azkue:	ARBI (Bc- G-zumay), raba (santu), ovario de los peces.
Orot. Euskal Hiztegia:	ARBI: (Vc, G-azp), raba (santu), ovario de los Peces
Dok. Eneko Barrutia:	EB(02) 103 orr.
Hiztegi Batua:	(+)
Frants.:	frai
Gazt.:	huevas de pescado
Saila:	anatomia eta morfologia.

Sarrera 60.01: (MAKALLAÚ) ÁRBI *Ik. Arbíxak*

Elkarrizk.: Andoni B.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: makailu-arraultzak (ME)

Datu entzikl.: *ori ero masi barrilletatik ataten sin eta txikixenak sin mutil-gixonak, arbixak txikitzen asten sin (AB) / masi-barrillak sin etorten silako, Noruegatik, eta sardiñatako masixak ekarteko, ba, makallaun uebak, makallaun arbixak (DM)*

Hiztegi Batua: (-)

Saila: anatomia eta morfologia

¹⁴ *egin behar zuten* > batzutan *ein bir ben* edo beste batzutan *einbiben*, batuta. Nik, entzundakoari kasu egin diot. Hala ere, gehienetan batuta esaten dela egingo nuke.



- Sarrera 61:** **ardaú-bárrill//ardáu-barrílle**
- Elkarrizk.:** Patxi E.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *ardoa itsasoratzeko ardo barril txikia (PE)*
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** bestelako gaiak
-
- Sarrera 62:** **ardaú-díro//ardáu-dirú**
- Elkarrizk.:** Jose A. Eizagirre (Motrollo)
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *amai es emona (BL)*
- Def.:** *arrantzaleak, irabaziak banatu eta eurentzako etxean ez emateko zatiari deitzen dautze (M.) / gizonen patrikarako diru (BZZ)*
- Dok. Zubikarai:** AMARI EZ EMON: Arrantzaleak euren diru partilletan alboratzen dituen zatietako bat. Ardautarako edo gizonak euren gastuetarako geratzen diran dirua izaten da. Ba dauka beste deitura bat be: ARDAU DIRUA: au da, ardautarako gordeten dana. Ez da beti dirutza berdiña izaten. Asteaz zelako irabazia egon, ze ikusia dauka, geitxuago edo gitxitxoago izateko. Erri bakoitzean deitura berezia emoten dautse orrelako irabaziari, eta gizon banakak izaten dira dirutza ori etxean lagaten dabenak. AZ(01)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** bestelako gaiak
-
- Sarrera 63:** **ardí-súri//ardí-suríxe**
- Elkarrizk.:** AZ
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** *itxasoan agertzen direzen olatu zuri txikiak AZ (02)*
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** itsasoaren egoera



Sarrera 64:	ardóra (<i>erd.</i>)
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	arrain multzoek gabea mugitzean ateratzen duten argitasuna. Sarea botatzeko une egokia (ME)
Sin.:	<i>suritxasune/ ur erri</i> (BL)
- Ingl.:** trawl door
- Frants.:** panneau de chalut / panneau divergent / planche
- Gazt.:** puerta / puerta de arrastre
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
- Sarrera 110:** **atésa//atésa, atesá(tu), atesáten.**

Elkarrizk.: Boni L.
Kateg. gram.: ad.
Def.: zerbait tenkatu, ondo lotu. (ME)
Dok. Azkue: ATEZA, atezau (B-l-ond), estirar una cuerda
Orot. Euskal Hiztegia: ATEZATU (V-m ap. A) Tensar, estirar
Hiztegi Batua: (-)
Saila: arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 111: **artículo mórtis** (*erd.*)

Elkarrizk.: Boni L.
Kateg. Gram.: lok.
Def.: zerbait agotzen denean esan ohi dena (kasu honetan, karnata) (ME)
Datu entzickl.: *arrañak, bata besti etxen dau sapaldu, asko botaten basu oxijenu galdu etxen dabe askok, eta gitxi baras, oxijenu sobre auke eta an dabil a fandangu, eta jaten emoten batzasu be, an jangotzu arek, bañe asko botaten basu... Arei esaten gako articulo mortis, da gero patroiai beatu karnata gitxi ranin* (BL)
Hiztegi Batua: (-)
Saila: bestelako gaiak

Sarrera 112: **aseitelinása//aseitelinási** (*erd.*)

Elkarrizk.: Agurtzane O.
Kateg. gram.: Iz.
Def.: itsasorako jantziak kresaletik babesteko erabiltzen zen olio mota (ME)
Datu entzickl.: *aseitelinasi esaten gakon, olanik esaten gakon, "aseite de linasa" ixango zan. Kofraxan saltzen san. Iru-lau baño emoten gakon, eta gausi san selako aseitelinasi eukan, txarra basan, pea etxen sin eurak*



- Datu entziki.:** *alkarreas, ona basan es*²³ (AO)
guk kuarto baten eukitxen gendusen dindiliske. Ori inpermeabli ixateko ra. On eruten dis plastikosko onek, eta arek sin telaskuk, tela lodixe, olona estiloko teli eta areas etxen sin josi eta asitelinasa emon. Emoten gakon trapo bateas, belauniko jarri eta akordaten nas gurik brillante-brillante eukitxen banak. Eta plastikuk urte ben gero (AO)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** prozesaketa;eratorriak
- Sarrera 113:** **átoi//atói**
- Elkarrizk.:** Jose A. Eizagirre (Motrollo)
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** *erremorkea (M)*
- Dok. Azkue:** ATOE, atoi (B, L, G), remolque.
- Orot. Euskal Hiztegia:** ATOI (V, G, L ap. A), remorque
- Dok. Julián Amich:** REMOLCADOR: Buque de poco porte, a vapor o a motor, con una fuerza de máquina desproporcionada al tonelaje del casco y que se emplea para dar remolque a los otros buques. Los hay de salvamento, de puerto y de alta mar.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Ingl.:** steam tug (Amich)
- Frants.:** remolqueur
- Gazt.:** remolcador
- Saila:** ontzi-motak
- Sarrera 114:** **átun//atúne** (*Thunnus alalunga*) Ik. *Egalúsi*
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.

²³ “Aceite de linaza” deitutakoa, arrantzaleek erabili ohi zuten “ziezko” arropak zaintzeko erabiltzen zen. “Ziezko arropak”, garai haietan arrantzaleek erabiltzen zuten jantzia zen (materiala da “ziezkoa”)

- Def.:** ATUN: Thunnus generoko arraina, bereziki, hegalaburra (IS)
- Datu entzikl.:** *Eta onek normalin ibiltzen dis atun txikixas, txermolas, atun andixas da es. Atun andixai seuk einbirtzatzu maniobri, se laune eukitxesu albutu kakuas, kaku sartzen dabenin enbarkaten dabenin arek kakuai eutzi etxetza ta atunai bustenetik eta suk kañaberi besun dosule amuai agarrateotza ta krak, listo barrurako. (...) Mataputxeti eukitxesu amentxe kaelan aspixan. /Patroik esateotza, "kanporatxua bixkat", efetu eukitxen dau berai, berak arrañak be atzeatu etxen da, iual solta eiñ dde atun bat, o kaku be jun eiñ dde, arrañe bera konturatu etxen da, "kanporatxua bixkat, kanporatxua bixkat". (BL)*
- Dok. Zubikarai:** Lok.: "ardi urte, atun urte", Ondarroan ardia deitzen jako arkakuxoari. Origaitik soinean nai jantzietan ardi asko batzen danetan, erabilten da esaera au. Ez dauka zer ikusirik artzaiñen ardiekin AZ (01)
- Dok. Azkue:** ATUN: 1^o (c), atún
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 117 orr.
- Dok. Julián Amich:** ATUN: Pez grande de los acantopterigios y del cual hay varias especies e infinidad de variantes en color y tamaño.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Ingl.:** Tunny
- Frants.:** Thon
- Gazt.:** atún
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak.

Sarrera 114.01: ATÚN (ÁNDI)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: tamaina handiko atuna (ME)

Dok. Eneko Barrutia: M-d: hamar kilotik gorako atuna. B-g: zortzi kilotik gorako atuna. B-j: hamar kilokoa EB(02) 118 orr.



Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 114.02: ATÚN (GOSÉSTO)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *atun jantzalli (BL)*

Def.: karnata erraz irensten duen atuna (ME)

Zitak: *atune gosestu bara, ilddaku ixanda be bardiñ jangotzu arek (BL)*

Saila: arrainak; nolakotasuna

Sarrera 114.03: ATÚN (JANTZÁLLE)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *atun gosestu/ labarmena (BL)*

Def.: gose handia duen atuna (ME)

Zitak: *atune jantzalli joten bosu, a ugarra kendu etxetza berak auan (amuai), a enbarkaten, enbarkaten, enbarkaten (BL)*

Saila: arrainak; nolakotasuna

Sarrera 114.04: ATUN TXIKI (*sarda sarda*)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: tamaina txikiko atuna (ME)

Orot. Euskal Hiztegia: ATUN TXIKI (Lar, H (-th), Fau Mar 89), bonito, <<boniata, atún de menos cuerpo>>

Hiztegi Batua: (+) atuntxiki

Saila: arrantza espezieak, arrainak

Sarrera 115: **atún-ádur // atún-adúrre**

Elkarrizk.: Nekane/Itxaso

Kateg. gram.: Iz.

Def.: euri fina (ME)

- Dok. Azkue:** ATUN-ADUR (B-l), lluvia muy menuda.
- Orot. Euskal Hiztegia:** ATUN-ADUR (V, m), lluvia muy menuda
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** eguraldia eta haizeak
- Sarrera 116:** **atunéta // atunetí** *Ik. Karmel 1994-3, 36-42*
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** atuna arrantatzeko garaia (ME)
- Zitak:** *ba atunetan be kasan, espetak atuneta juten gasenin, on kasa txikixauak juten dis (BL) / atunetako balixo rau onek e! (DM)*
- Dok. Azkue:** ATUNETA (B, ...), ATUNKETA (L), pesca del atun, (L-côte): la pesca del atún comienza en mayo, hasta julio el atún rojo, y de allí en adelante hasta noviembre el atún blanco.
- Orot. Euskal Hiztegia:** ATUNETA (V-G), pescando atún, a por atún...; (sust.)
pesca del atún
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 117 orr.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Saila:** arrantza motak
- Sarrera 117:** **atxámart//atxamáрта**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** txarpa / karpin (euskalt.)
- Def.:** lau amo-punta dituen arrantzarako gailua (ME)
/arrantzarako lau amurekin egiten dan lotura bat (M)
- Datu entzikl.:** *bi amo erutetxus. Amu juten da tapata, amen laso gorritxu bat eruten dau, gorrixe o berdi o baltza, arraňan bentxansiñoi re ori danoi / kasaku re, atxamartan gañin eoten da maluti (BL)*
- Dok. Zubikarai:** Ik. Amu AZ(01)



- Dok. Azkue:** AT^SAMARTA (G-don-zmay), c
- Orot. Euskal Hiztegia:** ATXAMARTA (G-bet-azp ap. A), <<cierto aparejo de pesca>>, <<conjunto de cuatro anzuelos fuertemente unidos en forma de ancla, que usan los pescadores para coger mubles sin cebo.>>
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 118 orr.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Ingl.:** gango-hook / composite hook
- Frants.:** hameçon multiple
- Gazt.:** anzuelo múltiple / robador / granpín
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
-
- Sarrera 118:** **atzándel//atzandéla**
- Elkarrizk.:** Doroteo E.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** *baforan atzeko parti (BL)*
- Dok Eneko Barrutia:** kordelak eskua ez ebakitzeko atzamarrean ipintzen zen trapua edo bizikletearen gurpilaren goma. B-a: alatzeko atzamarretan erabiltzen dira, ostantzean sokalak eta pitak ebaki egiten du eta batzuei maskurra atera EB(02).²⁴
- Oharra: Eneko Barrutiak *aztandel* jaso du.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
-
- Sarrera 119:** **átze//átzi**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *popi/atzeko popi (BL)*
- Def.:** *baforan atzeko parti (BL)*
- Dok. Azkue:** ATZE: 1^o (AN-lar, B, G), tras, parte posterior.

²⁴ Nik etxean inoiz pana-tela motakoak ere ikusita dauzkat. Nire aititak, batez ere atunetako sasoian erabiltzen zituen. Halan da ere, hatzaparrak beti zauriz beteta izaten zituen.



Orot. Euskal Hiztegia: ATZE; popa

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 118 orr.

Dok. Julián Amich: POPA: parte superior de la nave, en donde están el timón, la hélice y, antiguamente, en la parte más alta de la misma, la cámara y camarotes. Esto es el sentido general, aunque en realidad solamente es el frente de la obra que cierra el buque por su parte posterior. Así considerada, por su figura, la popa puede tener diferentes aspectos.

Hiztegi Batua: (+)

Ingl.: poop, stern, aft (Amich)

Frants.: poupe / arrière

Gazt.: popa

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 119.01: ATZÉKO (GÍXON)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: kako bidez tamaina handiko arrainak ontziratzeko ardura duen langilea (ME)

Datu entziki.: *atzekuk etxen dau kakuas enbarka arrañe, kendu amu eta barruko gixonai emoteotza / apaxuk ixaten di, batzuk espetekuk eoten di aurrin, naitzut esan gixon bat, a espeteko apaxu aurreko gixonak es, atzekuk goberna bir dau a, atunai agarrateotzanin, espetin laga eta urreatzen danin baja txanpeleta, ekarri ostaure, emon buelta bat eta...* (BL)

Dok. Zubikarai: Lok.: "atzekua tente ta gertu", atzekua, patroiari deitzen dautse txalopetan. Esaera onek, patroia prest dagola eta gertu egoteko adierazoten dau. AZ(01)

Saila: langilea

Sarrera 119.02: ATZÉKO

Elkarrizk.: Jose A. Eizagirre (Motrollo)

Kateg. gram.: Iz.



Def.: txalupa bakoitzeko patroia; atzean joaten dana (M)

Saila: langilea

Sarrera 120: **atzorapílo//atzorapíllu**

Elkarrizk.: Trini/Bego

Kateg. gram.: Iz.

Def.: korapilo mota bat (ME)

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantza eragiketa/maniobrak

Sarrera 121: **(itsas) azal: ásal//asála**

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: urazal (UZEI)

Def.: uraren gainerengo partea (ME)

Dok. Azkue: AZAL: 2º superficie (del agua), superficie de los asuntos.

Orot. Euskal Hiztegia: AZAL (V, G, L, AN, BN ap A), superficie (del agua, de la tierra, etc.).

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 120 orr.

Hiztegi Batua: (+)

Ingl.: surface

Frants.: surface de la mer

Gazt.: superficie del mar

Saila: nabigazioa eta portua

Sarrera 122: **azeituna: aseitúna//aseitúni**

Elkarrizk.: Miren

Kateg. gram.: Iz.

Def.: oliba (ME)

Datu entziki.: *ekarte ben aseitunak barril andixak eta ederrak. Akordaten nas, sartzen giñanin, eskillaran ondun*



eoten sin pipak aseitunanak, esku sartu te artze ben eta jan gero, niri es gatan gustaten da nik es neban artzen. Kaldotsatik ekarten san. Aseituni bir dan moruku etorten san, siku es, jateko moruku antxe. Gero rellena etxe ben. Kaja bat eukan etaaraxe kaja juten san aparatuk kentzetzan asurre, eta gero bestik etxe ben bete aseituni. Eta gero seguruen lengo, beras ekarren kaldu aprobetxako san. Gero kendu ein san ori, ni gastu nitxan bañe, esautu neban bastante denporan aseituna rellenuk etxen (Mi)

Hiztegi Batua: (-)
Gazt.: aceituna
Saila: bestelako gaiak

Sarrera 122.01: ASEITUNÁ-MÁI

Elkarrizk.: Miren

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *aseituni* (Mi)

Datu entzikl.: *aproposa san, olako mai kuadrau bat, makiñatxu bat atateku eta bestu sartzeku, eskus uste dot sartzen sala. Eta gero euran potutan sartzen sin eta aseitunai etxen gakoien euran kaldu ero dana dalaku. Ni enitxan aseituna maxan eon. Bertan etxe ben kaldu be, “aseitunas rellenos de filetes”. Eta bestin etxen san lantzoi. Lantzoi etxen san asala kendu eskos, arraska eta asurre kendu eta filetik eiñ. Filetik ososoik baik, sati batzuk eiñ eta latetan ipiñi. Andixe san ososoik artzeko, puntak ebai, trabesin ebai, filetin sabaleri artu eta. Aseituna maxe esten geuntzan arei. Lau- bost- ero sei eoten sin aseituna maxan (Mi)*

Saila: prozesaketak; eratorriak

Sarrera 123: **azpildura:** *aspildúra//aspildurí*

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *dobladillu* (T/B)

Def.: normalean, praka-barrenetik hartzen den oihal zatia



(ME)

Dok. Azkue: AZPILDURA: 1º (AN-b-goiz, Bc, G, R), repulgo en la costura.

Orot. Euskal Hiztegia: AZPILDURA (V, G, AN, B, BN, R; lar, Añ, Dv, H, vocB (-dur), dobladillo; ribete, orla

Hiztegi Batua: (-)

Saila: sareak/materialak



B

- Sarrera 124:** **babor; ábor//abórra**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** ABABOR: ontziaren ezkerraldea, brankara begiratzuz (IS)
- Zitak:** *obra muerta aborra / berril aborra* (BL)
- Dok. Zubikarai:** ABOR-ESTIBOR (Ezkerretik eskumara). Arrantzaleak txalopako ezkerraldeari, aborra deitzen dautse eta eskumaldiari estiborra²⁵.
- Orot. Euskal Hiztegia:** ABOR (G-bet), babor
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 122 orr.
- Dok. Julián Amich:** BABOR: Situados en el eje longitudinal del buque y

²⁵ Iñoiz baporak edo treneruak erabilten dituen batel-txiki edo txanel deiturakoetan gizon bakarra joaten da erramutan (arraunean), ontzi orreik atzean eukiten daben tolete bakarrari eutsita edo zulo bakarrean erramuaren gerria sartuta, eta arraunketa txiki eta biziak eraginaz erabilten dau bateltxo. Arraunketa era orreri "*abor-estibor erramutan*" deitzen dautse AZ(01)



mirando hacia proa, el casco queda dividido en dos mitades, que se llaman <<babor>> y <<estribor>>. Babor es la mitad de la izquierda.

Hiztegi Batua:	(+) ababor
Ingl.:	larboard / port side / port
Frants.:	bâboard
Gazt.:	babor
Saila:	nabigazioa eta portua

Sarrera 125:	bága//bagí
Elkarrizk.:	Jose A. Eizagirre (Motrollo)
Kateg. gram.:	Iz.
Sin.:	hondoko itsaso (UZEI)
Def.:	<i>olatu sakona (M)</i>
Dok. Zubikarai:	BAGI: beko olatua AZ(01)

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 122 orr.

Hiztegi Batua:	(+) baga-itsaso
Ingl.:	ground swell
Frants.:	houle
Gazt.:	mar de fondo; mar tendida
Saila:	nabigazioa eta portua

Sarrera 126:	bágoi // bagói
Elkarrizk.:	Miren
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	latetan sartutako arraina bata bestearen gainean ipinita gordetzen zuten lekua (ME)
Datu entzikl.:	<i>Eta gero arek latak tabla batzutan ipintxen sin, bagoi deitzeotzen, eta gero ilara bat einddakun tabli ipiñi, gero besti ipiñi, besti ipiñi eta gero gañin ipintxesu arri pillo bat. Arri andixak, pixu dakarrenak, eta alantxeik etxen gendun antxoba kontuk (Mi)</i>

Hiztegi Batua:	(-)
-----------------------	-----



Saila:	arrantzako tresnak/bestelakoak
Sarrera 127:	bái//baixe
Elkarrizk.:	Trini/Bego
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	BADIA: itsas golko txikia, ontziak babesteko balio duena (IS)
Zitak:	<i>baixetan estabelako lagaten treñik eta botaten (T/B)</i>
Dok. Azkue:	BAIZA (B-l-ond), baizadi (B-ond), arrecife, bajos de la costa.
Orot. Euskal Hiztegia:	BADIA (V-m ap. A), bahía; puerto
Dok. Eneko Barrutia:	EB(02) 125 orr.
Dok. Julián Amich:	BAHÍA: este nombre se aplica independientemente a la extensión de la superficie del mar, es decir, se llama bahía desde el golfo de Vizcaya hasta la pequeña da Pollensa.
Hiztegi Batua:	(+) badia
Ingl.:	bay (Amich)
Frants.:	baie
Gazt.:	bahía
Saila:	nabigazioa eta portua

Sarrera 127.01: (ANGULATÁKO) BÁI**Elkarrizk.:** Domeka M.**Kateg. gram.:** Iz**Def.:** angulak harrapatzeko tresna, pandero handi itxurakoa (ME)**Datu entzikl.:** *baxe esaten gakon Ondarrun, baia, Gipuskun (DM)***Saila:** arrantzak tresnak/materialak**Sarrera 128:** **bajámar//bajamárra (erd.)****Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.



Def.: marea behera (ME)

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 123 orr.

Gazt.: bajamar

Hiztegi Batua: (-) mareabehera

Saila: itxasoaren egoera

Sarrera 129: **bajéra//bajéri** (erd.)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: itsasontziak daukan arrain-biltokia (ME)

Datu entzikl.: *arrañe mobiuten badabil, kañaberakuk etxen dau artu mataputxeti*²⁶, *jo, amu kendu te bajera arrañe* (BL)

Hiztegi Batua: (-) azpi

Ingl.: bottom

Frants.: dessous

Gazt.: bajera

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 130: **báka//báki**

Elkarrizk.: JM Ibazeta

Kateg. gram.: Iz.

Def.: arrasterako untzia (ME)

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 123 orr.

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantza motak

Sarrera 131: **bákan**

Elkarrizk.: Domeka M.

Kateg. gram.: adb.

²⁶ Ik. *mataputxéti*



- Def.:** *baforak banaka arrantzan etxen dabenin (DM)*
- Datu entziki.:** *bakan baño, len san, bouan. Da gero, bouko sari, te bakako sari es ti bardiñak. Da baka ori, Galisitxik etorri sin baka ixenas, beste estilo bat san. Ona, pareji baño lena agertutaku re boue. Sarik diferentik sin (DM)*
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 123 orr.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Saila:** arrantza motak/teknikak
-
- Sarrera 132:** **balándro//balándru** (erd.)
- Elkarrizk.:** Miren
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** txalupa mota bat (ME) /*antxiñako bafora (Mi)*
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02)124 orr. *belako enbarkazioak*
- Datu entziki.:** *ona molla gora etorten sin, eta dendetako kamionik eta esan eoten eta eurok ekarte ben, balandreuk ekarte ben, Aixmendinea akordaten da, asukri te. Se ni neska txikixe ixanda, atxana juten nitxanin araxe, eurak deskargaten sitxuen dendeta biberik. On kamionetan ekarten dabena, len balandratan ekarten sin. Ondarrun euasen balandrak, iru ero - lau esautu netxusen (Mi)*
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** ontzi motak
-
- Sarrera 133:** **balandréro//balandrerú** (erd.)
- Elkarrizk.:** Miren
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** *balandroan lan egiten duena (M)*
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** langilea



- Sarrera 134:** **balantzáda// balantzarí**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** kulunkaldi (UZEI)
- Def.:** itsasontziak itsasoaren eraginez egiten duen mugimendua (ME)
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02)124 orr.
- Zitak:** *baforan balantzarak eta ixate gustik, aretxek gogortzeotxu (BL)*
- Dok. Julián Amich:** BANDAJO: Balanceo inesperado, violento y de gran amplitud.
- Hiztegi Batua:** (+) balantzaldi
- Ingl.:** violent roll
- Frants.:** coupde roulis
- Gazt.:** bandazo
- Saila:** nabigazioa eta portua
-
- Sarrera 135:** **bálda//báldi (erd.)**
- Elkarrizk.:** Trini/Bego
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *arrobi (T/B)*
- Def.:** arroba biko egurrezko baldea (ME)
- Datu entzikl.:** *onek eukan amabi kilo te erdi, esta? eta bateas kaja bat etxen san, arroba bi eukasen ordun. Arro bi san Ondarrun, amabi kilo ta erdi. / baldi egurresku san (T/B)*
- Zitak:** bete balda alu e! (T/B)
- Orot. Euskal Hiztegia:** BALDE (V, G), balde
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 124 orr.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Ingl.:** pail
- Frants.:** seu



- Gazt.:** balde
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
- Sarrera 136:** **balléna//balléni** (*Balaenoptera physalus*) (erd.)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** BALEA: itsas ugaztuna, egungo animaliarik handiena, ahoa adarkizko xaflez hornitua duena (*Euskal Hiztegia*)
- Datu entzikl.:** *balleni arrain txiki bille abil beti, te atune be bai, ballenik jaten dabenin berai be allaten gako seoser. Suk ikusiko baseunke on a, ballena andixe tripas gora an baforan aspixan, eta tripi-trapa, tripi-trapa atune. Guk jaten emoteotsau, bañe kentseotsasu berroi ero berrotamar atun ero* (BL)
- Dok. Azkue:** BALE (AN, B-b, BN-s, Gc, L), ballena
- Orot. Euskal Hiztegia:** BALEA (V, G ap.) Añ. Ballena
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 125 orr.
- Dok. Julián Amich:** BALLENA: mamífero del orden de los cetáceos que desde los orígenes de la historia constituye el animal más corpulento del Globo.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Ingl.:** whale (Amich)
- Frants.:** baleine (Amich)
- Gazt.:** ballena
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
- Sarrera 137:** **bánda//bandí** (erd.)
- Elkarrizk.:** JM Ibazeta
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** untziaren hegala EB (02)
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 126 orr.
- Dok. Julián Amich:** BANDA: cada una de las dos mitades simétricas en que se divide un buque siguiendo su eje longitudinal.



Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	side (Amich)
Frants.:	aile
Gazt.:	ala / banda
Saila:	ontzien eraikuntza

Sarrera 138: **bánko//báнку** *Ik. Sardí (erd.)*

Elkarrizk.:	Domeka M.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	arrain multzo handia (ME)

Dok. Eneko Barrutia: EB(02)126 orr.

Dok. Julián Amich: BANCO: mesetas submarinas de gran extensión y a poca profundidad, pero sin peligro para la navegación y que constituyen los mejores parajes para la pesca en gran escala, como el <<Gran Sol>>, <<Banco de Terranova>>, <<Banco del Sahara>> y otros.

Hiztegi Batua:	(-) sarda
Ingl.:	bank (Amich)
Frants.:	banc (Amich)
Gazt.:	banco (Amich)
Saila:	nabigazioa eta portua

Sarrera 139: **baño maría** *(erd.)*

Elkarrizk.:	Miren
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	ura irakite puntuan dagoen unea (ME)

Datu entzikl.: *entzeire²⁷ sikatzen san, segun se egueldi euan ba...
Eta gero latai atzea be bañu emon bigakoie, bañomaria, filetai es, bañe atun kontuk eta egosi ein birixaten sin (Mi)*

Hiztegi Batua: (-)

²⁷ gaztelaniazko *en seguida*-tik dator: *en seguida* > *entzeire*



- Gazt.:** al baño maría
- Saila:** prozesaketak;eratorriak
- Sarrera 140:** **bapore; báfor//bafóra**
- Elkarrizk.:** Domeka M.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** arrantzan egiteko ontzia (ME)
- Datu entziki.:** *gu gastik giñanin de, ordun baforak lelengo juten sin, antxoi atrapatzen ben, manjuban esatesan, ixurdias atrapatzen san* (DM)
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 126 orr.
- Zitak:** *bafor gustik etorten sin onaxe gora arraňak atatea* (DM)
- Dok. Zubikarai:** BAFORA: Lok.: "*baforak katian* (txalopak lotuta), *zirri-zarra oean*" AZ(01)
- Orot. Euskal Hiztegia:**BAFORE; barco de bapor. V. Infran BAFORE-ONTZI
- Hiztegi Batua:** (+)
- Saila:** ontzi motak
- Sarrera 140.01:** BAFORÉ (ÁNDI)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** tamaina handiko ontzia (ME)
- Saila:** ontzi motak
- Sarrera 141:** **barandilla//barandilli** (erd.)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** itsasontziaren hegaletan egon ohi den burdinazko euskarria (ME)
- Sin.:** eskudel (UZEI)



Dok. Eneko Barrutia: EB(O2) 127 orr.

Dok. Julián Amich: BARANDILLA: conjunto de pasamanos y candeleros en los costados, toldilla, puente o castillo de un barco para salvaguardar de caer por la borda. Sinónimo de <<barandal>>.

Hiztegi Batua: (+) baranda

Ingl.: hand rail

Frants.: garde - corps / rambarde

Gazt.: barandilla

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 142: **bárbal//barbála**

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: arrainen harat-honatak sortzen duen ur-zurrunbiloa (ME)

Zitak: *eta barbala topaten sendunin bota karnati eta etorten gatzun lepos dana* (BL)

Dok. Azkue: BARBALAKA (BN-s, R-bid, Sc), en grande ebullición

Orot. Euskal Hiztegia: BARBAL en esanahia <<pendenciero>> bezala bildu du Mitxelenak; bestalde, BARBALAKA ere bildu zuen eta <<en grande ebullición>> bezala definitu. Ondarruko arrantzaleek, BARBALA, gaztelaniazko "ebullición" esateko erabiltzen dute.

Dok. Eneko Barrutia: EB(O2) 127 orr.

Hiztegi Batua: (-)

Gazt.: ebullición

Saila: itxasoaren egoera

Sarrera 143: **bárbaiñ//barbáñe** (*Mullus surmuletus*)

Elkarrizk.: Domeka M.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: BARBARIN: kolore gorriko arraina, itsas hondo



lohitsuetan bizi dena, sukaldaritzan oso aintzat hartua (IS)

Datu entzikl.: *barbañetan len ibiltxen gendun malla-bakarra. Bata tresmalli rana, ba, malla-bakarra, osea, are bakarras, enejeneral barbañe atrapatete (DM) / barbañe ra ba, arrain gorrixe, eskamak gogorrek dakasena, oso presiatu eta gosu. Orixu brijiutakun gorri-gorrixe lagaten dau, arrañe fiñe ta ederra ta... malla goiku re ori e! Ori gexen baten negun atrapateten da, amentxe arrastin. Arrasteruk atrapateten dabe eta arrasteruk enjeneralin dis ondarrekuk, atxetan da urrin baabis, sarik jota apurtu etxen dis (PE)*

Dok. Zubikarai: AZ(01)

Dok. Azkue: BARBARIN (Bc, G), salmonete, un pez marino.

Orot. Euskal Hiztegia: BARBARIN (V, G, L; Zam Voc), salmonete, un pez marino.

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 127 orr.

Dok. Julián Amich: SALMONETE: pez acantopterigio mullus arbatus, de cuerpo alargado, de magnífico color rojo o rosado, provisto de dos barbillas eréctiles en la mandíbula inferior y dos dorsales.

Hiztegi Batua: (+)

Ingl.: surmullet, red mullet (Amich)

Frants.: rouget

Gazt.: salmonete de roca

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 144: **báre**

Elkarrizk.: Jose A. Eizagirre (Motrollo)

Kateg. gram.: adj.

Sin.: kalma (M)

Def.: *itxas geldia; "calma" (M) / itxasoa kalman dagoanean (BZZ)*

Dok. Zubikarai: BARE-BARE: itxasoa geldi-geldi dagoanean. Calma



chicha. AZ(01)

Dok. Azkue: BARE: 3^o (AN-b, B, G), calma en la mar.

Orot. Euskal Hiztegia: BARE (V, G, L, Sal; Aq 1232, Añ, H), tranquilo, sereno, calmado; perezoso, indolente.

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 127 orr.

Dok. Julián Amich: CALMA: falta de viento y tranquilidad del mar.

Hiztegi Batua: (+)

Ingl.: dead calm

Frants.: calme

Gazt.: calma

Saila: nabigazioa eta portua

Sarrera 145: **barénga//baréngi**

Elkarrizk.: Jose A. Eizagirre (Motrollo)

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *txalupa bateko ohol okerra (M)*

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 128 orr.

Hiztegi Batua: (-)

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 146: **(arraíñ) bariáu**

Elkarrizk.: Miren

Kateg. gram.: Adj.

Def.: arrain mota desberdinak (ME)

Datu entziki.: *tiña botaten zan bariáu, eta arrain zurixe botaten zan maxeta. Leatza, mediani, gordi, peskadilla txikixe eta orrek danok gero aparta ein bizin. Ureta botaten zin garbitzeko. Arrasterutaku zan (Mi)*

Hiztegi Batua: (-)

Saila: Arrantza espezieak. Arrainak



- Sarrera 147:** **barilla//barilli** (*erd.*)
- Elkarrizk.:** Domeka M.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** kabra aparioaren hagaxka EB(02)128 orr
- Hiztegi Batua:** (-)
- Gazt.:** varilla
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
-
- Sarrera 148:** **bárra**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz
- Def.:** portua; itsasontziak lotuta egon ohi diren lekua (ME)
- Sin.:** portu/molli (BL)
- Zitak:** *barratik urteten sendunin, puntun bertan botaten san korrederi* (BL)
- Dok. Zubikarai:** Lok.: "*barren barra olatuak*": olatu andiak. Barrajo ta gaiñez egiten dautzenak. AZ(01)
- Dok. Julián Amich:** MUELLE: andén, malecón, rampa o cualquier otra obra de fábrica o de madera que puede ser utilizada dentro de un puerto para facilitar el embarque o desembarque de mercaderías.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Ingl.:** warf (Amich)
- Frants.:** mole, quai (Amich)
- Gazt.:** muelle (Amich)
- Saila:** nabigazioa eta portua
-
- Sarrera 148.01:** BARRARÍK-BÁRRRA
- Elkarrizk.:** AZ.
- Kateg. gram.:** adb.
- Def.:** *olatur barriai toki askotatik eraitxetzanin* (DM)
- Dok. Zubikarai:** barrako esien gaiñez-gain dabillana. "*olatu arrotua*" be



deitzen da. Zabal etorri eta itxas mugarren gaiñetan ibiltzen
danari AZ (02)

Saila: itxasoaren egoera

Sarrera 149: **(baforán) barrénes**
Elkarrizk.: Boni L.
Kateg. gram.: adb.
Def.: itsasontziaren parean (ME)
Zitak: *arrañ ona ra a, arin datos baforan barrenes* (BL)
Hiztegi Batua: (+) barren
Saila: nabigazioa eta portua

Sarrera 150: **bárril//barrílle** (erd.)
Elkarrizk.: Trini/Bego
Kateg. gram.: Iz.
Def.: *barrillak sin, antxoa txikixaua ero inferiorraua ero; egunak asko pasata euana ba, arek sartzen sin moñuk endde filetik etzeko tokixe* (T/B)

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 129 orr.

Hiztegi Batua: (-)
Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 151: **barrilléro//barrillerú** (erd.)
Elkarrizk.: Trini/Bego
Kateg. gram.: Iz.
Def.: langilea (ME) / *barrillak etxen bana* (T/B)
Datu entziki.: *barrille bai, bañe gero lateroa jun san estañuas, lati etxen belako txikixaua* (T/B)
Hiztegi Batua: (-)
Saila: langilea

- Sarrera 152:** **barrukó (gíxon)//barrukú**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** arraina untziratzen duen arrantzalea (ME)
- Datu entziki.:** *gixon abille ixan bir de. Eta barrukuk etxetzu arraÑe akarrenin bera baja, kostature (BL)*
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** langilea
-
- Sarrera 153:** **basátza//basátzi**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *ondartzi (BL)*
- Def.:** Basaz edo harez betetako itsas-zorua (ME)
- Datu entziki.:** *enjeneralin arrixan eoten da arraÑe, kabri te faneki te, ondartzan, basatzen bapes (BL)*
- Dok. Azkue:** BASA 1º(B-l-mon-oñ-tx,L-ain), lodo,cieno
- Orot. Euskal Hiztegia:**BASATZA (V; Aq 1422, H, Zam Voc) lodazal, barrizal.
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 130 orr.
- Hiztegi Batua:** (-) basa
- Gazt.:** lodazal
- Saila:** ingurune biologikoa
-
- Sarrera 154:** **bátel//batéla**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** arrantzan egiteko edota liorretik itsasontzira joateko ontzi txikia (ME)
- Dok. Zubikarai:** BATELA: atze ta aurre egituran bardintsu, atzean lema eroanaz, bere burdiñezko zulo ta ardatzagaz. ²⁸

²⁸ Iru tosta, atzeko txopa ta bruzola aurrean. Espalda amaieran, gilla gaiÑean, egur gogor bategaz egiÑiko utsune bat, bietza deiturakoa, bruzoletik etorren belaren agea sartzeko. Zazpi tolet eta barenga utsunak, panel eta ol zabal batzuketin estalduta, errezago ibilteko. Onelako batelak gaur



Dok. Azkue: BATELA (AN-ond) chalana, bote muy pequeño y achatado.

Orot. Euskal Hiztegia:BATEL (V, G; Lcc, IC, Mic, Urt I 70, Lar, Hb ap. Lh) lancha, bote.

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 131 orr.

Dok. Julián Amich: BATEL: bote usado en las rías y puertos de Vizcaya y Guipúzcoa que lleva tres remos, el tercero de los cuales sorve para remar a la sirga y, a la vez, para gobernar la embarcación.

Hiztegi Batua: (+)

Ingl.: small boat

Frants.: bovéé

Gazt.: batel

Saila: ontzi motak

Sarrera 154.01: (ERRAMÚKO) BÁTEL

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: erramo bidez, arraunean eginez, aurrera egiten duen ontzia (ME)

Zitak: *erramuku bara, tostak dakas (BL)*

Saila: ontzi motak

Sarrera 155: (orrátzin aríxe) batú, bátzen.

Elkarrizk.: Trini/Bego

Kateg. gram.: ad.

Def.: sarea konpontzeko erabiltzen den haria orratzean bildu (ME)

Zitak: *miñe ra orratzin arixe batzeko leku (T/B)*


Hiztegi Batua: (+)

Saila: arrantza eragiketa eta maniobrak

motorragaz ibiltzen dira. Berdel, kabra, txibi eta tresmalletan ibilteko egokiak. Neurri biko batelak ezagutzen dira. Sare batelak, hogeitau bost oifekuak eta txibi batelak, hogeitau edo hamazortzi

- Sarrera 156:** **baxura; bajúra//bajurí**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** antxoa, atuna, berdela eta abar arrantzatzen den arrantza mota. Kostaldetik nahikoa hurbil egiten den arrantza (ME)
- Dok. Eneko Barrutia:** txikiak, kostan ibiltzen direnak legatzetan-eta EB(02) 123 orr.
- Hiztegi Batua:** (+) baxurako arrantza
- Gazt.:** bajura
- Saila:** arrantza motak
-
- Sarrera 157:** **béla//béli**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** haize -oihal (UZEI)
- Def.:** oreka mantentzeko oihal zati handiak (ME)
- Datu entzickl.:** *beli eoten da soka jota* (BL)
- Dok. Zubikarai:** BELI: txalopetan ibiltzen diran aize oialak izaten dira. Sei eratakoak izaten ziran, eta euren izen bereziak eukiten zituen. Belaren izenak: nagusia; trinketa; artaina; burriketa; burriketa txikia; artzaina. Belak lau parte eukiten zituen: bekoa: BRAGERA, goikoa: ENBARGERA, aurre-aldea: ARLINGA, atze aldea: ESKOTERA. / Lok.: "*belakin asarratutako aixia*", aize zakarra. AZ(01)
- Dok. Azkue:** BELA (c), vela de buques. Hay seis clases de velas en las lanchas. He aquí sus nombres (de mayor a menor) a/ nagosi (BL), nagusi (G), vela mayor b/ trinket (B, S), trinquete c/ artain (B-ond), bitarteko (G-don), vela mediana d/ baliztoi (B-l).
- Orot. Euskal Hiztegia:** BELA; vela (de navio)
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 134 orr.

oiñekoak.Lok.: "*batela ta txanela bereizten ez dakiana, ez da marinela*". AZ(01)



Dok. Julián Amich:	VELA: pieza de tejido u otro material que desplegada al viento da a la embarcación el impulso necesario para navegar.
Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	sail
Frants.:	voile
Gazt.:	vela
Saila:	ontzien eraikuntza

Sarrera 157.01: BÉLAN (JÚN)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: adb.

Def.: bela bidez aurrera egin (ME)

Zitak: *belan juten sin orrek* (BL)

Saila: nabigazioa eta portua

BELA IZENAK:

Sarrera 158: aurreko béli

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *aurreko troku* (BL)

Def.: aurreko aldean egon ohi den bela (ME)

Datu entzickl.: *aurreko beli esaten gako orrei, aurreko troku be, aurreko beli ero troku* (BL)

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 159: nausíxe

Elkarrizk.: AZ.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: aurretik erdira bitarteko bela; handiena (idatziz; PE) / BEL NAGOSIA:
txalupek erabiltzen zuten bela handiena, aurreko palutik atzerantz.

Dok. Azkue: NAGOSI (B), NAGUSI (G), vela mayor.



Datu entziki.: *erderasko bela maiorretik datorrena* (BL)

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 160: trinkéta

Elkarrizk.: AZ.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *bela txikia* (ME)

Datu entziki.: *Bela txikixaua. Guk bela andixe eta bela txikixe ibili ixan dou baforetan eta gero latiñe, latiñe ra atzeku eta aurreku re foka* (DM)

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 161: artáñe

Elkarrizk.: AZ.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *bela mota bat* (PE)

Datu entziki.: *Bela bat da, Ondarrun “artani” dakat entzunde* (PE)

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 162: burrikéta

Elkarrizk.: AZ.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *bela mota bat* (PE)

Datu entziki.: *Burriketa da beste bela bat. Trinkete ra agi beline, es? Eta gerokun goi partin, bixkat beratxua searketa eoten da beste palo bat, eta ortxe juten dan beli, trapesixo formi ero akarrena, oxe ra burriketa. Esta botabari, botabari beraua eruten dau* (PE)

Dok. Azkue: BURIKETA (AN-ond, B-b.ond, G-zumay), burriquete, velas pequeñas de las lanchas. Hay dos: BURRIKETA y BURRIKETA-TXIKI.

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 163: burrikéta txikíxe

Elkarrizk.: AZ.



Kateg. gram.: Iz.

Def.: *bela mota bat* (PE)

Saila: ontzien eraikuntza

BELA ZATIAK

Sarrera 164: bragéra

Elkarrizk.: AZ.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *belan refortzu* (DM) / Armazoiak gogortzeko bela zatia, aurretik hasi eta atzeraino (ME)

Datu entziki.: *Burriketa da beste bela bat. Trinkete ra agi beline es? Eta gerokun goi partin, bixkat beratxua searketa eoten da beste palo bat, eta ortxe juten dan beli, trapesixo formi ero akarrena, oxe ra burriketa. Esta botabari, botabari beraua eruten dau* (PE)

Dok. Azkue: BRAGER (B-b), braga, tabla que á modo de barandilla se fija por dentro en el costado de las lanchas, por debajo de los bancos.

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 165: arlínga

Elkarrizk.: AZ.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *belin aurreko aldi* (PE)

Datu entziki.: *Ori re belan parte bat. Belik bir ixaten dau matexal lodisua sokiai lotzeko ta bera ta, errefortzo morun, orkoxe partik dis. Guk “erlengi” esatetzau, belin aurreko aldi* (PE)

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 166: eskotéra

Elkarrizk.: AZ.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *belin alde bat* (PE)



Datu entziki.: *Belin beste alde bat. On estotzut esango ondo se aldetaku ran bañe oxe ra. Orrek egaletan juten dis (PE)*

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 167: **belárrri//belarríxe**

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: arrainaren ziletik hasi eta zakatzerartekoa EB(02) 135
orr.

Dok. Azkue: BELARRI (Bc, G), agalla de peces

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrainaren morfologia

Sarrera 168: **belórtzio//belórtzio**

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *apaxo klase bat (BL) / ezpeteko kanporengo apaixua (M)*

Datu entziki.: *lau apaxo dus amen, au re belortzio, au puntaku, erdiku te au barruku (BL)*

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantzako tresnak /materialak

Sarrera 169: **bénta//bénti**

Elkarrizk.: Domeka M.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: arraina subastatzen den lekua (ME)

Datu entziki.: *bentaik esban eukitxen (antxoi) txikixe basan (DM)*

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 136 orr.

Hiztegi Batua: (+)

Saila: nabigazioa eta portua



Sarrera 170:	bérdel//berdela (<i>Scomber scombrus</i>)
Elkarrizk.:	Patxi E.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	BERDEL: itsas arraina, sardina baino handiagoa, ur-azalean baltsatan bizi dena (IS)
Datu entzikl.:	<i>amen sekule estimasiñoirik ez gako emon. Arrain berdi. Niri berdela beti gusta ixan gasta. Prijiute gosu. Eta amen eonda beti arrain berdi kalteako rala osasuneako</i> ²⁹ .
Dok. Zubikarai:	BERDELA: arrain izena. Caballa, verdel. Scomber Scombrus. Batzutan gizonaren txis bidetzat erabilten da deitura hori. / Gizonen txis bidea agertzeko. Lok.: "berdela beti zorrotz orrek!", gizon andre zale baiña aragikeriz ibiltzen dana. / "Berdela agirian dabillan gizonak, ez dauka lotsarik", "Berdela erakusten dabillan gizonak, ez dauka andrarik", " AZ(O1)
Dok. Azkue:	BERDEL 1 ^o (Bc, Gc), pez marino, algo mayor que la sardina, y cuya carne es muy ligera.
Dok. Eneko Barrutia:	EB(O2) 137 orr.
Dok. Julián Amich:	CABALLA: nombre vulgar de los peces scomber, de la familia de los escómbridos. Comprende los ejemplares de cuerpo alargado, adelgazados hacia la cola, y que llegan a tener una longitud de cincuenta centímetros, pesando más de un kilogramo; tienen el dorso de color azul acerado, con reflejo metálico verdoso y unas líneas quebradas paralelas de color más oscuro y el vientre casi blanco brillante.
Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	quab (Amich)

²⁹ *Ta nausixak, len, beti arrain zurixe ona, eta ongo urtitan alderantzis, on dakixen gustias, on arrain berdi kolesterolantzako ona ra. Eta fabrikantik erute ben berdela latetan da sartzeko ta. Aspaldiko urtitatik ona, beste nasiñoitxan da estimau ra ori, Alemanin de, beti eonda berdela ta txitxarro andixe ta, Italire exporta ta etxen dabe. Bertan be bai, e? Bertan be fabriketan da etxen dabe .eskabetxin de salasoin de, guk ikusi ixan dous urtitan or Kastillan sir de Segobian da, ene!, "Ondarruko lata andixak amen!" an, berdelanak. Da berdela nai rot nik onenbeste, pixun e! Kilo bat ero, bosteun gramo ero, lata anditxik ata, mamiñ utze ixaten zan e!, mamiñ lusi, da emoteotzen ensaladan jateko. Ensaladako atunan eta lantxeik, berdela, gustaten gakon asko. (PE)*



Frants.: maquereau
Gazt.: caballa / verdel
Saila: arrantza espezieak. Arrainak.

Sarrera 171: **bérga//bérgi**³⁰

Elkarrizk.: Boni L.
Kateg. gram.: Iz.
Sin.: *palu (BL)*
Def.: itsasontziak izan ohi dituen hagak (ME)
Datu entziki.: *beli juten san berga (BL)*
Dok. Azkue: BERGA (B, G,), verga de lancha, vergue de bateau de pêche.
Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 138 orr.
Hiztegi Batua: (+)
Gazt.: verga
Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 172: **berlénka//berlénki**

Elkarrizk.: Patxi E.
Kateg. gram.: Iz.
Def.: perlitaren antzeko arraina. O-b: normalean perlita baino haziagoa da EB (02) 130 orr.
Dok. Zubikarai: AZ(01)
Dok. Eneko Barrutia: O-b.: lehen kordan atrapatzen zen, besigutara joaten zenean. Berlenka ez da askoa, gutxia da; arrasteroek gutxi atrapatzen dute, gutxi-gutxi. Gozoa da jateko. EB(02) 138 orr.
Hiztegi Batua: (-)
Saila: arrantza espezieak. Arrainak.

³⁰ Elhuyarrek, "*berga*" -*vara para medir, medida*- bezala jaso du



Sarrera 173:	berríll//berrílle
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	enbarkazioko leku bat (ME) / guardakolora baino atzeragotxuago eta atzea baino aurrerago babor-estiborretan, enbarkazioaren erdi inguruan, botabera bertan joaten da EB (02) 130 orr.
Dok. Azkue:	BERRIL (B-ond), uno de los bancos de la lancha.
Hiztegi Batua:	(-)
Saila:	ontzien eraikuntza

Sarrera 173.01: BERRÍLL (ÁBOR)/ BERRÍLL (ESTÍBOR)

Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	babor-estiborrean egon ohi den berrila (ME)
Saila:	ontzien eraikuntza

Sarrera 174:	berrúget// berrugéta (erd.) (<i>Argyrosomus regius</i>)
Elkarrizk.:	AZ
Kateg. Gram.:	Iz
Sin.:	antesa (AZ)
Def.:	arrain mota (ME)
Hiztegi Batua:	(-)
Gazt.:	corvina / berrugeta (AZ)
Saila:	arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 175:	berun; béun//beúne
Elkarrizk.:	Trini/Bego
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	treinaren beheko partea urazpian edukitzeko pisu handidun gailua (ME)
Zitak:	<i>treñak beran kortxu, beran beune eta beran gausakin (T/B)</i>
Dok. Azkue:	BERUN (Bc,Gc,Lc), plomo

Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	lead
Frants.:	plomb
Gazt.:	plomo
Saila:	arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 175.01: BEÚN (ANDI)**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** tamaina handiko beruna (ME)**Saila:** arrantzako tresnak/materialak**Sarrera 176:** **besíu//besíue** (*Pagellus bogaraveo*)**Elkarrizk.:** Patxi E.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** BISIGU: Sparidae familiako arraina, haragi zurikoa, sukaldaritzan oso aintzat hartua (IS)**Datu entziki.:** *pantxo andixe balitxake moure, bañe esta pantxu. Besiue ra, len esatzut, konsideraten da surixe ero (...)*
*ortxe gausan da.*³¹**Dok. Zubikarai:** BESIGUA: bixigu, besigu. *Pagellus centrodontus.*

³¹ *Bestelaik beroi re ba, arrañe gusto ederra akarrena erreta bates be, saltzan be bai, saltzan be lena, ni gastu nitxanin de, arrañai estimasiñorik bes guk, bañe ordun egunero negun ekarten san. (...). Besiue garbitzen san, eta garbitxute eoten san sikatzen, bixkat ure juten, eta ordu batzutan bara obeto eoten da. Itxosun etxen san matordo³¹ batetik beste matordoako, freskuei be esta ain egokixe ixaten buntu be, bixkat ordu batzuk eta gero obe ixaten da arrañe ta. Gero, afatzako sasoin ebatxen etxin, ebatxen satixak, tajadak, eta ba, patatak kipulias, kipula gorrixas etxen da, lurreko kasularan, kipula gorrixe ipiñi txikitxute ta gurin, beintzat, etxe ben besiu tajadak antxe bixkat gorritxu, alde bat bixkat gorritxu eta besti be gorritxu, bixak gorritxutakun plater batea ata ariñ, buru erditxikpi ebatxe, beixak kendute, arrañai beixak kendu bigako ta. Geokun, an kipulatan etxen san, orixotan, patatak etxen sin. Aretxek patatak eiñ, saltza bat etxen dan lantxeik eta gero pasaten san antxe kipula-orixotan patati te geokun bota gakon ure bir daben apurre, ur gitxias, eta patatak antxe eiñ, patatak tapa ta eiñ. Ixe eindde euasenin, a arrañe etxen gako sartu gañin kurioso-kurioso, eta gosu ixaten san. Besiu bera arrain gorrixe ra, metro erdi baño txikitxua da, berrotabost baño gexarik esta ixango. Esta bera luseran asko asten dana, bustena be estakar oso andixe (PE)*



Arrenea da, au da, hemafrodita esaten dana. ³²

Dok. Azkue: BESEGU (B-b), besegu.

Dok. Eneko Barrutia: EB(02) 138 orr.

Dok. Julián Amich: BESUGO: Pez acantopterigio de la familia de los espáridos, de pesca preferentemente invernal; de cuerpo oval, ojos grandes y dorso rojizo, con el vientre blanco rosado.

Hiztegi Batua: (+) bisigu arrunt

Ingl.: sea bream

Frants.: dorade commune

Gazt.: besugo

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 177: **besiú-errége// besiú-erregí**

Elkarrizk.: Patxi E.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: bisiguaren antzeko arraina; gorri kolorekoagoa eta begi handiagoak dituen (ME)

Datu entzikl.: *ori re besiuan lakoxi re, bixkat asitxua lantxeik. Tamaños gitxi asixaua, bestelanik, gorrixaua ondio. Besiu bera ain gorrixo esta, bañe au gorrixo ra, aren konparasiñoñ gorrixo ra, beixe asitxuaue bañe alakoxi re. Ori gitxi atrapatzen san, arrastin tartin bakarrak etorten sin. Neuk datxela³³, orren aldin besiuo askos obi re. Esta txarraua ralako au, bañe... (PE)*

Dok. Azkue: BESIGUEN ERREGE (B, G), pez parecido a besugo,

³² Len neguan arrantzaten zan. Ortik esaerak: Santa Katalina noiz da? Besigutarako goiz da. (Santa Katalina Azilla' ren 25'an izaten da). Geroago ugaritzen zalako edo dator beste esaera: San Txilibristo, besigua aotik dindilizka. (31 Gabonilla). Eta beste bat, San Anton, besiguak al monton. (San Anton, Urtarrilla' ren 19'an). Orain urte guztian zehar artzen da, eta Dagonillan egoten dala koipetsuen esaten da. Urte guztian arrantzate au, arrasteko erabidea urte guztiko arrantza dalako da. / Nortasuna erakusten da besigu deituregaz. Duintasuna. Lok.: "ori da besigua, ori!" edo ta "besigu txarra da ori!" AZ(01)

³³ datxela = dakidala



- más rojo y de ojos grandes.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
- Sarrera 178:** **besigusále//besigusalí**
- Elkarrizk.:** Patxi E.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** arraun eta bela bidez gobernatzen den txalupa (ME)
- Datu entziki.:** *txalopa lurrinkien aurrekoa, troxkoa (nahiko handia), txalopa handia baino txikiagoa eta treñerua baino zabalagoa (arraunez eta belaz gobernatzen da), 15 untzilari inguru, 8 tosta, 12'50 m. Inguru. Lurrinekiak atoan eramaten zuen kordan aritzeko kalara (PE)*
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** ontzi motak
- Sarrera 179:** **besiútan**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** adb.
- Def.:** bixiguak arrantzatzen (aritu) (ME)
- Datu entziki.:** *lelengo mundillak botatesu, gero kordi, au re kordin goxe, bañe au ondure botaten da, arrixe da ta. Au papardotan da besiutan da esan ibiltxen (BL)*
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(02) 138 orr.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantza motak/teknikak
- Sarrera 180:** **betándi//betandíxe** (*Scomber –pneumatophorus-japonicus*)
- Elkarrizk.:** Patxi E.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *makarela (PE)*



- Def.:** berdelaren itxurako arraina (ME)
- Datu entzikl.:** *betandixe ra berdelan lakoxi. Askotan, berdela baño asixaua ra, berdel andixe baño andixaua ra betandixe, bañe kalidadi, bajua. Familixa bardiñekuk ixati lantxeik. Aspaldiko urtitan betandixe andixaua be etorten san berdelan aldín, trokotxuaue, de marmitxaku etxen san, ondo eoten da, bañe orren aldín berdela estimau re (PE)*
- Dok. Zubikarai:** BETANDI: leku batzuetan makarel deitzen dautse arrain oneri. Bestetan BETANDI. Galiziarrek, ordez, "caballa" saillean sartu nai izan dabe eta Laterrian eurak dauken geienkoenez, alaxe beartu euskaldunak bere deituratzat. Baiña euskaldunak diñoie berdela eta beste mota bat dala. Erderaz daukan beste izen bategaz plazaratu ezkerro, erosleak txorien bat ete dan zalantzan geratzen dira: estornino. AZ(O1)
- Dok. Eneko Barrutia:** EB(O2) 139 orr.
- Dok. Julián Amich:** ESTORNINO: Especie de caballa más pequeña que la corriente, con ojos mayores y unas manchas en la parte baja de los flancos. Es pez propio del Mediterráneo.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Ingl.:** spanish mackerel
- Frants.:** maquereau espagnol
- Gazt.:** estornino
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak.
- Sarrera 181:** **(arrañán) betxansíñoi**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz
- Def.:** arrainaren arreta (ME)
- Zitak:** *arrañak be, karo, betxansíñoi rakar / bein kolpe etxetzanin amu sartute dakar bañe aretxen betxansíñoi dakar da erria osteabe / betxansíñoi etorten gako berai arrañai (BL)*

Hiztegi Batua:	(+) begitazio
Ingl.:	imagination
Frants.:	figuration
Gazt.:	figuración
Saila:	arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 182:	bibéro//bibéru
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	karnatarako erabiltzen den arrain txikiak gordetzeko lekua (ME)
Datu entzickl.:	<i>biberuk aurrin iru juten dis de gurik atzin iru darus, beste iru, sei (BL)</i>
Dok. Eneko Barrutia:	EB(02) 139 orr.

Dok. Julián Amich: VIVERO: embarcaciones de poco porte que se dedican a pescar y conducir el producto en estado vivo hasta un lugar o puerto determinados, para conseguir lo cual tiene una parte de su bodega convertida en compartimento aislado y en comunicación con el mar por medio de pequeños agujeros abiertos en el costado.

Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	fishbin / live tank
Frants.:	vivier
Gazt.:	vivero
Saila:	ontzien eraikuntza

Sarrera 182.01: (ATZÉKO) BIBÉRO/ (AURRÉKO) BIBÉRO

Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	itsasontzian arrantzarako balio duen karnata edukitzeko lekua (ME)
Zitak:	<i>enbarkarau onek arraÑe aurreko biberoa eta onek atzekoa (BL)</i>
Saila:	ontzien eraikuntza



- Sarrera 183:** **bídoi//bidói** (*erd.*)
- Elkarrizk.:** Trini/Bego
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** gauza desberdinak bertan sartzeko erabiltzen den ontzia (ME)
- Datu entziki.:** *Tiñak sin goxe sabalaua berutz biskat estutzen, es san bardiñ-bardiñe. Bidoik sin bardiñauak (T/B)*
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantza tresnak/materialak
-
- Sarrera 184:** **bieira** (*Pecten maximus*)
- Elkarrizk.:** Patxi E.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** muskuilu mota bat (ME)
- Eneko Barrutia:** EB(02) 140 orr.
- Dok. Julián Amich:** VIEIRA: Molusco de concha, tamaño y forma regulares, con surcos radiales.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Ingl.:** coquille Saint-Jacques
- Frants.:** Coquille Saint-Jacques
- Gazt.:** vieira; concha de peregrino
- Saila:** arrantza espezieak. Bestelakoak
-
- Sarrera 185:** **biénto//biéntu** (*erd.*)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *gartzixe* (BL)
- Def.:** *palu sosteniuteko alanbri* (BL)
- Eneko Barrutia:** EB(02) 140 orr.
- Hiztegi Batua:** (-) gartzia finko



Frants.: manoeuvres dormantes / dormants/gréement
dorman.

Gazt.: jarcia firme / jarcia muerta

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 185.01: (ESPETÁN) BIÉNTO (*erd.*)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: ezpetak trinkatzeko soka (ME)

Datu entziki.: *onek espetan bientuk dis, polei te espetan bientuk, berau es datxin mobiu, te amen juten di espetolak, amen kaelin (BL)*

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 185.02: (PÁLUN) BIÉNTO (*erd.*)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: itsasontziaren hagak trinkateko soka (ME)

Hiztegi Batua: (-) / sare-hari

Frants.: fil pour filet

Gazt.: hilo de red

Saila: ontzien eraikuntzak

Oharra: nik jaso dudana ez da "sare-haria", "haga-haria" baizik.

Sarrera 186: **biergarbitzálle//biergarbitzállí**

Elkarrizk.: Miren

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *biar kaxkarrenak etxen daben biargiñe (Mi)*

Datu entziki.: *Beiegarbitzállik esaten gakoan, ba sei bat andra ero ixaten sin, da beiegarbitzállik esateotzen ba, biar kaxkarrak etxen benan. Oxe titulu euan ordun; arek katik altza ta, bagoik karga ta. Aukeratute eoten sin, biargiñenak ero, molda gexen eukanak ero... (Mi)*



- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantza eragiketak/maniobrak
- Sarrera 187:** **bíetz//biétza**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** ezpetak sartzeko erabiltzen den tresna (ME)
- Datu entzikl.:** *beian eruten dau bietza, bietza esateotzau. Bietza ra, kubiertan juten dan olakoxe ser bat, espetak eurak sartzeko, ta gero eruten dau espetola, a espetola juten da bietzetik eta ona kaelea, ba eongo ri igual metro bi, eta metro bi dakarres, antxe deskantzuz artzen dau eta amentxe amarratesu, espetak es datxin dantzan eñ (BL)*
- Dok. Zubikarai:** AZ(01)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
- Sarrera 187.01:** (SÁREN) BÍETZ
- Elkarrizk.:** Trini/Bego
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** sarearen hasiera, mailen aurreneko partea (ME)
- Datu entzikl.:** *malli baik, bietza. Etxetzau sartu, orapillo bat eta bi eta... eta ortixeik asten da gero malla gusti, ortik gero soka armaten da kortxu ero beune, bata ero besti (T/B)*
- Saila:** sareak/materialak
- Sarrera 188:** **bíra, birá(tu), biráten.**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** ad.
- Def.:** bueltak eman (ME)
- Zitak:** *bira, sartzesu te bira, makinillik biraten dau (BL)*
- Dok. Azkue:** BIRA (B, G) vuelta, vuelco.

Eneko Barrutia:	EB(02) 141 orr.
Hiztegi Batua:	(+)
- Saila:** arrantzako tresnak/bestelakoak



Sarrera 879:	tresmálla//tresmáli (<i>erd.</i>)
Elkarrizk.:	Trini/Bego
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	<i>iru mallako sari (DM)</i>
Datu entziki.:	<i>eukitxen dabe iru papo, iru sati. Dis malla andixauak sartzeko ta barruku re malla txikixaua, geatzeko. Fin-fñiak ixaten dis, me-me-meiak, ta alturi eukitxen dabe metro ta erdi, bixkat geitxua, metro bi, estabe eukitxen gexaua. (DM)</i>
Eneko Barrutia:	EB(02) 347 orr.
Dok. Julián Amich:	TRASMALLO: red de fondo de forma rectangular, de varias piezas empalmadas de cuarenta a cincuenta metros cada una y con un total de trescientos metros de longitud por tres de altura.
Hiztegi Batua:	(-) / tresmail
Ingl.:	trammel (Amich)
Frants.:	trémil / tramail
Gazt.:	(T/B) trasmallo / red atrasmallada
Saila:	arrantzako tresnak/materialak
Sarrera 880:	trétza//tretzí
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Sin.:	korda (UZEL)
Def.:	palangre (BZZ) / tamaina txikiko arrainak arrantzatzeko erabiltzen den apaixo mota, lehen erabiltzen zen, batez ere bixiguak eta papardotako (ME)
Datu entziki.:	<i>amen eongo ri eun de ogei, eun de berro amo, bai, au papardotako tretzi re, ero besiutako, besiutako txikixaua eta papardotako andixaua. Tretzik eruten dau beti olako larroseta bat. Eukitxen dau amu te urkuli (AB) / maiñero bakotxak subille ta potxeri eskatzeotzan bafor jaunai, eta bakotxe euran etxita juten san, eta etxin, gure atxak etxen ban ginbeletas</i>



sulu ein dde potxeri sartu eta amu josteko ixaten san, onei, amu joti esaten gako, tresi joti (BL)

- Dok. Zubikarai:** TRETZA: gizon bakoitzak amar tretza eroan bear izaten zitun. Tertza edo tretza deitzen jako besigutarako aparixuari. Bost tretza enkarnata eroan bear izaten ziran, au da karnata amuetan ipinita, eta beste bost geroago erabilteko (...). AZ(01)
- Dok. Azkue:** TERTZA, TERTZASUBIL (B-b), palangre, aparejo para pescar besugo, vulg. madre.
- Eneko Barrutia:** EB(02) 348 orr.
- Dok. Julián Amich:** PALANGRE: aparejo de pesca consistente en un largo cordel de cáñamo que se hace flotar colocando de trecho en trecho corchos y del que penden ramales con anzuelos en su extremo.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Ingl.:** palangre, long line with fish hooks (Amich)
- Frants.:** palancre/corde
- Gazt.:** corde/palangre (euskalt)
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 880.01: TRETZÁ-BOTÁ, *tretzá-botáten*.

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: ad.

Sin.: kordi bota (BL)

Def.: *tretza uretara botatzea (ME)*

Zitak: amen du au, tretzi botaten du au, amen darune da beun punti (BL)

Saila: arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 880.02: (BESIUTÁKO) TRÉTZA *Ik. tretzí*

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: bixiguak arrantzatzeko tresna (ME)

Datu entziki.: *amen eongo ris eun de berroi amo, bai, au papardotako tretzi*



re, edo besiutako, besiutako txikixaua. Besiutaku ixaten san fiñe (BL)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 880.03: (PAPARDOTÁKO) TRÉTZA

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: papardoak arrantzatzeko tresna (ME)

Datu entziki.: *amen eongo ris eun de berroi amo, bai, au papardotako tretzi re, papardotako andixaua (DM)*

Gazt.: castañola. AZ(O1)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 881: **trínka** (*erd.*)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: ad

Def.: gogor lotu (ME)

Datu entziki.: *arpoi sorrostute da, eta a trinkaten danin, etxetze kirtenai bupn!, bupn! txalopa gañin joten da eta gogortu etxen da (BL)*

Dok. Azkue: TRINKATU (B-oñ, G-iz-ord-us-zeg- L), oprimir, prensar.

Eneko Barrutia: EB(O2) 348 orr.

Dok. Julián Amich: TRINCA: la atadura en la que se amarra y sujeta algo / el propio cabo que sirve para hacer este trabajo.

Hiztegi Batua: (-) / lotu / estekatu

Gazt.: trincar

Saila: arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 882: **tripulasíñoi//tripulasíñoi** (*erd.*)

Elkarrizk.: Patxi E.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: txalupetan egon ohi den langile taldea (ME)



Datu entziki.:	<i>Txalopa txiki baten, onek aingiratan ero langustatan iru lagun ero ixaten sin, gero bolintxin ebisenak amaïke lagun de, atunetan ebisenak amalau lagun, de arrastin ebisenak amabost lagun eta beste batzuk kordan dabisenak sei lagun de, olantxeik. Tripulasiñoiai, lagunak esaten gako, gixonak eta baño, gastik eta danak sartzeko, lagunak (PE)</i>
Zitak:	karnata baik eta ixte baik arrañe juten da kasa (PE)
Eneko Barrutia:	EB(02) 349 orr.
Hiztegi Batua:	(-) / eskifaia
Frants.:	pêche à la traîne; pêche à la caille
Gazt.:	pesca a la cacea; pesca al currican
Saila:	arrantza motak eta teknikak
Sarrera 883:	tríxa//tríxe
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	<i>soka klase bat (BL)</i>
Datu entziki.:	<i>“trixe-trixe-trixe, atxetako bisar andixe”, trixak dis ba orretxek, alderdi baten da poli eta bestin sensillu, sensillu ixaten da bateku eta pobli ixaten da biku, da orrek bitxartin eruten dau soki, atzeko batela barrure sartzeko be oxe ein bir de: sartu gantxuk aurreko muturrin, on esta sartzen bañe, on sartzen da erdixan, antxe kankamo bat dakar da erdixan sartzen da ta bira! Sokak dis (BL)</i>
Zitak:	<i>au re poli, te onek dis trixak (BL)</i>
Eneko Barrutia:	EB(02) 349 orr.
Hiztegi Batua:	(-)
Saila:	arrantzako tresnak/materialak



- Sarrera 884:** **tróntzo//tróntzu**
- Elkarrizk.:** Miren
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** (atun) zatia (ME)
- Zitak:** *ostontzin trontzuk etxen sin, satixak, sartu galdaretan eta oxe (Mi)*
- Hiztegi Batua:** (-) / zati
- Gazt.:** trozo
- Saila:** prozesaketa/ eratorriak
-
- Sarrera 885:** **trúxo//trúxu**
- Elkarrizk.:** BZZ
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** euri zaparrada handia (BZZ)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** eguraldia eta haizeak
-
- Sarrera 886:** **(txifarrekó) túbo//(txifarrekó) túbu (erd.)**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Datu entzickl.:** *atune ta simarroitxako ra au (BL)*
- Zitak:** *txifarreko tubuai amarraten gako au atziau (BL)*
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
-
- Sarrera 887:** **tuérka//tuerkí (erd.)**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** Pieza hariztatu arretan lotzeko erabiltzen den emea. Era askotako azkoinak daude, hexagonalak, zilindriko artekatuak, karratuak, zulodunak, gaztelutuak, moletatuak, tximeletak, etab. (Euskalterm)

- Eneko Barrutia:** EB(02) 350 orr.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Gazt.:** tuerca
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
- Sarrera 888:** **túntux // tuntúxe**
- Elkarrizk.:** AZ.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** *mundille (DM)*
- Dok. Azkue:** TUNTUIZ: 1º (B-b-l,G), boya que se emplea en la pesca del besugo para tener pendiente el aparejo
- Gazt.:** boya del palangre.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
- Sarrera 889:** **túrbot// turbóta**
- Elkarrizk.:** AZ
- Kateg. Gram.:** Iz
- Sin.:** erreboilu (AZ)
- Def.:** arrain mota (ME)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Gazt.:** rodaballo (AZ)
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
- Sarrera 890:** **túrrun//turrúne**
- Elkarrizk.:** Domeka M.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *sireni (DM)*
- Def.:** bocina (BZZ) / arrantzaleek arraina ekarri eta zein arrain mota ekarri duten abisua emateko sistema (ME)
- Datu entziki.:** *etorten sin baporak esta, da ordun esean sirenaik eta, ta turrune eurak baporak joten ben, turrunak, eta gañea diferentik. Turrune joten banin baporak,*



	<i>porture etorrenin, sartukeran, ordun fabrikantik eta batzen sin seixan arrañe erosteko (DM)</i>
Eneko Barrutia:	EB(02) 350 orr.
Hiztegi Batua:	(-)
Saila:	bestelako gaiak
Sarrera 891:	tutúlo//tutúlu
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	txibikorainak gordetzeko hodi formako tresna (ME)
Datu entzickl.:	<i>tutulu ixaten san eskoba kirtena, lenako eskoba kirtena, kañaberaskuk, arek etxen sin ebai, "eskobi apurtutakun gorde ori kirtenoi", eta klaro, arek kirtenak dakas bost sati eta etxen gakon txibikorañe sartu barrun te kortxuas tapa es urteteko. Batek ein bir dau beian topi, te gero kortxuas tapa/tutulu arpoik eukitxen dau burdiñesku, te amen eoten da sorrostute bera sartute barrun, de klaso, a trinkaten danin etxetze kirtenai, bunp!, bunp! emoten gako serin, txalopan, eta gogortu etxen da (BL)</i>
Eneko Barrutia:	EB(02) 351 orr.
Hiztegi Batua:	(-)
Saila:	arrantzako tresnak/materialak
Sarrera 892:	tutxúel// tutxúela (<i>molva molva</i>)
Elkarrizk.:	AZ
Kateg. Gram.:	Iz
Def.:	arrain mota (ME)
Hiztegi Batua:	(-)
Gazt.:	maruca / pez de bacalao
Saila:	arrantza espezieak. Arrainak
Sarrera 893:	txalópa//txalópi
Elkarrizk.:	Domeka M.
Kateg. gram.:	Iz.

Def.:	itxas ontzia (BZZ)
Dok. Zubikarai:	TXALOPI: Lok.: <i>"txalopa andixe zixe zixe, aidak dakar bizar andixe"</i> , portu aurrean txalopa andiak agertzean, umeak orrelako kantutan ibiltzen ziran: <i>"txalupatxu bat, txalupatxu bi, gure andreak begi bi"</i> , andreak itxasotik begirik kentzen ez dauala adierazteko; <i>"txalupa jaube izateak ez dau betetan kaskarrik"</i> , ontzi jaube egiñarren, zentzun bakoa izan leikela; <i>"txalupa zarrak ura ugari"</i> , txalupa zarra sarri beteten dalako urez;" <i>txalupa zarrean baiño errezago igarian mollatik mollara</i> ", askotan igarian asita ariñago eldu leikela beste aldera, txalupa zar ezin erabilian baiño; <i>"txalupa zarrak, zorrak"</i> , txalupa zarra etxekalte; <i>"txalupa zarragaz sutako arrainik be ez"</i> , arrantza kaia askotara ezin eldu izaten dalako. AZ(01)
Eneko Barrutia:	EB(02) 351 orr.
Dok. Julián Amich:	BOTE: pequeña embarcación abierta que, en sus innumerables formas y características, se construye y usa en todos los puertos del mundo para los servicios auxiliares / todos los buques llevan a bordo uno o más botes a remo o motor para sus servicios en puerto o rada.
Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	boat (Amich)
Frants.:	canot
Gazt.:	bote
Saila:	ontzi motak

Sarrera 893.01: TXALÚPA ANDÍ *Ik. Potiñ andíxe*

Elkarrizk.: Agustin A.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: tamaina handiko txalupa (ME)

Saila: ontzi motak

**Txalupa andixan zatixak (TAZ)**

Sarrera 894:	AÚRRI
Elkarrizk.:	Andoni B.
Kateg. gram.:	Iz.
Saila:	ontzien eraikuntza
Sarrera 895:	BERRÍEL
Elkarrizk.:	Andoni B.
Kateg. gram.:	Iz.
Saila:	ontzien eraikuntza
Sarrera 896:	ERDÍ(E)XE
Elkarrizk.:	Andoni B.
Kateg. gram.:	Iz.
Saila:	ontzien eraikuntza
Sarrera 897:	ESPALDÁKO (<i>erd.</i>)
Elkarrizk.:	Andoni B.
Kateg. gram.:	Iz.
Saila:	ontzien eraikuntza
Sarrera 898:	ESPALDÍ (<i>erd.</i>)
Elkarrizk.:	Andoni B.
Kateg. gram.:	Iz.
Dok. Zubikarai:	AZ(01)
Saila:	ontzien eraikuntza
Sarrera 899:	KONTRAESPÁLDA (<i>erd.</i>)
Elkarrizk.:	Andoni B.
Kateg. gram.:	Iz.



Dok. Zubikarai:	AZ(01)
Saila:	ontzien eraikuntza
Sarrera 900:	KONTRAMÁSTET
Elkarrizk.:	Andoni B.
Kateg. gram.:	Iz.
Saila:	ontzien eraikuntza
Sarrera 901:	KONTRÁURRE
Elkarrizk.:	Andoni B.
Kateg. gram.:	Iz.
Saila:	ontzien eraikuntza
Sarrera 902:	MÁSTET
Elkarrizk.:	Andoni B.
Kateg. gram.:	Iz.
Dok. Zubikarai:	AZ(01)
Sarrera 903:	OSPÍTAL
Elkarrizk.:	Andoni B.
Kateg. gram.:	Iz.
Saila:	ontzien eraikuntza
Sarrera 904:	TANBÚLET
Elkarrizk.:	Andoni B.
Kateg. gram.:	Iz.
Dok. Zubikarai:	AZ(01)
Dok. Azkue:	TANBULET (B-b-l, G), pieza grande de madera que se emplea para sostener el mástil de las lanchas.
Saila:	ontzien eraikuntza



Sarrera 905:	txanpélet//txanpeléta
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Sin.:	potxera; kobla (UZEI)
Def.:	<i>ezpetetako goiko apaixuak eskura ekartzeko haria(M) / kalamuzko haria EB(01)</i>
Datu entzikl.:	<i>anillo bateas ipintxen da, espetin pasata juten da. Espetin pasata juten danes anillu, gora eta bera ibiltxesu apaxu/ txanpeleta ra apaxu gora ta bera ibiltxen dabena. (BL)</i>
Zitak:	<i>sirri-sarrak ipintxen dau or, bañe orrek dis txanpeletak (BL)</i>
Dok. Azkue:	T [^] SANPEL (B-l-mu-G) cuerda como de tres pies de largo, penúltima de las cuatro clases de cuerda de que consta el aparejo para pescar merluzas.
Eneko Barrutia:	EB(02) 352 orr.
Hiztegi Batua:	(-)
Saila:	arrantzako tresnak/materialak
Sarrera 906:	txápa//txapí
Elkarrizk.:	Andoni B..
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	arrainari arreta deitzeko erabiltzen den metalezko txapa (ME)
Datu entzikl.:	<i>gero, malutin ordes txapi ibiltxen san, onek be brillu etxen dau eta arrañe engañateko balixo dau. Batxe paperak be; paper gogorrak biundu, suri-suri eindde (AB)</i>
Eneko Barrutia:	EB(02) 352 orr.
Hiztegi Batua:	(-)
Saila:	arrantzako tresnak/materialak

- Sarrera 907:** **txapláta//txaplatí**
- Elkarrizk.:** Agurtzane O.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** sarearen apurdurak konpontzeko sare –zatiá (ME)
- Datu entzikl.:** *txaplatak eta, len arrantzalik eta, bañe txaplati era batea pea ero beste batea ixaten san. Nik etxen neban kosturak ebai eta sartu eta aurrin txaplati, eta ipurdixak be bardiñ. Eta ondo ipiñitxe baeuan txaplati atensiñoi erute ben (A.O)*
- Hiztegi Batua:** (+)
- Saila:** jantziak
-
- Sarrera 908:** **txartángo//txartángu**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** *txalupatik sarea zabaltzeko aga luzea (M) / arrainaren pisua eusten duen egur edo burdinezko haga luzea (ME)*
- Datu entzikl.:** *Txartanguk eukitxen dau polea bat puntan, andixeik pasata ekarten sendun barrure. Txartangu lena etxen san, on esta etxen, egurreskuk ixaten sin, da au modiau etorri sanin onek bafor andixok eta, burdiñeskuk eoten dis. Fuerti ixan bir dau, arraiñan pixu artzesunin be aretxek sosteniuten (BL)*
- Dok. Azkue:** TXARTANGO (B-I,G), horcón de que se sirven los pescadores para sostener la traina
- Eneko Barrutia:** EB(02) 353 orr.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
-
- Sarrera 909:** **txastadéro//txastadéru**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** toleta sartuta egoten den zuloa (ME)



- Datu entzikl.:** *toletak kaeletik gañea eruten dau olakoxe egur sati bat, kaeletik gañea, ta ori re txastaderu. Basin modure etxen dau, eta orren erdixan eruten dau gero erdixan sulu toleta sartzeko, toleta ra axe bera makilli (BL)*
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** ontzien eraikuntza
- Sarrera 910:** **txáutxa//txautxí** *Ik. Txokú*
- Elkarrizk.:** Trini/Bego
- Kateg. gram.:** Iz.
- Datu entzikl.:** *guk arrasterutan etxen gendunin biarra “txautxi” esaten geuntzan. Emik tintxa gexa dakar, eta txibixak be bai, txibi emi ranak dakas erruk, eta bi lusik, erro luse-luse bi, eta arra ranak estakar erro luseik, eta txautxan be bardin-bardiñ (T/B)*
- Dok. Zubikarai:** AZ(01)
- Dok. Azkue:** T^SAUT^SI (G-don), jibia, pez marino, parecido al calamar.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantza espezieak. Bestelakoak
- Sarrera 911:** **txekióla//txerkióla**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** *txerkiok deskantzu artzen daben leku (BL)*
- Datu entzikl.:** *onek dis txerkiolak, onek juten di kaelin, beian juten da bietza, da amen du tubu, txerkio esateotzau guk, tubo bat amar ero amabost metroku (BL)*
- Hiztegi Batua:** (-)

Sarrera 912:	txerkío//txerkíue
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	<i>itsasontziak aurrean eramaten duen ezpeta txikia</i>
	(M)
Datu entziki.:	<i>kasako sistemi re, espetin or darus iru apaxo, eta onek atzetik datosenak popan uberaku eta tenteku. Onek dis apaxuk. Aurreko bixak txerkio, uberakuk, espetekuk, au barruku eta amen atzin dusen onek uberaku te tenteku, eta erdiku eta puntaku. Eta amen popa aspixan eruten dau beste bat, sanbrunio, kakalekuku. (BL)/aurrin juten disenak, txerkiuak (DM)</i>
Eneko Barrutia:	EB(02) 353 orr.
Hiztegi Batua:	(-) / txelkio
Gazt.:	ala de proa
Saila:	ontzien eraikuntza
Saila:	arrantzako tresnak/materialak


Sarrera 912.01: TXERKÍO (BARRUKÚ)**Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** ezpeta mota bat (ME)**Saila:** arrantzako tresnak/materialak**Sarrera 912.02: TXERKÍO (PUNTÁKU)****Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def. :** ezpeta mota bat (ME)**Saila:** arrantzako tresnak/materialak



- Sarrera 913:** **txérmol//txermóla**(*Katsuwonus pelamis*)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** tamaina handiko arrain mota (ME)
- Datu entziki.:** *Atunan familixaku re. Egalusi te egalaburre es, guk onetxek esaututxuaus bakarrik, ainsorrotzak eta bai bañe bakarrik, eta gero txermola besti, jeneralin txikixaua san. Atunai “sinkoku” esaten gakon, “sinkoku” re kilo bi txe erdi pixaten dabena, orrek beste presixo bat ixaten dau beti. Atune normala ra, medianu re bost kilo, sei kilo, lau kilo ta erdi, bañe olaku bara, “sinkoku” kilo bi txe erdi. Eta txermola be “sinkokun” antzeku san. Sarias atrapatzen san ori, bolintxas atrapatzen san, sardiñin lantxeik, batelak masixe botata (PE)*
- Datu entziki.:** *atunetan da txermoletan da, baforan kontra etorten da arrañe (DM)*
- Zitak:** *txermola ero sati andi ba bota ta, dsast!! (BL)*
- Dok. Zubikarai:** AZ(01)
- Eneko Barrutia:** EB(02) 354 orr.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
- Sarrera 914:** **txibáto//txibátu** (*erd.*)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** itsasontziaren situazioa adierazten duen irrati uhina (ME)
- Datu entziki.:** *txibatuk eta eseben eukitxen olako antenaik, bañe entzun ondo, e!, Ameriketean ixune be entzun etxe ben onek / ixena ipiñi gakoien “txibatu”, ori be baten batek ipiñiko ban, radixo txikixak dis, angu be entzuten dabe ta, amengu be entzuten dabe. Bañe onek modatik junde ras. Txibatuas Guardia Sibillak eta entzuten sin. Ameriketean sartzea eta amendixeik*



- klaro-klaro eoten giñan berbeta, batxe italianukin be, eta talaxeru Ondarruku, lengo jesus sarri eoten san italianukin berbertain, esautu be bai (BL)*
- Eneko Barrutia:** EB(O2) 354 orr.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
- Sarrera 915:** **txíbi//txibíxe** (*Loligo vulgaris*)
- Elkarrizk.:** Trini/Bego
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** txibia; txibia begihandi (UZEI)
- Def.:** TXIBIA: Txokoa, txipiroiaren antzeko soinbera zefalopodoa. Zenbait tokitan "*txipiroia*" (IS)
- Zitak:** *bañe onek atrapatzen dau txibixe be bai, poti be bai eta txoku be bai (DM)*
- Dok. Zubikarai:** TXIBIXE: "*txibixe txibixan gain, txibikorañe be aruteko lain*", txibi ugari txibikoraña eteteko aña. AZ(O1)
- Dok. Azkue:** T[^]SIBI (AN-ond, B-l) jibia, pez marino parecido al calamar.
- Eneko Barrutia:** EB(O2) 354 orr.
- Dok. Julián Amich:** CALAMAR: molusco cefalópodo dibranquio, de la familia de los miópsidos, que se caracteriza por su cuerpo alargado, terminado en punta por su parte posterior, y que lleva a cada lado una aleta triangular.
- Hiztegi Batua:** (+) txipiroi
- Ingl.:** calamary (Amich)
- Frants.:** calamar commun
- Gazt.:** calamar / chipirón
- Saila:** arrantza espezieak. Bestelakoak
- Sarrera 916:** **txibikórañ//txibikoráñe** *Ik. Koráñe*
- Elkarrizk.:** Boni L.



- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *korañe (BL)*
- Def.:** txibiai arrantzatzeko koraina (ME)
- Datu entziki.:** *guk txibikorañak esatetzau, erderas, "potea" (BL)*
- Hiztegi Batua:** (-) / korain
- Gazt.:** coraña; jibionera; calamarera; potera
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
-
- Sarrera 917:** **txífar//txifárra**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** *berai arrañai bisti kentzeko mangeriaz botaten gakon ure (BL)*
- Datu entziki.:** *txifarra mangerias etxen dau te kostautik botaten dau, patroik botaten dau (BL) / bera arrañe engañateko txifarra etxen da, botaten da berak atunak geu es ikusteko eta gero, ure da salpika etxen dau arek dana ba bera itxutzeko (DM)*
- Zitak:** *patroik ikusten dabenin listo, motorra amoderaten dau te karnata emontzalli listo, mobimientu te danin lelengotik sartzen dau txifarra (BL)*
- Eneko Barrutia:** EB(02) 354 orr.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantza eragiketak/bestelakoak
-
- Sarrera 918:** **txíkot//txikóta**
- Elkarrizk.:** Trini/Bego
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *soki (T/B) / korda (UZEI)*
- Def.:** TXIKOT: Bizk. Soka lodia, bereziki txalupetan eta erabiltzen dena (IS)
- Dok. Zubikarai:** TXIKOTA: ontziak lotzeko soka: emon-jaurti; erri-arindu, beratu; eten, tart-egin - apurtu; lotu-nunbaiten lotu, ziurtatu; luzatu - .AZ(01)



Dok. Azkue:	T [^] SIKOT (B,..., G-ori), t [^] sikote, (AN-ond), soga.
Eneko Barrutia:	EB(02) 355 orr.
Dok. Julián Amich:	CABO: cualquiera de las cuerdas que se emplean a bordo.
Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	rope (Amich)
Frants.:	cordage
Gazt.:	cabo / cuerda
Saila:	arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 918.01: TXIKÓT (JENÉRAL)**Elkarrizk.:** JM Ibazeta**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** txikot nagusia (ME)**Saila:** arrantzako tresnak/materialak**Sarrera 918.02:** (ESKÚ) TXÍKOT**Elkarrizk.:** Domeka M.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** treinari lotuta egoten den azken soka zati mardula (ME)

Datu entziki.: *Onei esatesau "txikota". Txikota ra lelengo urteten dabena danin, da gero atzanengo urteten dabena, esku. Da lelengo botasune aurretik biraten san da gero rune, atzetik, ordun esaten gakon esku-txikotak (DM)*

Eneko Barrutia: EB(02) 179 orr.**Saila:** arrantzako tresnak/materialak**Sarrera 920:** **txíkot//txikóta (treñana)****Elkarrizk.:** Trini/Bego**Kateg. gram.:** Iz.**Sin.:** *arrain leku; boltzi; saku (T/B)***Def.:** *treñin arraÑe atrapatzen dan leku (T/B)*



Datu entzikl.: *txikotin ixaten san treñe motzaua, ta eskun lusiaua. se txikota ra berau arrañe atrapatzen dana. Eskuku re askos lusiaua. Esku re askana bota ta lelen batzen dana / Au soki re, esta? kortxuas, da amen da txikota, iruroi kana, txikota totuaua te berutz ixaten da, piesa bi, beste otamar ero, txikota totuaua ixaten dana, txikixaua bañe totuaua, gexauaik estau bir se bestelanik sagi etxen dau (T/B)*

Zitak: *sakuai esaten geuntzan txikota (DM)*

Hiztegi Batua: (+)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 921: **tximíni//tximiníxe**

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz

Def.: TXIMINIA: kebidea, etxe, labe... batean, kea kanpora ateratzen den hodia (IS)

Eneko Barrutia: EB(02) 357 orr.

Dok. Julián Amich: CHIMENEA: en los primeros vapores consistía en un tubo de plancha de hierro de poco diámetro que, arrancando de la caja de humos, salía por encima de la cubierta para facilitar la combustión y, al propio tiempo, era un artefacto antiestético que venía a romper la armonía y belleza del conjunto de vergas, palos y masteleros.

Hiztegi Batua: (+)

Ingl.: chimney (Amich)

Frants.: cheminée

Gazt.: chimenea

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 922: **txíngor//txingórra**

Elkarrizk.: Agurtzane O.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: kaskabar (ME)



- Dok. Azkue:** T[^]SINGOR: 1^o (AN, B, G), granizo.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Saila:** eguraldia eta haizeak
-
- Sarrera 923:** **txintxoléta//txintxoléti** (*Prionace glauca*)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** TINTOLETA: marrazo urdina (IS)
- Datu entzickl.:** *tiburoi rasi re au: marraxuk, kaelak, txintxoleti...(BL)*
- Zitak:** *orrek eruten dabe, txintxoletak eta marraxuk eta, andixak, eruten dabe muturrin arrain bat, eta auxera "pes gia" (BL)*
- Dok. Zubikarai:** AZ(01)
- Dok. Julián Amich:** TINTORERA: nombre con el que se designa cierta especie de grandes peces de la familia de los tiburones, entre ellos el llamado Glaucus rond, que se distingue por su ferocidad y gran tamaño.
- Hiztegi Batua:** (-) / tintoleta
- Ingl.:** blue shark
- Frants.:** peau bleue / requin bleu
- Gazt.:** tintorera
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
-
- Sarrera 924:** **txírit// txírítu**
- Elkarrizk.:** AZ
- Kateg. Gram.:** Iz
- Def.:** arrain mota (ME)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Gazt.:** doncella (AZ)
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
-
- Sarrera 925:** **txírla//txírlí** (*Tapes, Venus, Mytilus*)
- Elkarrizk.:** Patxi E.



Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	TXIRLA: jateko on diren zenbait itsas soinbera maskor bikori ematen zaien izena (IS)
Dok. Zubikarai:	Lok.: "txirlarik karuenak gonadunak", andreekaitik esaten da. AZ(O1)
Dok. Azkue:	T [^] SIRLA (AN-ond, Bc, G, ...), pechina, venera, concha semicircular de dos valvas. En el País Vasco dan á este molusco, hablando en castellano, el nombre de "almeja", y al molusco negro de dos valvas y carne amarilla.
Eneko Barrutia:	EB(02) 358 orr.
Hiztegi Batua:	(+)
Saila:	arrantza espezieak. Bestelakoak

Sarrera 925.01: TXIRLÁ-FRÁNTZES**Elkarrizk.:** Patxi E.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** txirla mota bat (ME)

Datu entziki.: *Amen lena txirla asko san. Txirla luxeskiauak eta sabaleran be estuauak eta suri-surixak, argi-argixak, orretxei esaten gakoie amen "txirla frantzesá" eta ori amen jan be esan etxen, bestik euasela eta orrek eskasauak sile ta. Estai seatxik dan frantzesá, iual antxe baten batek ikusitxe ta (PE)*

Dok. Zubikarai: Lok.: "txirla frantzesá", andra librea.**Saila:** arrantza espezieak. Bestelakoak

Sarrera 926:	txirrika
Elkarrizk.:	Trini/Bego
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	sarik etxen dabezen leku (T/B)
Zitak:	<i>Txirrikan enddabenin estabe ondo eiñ (T/B)</i>
Eneko Barrutia:	EB(02) 358 orr.
Hiztegi Batua:	(+)
Saila:	lekua

- Sarrera 927:** **txírríñ//txirríñe** (*Sterna hirundo*)
- Elkarrizk.:** Agurtzane O.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** itsas txoria (ME)
- Eneko Barrutia:** onak atunetako. Pikada ematen duten lekuan han atuna dago asko. EB(02) 358 orr.
- Dok. Azkue:** TXIRRIN 7º (B-ond), gaviota la más pequeña de la costa.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Gazt.:** caharrán
- Saila:** itsas txoria
-
- Sarrera 928:** **txísto//txístu** (*Labrus bimaculatus*)
- Elkarrizk.:** Patxi E.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** TXILIBITU: itsas arrain teleostea, luzarana eta kolore biziak dituena (IS)
- Datu entzickl.:** *amentxe urrin, kabrak eta eoten disen lekun. Kabran aldin gitxia etorten san ori. Bixkat lusia kabri baño eta es aren beste asurrik, eta hori be orixki te urdiñeaku te bixixak kolorik. Kabri gosuaa ra (PE)*
- Dok. Zubikarai:** AZ(01)
- Eneko Barrutia:** EB(02) 359 orr.
- Hiztegi Batua:** (-) / durdoi txilibitu
- Frants.:** petite vieille; vielle coquette
- Gazt.:** gallano
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
-
- Sarrera 929:** **txitxáre// txitxári** (*Petromyzon marinus*)
- Elkarrizk.:** AZ
- Kateg. Gram.:** Iz
- Def.:** arrain mota (ME)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Gazt.:** cría de lamprea
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak



Sarrera 930:	txitxárrro//txitxárru (<i>Trachurus picturatus</i>)
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	TXITXARRO: itsas arrain teleostea, bizkarra berde iluna duena, haragi koipetsukoa, jateko ona (IS)
Datu entzikl.:	<i>Txitxarro baltza ra beres, txitxarro andixe. Eta txitxarro andixe lena kordan eta atrapatzen san eta geokun dator luma txitxarru eta txitxarro txikixe. Eta gero ortik aparte ra txitxarro surixe, “txitxarro marikoi” esaten gakona. Suri-surixe aragixe ikusten da garbitxutakun. Ta ori arrastin esautu rou. Beste txitxarrun aldin andixe ra ori, gosu re. “Marikoi” re andixena. Jentik asma, kanpotarrak asmataku re ori berbioi. Ori lelengokun jan be esan etxen, baño on atrapatzen danin, ba, ondo saltzen da. Txitxarruk negun atrapatzen sinak, bat ixaten san bat illunaua besti baño, axe ixaten san txitxarro baltza. Eta jaten igarri-igarrixe akar. Gosua ra (PE)</i>
Dok. Zubikarai:	AZ(01)
Dok. Azkue:	T [^] SIT [^] SARRO (AN, B, G, L,), turel, chicharro (pez)
Eneko Barrutia:	EB(02) 359 orr.
Dok. Julián Amich:	JUREL: importante pez de la familia de los carángidos que tiene las dimensiones y el brillo de la sardina, pero posee muchas espinas.
Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	jurel (Amich)
Frants.:	jurel
Gazt.:	jurel; chicharro
Saila:	arrain espezieak. Arrainak.

Sarrera 930.01: LUMÁ-TXITXÁRRO**Elkarrizk.:** Patxi E.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** *Lumatxitxarru re, txitxarro txikixe baño asixaua eta medianu baño txikixaua. (PE)*



Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 931: **txitxarrillo//txitxarrillu**

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *txitxarro txikixe (BL)*

Def.: txitxarro kumea (ME)

Hiztegi Batua: (-)

Gazt.: chicharrillo; chicharrito

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 932: **txitxárrro báltz//txitxárrro báltza** (*Trachurus picturatus*)

Elkarrizk.: JM Ibazeta

Kateg. gram.: Iz.

Def.: TXITXARRO BELTZA: bizkarra urdin iluna eta hegalak apur bat arrosak dituen (IS)

Eneko Barrutia: kala-txitxarroa baino txikiagoa baina beltza, bera haragia ere beltza daukana. EB(02) 360 orr.

Hiztegi Batua: (-) / txitxarro beltz

Frants.: chinchard du large / saurel

Gazt.: jurel de altura

Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 933: **txitxárrro marikói** *Ik. Txitxárrru*

Elkarrizk.: JM Ibazeta

Kateg. gram.: Iz.

Def.: arrasteko arrantzan hartzen den tamaina handiko txitxarroa (ME)

Eneko Barrutia: arrastan gabiltzala txitxarro handiari deitzen genion guk, igual kilo et erdiko txitxarroa. Orain beste txitxarro bati ere deitzen diote, beltzari, buru handiari. EB(02) 360 orr.

Hiztegi Batua: (-)



- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
- Sarrera 934:** **txitxárrro txíki//txitxárrro txikíxe**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *txitxarrillu (BL)*
- Def.:** tamaina txikiko txitxarroa (ME)
- Zitak:** *te arraÑe ekarrieran selaku; txitxarro txikixak (BL)*
- Eneko Barrutia:** EB(02) 360 orr.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantza espezieak.Arrainak
- Sarrera 935:** **txitxárrro súri//txitxárrro suríxe** *Ik. Txitxárrru*
- Elkarrizk.:** Patxi E.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** arrain mota (ME)
- Eneko Barrutia:** EB(02) 360 orr.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
- Sarrera 935.01:** TXITXARRÓTA (JÚN)
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** adb.
- Def.:** txitxarroak e.a. arrantzazera (joan) (ME)
- Saila:** arrantza eragiketak/maniobrak
- Sarrera 936:** **txitxáste//txitxáste(a)**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** *txitxaste zan ureta apaxuk botateko tabla bat (DM)*
- Datu entzickl.:** *Oxe sarati atate ben. Atzeko partin euan eta sinkas etxe ben. Gorusko alderdi batzuk eukitxen sitxun*



amuk andixeik es urteteko. (DM)

Zitak: *atzeko popa gañin juten san txitxastoi (BL)*

Eneko Barrutia: tertzak botatzeko erabiltzen zen, jinezkoa izaten zen.
EB(O2) 360 orr.

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 937: **txó**

Elkarrizk.: JM Ibazeta

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *gasti; irulaurdena (JM)/txalupa*

Def.: itsasontziko gazteena, normalean, denbora gutxien daraman arrantzalea (ME)

Dok. Azkue: T[^]SO (B-d-l-ub), exclamación para llamar a los muchachos / es discriminativo de TO, con que se llama a los hombres.

Eneko Barrutia: EB(O2) 361 orr.

Hiztegi Batua: (+)

Frants.: mousse

Gazt.: grumete / mozo

Saila: langilea

Sarrera 938: **txóko//txokú** (*Sepia officinalis*)

Elkarrizk.: Trini/Bego

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *txautxi (T/B)*

Def.: pota itxurako itsas animalia (ME)

Datu entzickl.: *Txoku be au baño sabalaua ra, naiku sabalaua ra, erruk motzak txokuk, eta txokuk aspiko partin, barrun eukitxen dau asurres abala, oxe matexaloi biune, amabirjiñi emoten bana. Ori amen bakarrak atrapaten sin, ori Santoñan da iñox, an beian itxosun de atrapaten sin, batelak eta e? (PE)/ guk arrasterutan etxen gendunin biarra "txautxi" esaten geuntzan. Emik tintxa gexa dakar, eta txibixak be*



bai, txibi emi ranak dakas erruk, eta bi lusik, erro luse-luse bi, eta arra ranak estakar erro luseik, eta txautxan be bardiñ-bardiñ (T/B)

Zitak: *bañe onek atrapatzen dau txibixe be bai, poti be bai eta txoku be bai (DM)*

Dok. Zubikarai: AZ(01)

Dok. Azkue: T[^]SOKO (AN-ond, B-b; G-don-zuma), jibia, pez marino, parecido al calamar

Eneko Barrutia: EB(02) 361 orr.

Dok. Julián Amich: JIBIA: el nombre de jibia se aplica al molusco cefalópodo, decápodo sepiario, que tiene el saco provisto a cada lado, en toda su longitud, de una aleta estrecha. Su cuerpo es oval y liso a los lados y de color blancuzco.

Hiztegi Batua: (+)

Ingl.: cuttle fish (Amich)

Frants.: seiche commune

Gazt.: jibia / sepia

Saila: arrantza espezieak. Bestelakoak

Sarrera 939: **txópa//txópi**

Elkarrizk.: Andoni B..

Kateg. gram.: Iz.

Def.: *tortarteko satixe (AB)*

Datu entzikl.: *barrun utzuni dakar, eta atzin be utzuni dakar. Treñeruk eta ibiltxen ben, treñeruk lelengo bolintxin ibiltzen silako (AB)*

Dok. Azkue: T[^]SOPA (AN, B, G), popa de una embarcación.

Hiztegi Batua: (-)

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 940: **txópe// txópi**

Elkarrizk.: AZ

Kateg. Gram.: Iz



Sin.: muxar (AZ)
Def.: arrain mota (ME)
Hiztegi Batua: (-)
Gazt.: chopa / pañoso / sarbo (AZ)
Saila: arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 941: txúrla//txúrli
Elkarrizk.: BZZ
Kateg. gram.: Iz.
Def.: itxas ontziaren balantza (BZZ)
Eneko Barrutia: EB(02) 362orr.
Gazt.: balanceo de las embarcaciones.
Hiztegi Batua: (-)
Saila: bestelako gaiak



U

- Sarrera 942:** **úbill//ubille**
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** ur mugimendu bortitza (ME)
- Dok. Azkue:** UBIL: 1º (B-i), vértices que se forman en los ríos en las avenidas de aguas.
- Eneko Barrutia:** EB(02) 363orr.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Saila:** itxasoaren egoera
-
- Sarrera 943:** **úerb// uérba** (*Scomber scombrus*)
- Elkarrizk.:** AZ
- Kateg. Gram.:** Iz
- Sin.:** betandi (AZ)
- Def.:** arrain mota (ME)
- Hiztegi Batua:** (-) / berdel
- Gazt.:** caballa (AZ)
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak



- Sarrera 944:** **úgotz// ugótza** (*Acipenser sturio*)
Elkarrzk.: AZ
Kateg. Gram.: Iz
Def.: arrain mota (ME)
Hiztegi Batua: (-)/ gaiztaka
Gazt.: esturión (AZ)
Saila: arrantza espezieak. Arrainak
- Sarrera 945:** **unáma//unámi**
Elkarrizk.: Jose A. Eizagirre (Motrollo)
Kateg. gram.: Iz.
Sin.: estatxa (UZEI)
Def.: *ankilla lotzeko soka (M)*
Eneko Barrutia: EB(02) 364orr.
Dok. Julián Amich: ESTACHA: cabo grueso que se emplea en la maniobra de amarre, desamarre y remolque en la entradas, salidas y maniobras de puerto. Es una denominación general de los cabos que se emplea en tales maniobras.
Hiztegi Batua: (-) / unama
Ingl.: warp (Amich)
Frants.: grélin / amare (Amich)
Gazt.: estacha
Saila: arrantzako tresnak/bestelakoak
- Sarrera 946:** **úr//úre**
Elkarrizk.: Boni L.
Kateg. gram.: Iz.
Dok. Zubikarai: Lok.: "urak guztiak agortu dira, arrain gaixuak agiri, aurtengo urtian gure mutillak non egingo dabe igari?", umetako kanta; "urik karuena uriol ura, berez etorri eta dana darua", uriolen kalteakemoten daben lorra adierazteko. AZ(01)
Eneko Barrutia: EB(02) 365orr.



Hiztegi Batua: (+)
Saila: bestelako gaiak

Sarrera 946.01: ÚR (ÁNDI)

Elkarrizk.: Trini/Bego

Kateg. gram.: Iz.

Def.: aparteko ura (ME)

Zitak: *Koruñan da semat juten disen e iual ur andixeta (T/B)*

Dok. Zubikarai: Lok.: "urandiko txirlak, beti be leorrean", itxasoan aberastuak, leorrean bizi nai izaten dabelako. AZ(01)

Saila: ingurune biologikoa

Sarrera 946.02: ÚR (MÉI)

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *ur txikixe (BL)*

Def.: ur sakonera txikia (ME)

Datu entziki.: *ta guk esakeri: ur metu, ur meire gus; ur meire gus, ba, ur txikixe, ure txikitzen gus. Ur meire basus, etxetzu beunak ondu jo, ordun, erre kala bixkat eta ortxe (BL)*

Dok. Zubikarai: UR MEI: sakontasun gitxiko urak. Ur meietan ibili, sakonune gitxiko uretan arrantzatu.

Saila: ingurune biologikoa

Sarrera 946.03: ÚR (TXÍKI)

Elkarrizk.: Trini/Bego

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *ur meie (T/B)*

Def.: sakonera gutxiko ur eremua (ME)

Zitak: *...arrixin da, karo, ur txikixin ixaten da ori (T/B) / bates be ur txikiko arrañai / ur txikixaua dan parajin (DM)*

Saila: ingurune biologikoa

**Sarrera 946.04: ÚR-ÉRRE****Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Sin.:** *suritxasune; ardora (BL)***Def.:** arrainak ur-azalean eragiten duen mugimendua (ME)**Datu entziki.:** *eta antxoi datorrenin seuk ikusikosu suritxasune, on es, on aparatuk atrapatzen dau dana. Ur erri botaten dau arek. Da, ba, berak botaten daben suritxasune, ardora ta ur erri gausa bardiñe ri. Lena eoten giñan sain gaba eiñ arte, gaba etxen sanin, patroik esateban se, "aire atzea, ikusi ia elisik ur erri ataten daben", eta arrañak ardora, dana ra bat (BL)***Dok. Zubikarai:** UR ERRE: sargoreko ura AZ(01)**Saila:** itsasoaren egoera**Sarrera 947: urértze// urértzi****Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** kostaldetik hurbilen dagoen ur ertza (ME)**Zitak:** *ta beti go-gora ekarri baik bixkat urertzin laga (BL)***Dok. Zubikarai:** UR ESKIÑA: ur egala AZ(01)**Hiztegi Batua:** (+)**Saila:** ingurune biologikoa**Sarrera 948: urkúla//urkúli⁸⁶****Elkarrizk.:** Boni L.**Kateg. gram.:** Iz.**Def.:** *adar bikoitza, tresnak eskegiteko (M) / tretzak kolokatzeko palu (BZZ)***Datu entziki.:** *urkulata lena mendire juten san, enjeneralin ixaten san sipresa edo olako sera, piñuk eta estau balixo, apurtu etxen da. (AB)/ udaskenin,sereiñik eseukenin,*

⁸⁶ Jose A. Eizagirre (Motollo)k "urkilla" dio.



es antxoarik bes, atune be lagata gero, Santa Katalina bitxartin mendis-mendi ibiltzen sin, malutak etxea, eta batxe be urkulak etxea. Urkuli re, ara, arkasixe ero bates be pikuas einddako iruki forma antzeko gausa bat. Amen, subille batzen san bueltan-bueltan, txiringolan, amuk berton ipiñi eta tretzi etxen san (BL)

Dok. Azkue: URKULA:1º (B-b), horquilla de que se sirven los pescadores para levantar más fácilmente las redes cargadas de peces, vulg. << charrango>>.

Eneko Barrutia: EB(02) 368orr.

Hiztegi Batua: (-)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 949: **urrebúro//urrebúru** (*Sparus aurata*)

Elkarrizk.: J.M:

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: txelba urraburu (UZEI)

Def.: URRABURU: itsaso bero edo epeletako arrain teleostea, begien ondoan urre koloreko orban edo marra bat duena (IS)

Datu entzikl.: *Urre kolore, gorrixki akar. Lupiñi te baño arrain lodixua, sabalaua eta anditxuaue. Aragi ederreku erreta ta jateko. Ori amuko arrañe ra, arrastin de bai bakarra. Nik esautu be estot etxen kasik (PE)*

Zitak: *urreburu etxen dabis (DM)*

Dok. Zubikarai: Lok.: "urraburu, ori be jausi da mollaburun", urraburu, gizon aberatsa izanarren, a be laban eginda jausi; "urraburu baino dotoreago", urraburua arrain apaiña da. Eta a baiño apaiñago. AZ(01)

Dok. Azkue: URREBURU (B-l), dorada, pez marino, vulg. berrugate.

Eneko Barrutia: EB(02) 368orr.

Dok. Julián Amich: DORADA: los peces de la clase <<sparineio orisófodo>> son todos de bellos colores, y entre ellos destaca la dorada, *sparus aurata*, de un gris



argentino cambiante en verdoso, más oscuro en el dorso y muy brillante en el vientre, sobre el que destaca una mancha áurea, alargada sobre el opérculo, más una faja de brillante amarillo que le ciñe la región frontal sobre los ojos, y unas veinte franjas longitudinales del mismo color adornan sus flancos, mientras que las aletas son de diferentes colores oscuros.

Hiztegi Batua:	(+)
Ingl.:	gilt-head (Amich)
Frants.:	dorade royale
Gazt.:	dorada / pargo dorado
Saila:	arrantza espezieak/arrainak

Sarrera 950:	ursúge// ursugí (<i>ez dut ulertzen</i>)
Elkarrzk.:	AZ
Kateg. Gram.:	Iz
Def.:	arrain mota (ME)
Hiztegi Batua:	(-)
Gazt.:	dragón (AZ)
Saila:	arrantza espezieak. Arrainak

Sarrera 951:	ústai//ustáixe
Elkarrizk.:	Trini/Bego
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	UZTAI: biribilki formako gauzakia (IS)
Datu entzickl.:	<i>ustaixak esatetzen, burdiñasko ustaixak. (T/B)</i>
Saila:	arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 951:	(langostá) utzítxu// (langostí) utzítxú , <i>utzítzen</i> .
Elkarrizk.:	Trini/Bego
Kateg. gram.:	ad.
Def.:	langosta barrutik haragiz ustu (ME)
Datu entzickl.:	<i>langostin pata bat ero apurtzen basan, gero andixeik</i>



urtetetzen dana, ta langosta utze gero geatu (T/B)

Hiztegi Batua: (+)

Saila: prozesaketa; eratorriak



X

Sarrera 953:	(apáxu) xaxiá//xaxía, xaxiá(tu), xaxiáten.
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	ad.
Sin.:	<i>(apaxu) dantzan ipiñi (BL)</i>
Def.:	<i>apaxuk dantzan ipiñi, erain malutiai, arei amuai itxosun danai betxanziñoi eratzeko (BL)</i>
Hiztegi Batua:	(+) / xaxatu
Saila:	arrantza eragiketak/maniobrak




Z

Sarrera 954:	zakatz; sákatz//sakátzak
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	ZAKATZ: uretako animalien arnas organoa, mintzezko xafla edo hari izpi multzo batean datzana (IS)
Dok. Azkue:	ZAKATZ (B-b-l-ond-pl), agalla, branquia, órgano de respiración de los peces
Eneko Barrutia:	EB(02) 372orr.
Hiztegi Batua:	(+) / branka
Frants.:	ouïe / branchie
Gazt.:	agalla / branquia
Saila:	anatomia eta morfologia



- Sarrera 955:** **zaku; sáko//sakú**
- Elkarrizk.:** Trini/Bego.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Sin.:** *arrain leku (T/B)*
- Def.:** *arrain leku, atzeko parti, arraÑe artzen dabena leku (T/B)*
- Datu entziki.:** *au re sako bat botaten dabena eta gero etxetze estutu eta barrun artzen dabena etxen dabe batelin erun (T/B)*
- Eneko Barrutia:** EB(02) 372orr.
- Dok. Julián Amich:** COPO: en general, el saco de red en que terminan las redes llamadas de tiro.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Frants.:** poche / sac
- Gazt.:** copo / saco
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
-
- Sarrera 956:** **zanga egin; dsánga éiñ, dsánga étxen.**
- Elkarrizk.:** BZZ
- Kateg. gram.:** ad.
- Def.:** zambullirse (BZZ)
- Dok. Azkue:** DZANGA: (onomat.): 1º (B-l), zambullirse en el agua.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Ingl.:** to duck
- Frants.:** plonger
- Saila:** bestelako gaiak
-
- Sarrera 957:** **zaparrada; saparrára//saparrarí**
- Elkarrizk.:** Agurtzane O.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** euri jasa (ME)
- Dok. Azkue:** ZAPARRADA: (Bc, ...), chaparrón.



- Eneko Barrutia:** EB(02) 372orr.
- Hiztegi Batua:** (+)
- Saila:** eguraldia eta haizeak
- Sarrera 958:** **zapart; dsápart**
- Kateg. Gram.** Iz.
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Sin.:** *golpekadi (BL)*
- Def.:** arrantza saiakera bakoitzean jasotzen den arrain multzoa (ME) / dzapart: agarrar con violencia (BZZ)
- Zitak:** *onek bosteun ero seireun kilo ekartetxu golpekada bakotxin, dsapartaran bertan (BL)*
- Dok. Azkue:** ZAPART (S, chah.mas) izas! onomat. de una percusión
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantza eragiketak/maniobrak
- Sarrera 959:** **zapo; sápo//sapú** (*Lophius piscatorius*) Ik. *Itxosapú*
- Elkarrizk.:** JM Ibazeta
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** ZAPO: itsaspeko hondar eta lohietan bizi den arrain ezkatarik gabea, bizkarralde ilun eta sabelalde zurikoa, burua oso handia, biribila eta zapala, eta ahoa orobat oso handia dituena, sukaldaritzan oso aintzat hartua (IS)
- Eneko Barrutia:** EB(02) 373orr.
- Dok. Julián Amich:** RAPE: la característica especial de este pez es que tiene el cuerpo muy plastado, parecido al de las rayas. La primera de las aletas dorsales es larga y flexible, con un apéndice membranoso en el extremo, de modo que tiene la apariencia de una especie de caña de pescar con su cebo cerca del extremo del rostro.



- Hiztegi Batua:** (+)
- Ingl.:** angler (Amich)
- Frants.:** baudroie
- Gazt.:** rape / sapo
- Saila:** arrantza espezieak. Arrainak
-
- Sarrera 960:** **zebo; sébo//sébu** *Ik. Amúski (erd.)*
- Elkarrizk.:** Aust.A.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** arraina arrantzatzeke balio duen jakia –arrain txikiak, mazi mota desberdina...- (ME)
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** bestelako gaiak
-
- Sarrera 961:** **zerezo; seréso//serésu** *(erd.)*
- Elkarrizk.:** Boni L.
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** arraina uretatik igotzeko sare eta aro borobildun tresna (ME)
- Datu entziki.:** *seresu salabardun lakoxi re. Goiko aru a oten da uretatik gora eta beko aru eoten da beian, be-beian bes, e!, eta arrañe artzea susenin erregiñas, txaka! (BL)*
- Zitak:** seresu erria ta atrapatzen dou arrañe (BL)
- Eneko Barrutia:** EB(02) 374orr.
- Hiztegi Batua:** (-)
- Saila:** arrantzako tresnak/materialak
- Sarrera 962:** **zesto; sésto//sestú** *(erd.)*
- Elkarrizk.:** Trini/Bego
- Kateg. gram.:** Iz.
- Def.:** *baldin aspiko otzari (T/B)*
- Datu entziki.:** *minbresko otzara bat san, sesto andi bat, ta beteten*



sanin araxe sestoa juten san. Sestotik bertatik botaten gendun balda, ta beteten san gero baldi. Onek eseukan ixen beresirik, san e beian gañea es jutearren arraño, onek kontixu eukasen ogei kilo rasun (T/B)

Hiztegi Batua: (-)
Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 963: **zia; síxe**
Elkarrizk.: BZZ
Kateg. gram.: Iz.
Def.: arraunketan atzera egitea (BZZ)
Eneko Barrutia: EB(O2) 375orr.

Hiztegi Batua: (-)
Saila: arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 964: **ziezko arropa; sieskó errópa**
Elkarrizk.: Boni L.
Kateg. gram.: Iz.
Def.: *soineko jantzia; ez bustitzeko (M) / plastikoz egindako arropa zabala (ME)*

Datu entzikl.: *arrantzalik be ibiltxe ben ordungo denporetan. Egurresko traskuk, bardiñ, narru ipiñitxe azpixan laban es etxeko eta gero siesko erropanure barrure es juteko narru ipintxen san be traskun (BL)*

Hiztegi Batua: (-)
Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 965: **zikinean; sikiñín**
Elkarrizk.: JM Ibazeta
Kateg. gram.: adb.
Def.: *itxaso barro-barrun (JM)*
Datu entzikl.: *arrixe ero, se esangotzut ba, barko sarrak satitxute*



	<i>ero, txapak ero, olako asuntuk dasenin (JM)</i>
Hiztegi Batua:	(-)
Saila:	arrantza eragiketak/maniobrak
Sarrera 966:	zimarroi; simárroi//simarróï (<i>Thunnus thynnus</i>)
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	atunaren familiakoa, baina tamaina handiago duen arrain mota (ME)
Zitak:	<i>orrek bolantiorrek atunetan atrapatzen dau atune, atrapatzen dau simarroï, atrapatzen dau pes-espadi, ixurdi, dana, desastre completo (BL)</i>
Dok. Zubikarai:	ZIMARROIA: lodikotea, ondo jana, ondo bizi naikoa. AZ(01)
Dok. Azkue:	ZIMARROI (AN-ond, B-b-ond, G-don), atún primerizo, de aletas cortas.
Eneko Barrutia:	EB(02) 375orr.
Hiztegi Batua:	(-) / atungorri (kontserbatan) / atun hegalabur / zimarroi
Ingl.:	bluefin tuna / Atlantic bluefin tuna
Frants.:	thon rouge
Gazt.:	cimarrón / atún rojo
Saila:	arrantza espezieak. Arrainak.
Sarrera 967:	zimera; siméra//siméri
Elkarrizk.:	Agurtzane O.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	lastoz egindako otzara (ME)
Dok. Azkue:	ZIMERA (B-d-l-m-mond-ond-t [^] s, G-gab,...) cesto que se lleva al brazo.
Hiztegi Batua:	(-)
Saila:	arrantzako tresnak/materialak



Sarrera 968:	zingan; dsingan
Elkarrizk.:	BZZ
Kateg. gram.:	adb.
Def.:	batela arraun bakar bategaz aurrera eramateko era (BZZ)
Hiztegi Batua:	(-)
Saila:	arrantza eragiketak/maniobrak

Sarrera 968.01: DZINGALÉKO

Elkarrizk.:	BZZ
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	batelean arrauna ipintzeko leku atzean (BZZ)
Saila:	ontzien eraikuntza

Sarrera 969:	zirga; seéra//seéra
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	<i>arrañak ataten daben boltsi (BL) / Juan Franciskok azaldu zidanez eurek bal-bala esaten diote. Urek inoiz "sergeri" atun asko saltaka dagoen sardari esaten diote EB(02) 329. orr</i>
Hiztegi Batua:	(-) / zirga
Saila:	bestelako gaiak

Sarrera 970:	zirimiri; sirimíri//sirimíri
Elkarrizk.:	Agurtzane O.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	euri arina baina etengabea (ME)
Dok. Azkue:	ZIRI-MIRI: 1º (B-l-mu, ..., BN), llovizna, lluvia ligera
Eneko Barrutia:	EB(02) 376orr.
Hiztegi Batua:	(-)
Gazt.:	llovizna



Saila:	eguraldia eta haizeak
Sarrera 971:	zirrímar// zirrimárra
Elkarrzk.:	AZ
Kateg. Gram.:	Iz
Def.:	itsasoa nahastuta dagoenean (ME)
Hiztegi Batua:	(-)
Gazt.:	revuelto
Saila:	arrantza espezieak. Arrainak
Sarrera 972:	zirri-zarra; sirrí-sárra//sirrí-sárri
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Sin.:	txori (UZEL)
Def.:	trainean sarea zarratzeko atzean edo aurrean beruneraino doan txikota. Artearen kalaua baino zeozer gutxiago dauka EB(02) 331. orr.
Zitak:	<i>sirri-sarri re aurreko serak estutzeku / sirri-sarrak ipintxen dau or, bañe orrek dis txanpeletak (BL)</i>
Hiztegi Batua:	(+)
Gazt.:	regidera
Saila:	ontzien eraikuntza
Sarrera 973:	zizal; sísal//sisála
Elkarrizk.:	JM. Ibazeta
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	pita-hari mota bat (ME)
Hiztegi Batua:	(-)
Saila:	arrantzako tresnak/materialak
Sarrera 974:	zonda; dsóna//dsondí
Elkarrizk.:	JM Ibazeta
Kateg. gram.:	Iz.
Sin.:	<i>fondu; ondu (JM)</i>



Def.:	uraren sakonera (ME)
Dok. Julián Amich:	PROFUNDIDAD: la distancia desde la superficie del mar hasta el suelo sobre el que insiste.
Hiztegi Batua:	(-) / sakonera
Ingl.:	depth (Amich)
Frants.:	profondeur (Amich)
Gazt.:	profundidad (Amich)
Saila:	nabigazioa eta portua
Sarrera 975:	zorro; sórro//sorrú
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	sarean mazia ipintzen den lekua (ME)
Datu entzikl.:	<i>sorru juten da sarin, sare sati baten, peloti eiñ, bota masixe araxe, bete-bete-bete eiñ, amarra sokias de erria (BL)</i>
Dok. Azkue:	ZORRO (c), saco, muchos concretan su significado á un determinado saco: en B, ... Es el costal ó saco grande para transportar granos; en AN, BN, L y S es morral ó saco de cuero; en R, zurrón de pastor.
Hiztegi Batua:	(-)
Saila:	arrantzako tresnak/materialak
Sarrera 976:	zotz;sótz//sótza
Elkarrizk.:	Boni L.
Kateg. gram.:	Iz.
Def.:	<i>palu zati bat tertzako amuak bertan sartzeko itsasotik ekarri eta desenkarnatu eta gero EB(01)</i>
Zitak:	bermiotarrak olakoxi ibiltxen ben, bateku eta guk beti urkuli (BL)
Dok. Azkue:	ZOTZ 1º (c), palillo
Eneko Barrutia:	EB(02) 376orr.
Hiztegi Batua:	(-)



Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 977: **zubi; súbi//subí**

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Sin.: *puenti (BL)*

Def.: itsasontzia gobernatzen den lekua (ME)

Eneko Barrutia: EB(02) 376orr.

Hiztegi Batua: (+)

Frants.: porque

Gazt.: puente

Saila: ontzien eraikuntza

Sarrera 978: **zurda; súrda//surdí**

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz.

Def.: zaldiaren buztana enkortxatuta. EB(02) 376orr.

Dok. Azkue: ZURDA: 4º (Bc), crin, cerda.

Hiztegi Batua: (+)

Saila: arrantzako tresnak/materialak

Sarrera 978.01: ESKÓ-SÚRDA

Elkarrizk.: Boni L.

Kateg. gram.: Iz

Def.: gaur egungo pitak duen funtzioa betetzen zuen zaldiaren isatseko ilea (ME)


Datu entziki.: *orrek lena usaten sin, saldixan bustenas etxen sin. Saldixan bustena semat da, metro bat? eta ia, aren uli metro erdi ero. Danekuk estau balixo ta, iru te lau te eindde, axe san esko surdi. Arrantza aretxeas etxen san, an esean loroik eta pitaik eta kristoik. Esko surdak batzuk lodixauak sin, danetakuk, beian selako arrañas sabisen, ba, olakoxi (BL)*

Saila: arrantzako tresnak/materialak



Sarrera 979: **zurdazkáxe// zurdazkáxi**
Elkarrzk.: AZ
arrañe pixkat makaldutakun, ilddakun ba gexa, ta ordun kilo gexa, ta pixu etxen gakon. Da ordun etxetzen otzarak amendik bi agarra ta irugarrena popatik esatengakonetik. Da kamionea altzateko, es kamionea es, lelengo karruk, burdi karrukin ni ena ondo akordaten, bañe kaballo karrukin bai. Gillermo karreteru te, Juan karreteru te. Kaballuai etxeotzen amengo serak ipiñi, es ikustekuk, albokuk es nasatekuk, jenti ibiltxen san ba... semat bidar esaten dot nik, Gillermo karreterun arek ipiñi te geuk be ixte ikusi bes da...

Da pixu, gañea antxoi amen molla gañin eonda ba, epel epel eindde, ta aspitzik agarra ta... gero etorten san bodega eta bodegan botaten gendun tiñeta, neu be ibilitxe na fabrikan eta. Nire lelengo kartilli be fabrikaku akat eta, cincuentaisieteku, ia seoser kobraten doun, ta bota, ta gatza emon.

Da tiñak sin iual ba amar bat otzara iru arroko kabiako sitxuesen. Bidoik sin bardiñauak. Tiñak sin goxe sabalaua, berutz bixkat estutzen, es san bardin bardiñe. Ta gero etxen san, arek gatza emonda an euasen ederto, da gero arrañe atateko, sikun, sikun antxoi apurtu eingo senduke ta ordun salmueri eoten san eindde. Salmueri etxen san uras eta gatz lodi-lodi-lodixas. Lena lene euasen askak. Askak sin porlanas einddakuk apropos tiñetan. Eta an etxe ben ure ta palo lusik eta otzarak eoten sin gatzas, bañe gatza ixaten san gatz lodixe. Iñoix ixaten da, ikustesu onek arri txikixak baño kristal alakuk, alakoxe totu. Botaten sin araxe ta suk ikusten sendun, gradiaten ben sematin euan da gero otzara gexa bota gatza edo naikure ta salmueri eindde ra ta... andixeik baldan artu te bota tiña. Te aretxeas uras gero ipintxen san amen tabla bat eta olakoxe otzara txikixak artu te raass, arek maxeta jun buru kentzeko. Buru kendu te gero aparta txikixe, andixe ta medianu, te gero juten sin osteabe beste tiñeta salmuera garbixe euan parajea ta antxe garbitxu. Salmueri re bera arrañe garbitzeko, latan sartzeko. Gatza emoteko tiñak eseuken ixte, be-berarte arrañas, bañe salmuerias euasen tiñak, garbitxu te ori etxeko, aspixan eukitxe ben olakoxe altura baten parrilladuri. Parrillin morun egurresku, eskami berutz jun de goxan garbixe gelditzeko. Esatzutena, berutz estutxuaua sanetik parrilli geatzen san olako altura baten, beian, da gero arek amatxutakun da danak garbitxu, arek eskama gustik te garbitxu te gero osteabe listo.

Suk esasun barrillak sin antxoa txikixaua ero, inferiorraua ero, egunak asko pasataku euana ba arek sartzan sin moñuk eindde filetik etxeko. Moñuk eiñ de, artu eskun amar antxoa ero ogei ero, norberak estutu, ako koleti balitxake morun, koloka, koloka illari te gero gatza bota. Ta arek bixaltzen sin euasen

morun Italire ero amentxe bestelanik fileti etxeko, ero pasti etxeko. Guk amen tomati te piperra ta etxen douen morun, an pasti dana antxobi, edosei botateotze antxobin gausi, antxobin usañe (...). Eta ori antxoa, oktubrin de, ontxe antxoa txikixe atrapatebena ta guk emoten geuntzan ba gatza... a ixaten san besiutako ta papardotako. Bañe ordurako ein bir ixaten sin barrillak eta garbitxu uras eta kresalas. (...) Ordun etxe ben bodegetan, arek bueltakuk altuauak ixaten sin de goxan ondo, bañe a be-bera atateko beti dindilixke gerri partearte sartute. A ixaten san besiutako ta papardotako, on arrankoban konjelaten dabena, onek e pintxoako arrañe atrapateko, ordun axe san besiuta ta papardota juten sin.

Papardotako asitxuaua bir ixaten san, besiutako txikitxuaua eta andrak juten sin bodegeta, ta an eoten sin bodegetan jaiu sein san emoteko. Negun ixaten san, nobienbretik febrerure, ta arek kandelolik eoten sin, otzak etxen ban, ure konjelaten ban. (...)

Semat tretza eukasen ba aretxen beste rasiñoi emoteotzen, alako lapiku ero, kasu ero ixaten san da alantxeik. Dana eskuas ein bir sendun.

Da gero etxin eukitxe ben, tablak ixaten sin, pixkat eukitxen ben, da andrak an eoten sin beangañin, dana karnati, gatza, ta gatza gañeabe salitri re dana ta danak enkarna ta, andra batzuk famaua ta eurak txalopetan gixonak, batzuk enkarnatako tabalak esaten gakosena psik, ta beste batzuk enkarnatakuk iual trabes eon da andrak be esin ixango ori ondo eiñ te, “orrek bai, gausak eongo ri orrenak...” (...) (“tretzak nastaten sinin: sea, mojak librakotzue ori!).

Obillu eindde jausten sin (tretzi nastata). (gorputza berotzeko edabeak: ardauai alkola kendu te axe eran). (...)

Tresmallak dis orrek. eukitxen dabe iru papo, iru sati, dis malla andixauak sartzeko ta barruku re malla txikixaua geatzeko. Sartzen disenin ero egu rala ero euran bustena rala ero amen dakarrela pintxon bat ero seoser da ia gelditzen di engantxata ta estabe urteten. Fin-fin-fiñak ixaten dis, me-me-meia, ta alturi eukitxen dabe metro ta erdi, bixkat geitxua, metro bi, estabe eukitxen gexaua. Da goxan eukitxen dabe kortxo txikixak eta beian beun txikixak, eta olantxenik paetan morun juten dis. Orrek amen estotze lagaten. Onek itxaso andirako estabe balixo. Itxaso andirako ri arrastekuk, ontxe

dabisenak, bañe onek bestiok amentxe kostan ibiltzen di, arri inguruan de, iskiñetan da, fondo gitxi ran parajin.

Au langosta otzari, te karramarrune. Karramarrune ra au, onek dakarrelako barrun tapata baleuke morun sati bat, karramarro txikixak urte leike atzea be bañe sare kontu ero akar eta nastata gelditzen da, bañe amen ia langontik es tau urteten. Langosteruk sin geure atxitxe ta, ta baakixu se etxen ben? Juten sin Llanesearte ta, asturiasearte. Eurak juten sin potiñ andixak, potiñ andixak esateotzen erramotako txalopak. Eta aume ta juten sin liorres, da Debarthe esean kotxeik eta ixte. Nik neure amai entzuti, landoin, landoin juten sin. Landoi re karru kaballo bateas, erderas kalesa ta esaten gakona ba landoi, te subi barrixan artu antxe ta Debarthe juten sin landoin, derrigorrin, eta gero danak juten sin trenes Llanesearte. Ta gurin amak esaten ban se... tarda be egun bi ero iru ero tardaten ben. Trepexos beteta jungo sinetik, trepexuk sin euran maletak, trastik, erropak, katxarruk be erungo ben jateku etxeko ta. Ura guste-gusti antxe etxen ben. (...) gurin amak esate ban se berak eukasela amar urte ta (...). Eurak ba erropak bixkat garbitxu ero, sera, jateku eiñ itxosutik etorten sinin de... andra pillu jun biko san.

Bañe gurik sin langosteruk, eta gero nego gusti eoten sin otzarak etxen, ori san, atzo goxeku. Da gero arek etxe ben, klaro, langosti te be erdi de balde, bañe ondo saltzeko ta eurak egosi bir.

Amentxe Ondarrun be etxen exe ben astillerun, kafeko atzin be bai, lapiko andixak ipiñi te egosi. Patak danak orrastu esaten ban amak ondo, beti emi ederraua askobe, edosein arrain klase beti emi ederraua, leatza be bai, konparasiñoirik bes. Eta igarteotzen emi ero arra, aurreko pata bi ero eukitxen bala lusiaua ero, meiaua ero, e nas ondo akordaten. Da arek emik ederrak dobla, orrastu anak, ipiñi ondo, sokakin amarra pataik eta es apurtzeko eta egosi oteleta ta saltzeko eta, baakixu. Anak berana ekarri, batu eta orrastu, eta soka meiak eukitxen ben, subillak, subille san tertzik eukitxe ban soki, te gero arek baño meiaua be eongo sin eta aretxekin amarratu gogor pataik eta es eskapateko, se pata bat ero apurtzen basan gero andixeik urtetetzen dana, ta langosta utze gero geatu, utzitxu etxen san euran barruko mamiñe.

Eta txibixak be, eta txautxi be bai, txautxi re txoku, gausa bardiñe ra, guk arrasterutan biarra etxen gendunin txautxi esaten geuntzan (...). Es, ni emik artzen nas, tintxa gexa akarrelako eta txibixak be bai, txibixak emi ranak dakas



erruk, eta bi lusik, erro luse luse bi eta arra ranak es takar erro luseik, eta txautxan be bardiñ-bardiñ. (...).

Leatza albinu gertata na ni ikusti, dana suri-surixe, amentxe, Sesermendin.

Amen das orratzak, bai, armateku andixena, gero goiburu te josteku, au josgurak eta josteku, te au konposturaku, suloik txikixenak konpontzeko. Guk beti orapillo bardiñe etxen dou eta orapillu esateotzau. (txitxarruk sikatzen Subi barrixan...)

Treñe alaten aladoras, len oxe be eskuas etxen ben.

Saku esta erdixan juten saku egalín juten da.

Tiñak: onetxek ustaixak esatetzen, burdiñasko ustaixak, usteldu etxen sin bañe etxe ben denpora bat, aretxekin ustaixakin jotén-jotén, geldike-geldike semat eta beraua, semat eta beraua estuaua, estutzen estutzen egun gusti eta karo, egurre esi ixaten san, eta gero etxen san sikatutakun pea bata bestias. Ta jun bi sin geldi-geldik eten baik, eta gero, erremati be einbitzen eta eurak etxeotzen ultze bias morun ero. Etxe ben beran erredondela artu te sartze ben gotxik, txikixaua ixaten san goxan eta gero estañuas morun peateotzen bera arandeli barrun sartzeko. Bera arandeli eindde eukitxe ben semat neurriku ran eta an sartzetozen eta jotén-jotén, bajaten-bajaten olantxeik etxe ben, bueno, aldrebeseta etxe ben, se beie eukanetik estuaua ein bir ben aldrebeseta, popas gora ipintxe ben da etxe ben jotén-jotén, da gero besti ostea be, te tantaik galtzen baban ango arrain gusti sikatu etxe san eta es ban balixo ixetako.

Lateruk, barrilleruk bai bañe gero lateroa jun san estañuas eta lati etxen belako, txikixauak eta olanik.

Au re tranpilli, geruaua ipiñi ixan di onek tranpillok eurok aladorin erresaua etorteko, se aladorea segixan mamiñe etortén basan, beonen papu te maiñ gexei, te txarto biarra etxeko. Onek bakarri biarra etxen dabe aladoreako.

Txikotin ipintxen da txikixaua, sei bat brasaku, enda eskun amabi brasa ero, amabost ero, lusiau, se amen dakasu sirri-sarri. Sirri sarri, amen sartzetze soki.

Treñan satixak: lena-lena-lena beatzi kankamo sin neiku, bañe treñak eukasen 90 brasa. Len etxen gendun fijo bertan txaplatak josi te fijo bertan, bañe on etxen dabe soka utzak ipiñi, se etxetzauena ra sati bat sartzeotzau olakoxi asko be totuaua papu, lodixaua, eta aretxeas gelditzen gako refuertzu eta ordun ia kankamotxaplataik ipiñi biarrrik esta. Da on etxeotze, onek kankamuok ontxe ipiñi leikez ero berak nai raben beste, ariña estutzeko ero. Beti kankamu nai ixaten dabe nones, osea se in pares nai ixaten dabe erdixe atrapateko ondo, se au dana botatakun gero egal bixetatik asten di tengarako eta amen kankamutan du soki eta auxe ru batzen olanik papu, onen sokin ixena braeleku re.

(esku, txikota ta tranpilli) au tranpilli ixaten da motza eta txikoteku lusi se au tranpilli txikotin lusi balitxake au jungo litxake, txikota jungo litxake berutz eta eskapa ein leike arrañak, au ariñ altza bir ixaten dabe.

Karo, pasaten da segun semat arrain dan, salabardu re ia arraiñ asko ranin, salabardu re andixaua, arraiñ asko ranin de arraiñ satarraua ranin, bañe antxobi te pandero utzas naiku rabe altzateko; salabardu re kilo asko altzateku te, aru eukitzen dau burdiñasku eta gero etxen dabe sokias irai. Soki an dakarre esta? ta beras batea estutute ra, eta sartzen dabe eta ekarritxakun gora onei sokionei raa!! laga ta raa!! sabaltzen da. Osteabe estutu. Ori re salabardu, bañe panderuk estakar ori, sartu te bera altza bir dabe gora, bañe ori re arrain gitxiaua ranin. De ontxe ipiñitxues elektrikuk.

Gixon bat eoten da batzen kankamuk eta kontaten semat falta gakon, botaten dusenin bebai, semat dus, semat dus!! berak patroik buelti artzeko, jun de, jun de jun etxen barau estau errebueltai artuko eta ariñei artzen barau be treñe saobrakoko te gitxi gora bera eurak kalkulaten dabe. Bat eoten da olantxeik altzun artute kankamuk botaten-botaten, semagarrena ru eta igual onenbeste, te igual bi batea nasta uste baik, eta ordun treñe apurtu ero ateso, a libre jun bir de ta artzen dasenin be olantxeik, onenbeste faltari te. Gero olantxeik jakitxen dabe aberixak dasenin be iru kankamo tarte apurtu ri ero, es ero, kankamo tarte bat ero. (...)

Ta gero etxeotzau para kosturasa, beste se ixen esateotze, para aberiasa, aberixak parateko ra. On etxeotzau, se ain trein lusik tis, iual asten da apurtzen amendixeik, ta treñe barrurutz eruten aiñ inddarra daru, bera treñe ru apurtzen-apurtzen-apurtzen, da etxetzau topik goitxik bera lau be bai, iru be bai, goiburun totuerakuk, berau treñe ra meie, ta onek goiburuk dis lodixak, eta

olakoxe lodixak sartzeotzaus gotxik bera eta ordun aberixi dator eta etxen da para, parakora, eta iual eingo ra bertan josguran bixkat jun, bañe arek etxen dau asko para.

3.5. TRANSKRIPZIOAK PATXI ETXABURU (PE.)

1.zinta

Abarixu:

Bakallaun itxuri dakar bixkat, askoik es. Erditxik goratxua bixkat marroixki re bera, eta buru marroixki te besti surixki, eta jateko aragixe bigunaua ra eta gatza emoten gako ... sikatzen da gatzas bakallaun lantxeik, bardiñ, bañe bakallau obi re, konpaktu aragixe... au biunaua, bañe berau be ba, esango genduke ba bakallau baño bixkat kalidadi, bakallau obetxua berau baño, bestelaik, bakallau ixanda lantxeik. Freskun jateko be, arin etxen da egositxe jateko. Itxosun ibiltxen nitxanin ba tartin etorten sin abarixuk, aukeri baeun bixak artzeko bakallau artzesu. Gero begi andixak dakas, normalak bañe andixak, es dakas urteneran.

Abixoi:

Abixoi re e, olako palanka txiki-txikixe ixanda lantxeik. Palanka txikixe be eoten da, palankakumi, bañe abixoi ixaten da antzeaku, bardiñe ixanda lantxeik, bixkat txikitxua. Ori gexen bat etorten san arrasteko sarin mallata, eta txikixe ixaten san da, esta arrain sabala plaktuxin eta lantxeik eta au txikixe ixaneran ba aragi gitxi akar, estosu aprobetxaten jateko eta bota etxen san ori.

Aginsorrotza:

Aginsorrotza ra atunan familixaku. Kalidades atune obi, ainbeste arrain das atunan familixan eta danetatik atune ra obiena, ordun orkoxe bat, es eskasaua bañe kalidade beraku bai. Ori ainsorrotzan ixena eukiko rau berak ainsorrotzak dakaselako, atunak baño bixkat sorrotzauak dakas eta txikixaua normalin atune baño. Ori atrapatzen sanin gitxi atrapatzen san atunan aldin, gexaua beti beko uretan, mediterraneuan da ortxe.

Aingeru:

Kolaxuk eta ixaten dis ba?, kolaxo sarrak ixaten dis an dixauak eta txikixauak eta danetaikuk das, marraxun antzeakuk eta orrek. Aingeru re beres, da, orkoxe familixako bat bañe kolori san urdiñe, bai, amabirjiñin kapi te ixaten da ba?, bai, seleste, bai. Aingeru guardaku es dakat nik entzunde. Orrek atrapatzen sin amentxe eugaldi onas da, udan edo, bolintxin sabisenin ero, se arek e... sareko arrantzan ibilieran, bakarrak eta sartzan sin eta orrek gitxia gexa biar txarra etxen dabe. Orrek gero bota etxen sin, olako arrañoak eta es sin jaten, gaur egunin jaten dis gexa bañe... Beste arrain batzuk, iñoak es banak nai konbentuta ta bixaltzen sin, erosi be esin etxen.

Aingiri:

Aingiri ain de esaune, ba se esangotzut nik ba... aingirak andixak be baras, medianuk, txikixak eta orrek eta errixun denetaik das, da itxosun ba asixauak. Bai, sugi ixanda lantxeik de, askotan esatetze orrei itxosoko sugi be bai, erderas, serpiente de mar be esateotze andixauak disenai. Te orrek aingirak jateko gitxi bat gora bera, erditxik gora asur txikixe gexaua ekitxen dau eta erditxik bera asur txikixe gitxiaua. Ordun asur txikixe gexaua akarrena a esan aprobetxa be etxen, da gorusku itxosun bakarrik, iñoak patatakin... aragi sendu re bera eta saltzaberdin jateko, patatak jateko gusto ona emotetzen berak. Ori lena. Orrek errixokuk guk es gendusin jan be etxen. Orrek basa usañe ero, basa gustu eta, eta iual e Ramonak eta arrain saltzaillik Bilboa ta bixaltze ben. Baten batek etxea erun be bai, te jan be bai lena, asko sin lena amen arrantzan gastetas ibiltzen sinak.

Aingira baltza:

Kolori baltzaua eukitxen dau. Bestik eukitxen dabe griseski ero. Antzekuk dis bañe bat illunaua ra besti baño. Grisak baras txikixauak, onek errixun eta atrapatzen disenak, bañe onek itxosokuk ixaten dis orretxen baltzak, lepo inguru, goxe, eukitxen dau ola baltzeako illune, beste batzuk es aiñ illune...

Akuli:

Itxura baten lantzoin lakoxi re, bañe akulak gitxi ixaten dis, bakarria ixaten san. Sarin etorten sin, bolintxin de treñin de nastin, gexen bat be bolintxin, txitxarruas da antxoias da, tartin bakarrak etorten sin. Barrutik berdi ixaten san, asur inguru eta ori berdi ixaten da, berde-berdi, eta esta ain estimau lantzo lantxeik jateko, eta askotan lantzo baño asitxuaua ixaten da, metro erdi te. Len esan ori jateko ibiltxen, iñoix itxosun de jaten san, erreta jaten san. Mustur lusi eukitxen dau, lantzoin lantxeik.

Anguli:

Mar de los argasos ero andik etxen dabe osteri urte gustin, amen e euran umik jaxoteko arrautzak ipintxea ero. Euran rekorridu eukitxen dabe, korriente batzun arabera, sartzen dis ibaixetan eta gero gorutz eta berutz juten dis toki batearte an euran arrautzak etxeko eta gero eurak etxen dabe ba barrero berta jun, de urte baten siklu einddakun iltxi ixaten dala, euran erixotzi etorten dala eta gero bestik jaxoten dis barrixak, angula txikixak. Eta gero orretxek angula txikixok, eurak asten dusela errixun urteneran, negun, bere sasoin, onek eurixak eta uxolak eoten disenin, ure moliu ixaten danes, ure nastau lurras, antxe nastin gitxia ikusten dabe eurak eta orduntxe atrapatzen dis orrek. Uxolik es baleo es litxakes atrapako, eurak gitxia ikusteko ra. Ori bestelako arrañakin be itxosun pasaten da; ure argixe bara, garbi-garbixe bara, erresa ikusten dabe edoser kontraste eta alde etxen dabe, eta ure illune ero bara eta itargirik es bara... itargixas be gexa ikusten dabe ta.

Antxobi:

Arrain berdi re antxobi. Antxobi bera ixan da arraiñ aberatza, se aplikasiñoi asko dakas orrek, fabriketakuk, bai salasoin de bai eskabetxin de, barrillan moñutan da, gatza emonda ta, era asko ra eta jaten be gusto ederreku, gosu re antxobi. Geokun orrek biar asko emote ban errixan, andraskuntzako eta, exportasiñoiraku te. Orrek euran temperaturias da ibili bir dis. Orrek enjeneralin goitxik etorten sin, goitxik esaten da Frantziko kostatik eta, eta Galisitxik eta beixik esaten gako orrei. Itxosaldin amen gure eskumi re, goixe; Gipusku re, gure goxe ra, gutzat dis goitxarrak, eta Santanderrekuk eta orrek beixarrak, ortik beruskuk danak beixarrak, eta ortik goruskuk, danak goitxarrak. Goitxik etorten da au, Frantziko kostatik sir, gitxia gexa eruten da beran abixara bat eta, urepelan bille juten dis, ur egokixak, temperaturias es

bakarrrik, gero janarixak eta gausakin. Nik usten dot lena on aldin antxoba andixe gexa atrapatzen sala, fabrikako ta... otabiku te, filetik etxeko, urune etxeko es. Antxoi semat eta andixa oba. Ertaiñetik txikirutz freskoako ixaten san, ori esta fabrikako. Fabrikako aragixe semat eta gexa euki obeto. Beran pixun neurrixan, beran tamañun neurrixan da freskoako edo fabrikako arrañe ixati. Lena neurtzen sin pixun, “kilu semat, otamaseiku ra”, da baakixu otamaseiku gitxi bat gora bera olakoxi rana eta arek ekarri rau otairuku, otairuku baakixu, alakoxi, luserias batea lodieri akar arek, da ordun fabrikantik... asten da antxoi te eoten di iual e berrotabiku, berroirarteku, ortik beruskoik esta sartu ondiokan, eta eoten dis otamalaukoa alla arte, otaspiku alla arte... eta ori danoi fabrikantik artzen dabes. Onek esan nai dau, kilun sartzen disela otairu antxoa, eta kilun sartzen disela berrotabi antxoa; kilun semat antxoa sartzen dan. Eta bertan dabillenak, gitxi bat gora bera pixo aldetik itxosun esautzen dabena. Semat eta ale gitxia sartu, semat eta piesa andixaua, arek aragi gexa akar proportziñoñ, eta etxen da aragixe kendu eta asurre be kendu etxen da, buru be kendu etxen da, bustena be kendu etxen da, eta semat eta piesa txikixaua, aragixe meiaua eukitxen dau eta konformidadin kontu euki bir dau andixaua. Jentik naxa beti fabrikako antxobi, mille bidar naxa, se fabrikaku karuaua. Freskoaku karuaua ixaten da ba, asi-barrixin, estanin arrañik, etorten bada lelengoku a, fruta barrixe esaten dana eruteko, ordun, gausa barrixe eronun be karuaua ixaten da asieran, es? Onena ra fabrikaku. Fabrikaku re balixu akarrena, semat eta andixaua, oba.

Antxoa txikixe:

Esta antxoilli, antxoilli re leatzen familixaku arrasteku, leatz kumi ixanda morun, bañe antxoa txikixe ra antxoi bera, onek dis bajurakuk. Bañe antxoa txikixe ixaten da, lena esaten san, kordan, korda juti san besiuta, papardota, txitxarro anditxa be bai, bates be papardo eta besiuta tretzakin, eta tretzan eruten san karnati esaten sana, preparata eruten san etxetik, es? Eta ori san, antxoa txikixe gatza emonda eukitxen san negurako gordeta, ori antxoa txikixoi ontxe atrapatzen san, egueldi ona euanin, neguko eualdixak asi baño lena, bajurako txalopak atrapate ben ba, atunetin amatxueran amentxe egun batzutan, antxoa txikixe, eta a iñoix asieran saldu be etxen san, jateko gosu ixaten da a, bates be arrantzalintzako ta. Len ososoik jate ben arrantzalik, asur de gusti, txikixe, buru kendute, agarra bustenetik eta ososoik, eta etxea eruten sendun eta olantxeik egositxe, guri gastioi estoskun grasirik etxen, olantxeik jaten san ori beti, prijiute sekule bes, ipiñi te rri-rra! etxen san, gero botaten

gakon “korretan buelti” esaten gakona: ure irakitzen ipiñi, bota antxoi, txikixe segixan etxen da, beran puntun egosteko, ataten san, antxoi ata lapikutik eta orixu sartañan erre berakatza, buru osuas, bat ero bi, eta orixu erre-erre etxen san, ori osasunantzat kalte ra bañe ordun es genkixen eta arei botaten geuntzan, egositxako arrañai beru ranai, te botaeran berotasunak etxe ban, ra! ra! ra!, eta axe ra “korretan buelti”. Da arek emote ban toke bat, axe kontrasti, pikanti bota biako bañe orrek eseukan pikante bearrik. Eta ori antxoa txikixoi udaskenin atrapatzen san, eta atrapatzen sana etxen san ba bodegetan erun, etortzen sin txalopak bodegeta, txalopa andixak e, atuneruk, eta ata ta ata. Bodegeta erun de barrilletan gatza emoten gakon. Emon gatza , ille bixan ero iruan ero negu alla arte, kordako sasoi alla arte. Kordako sasoi allatakun areas enkarnaten sin tertzak. Bañe etxea erutesun arrain parti eta ori antxoa txikixoi gosu ixaten da jateko.

Arenki:

Arenki sardinsar da euskeras. Sardiñin aldin ordinaixuaua ra jateko, bastua. Ta gero andi andixe bara ori urune etxeko ibiltzen da. Rusuk eta orrek txalopa andixak eta ori artzen dabe asko eta eruten da urune eta...

Arrain gorrix:

Perloin familixaku re. Perloi baño asitxuaua da eta oso ona jateko, aragi gogorra eta gusto ederreku. Perloin itxuraku re, bardin-bardiñe, bixkat asitxuaua, bañe bardiñe. Perloi aldin gitxi eoten da ori, perloi orren aldin gexa eoten da. Gorrix ra berau, gañi gorrix, naranjatic gorriraku eta tripa parin surixe eta jateko gosu. Perloi baño fiñaua ra. Arrain gorrix, neskasarran antzeaku re. Len jan be esan etxen. Niri asko gustaten gasta. Gorrix ona, bañe perloi baltza obiaua.

Arrain gaistu:

Arrain gaistu nik usteot sala, lena gu itxosun sartu aurretik eta arrain gaistuk sin, ixurdak baño asitxuauak, bañe esineike esan ondo selako itxuraku... orrek ixaten sin e...ixurdan lantxeik etortzen sin antxobi euan tokire ero sardiñi euan tokire ero, jatea etortzen sin. Orrek eurak, arrain multzo bat bara beian, etxen dabe, kexata geatzen da arrañe, antxoi ero dana dalaku eta orrek asalea urtetzen dabe, eta ordun asalin ikusieran, arrantzalik etxen dau axe aprobeitza, sari bota

eta atrapa, bai manjuban esaten gako ixurdan bideskuai. Eta gero sari segun selanik jun batzen ba ixurdak kexaten dabenin eskapa etxen dabe aldaben moure ta arrain gaistuk ixaten dis gogorrauk eta or geatzen da, geokun orrek gexa auantate ben kontixu, eta gero urten birdabenin askanin, orrek sarik apurtzen eta biar txarrak etxeben, bolintxai treñak apurtzen eta. Orrek etxen dabe biar txarraua sarikin ixurdak baño. Lena eoten sin amen itxosoko agintarixak, marinakuk esaten dana, armak be ibili sitxuen, Eibartik ekarritze eskopetak, tiro batzuk bota uxatzea. Eta batxe be san lena, txalopa batek, bolintxeruk, bat san bixkorra sana eta axe marinakuk artu ben eta iñoix etxe ben, antxe juten sin eurak, seoselako armias orretxei segi emotea, uxatzea amendik, treñai biar txarrik es etxeko.

Arrain satarrak:

Tiburoin familixako gustik; beres kaeli re, ta beres marraxu re, ta beres kontzesiñoi re ta...

Arraxi:

Arrain sapala ra, busten lusi akarrena. Orrek ixaten dis beti basako arrañak. Basako arrañak esaten gakoe ba, ondun be baras atxak eta, arrixak eta, orrek eurak eskutateko ta kamuflateko ta ibiltxen dabe ba ondarrin, sapalak disenak, ondarrin sartu be etxen dis, olako erronbo formi akar, busten lusi, eta jateko beti ixan da gosu. Erresa ra garbitzen; buru ososoik eta bustan parti ososoik kentzen da eta geatzen da olako sortzi ba balitxake latxeik, asala kendutakun ori sikatzen lagaten da, freskun be jaten da, bañe obeto ixaten da... mukosidadi eukitxen dau gañin asko eta buru te bustena kendu, aragi utze lagatetzasu eta gero sikatzen lagaten da egunetan, egun pillo bat pasatakun asala kendu egosteko, da nai ixan eskeo freskun be bai. Freskun biar andixaua akar asala kentzik. Ta geokun eukitxen dau beran asurre, asurre biuntxuaua ixaten da ori, eta antxe, kostillak balitxaken lantxeik kanalak ero, beras batea aragixe, eta egositxakun satixak etxeosus, eta geroi erres-erres kentzetzasu mamiñak, orrasixai kentzi lantxeik, eta jaten da arrañe orixo errias egositxe, orretxeas “korretan bueltias”. Da angulan antzeako gausa bat, es aiñ presiatu.

**Astu:**

Au arrasteruk atrapatzen dabe. Urte gitxi akar, onetxek e arrasteko onetxek, aspaldiko urtitan ori. Ondo esin neike esan. Lelengokun estimasiñoirik be es gakon emoten orrei, bañe gero beste arrañoak, ollarrak eta abarixu eta bakallauk eta ori kanpoa bixaltzen san. Nik estot sekule jan. Ori bakallauas da abarixuas da ortxe tartin etxen dau. Abarixun eta aldin, arrain gogorra emoten dau bera dala aragi kontun de kanpotik tratateko ta.

Barbañe:

Barbañe ra ba, arrain gorrixek, eskamak gogorrek dakasena, oso presiatu eta gosu. Orixu brijiutakun gorri-gorrixek lagaten dau, arraño fiñe ta, ederra ta... malla goiku re ori e! Ori gexen baten negun atrapatzen da, amentxe arrastin. Arrasteruk atrapatzen dabe eta arrasteruk enjeneralin dis ondarrekuk, atxetan da urrin baabis, sarik jota apurtu etxen dis.

Berdela:

Amen sekule estimasiñoirik es gako emon. Arrain berdi. Niri berdela beti gusta ixan gasta. Prijiute gosu. Eta amen eonda beti arrain berdi kalteako rala osasuneako ta nausixak, len, beti arrain surixe ona, eta ongo urtitan alderantzis, on dakixen gustias, on arrain berdi kolesterolantzako ona ra. Eta fabrikantik eruten ben berdela latetan da sartzeko ta. Aspaldiko urtitatik ona, beste nasiñoitxan da estimau ra ori, Alemanin de, beti eonda o berdela ta txitxarro andixe ta, Italice exporta ta etxen dabe. Bertan be bai, e? Bertan be fabriketan da etxen dabe amen e...eskabetxin de, salasoin de, guk ikusi ixan dous urtitan or e Castillan sir de Segobian da, ene, "Ondarruko lata andixak amen!" an, berdelanak. Da berdela nai rot nik onenbeste, pixun e! Kilo bat ero, bosteun gramo ero, lata anditxik ata, mamiñ utze ixaten san e! mamiñ lusi, da emoteotzen ensaladan jateko. Ensaladako atunan eta lantxeik, berdela, gustaten gakon asko.

Berlenki:

Arrain surixe ra..

Besiue:

Pantxo andixe balitzake moure, bañe esta pantxu. Besiue ra, len esatzut, konsideraten da surixe ero (...) ortxe gausan da. Bestelaik beroi re ba, arrañe gusto ederra akarrena erreta batesbe, saltzan be bai, saltzan be lena.

Ni gasti nitxanin de, arrañai estimasiñoirik bes guk, bañe ordun egunero negun ekarten san. (...). Besiue garbitzen san, eta garbitxute eoten san sikatzen, bixkat ure juten, eta ordu batzutan bara, obeto eoten da. Itxosun etxen san matordo batetik beste matordoako, freskuei be esta ain egokixe ixaten be, bixkat ordu batzuk eta gero oba ixaten da arrañe ta. Gero, afatxako sasoin ebatxen etxin, ebatxen satixak, tajadak, eta ba, patatak kipulias, kipula gorrixas etxen da, luresko kasularan, kipula gorrixen ipiñi txikitxute ta gurin beintzat etxe ben, besiu tajadak antxe bixkat gorritxu, alde bat bixkat gorritxu eta besti be gorritxu, bixak gorritxutakun plater batea ata ariñ, buru erditxipi ebatxe, beixak kendute, arrañai beixak kendu bigako ta. Geokun, an kipulatan etxen san, orixotan, patatak etxen sin. Aretxek patatak eiñ, saltza bat etxen dan lantxeik eta gero pasaten san antxe kipula-orixotan patati te geokun bota gakon ure bir daben apurre, ur gitxias, eta patatak antxe eiñ, patatak tapa ta eiñ. Ixe eidde euasenin, a arrañe etxen gako sartu gañin kurioso-kurioso, eta gosu ixaten san. Besiu bera arrain gorrixen ra, metro erdi baño txikitxua da, berrotabost baño gexarik esta ixango. Esta bera luseran asko asten dana, bustena be estakar oso andixe.

Arrain surixak eukitxen dau bustena.

Arraiñ urdiñe gutzako arrain berdi re, gero erderasko alako bat eta nai basu “pescado azul” esan, “pescado verder” estosu esango, eurak estakixe ser dan da, es? “pescado azul” esangosu, bañe guri re, geuri euskera, “berdi”.

Besiu - erregi:

Ori re besiuan lakoxi, bixkat asitxua lantxeik. Tamaños gitxi asixaua, bestelanik, gorrixaua ondio. Besiu bera ain gorrixen esta, bañe au gorrixen ra, aren konparasiñoiñ gorrixen ra, asitxuaue bañe alakoxi re. Ori gitxi atrapatzen san, arrastin tartin bakarrak etorten sin. Neuk datxela, orren aldin besiu askos obi re. Esta txarraua ralako au, bañe...

**Betandixe:**

Betandixe ra berdelañ lakoxi. Askotan, berdela baño asixaua ra, berdel andixe baño andixaua ra betandixe, bañe kalidadi, bajua. Familixa bardiñekuk ixati lantxeik. Aspaldiko urtitan betandixe andixaua be etorten san berdelañ aldin, trokotxuaue, de marmixaku etxen san, ondo eoten da, bañe orren aldin berdelañ estimau re.

Bobi:

Besiuñ da orretxen familixan. Pantxu sapalaua ra bobin aldin, eta bobi ixaten da besiuñ aldin txikixaua, eta kolori marroixkiaua gexa rakar. Bestelaik, estilun, kolorin de eskaman da, besiuñ da lakoxi.

Bobi bolintxin atrapatēñ san txixarruas da, negun. Basako arrañe ra bobi, eta lena estimasiñirik be es gakon emoten gu gastik giñanin de. Bobi bota etxen san, iñoix baten batek iual itxosun geuasenin parrillañ erreta, aproba selaku ran da, bañe gaur egunin bobi etxin jaten dot nik erreta, eta parrillañ erreta ederra ra jateko. Bañe gitxi rasēñ di onak orrek, sobran baras estimasiñoirik bes.

Bramune:

Arraiñ andixe ra, sapala ra. Orrek esgata sekule gerta be eiñ, lenauakuk sin orrek.

Breki:

Pantxun itxuri akar, pantxu baño bixkat asitxuaua bañe diferenti. Bixkat musturre lusetxuaua, lepuko kolore gorrixki bixkat rosiaua, da asitxua baño normalin pantxu baño, bañe antzekuk dis.

Bustenbaltza:

Gris baltzeaku re ori, txikitxuk dis, gorputz sabalaua dakar, lena gitxiaua jaten sin.

Egalaburre:

Simarroi, orrek dakar aragixe egalusin aldin gorrixaua, eta beti ixan da kalidades lelengo mallaku, egalusi, bigarren, egalaburre. Beres or egalaburrak atunan aldin andixauak be asko das, atunan bestekuk be bai. Atune baño beraua artzen sin orrek, amentxe urrin, eta geokun ixaten san ba egalusi etorten san, aurretik ixaten san ori. Ori apaxun atrapateku ixan da beti. Atunan aldin asarri beroi e, orrek apurtu te, inddarra, gogorra atunan aldin.

Egalusi:

Atune ra. Iparraldekuk eta, egalusi eta egalaburre, guk atune ta simarroi.

Egoi:

Egoi re ba arrain sapal bat, es arraxan eta moure bañe sapaleaku, kolore marroixki, marroitxik beixea ero olakoxi. Da ori lenako denporetan estima be esan etxen. Bakarrak etorten sin beste arrañakin atea, sarin de etorten sin, te beoneas marmitxaku etxen da, atunas eindde obeto es, bañe!

Erraxau:

Atunan familixaku re erraxau, ainsorrotzan da antzeaku re, alde txikixe ra. Atun normala baño txikixauak ixaten sin, eta gorputzin eukitxen dau erraxak, atunak estauke erraxaik. Kolori antzeaku, gris illune gexaua ta argixe gexaua ta...

Errebolu:

Arrain sapala ra, kalidade ona, marroi kanpotik, eskama baik puntak, asurrak lakoxik eukitxetus, eta aragixe oso ona jateko, erreta gexen bat be ona. Ori arrañoi len gexa atrapatzen san, nastin etorten sinak tartin.

Esperloi:

Arrain satar andixe san.

**Espata arrañe:**

Ori nik estot esautu gure itxosutan. Atunetan asi giñanin berutz juten, Mediterraneo ta, Aljesirasea ta, Afrika, Kanariastik eta Afrika bitxarteko itxosutan da, itxoso berutan da atrapa ixan dou bakarren bat, tartin, sarin etorten sinak barrure. Bestelan estretxo aldeko Andalusin de orrek juten sin kordan. Guk jan ixan dou olan atrapata ta, eta arrañe ederra jateko. Aragixe dakar gorrixki.

Esturioi:

Iñoix atrapa ixandou ilddako arrañak, bakarrak, ero bolintxin ero etorten san, treñin, ilddaku, sarra. Gero, ori beroi esta amengo arrañe eta batek baaki nundik etorritxaku ran, galdutako baten bat iual. Lusi ixaten da, olako koxkatzu-koskatzu, luse-lusi bera. Eta irakurritxe eta dakiaune ra orren arbixak ixaten disela kabiarra esaten gakonak, beran arbixakin einddaku, eta askok kabiarra deitzetza berai arrañai, beran arbixak dis kabiarra ixates, arbixakin eiñ, prepara.

Ingles ollarra:

Ollarran antzeaku re, ollarra arrañan antzeaku re, kolorik eta antzeakuk dis, formi te dana, beixak txikixauak usten dot dakasela. Bañe ollarra kalidade obi re ingles ollarran aldin, satixe ixaten da obi, gitxia dala ollarran aldin ingles ollarra, da beixak txikitxuauak ingles ollarrak baño. Arrain sapala ra, aspixe sapala dakar.

Itxosapu:

Itxosapu ra baltza eta surixe. Baltza ixaten da, au amengo partiau barruko asala iratxakun eukitxen dau baltza, mei-meie, ori kendu be etxen da, bañe gosu eoten da, a baltza rala eta txarra ralakun, ba alderantzis, a baltza bara asko bidar obi re. Surixak ure etxen dau egosten dala, ure, bera gorputze urtzu re bestin aldin, eta gero egosten dakasule ure etxen dau bañe gustun orren aldin beste gausa bat da baltza, karua da asko be baltza.

Dakar buru andixe, sabala, ixerdi artzen dau buruk, eta gero beste gusti dakar, beste erdi pasau trontzo bat. Arrain surixe ra, arrain ona. Basa arraño ra, au andixe rakar eta bi antena dakas mustur parin.

Itxoskabri:

Orrek eukitxen dau asurre asko. Gorrixki ixaten da, gorri illune, asurre asko, lepun de danin eukitxen dau. Kabri re txikixaua. Kabramontesa ra gure itxoskabri, kabramontesa ra kastellanuk ero, neure ustes bera ra. Itxoskabri re asixaua kabri baño, eta buru andixaua proportziñoiñ. Beti arrixin eoten da, atxin eoten da, gogorin, eta bateleruk atrapatzen ben, gixon bakarrak, bat ero bi juten disenak lena, gaur egunin edosein du, liorrekuk eta danak, baño lena gitxi jeten sin, sarrak eta gaxuk sinak, sarrak esinak eta bolintxen ibiltzen sin. Antxe atxan tartin baño gitxi, bateren bat ero ekarte ben, ori karu ixaten san, egositxe jateko ba albenak, bixkat gaxuk sinak eta ederra arraño jateko. Aragixe dakar gogorra eta gustu ederra, ederra ra jateko. Kabri re txikixaua ixanda lantxeik eta estakar ainbeste asur, ainbeste arantza ta gausaik gitxia dakar eta gosu re kabri jaten. Marroixki te beixea ero dis, olantxeik motak. Batelin atrapateko arrañoak dis orrek, apaxuas atrapatekuk, txalopetan da, bolintxerutan da, lena itxosa jun de illuntzi alla arte itxosun geldik eon biga, ba ordun, kabran tokixe bara amentxe, ata apaxu eta...

Ixurdi:

Mamiferu re. Esta arrain txarra, karaterra ero ona rakar. Arrañoan bille ibiltzen da ta, abixari be andixe akar onek eta, otamasei milla baño gexaua artzen dau onek, millak e, millak ixerdi bi kilometro inguru ri te. Orrek euran ixati ixaten da ba gutzako, antxobi billatzen dabe ondun eta aren bille juten di, antxoa galduk esaten gakoiak, orrek moltzuk, gorrixak eta orrek arraño jaten ibiltzen dis eta ordun arek kejaten di te gorutz eta gorutz eta gorutz etorten di arek, gorutz libre akarre ta, da arrantzalik ikusten dabenin, manjuban arrantzi oxerdi ra. Beroi jateko, arpoias atrapatzen di orrek, txalopiai be urreatu etxen dis eta antxe beran alun, eta jateko ona ixaten da. Aragixe gorri-gorrixerdi akar. Lena jatekoik esan eruten itxosoa eta patatin bixkat ero bai baño arraño jaten sendun jaten sendunin eta diferenti ero. Leienda baten morun euan; itxosun beti arda, arraño eta arda, boti bete ero san dana be, arda apurre, eguneako ero, bates be sarrak eran da gastik es eta olanik, etxen san ixurdi gisaun lantxeik patatakin eta esaten san berusku emoten bala, ixurdi jandakun eta ure

erandakun berusku emoten bala, eta ordun etxen san, ixurdir aragixe ataten sendun, satitzen sendun gisautako lantxeik, eta satitxutakun, artu baldan ure kresala eta antxe lagaten sin, eta garbitxu te eraindde, eraindde, beran odola kendu, ur garbixe artu eta eraindde, eraindde, eraiñ, irugarrenes be artu te eraindde, eraindde, eraiñ, oxe etxeko. Eta gaur egun parrillan erreta tajadi etxesu, atunan lantxeik eta ederra ra jateko, nai bosu patatakin gisaun antzea etxen dana ixebes, dan moure eiñ eta ederra.

Bañe seoseatxik oxe bersiñoi euan, berusku emoten dabela. Jateko ederra da, etxen dosunin aragixe biune ra. Baten olantxenik bajuran gabisela, atrapa ixurdi eta geokun etxen san garbitxu, jateko ta etxeako ta... asala meie ra bañe sati bat koipi ixaten da, txarrizan lantxeik, eta etxetasu luseran lau ebaki eiñ; ixurde erdixe au, esta? Ba ebatxetasu erdixan, gañin eta aspixan, bixkat dakixenak ten eta ososoik kendu asala, beste laurena eta beste laurena.

Beran asala mei-meie ixaten san, bañe au koipi ixaten san eta gero aragixe, aragi gorrixte. Da asurre be akarre olantxeik lauta, atunan lantxeik eta olantxeik solomu ososoik ata, gero arek solomuk gorde etxen dis. Gero, gibela eta be aprobetxa etxen gakoie, kipulias pasa eta ... bein ilantxeik ixurdi garbitzen eta ixurdik eukan umi barrun, ixurdakumi. Naiku formata eukan, beixak eta ondiokan itxitxe eukasen beixan formi te dana eukan. Nik estaitx ille bi faltako baakon jaxoteko, iru ero, berroi egun ero, bañe neiku formata euan.

Feoneru:

Erderas da fogoneru. Ortxe makallautxan da, besiutan da, ollar anditxan da, or itxosun, kaporengo or, askotan agertzen san ortxe fogoneru. Atunan familixaku re, urreatzen dana makallaun familire ero. Berak dakar erditxik gorutz e, abadi akorda eratxesta berak, baltza jantzixe, baltzak ero, naiku illun eta gero ordik berus surixki, girsexki.

Orren makallaun eta abarixun de aldin ori ordinaxu san jateko. Ori amen jan be esan etxen. Saldu etxen san arrasteko arrañe e!, ori Bartzelona ta, Sebilla ta, Balentzire ta Madrirea ta bixaltze ben, an beste ixen bateas saltzen da. Se an palankiai, arrain gosu re bañe arrain korrienti re, languau esatetze, arrandeixetan saltzen languau, au esta bañe languau. Atrapaten san asko bañe gitxi balixote ban bentan gero.

Fletana:

Lenako arraiñ sapala ra ori

Juliani:

Makallaun eta abarixun bitxarteku re. Makallaune gexa dakar julianik. Juliani re, makallau baño bixkat estutxua, makallaundik aingira etxen da juliani. Eta jaten da makallaun lantxeik, bai freskun bai gatza emonda, makallaurik es bara beroi, sikatute. Makallaun aldin gitxiaua ra ori arrañoi, eta gero freskun be saltzen da. Erderasko ixena be Juliana ra.

Galleuak eta gexa ibiltxe ben juliani.

Maruki :

Maruki re julianin antzeku, makallau arraño ra, makallaun familixaku ero. Makallau sabalaua ra. Papar parti estutxuaua akarre orretxeatxik aingira ero estutzen dus orrek.

Kabra Gorrixe:

Aspaldiko urtitan estot esautzen kabra gorrixe nik amen. Kabra gorrixe beti esautu neban nik beste arrañakin nastin etorten sin eta amen estimasiñoirik be esgakon emoten eta jan bes. Kabra normalak arek, lena itxosun arrosa etxesan beras, arrosa etxesan olako topiñin, topiñe ra kasulara andi bat. Kabri brijiute be gosu ixaten san, bañe neutzako ederrena ixaten san beras einddako arrosa beti. Lena, bolintxero txikixetan da juten giñanin goxin, de eguerdixan geatzen giñanin itxosun, ba arrosa eruten basan, ba kabrak atrapa eta kabrakin etxen san arrosa danontzako, kasulara andi baten, etxen san, kipuli gorritxu, eta lelengo etxen san kabrak sartu eta kabrak bixkat uretan egosi, kipulias gorritxutako ure ixaten san eta gero arrosa eindde gero eurak gañin ipiñi. Se einddakun biune geatzen da au berau kabri, te ososoik nai ixaten san ogi gañea atati be, lenako jentik, sarrak eta, eta orrek etxe ben kabrak, arrosa gosu, gastik arrosa naxa eta bestik kabri estimau. Eta gero au kabra gorrixau esasune, esan leike neure ustes, gero urten dabela amengo gure tokixetan, klaro, gerua ta aprtia jun gasenin, antxe apartin agertu re au, Gran Soletik eta kanpora agertu re. Es san olako kalidadeku be, bixkat eskastxuaua san eta bota etxen san

itxosoa. Da iñoix guk artu, egosi te juan, eta on arreskeo arrandegixetan saldu be etxen da. Kabrin antzeako aragi gogorra dakar. Ori, amengo kabri baño asitxuaua eta loditxuaua ra, amengo kabri normalin txikixe ra, asitxua be, txikixe geatzen da, eta ra gorri-gorrixe. Arrasteko arraño ra ori, esta amengu kostaku barruku sana, arriku, arrasteko sarin etorten da au.

Kaeli:

Arrain satar bat da, marraxun de antzeaku, marraxun de familixaku balitxaken morun. Ongojentik tiburoi esateotze kaeliai, tiburoin familixaku re ta. Tamaño txikitxua, askos txikixaua. Guk orrei arrain satarra.

Kontzesiñoi:

Kontzesiñoi be arrain satarra ra, kaelin antzeaku, bale kontzesiñoik dakar arrain kolorikin konparata urdin koloria akar.

Katu:

Mielgiai uste dot esateotzela katu arraño. Or galleuak eta ibiltxen dabe asko mielgi eta

Kolaxo sarra:

Kolaxu eta kolaxo sarra desberdiñak dis, desberdintxasun andixe ra. Arraiñ andixe ixaten da beti, iñoix bolintxero txalopan lusera bestekun eta ixaten sin. Gu gastik giñanin, ordun kostatik urrin ibiltxen giñanin, egueldi ona euanin de kolaxo sarrak galdute ibiltxen sin iual da, arpoi bota, bestelaik esin seinke ta. Luseran ixebost metro ero eukiko dau, gexa iual.

Itxuri ba tiburoi andi bat balitxake lantxeik, baño a baño andixaua eta lodixaua, borobillaua lodieran eta aren aldin geldigeldik ibiltxen sin onek, asalin bixkat ikusten gakoien ure bare-bare euanin antxe goiko partin bustenas geldigeldi ibiltxen san kolaxo sarra. Eta orrei arpoi botaten gakon norbera arrantzan euanin eta kalteik es etxearren eta iñoix bota arpoi eta batzutan sartu bes, batzutan arpoi okertu etxen dau jotakun, urre urrein arpoi eta baño. Orretako gai sanak etxe ban, eta semat bidar jo eta okertu, eta eskapa etxeban, eta iñoix

bota arpoi, sartu barru-barrurarte eta gero soki eukitze ban, soka lodixe eukitxen ban lotute eta badaespadan be, orrek asko ten etxebenetik, gero treñeko braeleko lodi-lodixe ta aurretik lotu etxe sin badaespada be ta, ten da, ten da, ten da, txalopi tatarres erute ben, eta antxe bixkat inddarra etxen eskutan eta alako baten geatu aladixe, eta iual ondu jote ben eta geatu eta gero aiba osteabe, tengaraka osteabe eta olantzeik ala arriuan, eta iñoix lortutakun ekarti, a esin san sartu ixelaik be barrure, eta ordun einbir san al san moure txalopiai lotu kostare uretan, da neu be gasti giñala atrapa gendun bat, ekarri gendun bat kostau, lusera andixe, lotu al san moure eta etorri etxen giñan arrañe saltzea, benta atatea. Saldu be etxen basan erril bat ero etxe ban, Kataluña ero, Bartzelona ero bixaltzeko, askotan saldu bes eta ureta bota bir. Gero tatarres ekarten gendun saltzea, es gendun gurdixetan da ekarten. Orretzek sin andixenak, arrain gaistuk eta baño andixauak. Balleni onen aldin sabala ra bañe edosein tiburoi baño andixaua ra kolaxo-sarra.

Kolaxu:

Pintxanuk ero ris, marroixki. Eta normalin negun atrapatzen sin, kordan, amon baten enpatxata. Kolaxuk asala eukitxen dabe gogorra. Paper garratz morun ibiltzen san beran asala, eta orrei galleguk eta pes-lija ero esateotze. Txixantza eukitxen dau andixe. Etxea ekate ben, sikatzen euki, siko-siko eiñ eta gero egositxe jaten san ori. Asala tela lodixan antzeku ixaten san, sarati te dana, gogorra, olonin lakoxi. Eta kendu asala eta beran aragixe fiñaua eoten san ososoik eta egositxe orixo errias jaten san a, gosu ixaten san. Guxtu bixkat fuerti eukitxen ban, bañe egositxakun gitxia. Orren itxuri akarrena ra momatxe, jaten be bai.

Lanpri:

Uste dot sala arrain luxeska bat eta aue eukitze ban borobille, bentosa betan mure etxen bana. Ori esan jaten, lantzin bakarrak etorten sin bolintxin txitxarrun de tartin de bota etxen san. Beorrek kolpe etxen batzan arrañak an ekarte ban marki, arraiñ asixaua basan, palanka betak ero, marki ekarte ban arek, berai txupaten junde. Ori sintxa sabalan antzeaku ero ra.

Lantesa:

Arraiñ ona ra lantesa. Breki baño asitxuaua ra

**Lantzo:**

Akulin antzeaku re. Jateko gosu san. Sasoi baten, gerratik onusko denporak ixan sin aberatzak lantzoitxan, bolintxas. Lantzo asko ekarten san. Lusi re, mustur lusi akar, arrain berdi re, eta eskamaik eta es dakar garbitzeko lantxeik eta gero bat dana aragixe san eta jateko etxen san, buru parti kendu eta beste gusti aragixe ixaten san. Etxen gakon iru lau sati, ero lau, trontzuk, prijiuteko goso-gosu ixaten san, gustoa jaten gendun. Eta gero arraiñ askorei etxen gakue au paparra eskasa baakarre edo aragixe gexa ero gitxia, ordun etxen gakoe ori kendu eta “ala lantzo” garbitxu esaten gakon, lantzo garbitzen salako olantxenik. Buruk es dabenetik balixo jateko eta paparrak bes, diagonalin mostute morun etxesu. Paparras batea buru ebai.

Lasune:

Lasune gexen bat be errixun esautu rot, errixuko arrañe. Amen nik esatuzten dotenetik esta jaten errixoko arrañe. Amen atrapatzen sinak bixaldu etxen sin Bilboa, Bilboko merkaure eta bixaltze ben. Itxosoko, barratik kanpoa atrapatzen sana, atxetan eta, ederraua san jateko, garbixaua eta milla bidar obi ixaten san itxosoku. Lasunan antzeku re besti lupiñi. Lupiñi obi re lasune baño. Gero amendixeik atrapa, barra-musturretik atrapa ero, atxetan ortzir atrapa ero itxosun urrin, amendik berroi – iruroi milla atrapa eta beste gausa bat da, jateko ederra.

Leatza:

Arrain surixe. Gris argi koloreku re, eta orren arbixak eta urdalle ixaten dis ederrak jateko. Urdalle ra beres urdalle, eta arbixak dis arrautzak. Bata ra mamitzu, arbixak eta urdalle ra atzandel bat ixanda lantxeik. Marroi argixe ris arbixak, serrautzan lantxeik. Orrek, lena leatz asko atrapatzen benin, orrek kendu etxe ben. Askok ekarte ben. Lena-lena merkik sin eta debalde be bai eta etxitan asko jate san. Urdalle aragi lodixe ixanda lantxeik de, estik, itxuri akar este bat ixati lantxeik, eta arbixak dis asala meie eta barrun serrautze balekar moure. Arbixak arin egosten sin, eta urdallak asko biben egostea, lodixe salako. Aparte egosi bisin. Lelengo urdallak egosten sin, eta arbixak gero otzin egosten sin, eta gero nastin jaten sin. Gaur egunin arraiñ askorei kentzen gakoie itxosun, berdelai te, betandixai te kentzen gakoies arbixak, bai, jaten dis. Leatza

gerua ta gitxia atrapatzen da eta orrek galtzen dus. Egosi, “korretan buelti” te listo.

Lenguau:

Lenguau re arrain sapala, oso malla oneku arrañe, ollarran antzeako sapala bañe ollarra baño estutxuaua ra bixkat, ollarra sabaldu etxen da burutik erdi alderutz, es ainbeste au. Aragi illunaua ra, eskati gogorra, eskami txikixaua, oso presiatu arrañe, ondarreko arrañe.

Lotzi:

Arrain surixe ra. Eukitxen dau tripa pari te lodi samarra, eta gero eukitxen dau brutz bustenea sapaltzen juten da, esta juten peskadillin moure dana bardiñ-bardiñ. Buru andi samarra akar, musturrin olako ari bi lantxeik eukitxen dau. Saltza berdinjaten da. Ori arrañoi bakararra etorten da. Au atrapatzen da amun, kordan itxosun. Besiutako kordan be etorten sin bañe bakarrak. Sarin eta be etorten dis arrastin, bakarrak.

Arrain berdi:

Bustenan formin arabera jakitxen da gure itxosutan.

Lumatxixarru:

Lumatxixarru re, txitxarro txikixe baño asixaua eta medianu baño txikixaua. Bera txitxarruk dakar baltzea kolori, eta ori argixaua ixaten da. Txikixe baño trokoluaua.

Lupiñi:

Lasunan antzeaku. Lasune baño obi. Tartin atrapatzen dabe arrasteruk. Itxuri bardiñe ra, estakixenak es leuke distingiuo.

Makallau:

Itxoso andixetan, itxoso otzetan atrapatzen dana ra. Lena amentxe be bai, antxiñe baten bañe on es. Saillin atrapatzen dana ba Noruega ta, Islandia ta,

Groelandia ta ortxe. Eta ori antxiñatik atrapatzen da ori eta arraiñ ona san errirako, se orreas etxen ben lena-lena, eseanin neberaik pes da, kamiñoik bes da, kamionik bes da, ixebe eseanin de onei etekiñe atateotzen berai gatz emonda. Gatz emoteotzen eta gatz emonda denposa asko auantaten ban, saltzeko eronun eta jan be eronun etxen san ori. Leatzan da aldin arrañe sabalara. Andi-andixak be baras, leatzan lakoxik, sabala, buru be sabalaua. Argixe ra, olako berdexkea etxen dau.

Makallau arrañe:

Es ta makallaun bardiñe. Makallaun aldin txikixe ra. Makallau sabalaua ra, estua ra asko be paparretik eta, berdelan eta antxoin antzea, eta makallau re sabal-sabala. Nik arrastin nebillela esautu dot au. Makallau arrañe esta makallaun kumi. Kolori akar, orrena baño abarixune gexa akar, goxe eta marroiraku eukitxen dau makallau arrañak, eta abarixuk be antzeaku, baño makallauk es. Makallauk berde argiraku ero eukitxen dau.

Marraxu:

Arrain satar bat. Tiburoin arrasaku. Akorek tiburoi esatetze. Aragi gorri-gorrix eukitxen dau. Itxoso batzutan tiburoirik eta marraxoik eta esta, eta beste itxoso batzutan tiburoirik esta eta marraxuk das, eta ordun arentzako tiburoi marraxu esta. Marraxu tiburoi baño txikixaua ra. Itxuras eta antzeakuk dis. Marraxun kolori griseaku re, illunaua eta argixaua baño griseaku, eta aspi parti surixe.

Marsopi:

Arrain satarra ra, baño nik entzuti baño estakat.

Meru:

Atune ta baño txikixaua ixaten da. Leatzak eta baño mostxua ixaten da, baño trokolua ixaten da, buru be bai trokoluaua, eta papar parti be trokoluaua. Leatza eta lusiauak eta estuaiak dis, eta au motzaua eta trokoluaua. Jateko arraiñ ederra. Ni gasti nitxala ta iñoix atrapa ixan da. Ori sarias da sekule esta atrapatzen, baño iñoix atunetan trongo bat ikusi es? Denbora asko uretan, eta arei uras formaten gako lanpernak, persebik eta olakuk, es? Eta antxe, denpora askon bara, gerua ta gexa peaten gako orrei, arbolai te, tronguai te. Ordurako

lenako sarrak eta baekixien, “trongu rator, jun gañea!”, atunetan sabisenin ixaten da ori, eta jun berta, pasa bertatik eta “bara ixer ser?”, eta enjeneralin ibiltxen di or meruk. Iual mero bat ero bi eta iual gexaua. Iñoix gertara, berta urreatu eta arek ies etxen dabe, eta gero eon antxe ibiltxen dis jaten da baten batek bota amu atrapateko ta iñoix atrapa be bai bakarra ero, erreta jateko. Eta iñoix gexaua eon eta treñe bota eta etxari, eta atrapa be bai. Arraiñ ederra. “en la tierra cordero, y en la mar mero”, arraiñ ona salako. Olan guk atrapa dousen bakarretan parrillan etxen san, erreta, atunan lantxeik.

Momatxe:

Galleuak eta txalopa txikixak eta ibiltxen sinak eta, pintarrosa esateotzen arei, atarrañe be nik entzunde akat. Momatxan pareku pintarrosa eta katu arrañe be bai. Nik datxenes beintzat bai. Momatxak dakar asala gogor-gogorra eta baltza, lija be esateotze arek Galleuak eta Castellanuk eta momatxai. Orrek asala kentzen eukitxen dau biarra, eta atrapatzen da amukin kordan abisenin besiutan da, papardotan da, tartin etorten dis orrek, bakarrak etorten sin, eta beroi etxea erute ben. Gero asala kendu te einddakun, gerokun txixantza kolaxuk baño bixkat gitxia eukitxen dau, gogortasune. Eta etxen san enjeneralin, kasulara txixixe, orixu, biñagri eta beroi sati txikixak eindde. Berau estu ixaten da, eta buro parti eta papar parra kendu etxen gakon, solomu ixango balitxake moure gorputze, bañe ososoik, “a la lantzo” garbitzen da ori. Gosu ixaten da jateko, bates be itxosoko gixonak eta. Gu gastik giñanin de esakeri euan: “momatxe seuk atrapa, seuk prepara bañe apaisak jan”, lena konsiderasiñoi andixe euken abarik eta bikaxuk eta...

Mustu:

Arrain motza ixaten da. Liorretik urrin ibiltxen da. Atxa parteku re eta kabran eta aldin eskasa ixaten da. Kolori olako berde-marroi biune ero. Bakarrak ibiltxen dis.

Mutxarrix:

Gu gastik giñanin amen errixun, ordun esuales petrolik eta ilakoi ixer, errixu garbixe eoten san eta bates be udan da, mari goxan euanin de, or erosemat ibiltxen sin itxosun. Eta pantxo txikixak eta txitxarro txikixak eta, gastik atrapa amukin. Urreatzen gakon gexen bat antxobiai, sardiñiai eta baik. Bera baño

ixaten san kolore trasparentea ixaten san. Antxobin neurriku, eta erderas sisangri esateotzen, sin-sangre. Estai nik odolik esbaeukan ero se. Gk ordun mutxarrixe gexa ibiltxen gendun sisangri baño.

Muxarra:

Erraxau antzeaku re. Sabaleaku eta sapala. Orrek be olantxenik gertaten bari, banaka batzuk ba oxe. Txikixak, ogei sentimetrotik berutz. Txiki-txikixak bari bota etxesus, se garbitxute estakarre ixte, aragirik bes eta ixte bes. Orrek, gaur egunin laban erreta eta gosuk dis.

Neskasarra:

Arrain gorrixe.

Olagarru:

Amar atzapar dakas. Guk olagarru olan atrapa ta sekule estou eiñ. Arrastin bai, arrastin erosemat etortensan, sarin de. Bestelaik andi-andixak atxetan da eoten dis, urre-urrin eoten dis. Dana mamiñe ixaten da eta inddar andixe eukitxen dabe agarratakun. Agiñik estabe eukitxen nire ustes, kaparasoi baten moure eukitxen dabe ori eta garbitxerakun kendu etxen gako ori, bañe ori re mamiñan lakoxi, bixkat gogortxuau. Txibixan lantxeik tintxi eukitxen dabe beran defentzako ta botateko.

Ollarra:

Arrain surixe ra por antonomasia, arrain sapala. Lenguau baño sabaltxuau, basako arraño, ondarreko arraño. Ollarra arraiñ ugarixe ra. Asko atrapa ixan da arrastin. Bolintxin tartin de bakarra. Au arrasteko arraño ra. Betiko arraño ra au. Arrastik eseanin be baeuasen e. Gu umik giñanin de eoten san sarri. Ni akordaten nas ollarra prijiute sartañan. Ollarrak beran gorputze auke errebollun antzea, da egatan lantxeik eukitxetxua basterretan, eta prijiute bara orretxek be jan etxetxuas, egositxe bara es, bañe prijiute bara bai. Ordun esean arrasteroik, ordun kordi euan asko, besiutako ta papardotako ta antxe atrapatakuk ixango sin.

Palanki:



Arrain surixe ra. Pantxu te baño asitzuaua. Eskama makalak dakas, asurrik eta estakar. Ederra jateko. Palanka suluk eta ixaten dis. Lena kostatik urrin apaxukin de, jakindde nun dasen esta? Eta palankan kali ixati morun, euran tokixak antxe. Joten basendun palanka sulo bat ba edosemat palanka atrapatzen sendun. Batzuk baekixien gitxi bat gora bera, beti esin eoten bañe.

Palu:

Ongoxe urtitako arrasteko arrañe, fogonerun de lantxeik. Leatzen da aldin, arraiñ ordinaxu re ori. Fogoneru orren aldin lodixaua eta sabalaua ra, ori bixkat estutxuaua ra, fogoneru naiku sabalaua. Gris koloreku re, griseaku. Enas bili ni palotan.

Pantxu:

Pantxu re besiukumi ixatin lantxeik, bañe diferenti besiuhan aldin. Prijiute ta gosu ixaten da. Pantxu, txitxarrun de aldin gitxi. De amen gastetan lena errixun pantxo txikixak batzuk eta bai. Gero gasollan da, petroleuan da kontuk galdu ben. Sabala, besiuhan antzeaku re bixkat. Suritxik eta marroire bitxarteko kolori akar.

Papardu:

Sapaleako arrañe ra, esta arrain sapala bañe, sapaleaku re. Gris illune, eta asala neiku gogorra eukitxen dau. “Gabardiña” esaten geuntzan guk asalai. Iñoix arrastin ibili gasenin, papardo tokixan edo, ustes ero, etxen gendun nai dabena bakotxak bere apaxu erria, bitxartin, iñoix papardu atrapatzen gendun bakarra etxeako. Olan atrapatzen gendunin, aproba eta gero ba erreta obetuen ixaten san beran gabardiña ta gusti, asala kendu baik, eta gero erretakun asala erres kentzen da. Jateko arrain normala ra. Apaxun arrañe gaistu re, eltze banin inddarra arek etxe ban... apurtu etxen sin apaxuk eta danak. Ori umetan denporan da urte batzuk eon sin papardu ixan sana, aberatza ixan san korda, besiuhan aldin papardu ako ekarten san, fabriketa ta erute ben, merkia san bañe, eta denporias ori gabitxu ein san, on atunas da atrapatzen dabe bixkat arutzaua.

**Parrutxi:**

Sardiña txikixe. Sardiñi eon ixan da amen, sardiña andixe ero sardiña txikixe, eta parrutxi guk Galisin esautu rou, bera sardiñi txikixau ixan, bardiñe, seoser aldi eukiko ra bañe sardiñan bardiñe ra. Guk ori usaten gendun geroko urtitan biberotako atunetako, ona ra, sardiñi erosein arrañentzako ra gosu jateko eta antxe. Il etxen da arin biberutan da, bestelaik bera ra onena.

Pastanki:

Arraxa andi bat balitxake lantxeik. Aue raru, sabalik, au andi bat sabaltzen dau eta bustena lusi eukitxen dau, eta bustenin puntan benenu ero eukitxen dau, olakoxe seoser. Marroi illun-illune ero ixaten da eta aspixe suri-surixe eta orrek bakarren bat eta etorri ixan di sarin eta ordun etxen san ba kontus artu palias eta bota atzeabe, bai, benenuatxik. Gitxi ikusten dis eta andixak dis.

Perloi:

Perloi baltza eta perloi gorrixe ras. Lepu batak gorrixe argiraku eta bestik gorri illun, esta baltza bañe urdiñeaku, oxe ra kolori. Bañe jaten gustu alde andixe ra, baltza obi. Aragi gogorreku re. Asala gogorra eukitxen dau eta buru be sapala eta aue eta gogorra, buruko asurre ta.

Pexi:

Pexi re olako, ixe disko bat ixanda lantxeik. Beko partin estau eukitxen olako borobiltasunik. Busten txikixe eukitxen dau. Lena amen itxosun ikusten sin asalin, onek eguk albutan eukitxen dabe, ego sabalak eta motzak, eta beran egu ikusten san, egu gora beire, asaletik ikusten san.

Arpoi bota ta atrapatzen san. Buru sapala akar, kendu buru eta “a la lantzoï” garbitxu ori be. Aragixe arraxin antzea ero eukitxen ban, bixkat olantxeik tirak-tirak, esan filamento kartilagu bañe. Baten bat atrapatzen san eta ori egositxe gosu eoten san. Egosi arraxin de lantxeik, mamiñe kentzetzasu, “korretan buelti eiñ” dde listo.

Platusi:

Arrain sapala. Basako arrañe, eukitxen dau lepu laban-laban-labana, mukosidadi, eskapateko ta. Ori platusi esan jaten. Gaur egunin batzuk jaten dabe, bañe len ori esan jaten. Etorten basin sarin bakarrak ero olanik.

Potxi:

Txibixan lakoxi re. Asixaua. Ordinaxuaua ra. Batak eukitxetxus, txibixak bei patin arek ego bixak eta orrek erdi partin, goratxua.

Txoku:

Txoku be au baño sabalaua ra, naiku sabalaua ra, erruk motzak txokuk, eta txokuk aspiko partin, barrun eukitxen dau asurre eukitxen dau sabala,oxe matexaloi biune, amabirjiñi emoten bana. Ori amen bakarrak atrapatzen sin, ori Santoñan da iñoix, an beian itxosun de atrapatzen sin, batelak eta e?

Putxanu:

Putxanu re perloi txikixe. Puxanu asitxakun perloi biurtzen da.

Salbeue:

Arrain gorri-marroixki ixaten da, lusi, sapal samarra. Burun amaxueran eukitxen dau olako bi esten, eta benenu eukitxen dau. Bestelan arrain sapala ra, estu. Jan etxen da, bañe saldu te estis etxen. Lena bai, lena ni itxosun sartu aurrin de gero, basin iñoix txandetan da atrapatzen sinak. Ordun estai selanik elaborate ben ori, bañe eroselan be orrei etxen gako ba buru baño beratxua ebai eta listo. Bustena kendu, sati bi eta prijiuteko. Mamiñe gitxi eukitxen dau.

Salbi:

Besiuau antzeaku re, bañe besiuau gorrixekaku rana au marroxekaku re, bañe tamañun de besiuau urreatzen gako. Iñoix atrapa ixan da bañe, gitxitxan. Bein gerta ixan gaskun, neu itxosun nebillela, on berroi urte inguru, ba atunetan ibili, gabonetaku, ille bixin atuneti amaxu amen, jun Aljesirasea, ibili Afrikan atunetan, da gabonetako etxea gatosela, amentxe Leketxotik onuntza “plantxa

gañi” esaten gakinin, kala bat da ori. Ordurako asitxe euasen onek rradarrak esaten gakosenak, itxosun markate benak seoser, eta ortxe getosela, kostarres getosela, kostatik urrin gatosela, ortxe marka bat arraiñ moltzo andi bat. Alla giñan porture ta, andik etorri kanpañi eindde ille biku eta trastik eta ata, bixamonin itxosako ipiñiskun. Eta jun araxe eta seoser lokalisa gendun aparatuas eta txalopi bete atrapa gendun “pito txiki” famauas. Txalopi aurre dana bete-bete eindde etorri giñan, ikuskisune ixan san salbi. Ona ra, besiuian aldin es, bañe...

Kostarres:

On bagatos Atlantikun Portugaletik, Aljesirastik urteten dou, eta gero Portugalen sabaldu etxen gas, es? Ba bajuk eta atxak eta, sabaldu etxen san, atunik eta bidin atrapaten basu be ba... bañe gero kosti bistan dakasule ero, orrei deitzen gako kostarres, kosti erres dakasulako, kostatik urrin, antxe ikusten, se antxe kostan ixan leike axe arrañe, palanki ero, geu es gabisen tokixan da.

Sarbu:

Amengoxe kostaldeko arrain txikixe ra.

Sardiñi:

Sardiñi karnatako edosetako ra onena, bañe arrain makala ra, arin galtzen dalako. Delikau re, arin galdu be etxen da, antxobi baño ariñaua. Sardiña txikixe ixaten da, bixkat txikitxua ixaneran merkiaua san, eta gero sardiña andixak. Gure itxosutan da esta eon sardiña andirik, bañe amendik kanpo eon ixan da, bañe a ordinaxuaua ixan da jateko. Orrek beste ixen bat be baakar sardiña andixak, “arenke”. Gutzako ordinaxuk dis eta estous jaten. Urune be etxen san oneas.

Seri:

Kolaxo sarran antzeko arraiñ andi bat da.

Tolle:

Arrain sapala. Merki, orrek mojai te... tolle ta tramana antzekuk. Esautu estot eñ, lenauaku san ori.

Txermola:

Atunan familixaku re. Egalusi te egalaburre es, gu onetxen esututxuaus bakarrik, ainsorrotzak eta bai bañe bakarrik, eta gero txermola besti, txikixaua san, jeneralin txikixaua san. Atunai “sinkoku” esaten gakon, “sinkoku” re kilo bi txe erdi pixaten dabena, orrek beste presixo bat ixaten dau beti. Atune normala ra, medianu re bost kilo, sei kilo, lau kilo ta erdi, bañe olaku bara, “sinkoku” kilo bi txe erdi. Eta txermola be “snkokun” antzeku san. Sarias atrapatzen san ori, bolintxas atrapatzen san, sardiñin lantxeik, batelak masixe botata.

Txistu:

Amentxe urrin, kabrak eta eoten disen lekun. Kabran aldin gitxia etorten san ori. Bixkat lusia kabri baño eta es aren beste asurrik, eta kori be orixki te urdiñeaku te bixixak kolorik.

Txitxarru:

Txitxarro baltza ra beres, txitxarro andixe. Eta txitxarro andixe lena kordan eta atrapatzen san, eta geokun dator luma txitxarru eta txitxarro txikixe. Eta gero ortik aparte ra txitxarro surixe, “txitxarro marikoi” esaten gakona.

Suri-surixe aragixe ikusten da garbitxutakun. Ta ori arrastin esautu rou. Beste txitxarrun aldin adixe ra ori, gosu re. “Marikoi” re andixena. Jentik asma, ori kanpotarrak asmataku re ori berbioi. Ori lelungokun jan be esan etxen, bañe on atrapatzen danin ba ondo saltzen da. Txitxarruk negun atrapatzen sinak, bat ixaten san illunaua besti baño, axe ixaten san txitxarro baltza. Eta jaten igarri-igarrixe akar. Gosua ra.

**Urreburu:**

Urre kolore, gorrixki akar. Lupiñi te baño arrain lodixua, sabalaua eta anditxuaue. Aragi ederreku erreta ta jateko. Ori amuko arrañe ra, arrastin de bai bakarra. Nik esautu be estot etxen kasik.

Sintxa arrañe:

Sintxin lakoxe sabaleri, luse-lusi, sapal sapala. Mamiñik be estakarre orrek. Arrain merki ixaten da ori.

Abakandu:

Urđiñ – lila kolorea urreatzen da eta orrek dakas aurreko erpa bixak sabalak, langostik estakas olako sabalak, eta langosti gorrixki re, bestelaik langosti ixanda lantxeik de.

Bieira:

Orrek txirla andixak ixaten dis ba? Iñoix, Santiagoa ta erromeruk te. Orrek Galisin de asko. Arrasteku re ori, esta bajuraku. Ori etxen san berai mamiñe laga eta besti kendu etxen gakon, surixe laga eta gero bota orixu bixkat eta kipula satixak eta beran oskolin, txapa-gañin erreten san. Ederra, eta gero autzontzixak etxeko ta be ekarten gendusen.

Karramarro:

Ondarrun sentzu orokorra artzen dau. Bañe karramarro klase asko ras.

Febreru: lena gu gastik giñanin de or uretan errixun de ibiltxen giñan, mari beruskun de, Artillerun de. Febreruk ixaten sin karramarro bat bestin lantxeik, bañe eukitxe ben ulik, uli danin asko, uli lakoxi. Au jan be etxe san, estimau san bestin aldin.

Lasti: uleik eta esekana, gexen euana, orretxen sin jaten sinak, mamiñik be es ben ixek eukitxen, egositxakun ure ixaten san gexena, abentura lantxeik, atrapa eta pintxura lata bat ero artu, sue eiñ egurrakin astillerun egosi te axe jan.

Kirrixki: orrek beti ibiltzen sin molla-egaletan. Orrek jateko lain be es ben eukitxen. Bal-baltzak, gorputze laukia bat, ontxe be baras orrek, eta onek lastak eta, febreruk eta desagertu sin, febreru lenaua, obiaua san a eta. Nik amen esautu dotxuasen karramarruk onetxek dis: febresu, lasti eta kirrixki. Gutzako danak dis karramarruk.

Langostiñu:

Esta langosta txikixe. Langostiñuk be andixauak eoten dis bañe es aiñ andixak. Gero baras or ganbak, irudixe bardiñe akarre, langosti bañe txikixauak eta ganbak baño andixauak. Eta langostin aldin marroi argixe akarre aragixe.

Lanpernak:

Marisku. Lena atxetan da asko eoten sin, gu umik giñanin de, entzute andikuk sin bañe amaxu einddis. Ure akarre asko, eta gero atzokol formako gausa bat dakar. Enjeneralin atxetan peata eoten dis gogor da ongo urtitan eoten dis be-beian, eta orretako ein bisu mare bixixak dasenin, be-beian eoten disenin eta alan da gusti be uretan sartu bisas orrek atrapateko dasen tokixan, gatxe ra. Lekatzoko ortxe, Lekatzoko islatik Santa Katalina bitxarte antxe una bat eta baras. Arrixkutzu eta gatxe ra ori.

Lapi:

Ondarru beteta euan lapas. Oskola eta barrun mamiñe euran oskola beteku ero ixte beteku ixaten san mamiñe, kolore bateku eta ososoik jaten san. Atxiai gogogor agarrata eoten san eta orrei kutxilluas etxen san, kutxillo-puntias amendik sartu te alantxenik jan, lapa-jantzallik, alantxenik, limoirik baik, lena esean limoirik. Ori udabarrixan, eueldi barik eoten sinin de, Aste Santu ingurun, txalopak Aste Santuko jaxetan altza gora ta aspixak garbitxu te, pintxuri emon da, ta bueno bat ero bi juten sin lapata, atxeta lapata ero, Saturrenea lapata, pañelokada bana ero ekarte ben eta geokun biarra amaxutakun takillu etxeko, arda bixkat erateko takillu. Biarra amaxu, eta aretxek lapak jan. Lapa batei kentzen seuntzan mamiñe eta gero aren oskolas bestiai, eta baeuasen eunde pikute jate benak, astune ixaten san e! Eta gero denporias etxea ekarri eta saltza-berdin de jaten san.

**Marmoki:**

Udan da eueldi ona eaunin etorten san. Beran matexala biun biune ixaten da, alako plastikosko itxuri akarrela emoten dau, Mussolinin kaskun lakoxe formi eukitxen dau. Eta gero beia erpak lakoxik urtetetze, erpain lakoxik urteteotze. Dana ixaten da plastiko trasparentin lakoxi, eta gausa ilddako bat dala emoten dau, bañe bixixe ra. Sardiñetan da gabisela ta, iñoix asko etorten sin, antxoaa tartin de baño sardiña tartin de gexa etorten sin. Korrentak erutetxus orrek. Txikixauak eta andixuak eoten sin. Sari esaten dotenin bolintzeko treñe nai dot esan, eta sardiñatan eta sabisenin, arek eukitxen dau batzutan atik, eta itxosun baabis orrek, an etorten dis barrure, eta barrure etorritxakun, bakarrak baris ba artu ala bota etxesus ureta arek, iñoix asko be etorten dis. Askuri emoten dabe, asko es, gitxi e... Eta artueran pixo andixe eukitxen dabe eta ure be bai, eta apurtu etxen da bera, menbrillu baño asko erresaua apurtzen da, kurioso-kurioso artu bisu. Geokun beste bat da, gitxiaua ibiltxen disenak, iñoix udan, olako beladun txalopa txikixan morun, lila ero kolori trasparenti, eta orrek iñoix, bota treñe antxoatan ero, bolintxin ero eta orrek antxe ras, treñe gerua ta txikixaua ta gorutz papun etorten dis, eta eskure etorten gatzus, eta ordun tita!. Bañe beran gorputzak lagatako ondorenak be asko eoten dis eta orrek bixkat gexa pikaten dabe. Ori musolinin formako ori, asko, negun de antzir Frantziko kostan da sardiñatan ibiltxen giñanin de asko.

Maskulu:

Maskulo andixak ixaten dis. Mari gora ta, mari bera ta, antxiñatik datorrena da, endas datorren gausi re, bañe asmataku ixango ra; belarrixan ipiñi eta ori oiartzunak eingo rau. Umetako gausak dis orrek. Maskuluk andi samarrak ixaten dis orrek. Amen esta jaten, ori adornoako ero da.

Mongoliñuk:

Orrek txiki-txikixak ixaten sin, egositxe gosuk ixaten sin. Gris baltzeakuk, txikixak, egositxakun gorri-gorrixak gelditzen dis.

Mutxilloi:

Ni gasti nitxanin, amen Subi Barrixan da, Subi Sarrin de bete-bete eindde euan. Asko, iñok ser danik bes. Bañe gerri amatxu te andik urte batzuta ta, arrantzan

da, amen normaltzen asi sanin, andik amar urtea ero gexa ero, arrañe amendik Bartzelona ta bixaltzea ta, katalanak ona etorritxe ta, eta marisku asko jaten san ba Madirreneuan da, eta ortixeik deskubrimentu. Eskeñi etxe ben diru mutxilloik artzeko, eta jendi batzen asi san eta onen bestin saldu eta urte gitxin amatxu sin danak. Dis txirla andi eta luxeskiaua, bera itxitxen dan tokixan estuaia eta gero bixkat sabaldu etxen da puntarutz, txirli baño lusiaua. Au erderasko “tigre” ra, lena “mojojones” esaten gakoien, “ para comer mojojones, tienes que mojar los cojones”. Ur egalín eoten dis.

Ondarraspikuk:

Ondarrin ibiltxen da, ainke etxen dabena, ixkiriai ero urreatzen gakona eta ainkarako gausi gexa akarrena.

Txirli:

Amen lena txirla asko san. Txirla luxeskiaua eta sabaleran be estuaia eta suri-surixak, argi-argixak, orretxei esaten gakoie amen “txirla frantzesia” eta ori amen jan be esan etxen, bestik euasela eta orrek eskasauak sile ta. Estai seatxik dan frantzesia, iual antxe baten batek ikusitxe ta.

Itxas isarra:

Esti arrañoak be. Nik ekarri ixatxuas, umiai, fresku de, eurak jolasteko amentxe, ikastola eruteko eta... klase bi euasen, batek eukitxen dau euran bost isarrok eta gorputze txikixe eukitxen dau, eta bestik gorputze barruku eukitxen dau andixaua, gorputze sabalaua, pentagonun antzeaku eta anka motzauak, onek marroi gorrixki akarre kolori eta bestik argixaua kolori.

BESTELAKO GAUZAK

Puntala:

Erderatik datorren berbi re ori. Txalopin alturi.

**Folixu:**

Txalopik eukitxen dau ixena, esta? Da folixu re ba geuk karneteko numeru eta kotxik beran matrikuli dakarren morun, ba oxe ra folixu. Ori on dala eun urte, oo asieran Euskal Errixan beintzat eta Españiko estatun be olantxeik ixango ra ori, konstata ras txalopak, len eseuasen, eta on datos ixena ta folixu bakotxana. Mille ta beatzireunin asten dis, bañe konturatu nas ni barasela lelengoko urtitan mille ta beatzireunen asieretan, iru-lau urtitan, baatos iual antxe txalopin datukin eta bost urte iual lenaua einddaku, amasortzi urte ero, amar urte ero. Ba itxuri danes, amendik aurrea danak kostako risela erabaki ben eta andik aurrea danak kostaten sin, eta bixik euasenak be antxe kostaten jun sin kosta biarra eukelako.

Asieran gitxiki asi sin. Erderako berbi re au. Eta gero ixenak bardiñak be asko dakasus, San Jose, bakar-bakarrrik irurotamiru ero irurotamabost ixen bardiñekuk das Ondarrun, gexen San Jose ra. Eta urte baten lau San Jose ein basin, auxe ra beristen dabena.

Tripulasiñoi:

Txalopa txiki baten, onek aingiratan ero langustatan iru lagun ero ixaten sin, gero bolintxin ebisenak amaike lagun de, atunetan ebisenak amalau lagun, de arrastin ebisenak amabost lagun eta beste batzuk kordan dabisenak sei lagun de, olantxeik. Tripulasiñoiai, lagunak esaten gako, gixonak eta baño, gastik eta danak sartzeko, lagunak.

Korala:

Sarin sati batzuk eta tartin bat etorten dis. Bera etorten da sikiñe, bañe ori ra lejijs da garbitxute.

3.6 TRANSKRIPZIOAK ANDONI BASTERRETxea (AB)**1996ko urtarrilaren an Don Andoni Basterretxea Irustaren elkarrizketatik aterea (1)****-potxa tokixe:****-masi barrille:**

esaten gakon, bolintxeruk ibiltxe ben masi bat. Orren masixon masirik ederrenak Noruegatik ekarte ben eta gero, orrek berrillok ibiltxen sitxuesen besiutako, edo antxobi artze benin besiutako (Santa Katalina nois da? besigutako gois da!), antxoa txikixe masi barrilletan gordeteben eta gatza emoten gakon ondo konserbateko

-masi arbixak:**-arbixak:****-makallau arbixak:**

makallaun tripak dis, ori gero masi barrilletatik ataten sin eta txikixenak sin mutil gixonak, arbixak txikitzen asten sin.

-birriñe:

masi klasi, Gipuskun galasota euan eta biskaixan es.

-subille:

soka klase bat da, luserako soki

-potxeri:

amuas dindiliske eoten sana. Berreun bat amo ixaten sin besiutako eta papardotako geitxua eta sakarrauak, dotoriauak ixaten sin besiutakuk, onetxei esaten gako tretzi.

**-urkuli:**

udaskenin, sereiñik eseukenin, es antxoaik bes, atune be lagata gero Santa Katalina bitxartin mendis-mendi ibiltxen sin malutak etxea eta batxe be urkulak etxea. Urkuli re, ara, arkasixe ero bates be pikuas einddako iruki forma antzeko gausa bat san. Amen subille batzen san bueltan-bueltan, txiringolan, amuk bertan ipiñi eta tretzi etxen san.

-tretzi:

maiñero bakotxak subille ta potxeri eskatzeotzen bafor jaunai eta bakotxe euran etxita juten san, eta etxin gure atxak etxe ban, ginbeletas sulu eindde potxeri sartu. Amu josteko ixaten san, onei amu joti esaten gako, tretzi joti.

-amu joti**-tretzi joti****-ginbeleta****-enbarra****-entolla:**

silla bat esta? bueltan, antxe buetan, respaldun amuk entolaten gendusen

-mundille:

buxak dis onek, metalesko buxak

-buxi:

apaxu flotin auantateko ibiltxen dana.

-tirantak:

tretzi berus du uretan es? eta mundillak euasen or tretsak eusteko, eta tirantak, onillan batzen sitxuesen soka klase bat sin. Gero estorbu etxen bela eta kendu ein sitxuesen.

-mundil sokak:

mundillin batzen sin sokai deitzen gakon.

-subille masoti obildute:

subille, bera soki re, bañe ondo borobildute, ondo kolokata. Patroik emoteotzen len maiñero bakotxai

-Arritxu (kala):

Leketxo bertan da, potxa toki parin. Arrasteko eta bajurako kali re au

-Ixkote (kala):

Ixkotei len gargantu esaten gakon, eta beti preguntaten; nundik dator gargantu, gargantu... ba dator, selan esangotzut ba? beatu, au re Frantziko kosti eta Ondarrutik lau edo bost ordure ra, norte kuartoa ra eta ixkoteko buru deitzen gakon. Eta amen kofraxako apunte baten agertzen da Gran Canto, eta gran kantotik dator gargantu. Peligrosu san ara juti. Nik estai selako bixitxi san a.

-maluti:

karnati esaten gakona, ba au re karnatin itxuraku, arrañe engañateko ibiltxen dana. Ori etxen san atuneti lagata gero jente asko juten san. Mutrikuarrak euasen, Mendisabal familixi eta aberastu es bañe diro asko atate ben ortxe baserris-baserri, baserrixetan artu-artu eta olantxenik. Maluti san, artu, arto buru. Artuk dakas orrixak, esta? aren orrixan artin aspikuk dis suri surixak, emik esaten gakoies eta orretxek bisin; gañekuk es, gañekuk es dabe balixo. Aretxen surixan artzen sin, etxea ekarri, gexa suritxu lejjias da eta gero orrastu etxen sin. Gero amentxe sartzen san atunetako amo andixe.

**-txapi:**

gero malutin ordes txapi ibiltxen san, onek be brillu etxen dau eta arraÑe engaÑateko balixo dau. Batxe paperak be, paper gogorak biundu, suri-suri eindde.

-orrasixe:

malutak orrasteko ibiltxen san, normalin ola, makila sati bat eta gero batzuk ultzi eta sartu eta, malutak orrasten sin.

-aurrekotxopi**-atzekotxopi:**

baforan atzin dakasu tabla bat, eta an barrun, es estorbatearren ortxe gordeten sin arlanki te.

-txopi:

tostarteko satixe ra txopi. Barrun utzuni dakar, eta atzin be utzuni dakar, treÑeruk eta ibiltxen ben, treÑeruk lelengo bolintxin ibiltxen silako. TreÑerutan eta motorretan ibiltxen da au bates be.

-brankagani**-arlanki****-treÑeru****-TREÑERUN SATIXAK/****-aurre****-txaosa****-espalda**



-basta

-ospitala (erdia-ospital)

-saia

-ankaorra

-ankaestiorra

-papagane/atzekotxopi.

-TXALUPA ANDIXAN SATIXAK/

-aurri

-kontraurri

-ospital

-espaldi

-espaldako

-kontraespaldi

-erdiexe

-tanbuleta

-berriela

-masteta

-kontramasteta.

-señeruk:

(arranondon) aukeratzen sin gixonik jakintzuenak, edo egueldixai burus gexen ekixenak edo; eta onek señeruok Arta juten sin, Arta, egueldixe selaku euan ikustea. Alako eritxire etorten sin eta eurak esaten benin jun leikin itxosoa. Metereologo batzuk ixango balitxakes morun. Beste señoero batzuk eoten sin gero. Ortxe plaxan aurrin geatzen sin danak eta txistu joten ban batek. Txistu jo baño ariñaua esin ban iñope urten, txistu jota gero urten biben danak batea eta kala allaten sinin kontu euki bisan se beste errikuk, Getaxakuk eta danak batzen sin ba eta egutik, surretik botaten sin tretzak eta esin seikin iñok be ariñaua bota, danak era batea bota bi ben.

-Txisteri:

erri asko juten sines leku bardinea arrantza etxea, tretza asko eruten ben, pentzaisu semat tretza ixango disen, pertzona bakotxak lau tretza edo eruten ban da. Pentza Ondarrun bakarrik iruroi ontzi euasen eta gero Mutriku, Lekatxo, Getaxa, Bermio...eta ain sin tretza asko, tretza bakotxak soka txiki bat edo señaile bat ipintxeotzen tretza bakotxai, tretza bakotxe señaena san ikusteko. Bakotxak txistera kolore diferente bat eukitze ban.

-Arritxu (kala):

Lekatxo gañin

-Playasu (kala):

Potxatokitxik aparte, Lekatxotik potxatokire dan besteko distatzixi da Ondarrutik Playasure.

-ontzixe:

edosein ontzixai deitzen gako:

-lurrin ontzixe:

bapora da.

-belauntzixe

-baixe:



erderasko baia.

-deixe jo:

goxin goxa esnatzeko euasen iru lau toki, da antxuxen be iru lau ate euasen ixentata joteko. Printzipalena san, -gerotxua, nire eritxis, asko apurtzen sines gora berak ixaten sin! "su, gure ati apurtu einddabe ta su, ser?..."- elixako aterpi. On elixa sartu eskumata, antxe euan ate andi bat, eta aretxei burdin sati andi bat ipintxen gakon eta antxe jote ben "Goiko Kaleako"eta. Amentxe beian euan beste bat, Santaklara beian euan beste bat. Au jenti esnatzeko ixaten san. Lelengo lelengo serenuk esnatzen sin eta onek deitzeotzen fogoneruai galdarak berotzeko.

-barruko kali (kala):

amendik e semat, sortzi bat milla edo.

-kanpoko kali:

sortzi millatik arutxauaku

-faroleruk

-erloju korredera: soka luse-luse bat, eta gero brontzesko elisa txiki bateas soka bat amarra eta atzeko tostan ipintxen san, eta selako martxi darun jakitxeko ixaten san. Jakitxeko semat milla etxe ben edo.

-konpasa:

burdiñesko olako gausa bat san. Barrun darun norte-sur-este-oeste danak ixentata, esta? eta gero orratz bat, eta orrek konpasak beti ixendateban nortea, beti-beti. Bañe norte-norte-norrea be esban markaten, norte partea edo ixaten san, orretxeatxik iñois esaten san, "kontxo, jun bi giñan lekure bardinbardin es ga etorri te...". Nortik erakarri edo etxen ban.

**-ubaroi:**

dsondi, ur aspirutz semat dan. Ubaroi jakitzeko eurak baekixien ba besiuhan tretzi por ejemplo, ba berrotamar ubarore eon bir sala. Edoseta etxen be, soka bat artu, edosein burdin sati artu te aretxeas botate ben ureta neurrixe jakitzeko. Ordungo burdiñesko plantxakin eta askotan botate ben.

-uberi:

ur-bera-tik dator au berbiau. Suk pentza seure batelin susela eta aurrea juneran ure apurtu etxeosu, esta? ba atzin geatzen dan axe ixango da uberi. Bolintxin, esate bateako, eurak gelditxu eta sari euran uberan botatzen da.

-sonda burdiñi:

selako ubaroi dan jakitzeko soka puntan lotzen dan burdiña satixe.

-iparra:

ondarrun iparrai nordeste deitzeotzau, esta norte-norte. Norte kuarto nordesten tarteku.

-ipar baltza**-leste:**

Donosti esate bateako. Donosti da Ondarrutik leste lestea

-mendebala:

oesta da. Kanta bat kantakotzut: "Neure maite polita Donostian dago iparra gura leuke mendebala dago..."Berak onutz etorteko iparra naiko leukela bañe mendebala euala eta esin sala etorri.

-errekaxi:

errenko axi. Ondarrun suresta esaten da. Egu be esateotze askok.

-txaramela:

errekaxe parte edo galgoi, galgi deitzen gako onei. Galisitxik datorrelako galgoi. Suroesta.

-erlaixi:

erlaixi baakixu ser dan... esetz? estakixule erlaixi ser dan? erlaixi de; erle aixi. Itxosun axi etxen dabenin, axe surixe, olatuk apurtzen disenin, antxe olatun gañin agertzen dan suriuni. Itxosu pikata dala esaten da eta segun eta erlaixi nundik datorren igarten gako; ene kanpaxi da, ene iparra da.

-kanpaxi:

Ondarrun, norte klaroi deitzen gako kanpaxi. Kanpaxi edur-aixiai be esaten gako. Otza etxen dau bañe eurixe gitxi. Aurretik eurixe ein barau be otzin sikatzen dis kanpaixias kalik.

-txaramela:

txaramela da, se esangotzut nik, aixe bolari, itxosu orrastuko baleuken morun ibiltxen dan axi.

-turrune:

txistu... turrune... turrune edoserrei esaten gako Ondarrun. Turrune, sonido jeneralin, txistu be bai, soñu be bai. An, jo dau turrune, jo dau txistu, jo dau soñu. Atune baakarre, turrun bat joten dabe, antxoik iru eta berdela ta txitxarru te bariau bari bi.

-iru-laurden:

gasti, txo, ixangora ori, *iru-laurden*. *Laurena* be esaten gakoie onei. Onek dis ba len esan dotzuten gastioik, lelengo sartzan disenin ondiokan es dauke esperientzixaik, eta arei ba errestasunan bixkat sartzeko. Emoten gakoien partilli etxen sanin; partilli, ogeti, ogetabost, esate bateako, ba arei emoten gakon bost, laurena. Gasti, gastii... Bermion Txo esaten gakoien onei.

**-gasti:**

esaten gakoie, este... portun ontzi asko euasen, lurrun-ontzi asko, gero batxe olako saritako ta orrek eta... gero bolintxero, bolintxero orrek arrantzale gitxi eukitxen ben, jente gitxi eukitxen ben euran eskun, eurakin ibiltzeko. On irurogei urteas erretira etxen dis, gure atxitxe larotabi urteas erretira san bolintxerutan. Ba sarrak, irurogetamar urtetik gorakuk eta amabost urtetik berakuk ibiltxen sin bolintxin. Orretxeatxik gastik esaten gakoe an bolintxerun dasen gastiai. Bolintxeruk esaten gakoien eurai mutillai be bai, eurai mutillai ba bolintxeruk, bolintxeruk. Eta esautzesin, gausi e... praketan, aunaxearteko prakak, (belauneartekuk), ondiokan esti gixonak esateko ero...

-otzari:

otzari re, ba sestu. Otzari dakasu ba treotzari; tretzak eukitxeko otzari. Antxoa otzari; iru arroku ixaten san; besiuotzari amarraoku eta onetxek dis batesbe otzara klasik. Arru, eta arru san arroba, “doce kilos doce quinientos”. Eta eoten san gero rrasioi Besiutako, estai besiutako bañe papardotako bat, amar kilo rasioi. Eskuotzari be baeuan; bakotxak eruten ban otzari.

-Ollau**-Mundille****-kanpoko txikota:**

esin leike ser dan esan, se danetan da, bai besiutan bai manjuban, bai bolintxin... kanpoko txikota beti ibiltxen da. Txikot asko das or.

-atzeko estanpi:

kaela da amen, esta? baforak dauke amen kaela, eta aren bitxartin beie ra amen, eta orretxen barrukuai esaten gako estanpi.

-sokoti:

killiai jositxe sokoti, atzi libre, sulu. Ta gero ori ixaten san sulu masta nausixe an beian sartzeko, eta esaten gakon bietza.

**-trixak:**

belako sokak: -kantuan- “txalopa andixe, drixe, drixe, atxak dako bisarra andixe...”

-killi:

baforak aspixan dakarren listoi.

-saietzak**-arrain satarra:**

besiu denporan arrain satarrak sin kolaxu te, momatxe, momi, mielgi... tretzan etorten sin balixoik eseuken arraňak. Marraxute be bari, baňe bueno, onek estis atrapatzen, kaeli te.

-berlanki:

perliti

-tretza nasti:

tretza asko eoten sinin alkarren ondun, ba alkarren artin nastaten sinin deitzen san tretza-nasti.

-kordi:

kordi tretzi re. Tretzi re besitaku, kordi re, ostea danai esaten gako. Edosein apaxo klasek kordi akar.

-arripendule:

arri andixe. Esatengako ba, tellatun gañin eoten disen arri andixak, ba selako ubaroi euan jakitxeko ta ibiltzen sin arripendulak.

**-amuskiye:**

ori re, suk e... antxoi amun sartzeosu, itxasoa bota eta jasoten dosu te dakasu ondiokan batzuk janda, beste batzuk galdute ta amun dakasu ondiokan arek, e seuk botasun antxoa satixak, bañe ixetako be estabenak balixo. Sobranti, antxe gelditxu dana, an besiurik atrapa baik datorrena erdi janda ta...

-kendu-ala:

esakera bat da bakarrik ori: “ekarri ori endu-ala”, bota ala be esaten da, en el tiempo esan nai dau. Nik au etxen doten bitxartin ba suk eiñ beste ori.

-amuk entolla**-txalopa garbitzallik:**

onek di Serkan, txalopa bakotxak, ontzi bakotxak, bafor bakotxak, astin ixentaten san bertoko maiñero bi. Bafor bakotxak eukan beran leku, katikin de eta asko eoten sines -subi barrixe eta subi sarran bitxartin amalau euasen-, orrek bixok itxosutik etorten sinin beste gustik etxea juten sin eta euran konture gelditzen san bafora: amuskixak eta garbitxu, amarra.

-txandako bixak:

partilli euanin onetxek bixak etorten sin kontu artzea beste maiñerun erreprentasiñoin.

-loixa:

lonji.

-kofrax:

kofrax dana ra eta loixe beie ra, arrañe laga ta pixa ta etxen dan leku. Kofrax ra batzartzeko tokixe, sekretaxu dana ta, presidenti dana ta...

-kotak kendu:

soki edoseñek ibiltxen dabena edosetan, bai arrantzan amentxe lasunetan da, lupiñetan da txistutan dabillenen de, sokak bustitxe dasenin eoten da. Orapillun lantxeik etxen da eta orrei koti deitzen gako. Eta orrek arri pendulak eta ibiltxen sin kotak kentzeko sokai, tirente ipintzeko.

-enkarna:

karnati sartu amun. Bañe esaten gakon ordun... enkarnata gero tretzan ipintxen san, tokaten gakon tokixan eta gero treetzaran jarten san.

-txisten barritzi:

ibilixan-ibilixan ori potxerioi alperrik galtzen da, esta? eta oxe barristi ixaten da.

-biurrixai emon:


soki biurritzi

-pita-nailoneri:

gaur eguneko soki, nailonas einddako soki.

-kala beune:

apaxuk eruten dau; ongo egunetan ainbeste atrapa dabe, gañeabe sarbun lakoxi, bueno, dana dala! edosein apaxok eruten dabe kala beune, beun pixotzu ixaten da. Beune danak eruten dabe, bañe segun setako olakoxe beune erute ben. Apaxu ondo ibiltzeko pixu re au, apaxu tirantan ipintzeko ibiltxen dana. Arrantzale batzuk aproposak ixaten sin gañeabe orretako.

**3.7. TRANSKRIPZIOAK JOSE MARI IBAZETA**

1996ko urtarrilean Jose Mari Ibazetarekin izandako elkarrizketatik jasotakoa. (J.M.)

Bajuran beste amasei urte, arrastin amasortzi urte pasau.

- txo

. gasti

. irulaurdena

- boletu

ARRASTEKO BAFORAN SATIXAK:

-fuenti

-makiñi

-kosiñi

-pañola

-neberi

-komune:

ongo txalopan dutxan be bai. Segun selako arrasteru dan, dutxi bera eta lababu. Normalin komun bi, ofisialantzako komun bat eta maiñeruntzako beste komune.

-pasadera

-burela (egurresku)

-katrik

-kamañak:

kontramaixuk kosiñeruas departamento bat eta patroik fuentin iual, kostak beian igual. Gero fuente batzuk baakusus patroik eta kostak bixak lo etxeko departamentuk dakasenak. Jeneralin de makiñisti bera bakarrik, kosiñeru kontramaixuas, kostak bera bakarrik eta patroik bera bakarrik.

TRIPULAZIOA:**-patroi****-kosta****-makiñisti****-engrasadori****-primeru makiñakune****-segundu makiñakune****-maiñeruk****-kosiñeru****-kontramaixu****SARIK****-estraperlokuk:**

malli txikixaua. Gaur egunin asuntu baltza ra onekin frantzesakin de, inglesakin de. Malla txikixauak, se bestelanik andixauakin esta sereiñik de, da.. klaro, etxen di mallak eskuta ero al dan moure. Atrapaten barabe ba...

**-malli:**

malli re, sarin diamentu arrañe es pasateko. Mallak eotengatzus amabosteku, ogeiku, ogetabosteku, ogetamarreku ta...

-pelajikuk:

onek erreko rabe itxosu. Bosteun brasako sarikin dabisenak dis onek. Onek edoser atrapatzen dabe, parin datorrena, txitxarru bara, lupiñi bara, burbiñi bara urreburu bara, faneki bara, txitxarro marikoi bara, baltza bara, edoser (...) Ondarrun ei das la upareja pelajikuk, Pasain beste lau, suk idea bat eiñ, sortzi ri orrek e... ipintzen dabe onek otamar pareja pelajikun eta Golfo de Biskaia, Golfo de Irlanda, Golfo de Noruega, osea, erosein, dana jota erreta lagakorabe, ero arrañe sartzen danin atrapa bir dabe edo akabo, esta eongo ta.

-arrasti:

arrastrando etxen dan arrantzi re. Arrasteko sari brasa biko *alturatik* eskapatzen dau arrañak se arrasteko sarik sero nobenta ero sero otxenta ero altzaten dau bakarrik koroni esaten gakona.

-brasa bat:

guk norberan eskun brasiai esateotzau, bañe brasa inglesa ra uno otxenta ero ra.

-malleta**-koroni****-errebisa****-bolu**

**kortxu:**

boluk eoten di, ba tamaño diferentitakuk arrastin bakan barabis ero, bouan barabis ero. Es ti iualak se boukuk ixaten di normalin bolo andixak eta bakan eoten di bolo txikixak. Pelajikuk eukitxen dabe bolo andixak.

-soka puntak jo**-beuneko tralli:**

sarik eukitxen daben txikot jenerala goitxik.

-kortxoko tralli:

sarik eukitzen daben txikot jenerala beitzik

-txikot jenerala:**-saku:**

arrañe geatzen dan askanengo punti. Boltzi formaten dana.

-mangi**-bandi****-baki:**

baki re barku bera bakarrik dunin biarrin.

-bouan:

bi barko batea juten disenin biarrin. Onek sarik eukitxeotxu altuauak eta motzauak

**-trena:**

bolo andixakin juten disenak, a base de narruk eta refortzata eruten dabe beiak. Ordun narru ixanda etxen dau salto, orrei trenes edo olaku esatetze. Arrixin be arri koskorra eta topaeskeo salto etxen dau.

-sikiñin:

itxaso barro barrun. Arrixe ero, se esangotzut ba, barko sarrak satitxute ero txapak ero olaku asuntu dasenin.

-pañu**-papu:**

mallatik malla juten dan teli.

-koroni**-txikota****-alanbrak**

txalopi beti alanbrakin juten da, alanbrak tiesun dusenak.

-ati

malletak eta alanbrin bixen bitxartin eruten dabena. Atin funtziñoi re sari sabaltzi eta basias arrañe sustati sare barrun sartzeko.

-pies de galluk:

atik eukitxeotxus alanbre bi. Goiku lusiaua eta beiku motzaua, ordun onek se nai rau esan; atiai etxetza rebira, da klaro uretan olanik baru ati, eta alanbri tengaraka baru goiku andixaua eta beiku txikixaua, ba jeneralmente angulo bat artu te basatzan sartute juten di.

-katik:

negun txokuk ta txibixak ta atrapateko sartzetze katik sare puntatik mallet punta, por ejemplo bi metro kate. Katik eukitzen dabe ba laroi bat kilo, eun batzuk, berrotamar beste batzuk, meiaua, lorixauak katik ero... ordun, ba segun sonda fondu semat dan, ba atetik sare puntatik atea, taloitxik atea ori juten san, malleti, sisalesku, on nailoneskuk ibiltxen dis. On katik be ibiltxen dis, sare puntatik malleta, gero malletatik sarea, au bakik ibiltxen dau, parejik es dabe ibiltxen.

-taloi:

sarin punti re taloi.

-sisalesko malleti:

soka flojuaua

-kañamoisko malletak:

au sare puntan ibiltxen san, gixtia jaten dau beiak eta, kañamuk gexa auantaten ban.

ARRAIN KLASIK:

-leatza

-sapu

-lenguau

-txoku

-txibixe

-barbañe

-lupiñi



-urreburu

-faneki

-antxoilli

-makallau arrañe

-txitxarro baltza

-txitxarro marikoi

-kolaxu

-barbañe

-atxamarti

-piti

-beune

-parejan

-partilli

-falla:

arrañak falla esaten da, ero utz emon dabela. Arrañik estosunin atrapatzen.

-apaxu:

-Ronkal

-Eskosia

-Irlandako kosti

-Frantziko kosti**-rrantxu:**

au soldautzatik datorren berbi re, rantxu re, ilebeteko jatekun gastu.

-kantiñe:

erderasko akantilau ero, bueno, guk kantiñe esateotzau. Eun metroa du apaxu te derrepentin irureun metroa bajaten da apaxu, nai rot esan, bosteun metro apaxuk luseri eta jo bes ondoik. Or eoten di jeneralmente kolaxuk.

3.8. TRANSKRIPZIOAK AGUSTIN ARANTZAMENDI / AGURTZANE OSA
(Aust.)/ (A.O.) -AGUSTIN ARRIZABALAGA (elkarrizketa Agurtzane Osak lagunduta)-

AO.- Da nox sartu siñan itxosun Austiñ?

Aust.- amar urteas, amar urteas emosten erramu eskure.

AO.- motorrik eta esan egongo ordun.

Aust.- bat ero bi euasen bakarrik

AO.- ordun se ordaintzen san Austin, soldati ero?

Aust.- soldati bai, irabasten basendun bai, gastiai es, erdixe ero.

AO.- da gero estropalaixe be ixan sa su!

Aust.- ni bakarrik?, gero bolintxako motorrak eta sardiñatako euasen treñeruk, lena treñeruk, saritan ibiltzeko ain penas ibiltxen giñan se,(...) axi kontraku basan erramutan esin alla. Amasaspixan ein ben motorra aldatu, lau kaballoku eiñ, pentzaten neban serun sartu nitxala, erramuk kosta gaskun kentzi. Beras motorras es giñan sardiñata ta juten, sarati dala ero. Jun giñan beñ manjubata, bañe treñik esiñ ata, inddar gitxi motorrak, urrengo urtean



andixauas, motor andixauas. Amasaspi urtearte. Amasaspi urteas sartu nitxan txalupa andixan, potiñ andixan.

AO.- Santoña ta juten sin ordun?

Aust.- Santoña bakarrik? Lelengo urten gendun amendik de, Santa Klara paretik beli gisata an gus geldi-geldik de Santanderrearte.

AO.- da an gero se etxen senduen Austiñ, aste gusti bertan?

Aust.- aste gusti? al san denpora gusti, Andramaixak arte. Bertatik arrantzaten san. Jun giñan arus be, ta Kijonen be sartu giñan da, egun bi ein gendusen Kijonen, egun bi bakarrik, atzea bueltan Santanderrea. Arraiñ_apurre antxe artzen gendun de. Gasbas es san beti ixaten liorrea etorti, axik selan euasen, axik gitxi baeuasen ba esin etorri, axin bixkat es geitxua lusatzen basiñan kanpoa ta gero axi gitxitu, esin seinkin etorri, itxosun belak erria eta lo. Freskoako arrañe sanin Santanderrea juten giñan saltzea, bisperako arrañe saltzen san obeto Santoñan, se bisperako arrañe fabrikantik artzen ben, bañe Santanderren freskoako dana.

AO.- se diro etxe ban ordun?

Aust.- peseti etxen banin kiluk, aberastute bestin, sei txoi andi, ortxe ibiltxen san. Ordun arrañe geitxua san, sartu giñan amendik de Santanderreako berandu etxen san, es giñan allaten da, Santanderrea fresku alla esik, e... Sartu giñan Tiñesen. Fabrikako enkargau euan Segundo, andrak be danak fabrikan (...)

AO.- Tiñesea ordun Ondarruko andrak juten sin biarrea e?

Aust.- segun nun ibiltxen sin fabrikan; arrañe prijiuteko, egosteko ta oxe, Atxondoneko neska bixak be eon sin, Tomasa ta Puri.

AO.- eskonduk be eongo sin or txalopetan da, andramaixak arte ara jun de, andrak esin juten arutz?

Aust.- noa jun? Noa? Selan jungo siñan ba? Tasise atata? Tasisin biaje bat etxeko irabasi es da? (...). Ordun Tiñesen, iru txoi txiki kilu ein gendun atune,

eta gabas. Gu baño atzera etorri san beste txalopa bat, eta es dabela on nai te bixaldu ban a, gero se ein ban estakiau, iual ureta bota. Se andik urteneran axik ondo egoneskeo beste portu batea jun leike ta axik ondo esparas, esin.

Urti totala etxen gendun, larotamaike ogerleko etxen gendun guk, eta esautute na ni etorten partilla baik, an ainbeste denpora eindde gero. Ordun kukañi Alamedatik ipintxen san palu, da antxe sebu emon da palu ipiñi, te axe partilli, ogeleko bana emotzela ta... olaik esin leike aberastu.

AO.- da estropara denpori nox ixan sendun, nos enpatxa siñan or estropadetan da?

Aust.- otabostin

AO.- gure atxe otaseixan asiko san?

Aust.- sueneko atxe otabostin, sueneko atxe geurin ibiltxen san bolintxin, urtetan, umetatik geure morun amar urteas asitxe. Otalauan forma san kluke, Aurrerako Kluke, Plasa Musikako aurrin, lena lena Batzokixe sana (...), illin errille san sosixu ixati, bost sagardau gitxia. Otabostin sartu giñanin deporte gustik bir sitxuen, aringeingalaixak, pelotaixak, dantzaixak eta gausa gustik bir sitxuesen, bisikleteruk, danak. Asma ben erramutaku be, (...) Estropari irabasten banak Sanpedrutan da, berak etxe ban Saliña-Saliña eta ataxeik, Andramaixetan da ser! total ser, ama duroko bat ero emoten batzuen ba axe(...) estan tokixan esin sendun te treiñeroik eseuan da, onetxeik bateletako estroparak ipintxen sin. (...)

Erdixak liortarrak euasen, erramuai sekule agarra bakuk. (..) Erramolaik onena Ondarrun, Juanito Urkisu. Batela be baeukan arek, sarritxan ibiltxen san batelin, de batelin ibiltxen sanes, ba a be barrure (...)

AO.- entrenamentutan da ni entzunde na atxai ipurdixak urratute ta ibiltxen sile ta.

Aust.- Donostin neu be ipurdixak apurtute gelditxu nitxan martisenin, askaningo astin, eta Don Albertok e, arek e, estai sertzuk eta emostan niri. Arek sikatustan niri gañetik, urrengo jarri nitxanin, barrutik llaga, barru osatu baik euan (...)



AO.- eta ori (Kofraixako) leioi esan ba Erregiñak erregalataku ero?

Aust.- bai, ori leoi san, erregiñak ero, Alfontzo Tresek ero emonda, Fauna Realeku san ori. (...) txalopa andixe san, gabarrin mouko...

AO.- seuen txalopi ser san; gabarri san seuenta be, es?

Aust.- bai, treñeru bañe guri gabarri. A esan estroparaku, a apropos ipiñitxaku san, pasaji arentzako errixo gustin etxeko.



4. ONDORIOAK: Ondarruko arrantzaleen lexikoa eta toponimia

Ondarroako arrantzaleen lexikoa lanaren helburuak zeintzuk diren aipatu eta zerrendatu ditut sarrera atalean. Bertan, hainbat konturen gaineko aipamen eta sakontze ahalegina egin dut. Besteak beste, alde aurretik egindako hausnarketa horien harira, ondorioak bi plano bereiztutan ematea dela egokiena deritzot. Alde batetik, ondorio kualitatiboak – lanaren sarreran aipatutako hainbat paradigmaren gaineko gogoeta eta erreflexioak-, eta bestetik, koantitatiboak –egindako ikerlanaren hedadura eta adierazgarritasuna- zehaztuko dituen.

4.1. Ondorio kualitatiboak:

Lehenengo eta oraingo lexikoa biltzean, desagertze-garapena binomioaren artean lehiatzen den mundu lexikal honen oinarriko zutabeak landu ditut. Lanean bildutako hainbat hitz gaur egun ez dira jadanik erabiltzen; beste hitz batzuk ezagutu ere ez dira egiten eta beste hainbeste desagertze bidean daude bildu eta erabilpenen bat ematen ez badiogu. Horretarako gutxinaka-gutxinaka eboluzionatuz -edo inboluzionatuz- doan mundu lexikalean itsasoarekin zerikusia duten berbak bildu eta modu eta helburu desberdinen arabera landu ditut.

Ondarroako herriari, bertako errealitate lexikal zabal, historiko eta esanguratsua aurrean duzuen lanean bildu eta orain arte baino eskurago izan dezaten saiatu naiz. Ziur izan, badirela beste hainbat sarrera lan honetan lekua izan lezaketenak. Hori beste momentu baterako lana izango da .

Badira, hala ere, kontuan izan beharko ditugun zenbait ondorio.

1. *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* hiztegiak berezko balioa daukala uste dut. Hiztegi hau antolatze bidean erabilitako metodologia bera erabilgarria da beste antzeko ikerketa batzuetarako. Bertan batutako unitate lexikalek –bai koantitatiboki zein koalitatiboki- daukaten garrantzia handia da; hauek aztertze aurkezten dudan corpus idatziaren –transkribatutakoaren- hedadura zabala, eta hiztegiaren luze zabalean –zein corpusean- adierazten dudan lexiko oparotasuna dira lan honen birtuterik nagusienak. Hala ere, honekin batera beste hainbat konturen gaineko hausnarketa egiteko parada egokia eskaintzen digu *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanak.



2. Goian esandakoa da datozen lerroetan aipatuko ditudan ondorioen euskarri nagusia. Ondarroa herrian badira, besteak beste, bata bestearengandik bereiztuta dauden bi hizkuntza komunitate. Bi hizkuntza komunitate hauek *kaletarron* hizkera eta *arrantza munduan* ari direnaren artean bereizi behar dira. Behin *Ondarroako arrantzaleen lexikoaren* zati eder bat bildu ondoren, honako honetaz konturatzen gara: alde batetik, bi hizkuntza komunitate hauen garapena oso markatua izan dela –azken bi hamarkadetan batez ere-. Arrantza, herriaren ardatz nagusi eta ia bakarra izatetik, arrantza mundua errealitate soziolinguistiko antzekoa dutenek osatzen, beste mutur batera igaro gara azken hamarkadatan.

Arrantza eremuak geroz eta eragin gutxiago dauka herritarron egunerokotasunean, eremu mugatuetara laburtzen da horko jakintza. Lehorreko lanak –enpresak eta abar- geroz eta indar handiagoa hartzen ari dira eta gaur egun arrantza mundua osatzen duten pertsonen historia soziolinguistiko zein kulturalak oso anitzak dira. Honek, konplexutasun berezia ematen dio gaiari eta nola ez, hau dena lehenbailehen jaso eta antolatzearen beharra agerian uzten du.

Goian esandakoaz gain, badira beste zenbait elementu azpimarratu nahi nituzkeenak ere.

- Egun, euskara beraren garapena dela eta, euskaraz emandako hezkuntzaren eragina –oso modu standarrean eta eremu espezifikotako hizkerari arreta handiegi eskaini gabe-, bere topeak jotzen ari da. Bidean itzelezko ondarea ari gara uzten –galtzen esango nuke nik-. Hau berreskuratze bidea egin nahi izan dut *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanaren bidez.
- Arrantza munduaren eraldaketa –gailuak, untziak..., baita bertan aritzen direnen espektro soziala ere- nabarmena izan da eta izaten ari da. Hala ere, egun, 60ko hamarkadan ez bezalaxe –besteak beste-, errealitate soziolinguistiko eta kultural aniztasuna da arrantza munduaren adierazle nagusietako bat.
- Herritarrongan arrantza munduak duen garrantzia espezifikoaren erlatibizatzeak eragin zuzen-zuzena dauka bertako mundu lexikala galtzen joatearekin.



- Ikerlariak egindako lan berantiarregiak –makinatxo bat berba galdu dira honezkero-, ez du norabide egokian boga egiten.
- Materiale dibulгатibo-didaktikoen gabezia larria da eta “ikaskuntza” prozesua –espezifikoa, hurbilena, “betikoa”-blokeatzen du.
- ...

Honek guztiak, arrantza eremuko hainbat unitate lexikal arrantzale gutxi batzuen buruetan baino ez geratzera eraman du.

Badira lexikalizatu egin diren hainbat eta hainbat hitz. Lexikalizatuta dauden unitate hauek, haien jatorrizko esanahia galdu egin dute –sarri askotan hau adierazteko erabiltzen ziren errealitateak desagertu egin direlako; *bela* desberdinen izenak, *txalupa* izenak, *haizeak...*-. Kasurik gehienetan hauek ez dira eraldatu, ez dute kaletarron hizkeran bestelako erabilera pragmatikorik adierazten eta desagertze bide larrian daude –beti ere hau dena jaso eta berreskuratzen ez badugu-. *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanean, ahal izan ditudan unitate lexikal guztiak bildu ditut.

3. corpusak ere horretarako oinarria ipintzen du. Mota desberdinetako ikerketei egoki eutsi ahal izateko lanabes egokia da. *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanean aurkezten dudan corpusa –Ik. *ondorio koantitatiboak*- Ondarroako hizkerari buruz eta bereziki arrantza hizkerari buruz egin daitezkeen ikerketa desberdinentzako abiapuntu egokia dela deritzot. Berton agertzen diren transkripzioek hainbat helbururi erantzuten diote:

- *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* hiztegirako unitate lexikalak identifikatu.
- Unitate lexikal hauen inguruko elementu sintagmatikoak, semantikoak, gramatikalak adierazteko testuinguru bat eskaini.
- Aurrerantzean egin beharko diren hainbat ikerlanetarako oinarri bihurtu: Ondarroako euskararen azterketa estrukturala –Karmele Rotaetxek egindakoan sakondu-; arrantza munduan



ari direnen jakintzaren gaineko informazio zehatza eskaini;
materiale didaktiko eta dibulгатiboetarako testuak eskaini ...

Esku artean daukagun lanean agertzen diren transkripzio orri horiek guztiek, goiko helburu hauek egoki bermatzen laguntzen dutela uste dut.

4. Honekin batera, *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* hiztegian jaso den hainbat unitate lexikal orain arte dokumentatu gabeak dira - Ik. *ondorio koantitatiboak*-. Honek, euskararen aberastasunaren alde jokutzen du. Zergatik ez pentsatu, noizbait, nik hemen aurkezten ditudan hainbat hitz normatibizatu eta euskararen hiztegi orokorrean sartzeko paradan egongo garela.
5. *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* hiztegian 1.310 hitz jaso eta dokumentatu dira. Hauetatik 271 dira, gutxi gora behera, euskara ez den bestelako hizkuntzaren batetik datozen moduan jaso ditugunak (*erd.*) –gehienetan, "ondarrutar erara" emanda, noski- *ABÁNTE (LÍBRE) / ABÁNTE (TÓDO) / aberíxa / adósa / ála / ALÁ-ARRÍO ...*-. Kopurua benetan da zabala. Kontuan izan behar dugu badirela beste hainbat hitz, nahiz eta jatorriz euskara ez den beste hizkuntza bat izan iturri, gaur egun euskarak bere egin dituenak –*alturí / bajurí / marí*-. Hauek ez ditut (*erd.*) signoarekin identifikatu.
6. Hala ere, gaztelaniaz ez diren bestelako hitzak ez dira asko agertzen gure arrantzaleen hizkeran. Era horretako unitate lexikalak gailu berrien markarekin identifikatzen dira gehienetan: *rrollíne / mustánga* ...
7. Lan honen beste elementu garrantzitsu bat harreman sareak arintzen laguntzea da. Harreman sare horiek –kaletarronak eta arrantza mundukoenak-, ikuspegi anitzeko harremanak bermatu beharko lituzkete. Eta batez ere, arrantza eremutik kaletarron eremura dagoen norabide hori egin beharko litzateke. Nik, harreman hori ikuspegi lexiko eta etnolinguistiko batetik egin dadin bitartekoak eskaini ditut. *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanean, arrantza munduko lexikoa bildu eta dokumentatu egiten da. Nire ustez, behin hau oinarri moduan izanda bertatik erator daitezke bestelako hainbat lan –txiki- elkar ezagutzan sakontze aldera: hezkuntzarako materialak (unitate didaktiko



espezifikoa), lan entziklopediko zabalagoak... Hau guztia garatzeko lanabesa, bitarteko xume bat da *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lana.

8. Esan dugu, galduta dauden hainbat eta hainbat hitz daudela arrantza eremuan; beste batzuk guztiz deskontestualizatuta erabiltzen dira, eta normalean ez dugu ezagutzen arrantza munduko hitz bakoitzaren jatorrizko erabilera pragmatikoa. Hainbat hitz, eskeleto baino ez dira; historiaren zati bat deskribatzeko balio izan dutenak, baina gaur egun guztiz jokoz kanpo geratu direnak. Erabilera pragmatikoaz hitz egin aurretik baina, dagoenaren berri eman eta hau guztia jaso eta antolatu egin behar da. Beti ere, bestelako erabilera bat eman nahi baldin badiogu sarreraren bati, hau egon badagoela dokumentatu beharko dugu eta unitate lexikal jakin hau zer testuingurutan eta zer adierazteko erabiltzen zen jakin. Pentsa ezina da unitate lexikal horren jatorrizko erabilera pragmatikoa erabat ahaztuta egitea bermoldaketa hori. Biak dira garrantzitsuak; jatorrizkoa ezagutu, oraindik erabili ahal badaiteke erabili, eta kaletarren eremuko beste hainbat gauzatarako moldatu. Hau dena egiten laguntzen du *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanak.
9. Behin hau egin ondoren, argi dago Ondarroako hizkeran eragin zuzen-zuzena izango lukeela. Izan ere, aberastu egingo litzateke –bai kantzitatez, baita unitate bakoitzaren gaineko adiera eta abarrei dagokienez ere-. Horretarako baina, ondarrutarraren aspektu guztiak ikertu eta normatibizatu egin beharko lirateke. *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanak norabide horretan egiten du arraun. Egia dena da gaur egun badirela horrelako hainbat kasu, non Ondarruko edonoren hizketan arrantza munduko berbak txertatzen diren – *antxói / berdéla / koásta / sarbú / karramárru ...*-, hauek baina, gutxienak dira.
10. Hiztegitza eta lexiko sorrera: hasieran esan dugu hiztegitza klasikoak bi kontzeptuak bereizi eta modu isolatuan lantzen dituela. Euskarak gaur egun dituen beharrei kasu egiten badiegu hala ere, laster konturatuko gara hiztegitza eta lexiko sorrera biak batera doazela. Normalizatu gabe dauden hizkuntzen ezaugarria da hori. Hau horrela izanik, gure hizkuntzaren kasuan biak dira uztargarri. *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanean, beharrak eragin eta propioki sortutako hainbat hitz agertzen dira. Hitz hauek gehienak gaztelaniazko jatorria



daukate – *palométru / andána-*, baina badira ere funtzio desberdinak bete ahal izateko asmatu diren hitzak - *ÁRRA-BETEKÓ (SULÚ) / artasikarí / atzorapíllu...-*. Ondorioz, lexiko sorrerari ere ate bat zabaldu nahi izan diot lan honekin.

11. Unitate lexikalen testuingurutzea eta horien eduki semantiko zein paradigmaticoa zehazten da *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanean. Honekin, jasotako unitate lexikal horien guztien berri zabala emateak daukan garrantzia handia da. Izan ere, modu horretara transportatu ahalko baitugu soilik kaletarron beharizanetarako moldeetan. Ere pragmatiko berrituz hornitu nahi baldin badugu unitate lexikal jakin bat, ezinbestean honen jatorrizko esangura zein den ezagutu behar da. Honekin ez dut esan nahi, ezta gutxiago ere, arrantza munduko hizkera eta hangoen baliabide lexikalak modu plano eta zuzen batean *kaletartu* behar ditugunik. Ez da hori nire borondatea. Baina bada gogoeta bat egin eta unitate hauen arteko hustuketa pragmatiko bat egiteko beharra. Hustuketa pragmatiko honen eginkizuna unitate lexikalen erabilkortasuna erabakitzea beharko luke izan. Horretan laguntzen du *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanak.
12. *Ondarroako arrantzaleen lexikoa* lanaren helburua ez da izan azterketa konparatiboa egitea ezta soliolinguistikoa ere. Hala ere, argi adierazten da Ondarroako arrantza munduko lagunek hizkera eremu mugatu eta zedarritutako bat daukatela, propio dena, non hainbat gauza partekatu bai baina beti ere ikuspegi propio batetik abiatzen dena.
13. Gazte hizkuntzatik erabat galduta dauden erregistro lexikalak dira gehienetan. Eskolatzeak ez du daukagun ondarea oinarri izan. Eskolatze estandarretik zehatzera igaro behar gara. Jakintza orokorretik jakintza espezifikotarako norabidea egin behar dugu. Horretarako garrantzi handia dauka modu dibulгатiboan, hezkuntzarako materialak sortzearen alde egin daitezkeen lan guztiak.
14. *Ondarroako arrantzaleen lexikoak* dagoenaren zati baten berri ematen du. Ez inondik ere guztiarena. Horrela, oraindik jasotzeko asko geratzen dela alde aurretik jakitun izanda, aurrera begira egin daitekeenerako abiapuntu izan nahi du eta egia esan, lortu ere lortu dudala uste dut.



15. Egin beharrekoa aurrera begira: dagoena kontuan izan eta merezi duen arreta eskeini; dagoena batu; antolatu; erabilera pragmatiko anitzak bilatu; jatorrizkoa adierak gorde; hedatu, zabaldu; eta garrantzitsuena dena, hau dena erabiltze ikuspegian kokatu.

4.2. Ondorio kuantitatiboak

Ondorio kualitatiboak zerrendatzearen helburua *Ondarruko arrantzaleen lexiko eta toponimia* lanean dauden sarrerak eta sarrera horien barne tripak arakatzea da. Hala nola, badira hainbat sarrera Azkuek jaso dituenak, edo Eneko Barrutiak edo, nola, ez Augustin Zubikaraik ere bildu dituenak. Baina badira beste hainbat oraindik inork ere jaso ez dituenak eta esku artean daukagun lanean biltzen direnak. Horrela, nire ekarpenetako bat, besteek jasotakoa azpimarratzea eta oraindik jasoak izan ez diren sarrera kopurua zein izan den zehaztea izango da.

Ondorioak landutako atal desberdin bakoitzaren arabera antolatu ditut.

4.2.1. ONDARRUKO ARRANTZALEEN LEXIKOA; HIZTEGIA.

Guztira 1.402 sarrera dira lan honetako lehenengo atalean, atal nagusian alegia, bildu ditudanak. Lan honen sarreran adierazi dudan moduan, sarrera bakoitzari hainbat erkatze erreferentzia lotu dizkiot –dela dokumentazio entziklopedikoa, direla zitak, direla hizkuntzak ...- . Horrela, erkatze erreferentzien ezaugarri kuantitatiboa zehaztuko dut behean.

Guztira, 1.402 sarrera daude *Ondarruko arrantzaleen lexikoa* tesi lan osoan – 980 sarre^{ra} nagusi eta 422 azpisarrera-.

a. Elkarrizketatuak. Elkarrizketatuak atalean aintzakotzat hartu ditugunak, 14 izan dira:

1. **Boni Laka (BL):** baxurako arrantza kontuak eta arrainak, batez ere.



2. **Jose Mari Ibazeta (JM):** arrasteko arrantza kontuak batez ere.
3. **Domeka Markuerkiaga (DM):** baxurako arrantza, arrantza tradizionala eta arrainak, batez ere.
4. **Andoni Basterretxea (AB):** arrantza ohituren gainean, batez ere.
5. **Augustin Arantzamendi (AA):** arrantza ohituren gainean, batez ere.
6. **Augustin Zubikarai (AZ):** arrantza munduaren gainean berak landutako bibliografia guztia aztertu eta landu dut.
7. **Miren “kantale” (Mi):** emakumeei zuzenduta zeuden lanen gainean, batez ere kontserba fabrika
8. **Agurtzane Osa (AO):** emakumeei zuzenduta zeuden lanen gainean, batez ere kontserba fabrika.
9. **Begoña Arauko (T/B):** emakumeei zuzenduta zeuden lanen gainean, batez ere sarejostea (portzentajeetako gaztatxoetan Trini eta Bego batera jarri eta zenbatu ditut, izan ere, egindako elkarrizketetan biak batera egon izan dira beti).
10. **Trini Larrinaga (T/B):** emakumeei zuzenduta zeuden lanen gainean, batez ere sarejostea, (portzentajeetako gaztatxoetan Trini eta Bego batera jarri eta zenbatu ditut, izan ere, egindako elkarrizketetan biak batera egon izan dira beti)
11. **Patxi Etxaburu (PE):** arrainak eta baxurako kontuak, batez ere
12. **Nekane Akarregi / Itsaso Beitia (N/I):** haizeak eta eguraldia, batez ere.
13. **BZZ:** berba zaharren zerrenda
14. **“Jose A. Eizagirre (Motrollo)”:** baxurako arrantzaren gainean berak jasotako hainbat hitzen gaineko iruzkina.


*Ondarroako arrantzaleen lexiko eta toponimia lanaren **hiztegia** atalean, honako sarrera kopurua dagokio informante bakoitzari:*



ONDARROAKO ARRANTZALEEN LEXIKOA

ONDORIOAK

BL.	→	550
T/B	→	195
AZ.	→	184
DM.	→	101
PE.	→	91
AB.	→	55
JM.	→	50
MI.	→	41
Motr.	→	41
BZZ.	→	38
AO.	→	23
AA.	→	21
N/I	→	12




Guztira: → **1.402**

b. Dokumentazioa

Ondarroako arrantzaleen lexiko lanaren **Dokumentazio** atalean honako sarrera kopurua izan da:

Eneko B.	→	456
Azkue	→	244
Amich	→	230
Zubikarai	→	166
Mitxelena	→	54






Aurrenez egin behar den aipamena zera da, nik jasotako berba hauetatik Eneko Barrutiak bere tesi lanean bildu dituenak 465 hitz izan dira; Azkuek 244 hitz eta Augustin Zubikaraik 152. Mitxelena, kasu puntualetan jo dudan aukera izan da –nola edo hala, ulertu izan baitut gainontzekoek nahikoa informazio ematen dutela esku artean dugun lanaren helburua modu egokian betetzeko-. Julian Amichen hiztegitik nik jasotako 230 berba osatzeko izan zait baliagarri.

- *Dokumentazio entziklopediko* gehigarri osatuak izan diren berben kopurua602
- *Zita* gehigarri osatuak izan diren berba kopurua..... 308

c. Hizkuntzak

Gaztelaniaz	→	434
Frantsez <u>ez</u>	→	332
Inglesez	→	234
Izen zientif.	→	92
Katalanez	→	39
Galegoz	→	34



* *Hiztegi batuan* ez daudenak –beti ere sarrerez ari gara eta ez azpi-sarrerez- : 968 sarrera nagusitik 601 ez dira kontsultatu dudan *Hiztegi Batua* hiztegian agertzen.

Jasotako berbak beste zenbait hizkuntzatan nola esaten diren zehaztu dut atal honetan. Horrela laster konturatzen gara latinezko termino guztiak arrainei dagozkienak direla, 92 sarrera, alegia. Gaztelaniazko itzulpenaz jantzi ditudan sarrerak - 434 guztira - ez dira espreski eta banaka banaka bilatzen joan



naizenak; hitz bakoitzaren iruzkinean berez etorri zaizkidan sarrerak dira hauek. Frantsesera egindako itzulpenak 332 izan dira eta ingelesera egindakoak 234. Gallegora -34- eta Katalanera -39- itzulitako berbak arrainei dagozkienak dira.

d. Sailak:

1.	Anatomia eta morfologia	→	11
2.	Arrainen izaera	→	12
3.	Arrantza eragiketak / maniobrak	→	173
4.	Arrantza espezieak. Arrainak	→	215
5.	Arrantza lekuak	→	6
6.	Arrantza motak	→	20
7.	Arrantzako tresnak	→	307
8.	Bestelako materialak	→	5
9.	Eguraldia eta haizeak	→	55
10.	Ingurune biologikoa	→	16
11.	Itsasoaren egoera	→	13
12.	Jantziak	→	6
13.	Langilea	→	50
14.	Nabigazio eta portua	→	115
15.	Neurria	→	12
16.	Ontzi motak	→	31
17.	Ontzien eraikuntza	→	170
18.	Prozesaketa, eratorriak	→	27
19.	Sareak / materialak	→	12
20.	Pertsonen izaera	→	8
21.	Termino administratiboak	→	18
22.	Bestelako gaiak	→	60

4.2.3. ONDARROAKO ARRANTZALEEN LEXIKOA: OSAKETA LANA

Ondarroako arrantzaleen lexikoa lana osatzeko Augustin Zubikarairen testuen lanketa zehatza egin dut. Bere bibliografia guztia aztertu, arrantzari buruzko gaiak zehaztu eta hauen iruzkina da egin dudana. Hona hemen Augustin



Zubikarik bildutakoaren gainean nik neuk egindako lanaren ondorio koantitatibo batzuk.

AGUSTIN ZUBIKARAIREN TESTUEN LANKETA

Augustin Zubikaraik *Itxas aize* liburuan izendatzen dituen terminoak

Lanaren sarreran luze eta zabal aipatu dugu Augustin Zubikaraik egindako lanak duen garrantzia Ondarruko lexikoa eta oro har, Ondarrutarron nortasunaren gainean gehiago sakontzeko. Esanda dago ere Augustin Zubikarairen argitalpenik interesgarriena –beti ere itsaso eta arrantza kontuei begira-, *Itxas Aize* liburuxka dela.

Itxas Aize argitalpenean itsaso edo arrantzarekin zerikusia duten 618 sarrera agertzen dira – liburuko beste sarrerek ez dute zerikusirik arrantza munduarekin-. 618 sarrera horietatik 216 izan dira *Ondarruko arrantzaleen lexikoa* hiztegia atalean aurrez prestatutako galdetegi bidez eskuratu ez ditudanak eta beste 402 bestelako nire informanteek elkarrizketa bidez adierazi dizkidatenak.

Itxas Aize liburuan bildutakoaren erkaketa

Nik neure bidez dokumentatu ez ditudan 216 hitz horiei inkesta formatuan euskarri hartuta saiatu naiz kontuerrezioa ateratzen. Erkatze lan honetarako –lanaren sarreran esan dudan moduan- Domeka Markuerkiaga eta Patxi Etxabururi egindako elkarrizketez baliatu naiz eta dokumentazio idatziari dagokionez, Eneko Barrutiaren tesi lana hartu dut aintzat.

Hona hemen atal honi dagozkion deskripzio eta ondorio kuantitatiboak:

- *Itxas Aize* liburutik.
 - .- nik bildu ez ditudan 216 itsas sarrera horietatik *EB-k jaso dituenak*23
 - .- nik bildu ez ditudan 216 itsas sarrera horietatik *DM-k ezagutzen dituenak*148



.- nik bildu ez ditudan 216 itsas sarrera horietatik <i>DM-k ezagutzen ez dituenak</i>	65
.- nik bildu ez ditudan 216 itsas sarrera horietatik <i>DM.-k ezagutzen dituela baina beste era batera esango lituzkeela adierazi dizkidanak</i>	13
.- nik bildu ez ditudan 216 itsas sarrera horietatik <i>PE.-ezagutzen dituenak</i>	178
.- nik bildu ez ditudan 216 itxas sarrera horietatik <i>PE-k ezagutzen ez dituenak</i>	30
.- nik bildu ez ditudan 216 itxas sarrera horietatik <i>PE-k ezagutzen dituela baina beste era batera esango lituzkeela adierazi dizkidanak</i>	3

Augustinek *Itxas aizen* bildutakoa erkatzeko etnotestuak

Guztira, Georgia 10 letra motaz idatzitako 25 transkripzio orrialde daude. Hauetatik 20 orrialde dira Domeka Markuerkiagari (DM) egindako elkarrizketen transkripzioa eta beste 5 orrialde, Patxi Etxabururi egindako elkarrizketen transkripzioari dagozkionak.

AUGUSTIN ZUBIKARAİK; AZKUEREN HIZTEGIAN EZ DATOZEN HITZAK EDOTA ESANAHI DESBERDINA DITUZTENAK

Augustin Zubikaraik, R.M^a AZKUE´RI JARRAITZEN argitalpen xumean guztira 334 sarrera desberdin bildu zituen. 334 sarrera hauetatik 187 dira arrantza munduarekin zerikusia dutenak: hauetako 76 arrantza munduko gai orokorrak dira eta beste 111 arrain-sarrerak.



<i>Augustin Zubikaraik, R.M^a AZKUE'RI JARRAITZEN</i> <i>argitalpenetik</i>			
<i>arrantza munduarekin zerikusia duten sarrera kopuru orokorra.....187</i>	ME + 53	ME - 87	ME (Sin.) 47
<i>Hauetatik gai orokorrak direnak76</i>	42	29	5
<i>Arrain-sarrerak.....111</i>	11	58	42

Lan honen bitartez nik egiten dudana apurtazio koantitatiboa honako hau da:

1. *Hiztegia* atalean: elkarrizketa bidez jaso ditudan 1.402 hitz horietatik nik aurkeztu ditudan sarrera “barriak”, hau da, Eneko Barrutia, Augustin Zubikarai, Azkue edota Hiztegi Batuan agertzen ez diren dokumentatutako berben zerrenda462
2. *Hiztegia* atalean Eneko Barrutia eta Augustin Zubikaraik dokumentatutakoak805
3. *Itxas Aize* argitalpenean itsaso edo arrantzarekin zerikusia duten sarrera erkatu618
4. Augustin Zubikaraik, R.M^a AZKUE'RI JARRAITZEN argitalpen xumean bildutako sarreretatik arrantzarekin zerikusia dutenak erkatu187
5. Hiztegi Batuan agertzen direnak.....273
6. Esamoldeak (Lokuzioak) guztira:152

Goian esandakoaren arabera, aurrean daukagun tesi lanaren apurtazio koantitatibo lexikala, - neuk dokumentatuak, alegia,- 461 sarrerakoa da.

Hona hemen sarrera hauen zerrenda:



1. **(errebísa) adosá**, *adosá(tu)*, *adosáten*.
2. **agarrá**, *agarrá(tu)*, *agarráten*
3. (APÁXU) AGARRÁ
4. (ARRÁÑAK) AGARRÁ
5. (MALUTÍ) AGARRÁ
6. ALÁ-ARRÍO, *alá-arriá(tu)*, *alá-arriáten*
7. ALÁ-ARRÍÓKO APAXU
8. ALADORÁN-TÚBO
9. **álas//alása**
10. ALASÍN
11. **alatín**
12. **aldágoi//aldagói**
13. **aldára//aldári**
14. **áldra//áldri**
15. **amabirjína//amabirjíni**
16. **amari ez emana: amái es emóna**
17. ATÚN-ÁMO
18. ÁMO (BRILLÁNTI)
19. ÁMO (GÁRBI)
20. ÁMO (ÁNDI)
21. AMO-PÁLA
22. ÁMO (TXÍKI)
23. ÁMO (ÚGAR)
24. ÁMO (SÚRI)
25. (APAXOTÁKO) ÁMO
26. (BERDELETAKÓ) ÁMO
27. (KAÑABERAKÓ) ÁMO
28. (TXERMOLETAKÓ) ÁMO
29. AMÚGIÑ
30. (TXANPELETÁN) ANÍLLO
31. **ankúlet//ankuléta**
32. ANT XOÁ-ÁDUR
33. ANT XOÁ GORRÍXE
34. ANT XOÁ HANDÍXE
35. ANT XOÁ MEDIANÚ
36. ANT XOÁ OTZÁRI
37. ANT XOÁ TXIKÍ
38. (GIXÓN) APAXÉRO
39. APÁXO (ALÉGRE)
40. APÁXO (BARRUKÚ)
41. APÁXO (ERDIKÚ)
42. APÁXO (MÓTZ)
43. APÁXO (PUNTÁKU)
44. APÁXO (TRÍSTE)
45. (ESPETEKÓ) APÁXO
46. (KAÑABERAKÓ) APÁXO
47. (KASAKÓ) APÁXO
48. (LEATZETAKÓ) APÁXO
49. (UBERAKÓ) APÁXO
50. **apóño//apoñú**
51. (MAKALLAÚ) ÁRBI
52. **ardaú-bárrill//ardáu-bárrille**



53. **ardaú-díro//ardáu-dirú**
54. ARDORÁN
55. **(fondiatáko) árgi// (fondiatáko) argíxe**
56. (TOPÉKO) ÁRGI
57. **aríma//arimé**
58. **armásoi//armasói**
59. (ÁMON) ÁRPOI
60. ARPÓI-PÚNTA
61. ARPONÁSTE
62. **ARRAÍÑ ARÓLA**
63. **ARRAÍN (LABÁRMEN)**
64. **ARRAÍN (MAKÁL)**
65. **ARRAÍÑ (ÓN)**
66. **ARRAÍN-PÍXO**
67. **ARRAÍN-PÓTO**
68. **ARRAÍN (SÁKAR)**
69. **ARRAÍN (SÁTAR)**
70. **ARRAÍN (SÓRO)**
71. (BOLINTXEKÓ) ÁRRAIÑ
72. **arraín-takáda// arraín-takadí**
73. **arrásket//arraskéti**
74. ARRASTÁN
75. (ARRASTEKÓ) ÁNDRA
76. (ARRASTEKÓ) GIXÓN
77. ARRASTEKÓ ÁRI
78. **arríza**
79. **artasikára//artasikarí**
80. **asmáintar//asmaintarra**
81. ATÚN (JANTZÁLLE)
82. ATZÉKO (GÍXON)
83. ATZÉKO
84. **atzorapíllu//atzorapíllu**
85. ASEITUNÁ-MÁI
86. **bágoi // bagói**
87. (ANGULATÁKO) BÁI
88. **bajéra//bajéri**
89. **balandréro//balandrerú**
90. **barrukó (gíxon)//barrukú**
91. (ERRAMÚKO) BÁTEL
92. aurréko béli
93. **belórtzio//belórtzio**
94. **BERRÍLL (ÁBOR)/ BERRÍLL(ESTÍBOR)**
95. **besigusále//besigusalí**
96. **(arrañán) betxansíñoi**
97. (ATZÉKO) BIBÉRO/ (AURRÉKO) BIBÉRO
98. (ESPETÁN) BIÉNTO
99. (PÁLUN) BIÉNTO
100. **biergarbitzálle//biergarbitzallí**
101. (SARÉN) BÍETZ
102. (SÁRE) BIRÁ
103. **bírrriñ//birriñe**
104. **bóka//bóki**
105. (BIBÉRON) BÓKA
106. **boléto//bolétu**



107. **bolintxekó mótora//bolintxekó motóra**
108. **bóltza//boltzí**
109. **bosingétan**
110. **botatzálla//botatzallí**
111. **braeléko//braelekú**
112. **brámun//bramúne**
113. **bránkas**
114. **braunparáka**
115. **brúsol//brusóla**
116. **burdí kárra//burdí kárru**
117. **(espeták) dántzan eín**
118. **défen//deféna**
119. **déilai//deiláxe**
120. **deskárga//deskargí**
121. **despíxkéro//despíxkerú**
122. EÚNE (SURITXÚ)
123. EDÚR (SÁR)
124. EDÚR (SÍKIÑ)
125. **éme//emí**
126. (TRÁBES) ENKARNÁ
127. **enláta**
128. ENPAKATZÁLLE
129. ENPATXÁ
130. (ÁRRAIÑ) ENPATXÁ
131. (BÉUN) ENPATXÁ
132. (KANKÁMO) ENPATXÁ
133. **entábla**
134. **entólla**
135. (ÁMO) ENTOLLÁ
136. **(antxói) épel**
137. **errégiñ//erregíñe**
138. ERREGÍÑ-ÁSTE
139. **erregín txiki//erregín txikíxe**
140. **éskus**
141. ESTRAPÓ-LÉKO
142. **estropálla// estropalaíxe**
143. **(arrañe) estropeá**
144. **ezpebihetz; espebiétz//espebiétza**
145. **ezpetol; espétol//espetóla**
146. **fabríka//fabríki**
147. FABRIKÁKO ANTXÓA
148. **febréro//febréru**
149. **filéte//filéti**
150. FILÉTIK EÍÑ
151. **flotánte//flotánti**
152. **freskoáko (arrañe)//freskoáku**
153. **fruntzia**
154. GÁULEN
155. GÁU-ÓSTANTZA
156. **gálda//galdí**
157. GALGÓI-BÁLTZ



158. GALGÓI-ÍPAR
159. **gantxó sartutzálle//gantxó sartutzallí**
160. **garbitzálle/ garbitzallí**
161. GÁTZA (EMÓN)
162. GÁTZ-LÓDI
163. GÁTZA (BOTÁ)
164. GATZÉRRE
165. **géxa éiñ**
166. **glóbo//glóbu**
167. **goibúro//goiburú**
168. **górda//górdi**
169. **gorrí-górrri (itxosú)**
170. **gradía**
171. **grakára//grakarí**
172. (MENDEBÁL NORTÉKO) AXÍ
173. AXÉBEA (BOTÁ)
174. (ARMAKÓ) ÁRI
175. (GOIBÚRUKO) ÁRI
176. ARÍ (ALBÁÑU)
177. ARÍ (BRILLOTZÚ)
178. ARÍ (MÁTI)
179. ARÍ (MÉI)
180. (JOSGURAKÓ) ÁRI
181. (KONPOSTURAKÓ) ÁRI
182. ARRIXÍN (EÓN)
183. **harri amarratzaile; arri amarratzálle//arri amarratzallí**
184. **hondar mahai; ondár- mái**
185. **inglés óllar//inglés ollarra**
186. **ióio//ióio**
187. **irábiñ//irabíña**
188. **iraitzálle//iraitzallí**
189. **(ámu) iratsí**
190. **itxás-lápur//itxás-lapúrre**
191. ITXASÓ (BETEKÓ)
192. ITXOSAPÓ BÁLTZ
193. ITXOSAPÓ ZÚRI
194. **(arráñe) itxutú**
195. **izkirero;ixkiréro//ixkiréru**
196. (ARPONÁSTI) JÓ
197. (ARRÁÑE) JÓ
198. (ATZÉKO LATÍÑE) JO
199. (SÓKA) JÓ
200. (SOKÁ PÚNTA) JÓ
201. (TRETZÁ) JÓ
202. (ÚR) JÓ
203. JOSGURÍ (TRABESEÁ)
204. **juliána//juliáni**
205. **kabramóntes//kabramontésa**
206. **kabrátan**
207. **kaída//kaidí**
208. KAÍDA (LÍSO)



209. (APÁXON) KAÍDA
210. (SÁREN) KAÍDA
211. KAÑABERÁ (LÚSE)
212. KAÑABERÁ (MEDIÁNO)
213. **kañaberáko//kañaberakú**
214. **kañaberán**
215. KÁXAR
216. KAJÁOL
217. **kája//kají (kristálas)**
218. KAKÓKO LÁGUN
219. **kakótu**
220. BARRUKÓ-KÁLA
221. **kána//káni**
222. KANÁKA (MARKÁ)
223. KANKAMÓ-TÁRTE
224. KANKAMOTXAPLÁTA
225. **kanpáxe//kanpáxi**
226. **kánpo//kánpu**
227. **(itxosún) kánpoa lusatú**
228. (BARRUKÓ) KÁNTILL
229. **kapóte//kapóti**
230. **kárdal//kardála**
231. **karióka-kariokílla//karioká-kariokílli**
232. KARNATÁ-BOTATZÁLLE
233. KARNÁTA (ÉIÑ)
234. KARNATÁ-EMONTZÁLLE
235. KARNÁTA (MOBIÚ)
236. KARNATÁ- PÓTO
237. KARNÁTA (SOLTÁ)
238. KARNATAKÓ-IZKÍRA
239. (AMÓKO) KARNÁTA
240. **karretéro//karreterú**
241. **karría**
242. KARRÓ-GÁÑE
243. **kartílla//kartílli**
244. **kaskóte//kaskóti**
245. (LÉMIN) KATÍ
246. **katxikámo//katxikámu**
247. **káxa//kaxí**
248. **(arráñe) kexá**
249. **koáxa//koáxi**
250. KOLÁXO-SÁR
251. **konpostúra//konposturí**
252. KONTRAKAÉLEKO PÓSTE
253. **kontzesiñoi//kontzesiñoi**
254. **kopaléta** (neurrixte)
255. DOBLÉKO ORAPÍLLO
256. ARRÚNTE
257. ARRÚNTE ARTZÁLIN
258. KÁTE



259. LASTÍGIA
260. MARINÉL KÓTA
261. MARINÉÑ ORAPÍLLU
262. TXIKOTEKÚ
263. ZORTZIKÚ
264. KURUTZÉ ARTZÁBI
265. BÁRTZAK
266. ESTROPÓ KORAPÍLLU
267. ERROSÉTA
268. KORDÁ-BÓTA
269. KORTXÚN SÉNO
270. KORTXOKÓ TRÁLLA
271. KORTXÚN ANÍLLA
272. KÓRTXO (trabol-bezala erabiltzeko)
273. **(mállin) kóskor // (mállin) koskórra**
274. **kósta**
275. **kostárres**
276. **kruséta//kruséti**
277. **kulárda//kulardí**
278. **(sáre) kurkillddú**
279. (TRÉIÑ) KURKILLDDÚ
280. **langostéro//langosterú**
281. **lánpra//lánpri**
282. **lantés//lántési**
283. **lapasórri//lapasorríxe**
284. **(ámun) lasó (báltz- bérde-gorríxe)**
285. **lásta//lastí**
286. **latéro//laterú**
287. **líño//liñú**
288. **(ámu) listá**
289. **lutzárrri//lutzarríxe**
290. MÁLLA (ERDÍKI)
291. MÁLLA-KUXKURTÚ
292. MÁLLA-LÍSO
293. MÁLLA-PASÁU
294. (ERÁKO) MÁLLA
295. MALLÁTA
296. **(arráñe) mallatú**
297. (NAILONESKÓ) MALLÉTA
298. (SISALESKÓ) MALLÉTA
299. **(leatzetakó) máña//máñi**
300. **maístra//maístri**
301. **makáel // makaéla**
302. **makinílla// makinílli**
303. **maskúlo//maskúlu**
304. **mazi-burdin; masí-burdíne**
305. **(úr) mé// (úre) méi**
306. **míñ//míñe**
307. **mindríxka//mindríxki**
308. MOLLÁ-MÚSTUR



309. MOLLÁ-GÁÑ
310. **mongoliño//mongoliñú**
311. **montáje//montáji**
312. **móño//móñu**
313. MORRÓ-PÚNTA
314. MUNDÍLL-AMARRATZÁLLE
315. **musíko//musíku**
316. (ATZÉKO) NEBÉRA
317. **Nórte Kuárto**
318. **(ámun) numéru**
319. **oáldi//oaldixe**
320. **obálau**
321. (SUBILLÉ MASÓTI) OBILDDÚ
322. OBRÁ MUÉRTA (ÁBOR)
323. OBRÁ MUÉRTA (ESTÍOR)
324. OBRÁ MUERTÁKO PÓSTE
325. **ojáel//ojaéla**
326. **(artó orrixak) orrastú//orrástu**
327. (LANGOSTÍN ÁNKAK) ORRASTÚ
328. (MALUTÍ) ORRASTÚ
329. (IRÚ ARROKÓ) OTZÁRA
330. OTZÁRA (BOROBÍLLE)
331. OTZÁRA (KUADRÁU)
332. (LANGOSTÁ) OTZÁRA
333. **palamátro//palamátru**
334. (TRABESEKÓ) PÁLO
335. **panderéta//panderéti**
336. (IXKIRATAKÓ) PANDÉRO
337. (ALDREBESETAKÓ) PAÉLA
338. (BEKÓ) PÁNEL
339. PANTXOKÚME
340. **páño//pañú**
341. PAPARDÓTAN
342. **pará aberías // pará-beríaasa (pará-kostúras//pará-kosturása)**
343. **perlói gorri//perlói gorríxe**
344. **peskíxan**
345. **(sérku) pikín**
346. **pípa//pípi**
347. **(sáre) planiá**
348. (ÁMUK) PLANIÁ
349. **pláta//pláti**
350. POLÉA (DÓBLE)
351. PÓPAS-ÁTZEA
352. (ÁMUN) PÓPA
353. (OTZÁRIN) PÓPA
354. **portátill//portatille**
355. (GUARDAKOLOREKÓ) PORTÍLLO
356. **póste//pósti**
357. **potosórri//potosorríxe**



358. **potxá tóki//potxá tokíxe**
359. **prijidóre//prijidorí**
360. **priméro//priméru (makiñáku)**
361. **puntáda//puntadí**
362. **puspúlo//puspúlu**
363. **putxéta//putxéti**
364. **rasíñoi//rasiñói**
365. (KANKÁMUN) REFUÉRTZO
366. **róllin//rollíne**
367. SALMUERÁ (GÁRBI)
368. SALMUERÁ (SÍKIÑ)
369. **sanbrunío**
370. SARDÍÑA-BÁSTO
371. SARDÍNSAR
372. **sárdoi//sardói**
373. (BAKÁKO) SÁRE
374. (ESTRAPERLÓKO) SÁRE
375. (OREKÁ) SÁRE
376. **sarrúna//sarrúni**
377. **sátre//sátri**
378. **segúndu** (makiñakúne)
379. (ATZÉKO) SÉNO
380. **señále//señáli**
381. **séra//séri**
382. **(arráñe) serká**
383. **sésto//séstu**
384. **(malúta) sikatú**
385. (TXIXÁRRU) SIKATÚ
386. OREKÁ- SÓKA
387. MUNDÍL-SÓKA
388. **(gixóna) soratú**
389. **(artó orríxe) suritxú**
390. **sústár//sustárra**
391. (ENKARNATÁKO) TÁBLA
392. **tajáda//tajadí**
393. **tántza//tántzi**
394. TARRATARÁ (GÁRBI)
395. **tentéko//tentéku**
396. (AURRÉKO) TÍRA
397. TOLLÁNAK EMÓN//ARTÚ
398. **toíta//toíti**
399. (KARRILLEKÓ) TÓSTA
400. **(mállin) trábes**
401. **traganárro//traganárru**
402. **trálla//trálli**
403. (GOIKÓ) TRÁLLA
404. (BEUNEKÓ) TRÁLLA
405. (TREÑÁN AURRÉKO) TRÁNPA
406. **trapó (súri) (górri) //trapó (suríxe) (gorríxe)**
407. TRÁSKUK ÁRTE
408. TRÉIN MÉI




409. **tréñol//treñóla**
410. AÚRRE
411. ANKAESTÍOR
412. ANKÁOR
413. BÁSTA
414. ERDÍXE OSPÍTÁL
415. ESPÁLDA
416. OSPÍTAL
417. POPAGÁÑE
418. SAÍXE
419. TXAÓSA
420. ATZÉKO TXÓPA
421. AURRÉKO TXÓPA
422. **trén//tréna**
423. **trepétxo//trepetxú**
424. TRETZÁ-BOTÁ
425. (BESIUTÁKO) TRÉTZA
426. (PAPARDOTÁKO) TRÉTZA
427. **tróntzo//tróntzu**
428. **trúxo//trúxu**
429. **(txifarrekó) túbo//(txifarrekó) túbu**
430. TXALÚPA ANDÍ
431. BERRÍEL
432. ERDÍ(E)XE
433. ESPALDÁKO
434. KONTRAESPÁLDA
435. KONTRAMÁSTET
436. KONTRÁURRE
437. MÁSTET
438. OSPÍTAL
439. **txastadéro//txastadéru**
440. **txekióla//txerkióla**
441. TXERKÍO (BARRUKÚ)
442. TXERKÍO (PUNTÁKU)
443. **txibikórañ//txibikoráñe**
444. TXIKÓT (JENÉRAL)
445. TXIRLÁ-FRÁNTZES
446. LUMÁ-TXITXÁRRO
447. **txitxarrillo//txitxarrillu**
448. TXITXARRÓTA (JÚN)
449. ÚR (TXÍKI)
450. ÚR-ÉRRE
451. **(langostá) utzítxu//(langostí) utzitxú**
452. **(apáxu) xaxiá//xaxía**
453. **zapart; dsápart**
454. **zesto; sésto//sestú**
455. **ziezko arropa; sieskó errópa**
456. **zikinean; sikiñín**
457. **zingan; dsíngan**
458. DSINGALÉKO



ONDARROAKO ARRANTZALEEN LEXIKOA


ONDORIOAK

- 459. **zirri-zarra; sirrí-sárra//sirrí-sárrri**
- 460. **zonda; dsónda//dsondí**
- 461. **ESKÓ-SÚRDA**
- 462. **zuritasun; suritxásun//suritxasúne**

**5. BIBLIOGRAFIA**

1. ----- (1985): “caladeros de aparejos y artes artesanales”, *Ondarroa*, 78-80
2. ----- (1985): “oiturazko arrantza, sistemas tradicionales de pesca”, *Ondarroa* 55-61
3. ----- (1986): “evolución de embarcaciones pesqueras de nuestro tiempo”, *Ondarroa* 2-6
4. ----- (1986): “oiturazko arrantza, sistemas tradicionales de pesca”, *Ondarroa* 48-51
5. ----- (1987): “ antiguos astilleros de Antzosolo”, *Ondarroa* 76-79
6. -----(1987): “hay bolincheros en la actualidad? Txitxarro, sardña eta boga´tan bolintxeruekin” *Ondarroa* 66-69
7. ----- (1988): “oiturazko arrantza, sistemas tradicionales de pesca”, *Ondarroa* 11-17
8. ----- (1990): “nuestros sistemas de pesca en el siglo pasado”, *Ondarroa* 68-74
9. ----- (1992): “información histórica del puerto de Ondarroa”, *Ondarroa* 55-70
10. ----- (1992): “las cofradías de pescadores y casos concretos y curiosos de la Santa Clara de Ondarroa”, *Ondarroa* 4-19
11. ----- (1995): “algunos aspectos y curiosidades de nuestra villa”, *Ondarroa* 55-60
12. ----- (1996): “Ondarroa porturik gabeko herri arrantzalea (1880-1896 urteak)”, *Ondarroa* 10-25
13. ----- (2000): *Mendebaldeko berbetearen formalizazioa*, Mendebalde Kultur Alkartea
14. (1984b): “Atuneros congelados”, *Itsasoa*, 7, Etor, 65-70
15. (1984c): “La construcción naval en el País Vasco. Obraje de pesqueros de madera”, *Itsasoa*, 7, Etor, 71-160.
16. (1991): *Arrantzaleen Museoa*. Ertzilla Dorrea, Bizkaiko Foru Aldundia
17. (1984c): “Embarcaciones en arte popular, votivas y de otro carácter”, *Itsasoa*, 6, 45-61
18.(1981): “Arraintza ohiturak eta arraintzaren biologiagaz bere zer ikusia”, *Bermeo*, 1, 235-249
19. (1984b): *La pesca en Bermeo en el siglo XIX*, Caja de Ahorros Vizcaina , Bilbo.
20. (1986): *Peces de Mar*, Editorial Blume, Bartzelona.
21. (1992): “Itxas bizitza eta euskera”, Karmel, 202.
22. (1990): *Oceanografía del Golfo de Vizcaya*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.
24. A. Medina; *Lexicografía española*, Ariel, 2003.
25. Alvar, Manuel (1985): *Léxico de los Marineros Peninsulares*, Arcos Libros, Málaga
26. Amich, Julián (1956): *Diccionario Marítimo*, Editorial Juventud
27. Anasagasti, Andoni (1980): “*Itsas espezierik garrantzitsuenen Bermeoko terminologia*”, *Fontes Linguae Vasconum*, XII.
28. Andoni Sagarna; *Terminologiaren teoria orokorra*, EIZIE. SENES
29. Apalategi, Joxemartin (1984): “*Herri arrantzaleen etnografía eta antropología soziokulturala*”, Ondarru (Bigarrena), Bermeo, 6, 197-200
30. Apraiz, Juan Antonio (1984): “*La pesca en Euskal Herria. La pesca costera*”, *Itsasoa*, I, Etor, 155-218
31. Apraiz, Juan Antonio; Astui, Aingeru (1984 a): “*La pesca en Euskal Herria. La pesca de bajura*”. *Itsasoa*, 4, Etor, 74-148.
32. Arrinda, A. (1977): *Euskal Herria eta Arrantza*, Donosti Aurrezki Kutxa.

33. Astui, Aingeru (1984 a): “*Artes y aparejos de pesca empleados por los pescadores bermeanos en el año 1.982*”, Bermeo, 4, 103-144.
34. Astui, Aingeru; Apraiz, J. Antonio (1984): “*De la vela al vapor*”, Itsaso, 7, Etor, 193-197.
35. Asúa, Lorenzo (1981): Peces de Mar, colección Temas Vizcainos Año VII-nº76, Caja de Ahorros Vizcaina
36. Aurrekoetxea, Gotzon (1986): “*Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA): Inkesta Metodologia eta Ezezko Datuak*”, Euskera XXXI (1986, 2).
37. Barandiaran, Joxemiel (1985): *Etnografiazko Galdeketa Batetarako Gidaliburua eta Berriemailearen Biografia*, Antropologiaren Euskal Bilduma, 6, Haranburu Editorea, Donostia.
38. Barrutia, Eneko (1993): *Mundakako arrantzaleen jakintzaren lexiko eta entziklopedia*, (Deustuko Unibertsitatean aurkeztutako doktorego tesia).
39. Barrutia, Eneko (1996): *Bermeo eta Mundakako arrantzaleen hiztegia*, Udako Euskal Unibertsitatea
40. Barrutia, Eneko (2000): *Bizkaiko Arrantzaleen Hiztegia, Léxico Marinero Vizcaino*, Labayru Ikastegia
41. Basterretxea, Andoni (2000): *Ene Ondarru*, Auspoa
42. Bostak bat taldea: *Sinonimoen hiztegia*, Adorez 3
43. Cabré (1993): *La terminología*. Barcelona: Editorial Antártida/Empuries.
44. Cabodevilla, Esther; Matallanas, Jesús (1989): *Euskal Herriko Arrainak I*, Kriseilu, Donostia.
45. Crespo, C.; Ugartetchea, J.M. (1975-1960): “*Cantiles y topónimos de la costa entre cabo Matxitxako y Punta Galea*”, Bermeo, 2, 415-426.
46. Elhuyar (1996): *Elhuyar hiztegia*
47. Erkoreka, Josu (1981): “*Arraintzaleen bizitza ontzi barruan*”, Bermeo, 1, 251-262.
48. Etxaburu, Jose Maria (1995): *Ondarroa 'ko kontuak*, Auspoa Liburutegia
49. *EUSKAL HERRIA datuen talaiatik* 2006. Txalaparta
50. Gotzon Garate: *ERDARAKADAK. Euskaraz ongi mintzatzeko hiztegia. Zazpi probintzietako adibideak*. Gero Euskal Liburuak (1988)
51. Garmendia, Ignacio (1970): *Diccionario Marítimo Ilustrado Castellano-Vasco, Vasco-Castellano*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
52. Guía de identificación (1998): *Peces de Mar del Atlántico y del Mediterráneo*, Ediciones Omega S.A.
53. Guías de Naturaleza Blume (1990): *Peces de Mar*
54. Ibáñez, Miguel; Menéndez, Miguel, e.a. (1989): *Euskal Herriko Arrainak 2*, Kriseilu, Donostia.
55. Ibáñez, Miguel; San Millán, M^a Dolores; Romero, Alejo; Arnedo, Marisa (1987): *Euskalerriko Zoologia*, Kriseilu.
56. Igelmo, Alfredo; Iribar, Xabier; Lerga, Serafin (1984): “*Pesca de arrastre*”, Itsaso, 7, Etor, 13-40.
57. Igelmo, Alfredo; Iribar, Xabier; Lerga, Serafin; Legarra, Jaime (1984): *Inventario de Artes de Pesca en Euskadi*, Eusko Jaurlaritz.
58. Igone Zabala eta Agurtzane Elordui: *Euskara zientifikoaren normalizazioa: hizkuntzalarien ekarpena* Mendebalde Kultur Elkartea. (2005).
59. Ilari Zubiri-Entzi Zubiri (1995): *Euskal Gramatika Osoa*, Didaktiker, S.A.



60. Irigoyen, Alfonso (1986): “*Observaciones fonéticas y morfológicas a las hablas vascas de los marineros encuestados en la costa vizcaina y guipuzcoana*” De Re Philologica Linguae Vasconiae II, Bilbo.
61. Itsaso Bilduma 18.a (1998): *Arrantza Hiztegia*, Eusko Jaurlaritza, Industri Nekazaritza eta Arrantza Saila
62. Izagirre, Koldo: *Euskal Esamoldeak I*, Hordago
63. Izagirre, Koldo: *Euskal Esamoldeak II*, Hordago
64. Jackson; *Lexicography*;, Routledge, 2002
65. Karmel 1994-3, 36-42
66. Karmel 1990-2, 32-43
67. Karmel 1994-3, 36-42
68. Karmel 1990-2, 32-43
69. Karmel, 1987-3, 95-102.
70. Lafitte Piarres: 1941, *Vocabulaire français-basque*; 1953, *Lexique français-basque*.
71. “*Lekeitioko berbak*” (2001) lantaldea, Itsasoa, Lekeitioko berbak (1), Lekeitioko Udala
72. *Mendebaldeko Berbetearen Formalizazioa*, Mendebalde Kultur Alkartea
73. Merino, Jose M. (1986): *La pesca desde la prehistoria hasta nuestros días*, Eusko Jurlaritza, Nekazal eta Arrantzu-Saila
74. Muus, B. J.; Dahlstöm, P. (1981): *Guía de los Peces de Mar del Atlántico y del Mediterráneo*, Omega, Bartzelona.
75. Nicholls, James; Milles, Peter (1981): *Pequeño Manual de los peces de Europa*, Omega, Bartzelona.
76. Paulo Agirrebaltzategi: *Hiztegi Tekniko-Berezituak*. UZEIren Hiztegi gintza -
77. R.M. de Azkue I (1969): *Diccionario Vasco-Español-Frances*, Biblioteca de La Gran Enciclopedia Vasca.
78. R.M. de Azkue II (1969): *Diccionario Vasco-Español-Frances*, Biblioteca de La Gran Enciclopedia Vasca.
79. Rotaetxe Amusatagi, Karmele. *Estudio estructural del euskera de Ondarroa* (1977) tesi doktorala
80. Sarasola, Ibon : *Euskal Hiztegia*, <<HAUTA LANERAKO EUSKAL HIZTEGIA>>
81. Terofal, Fritz (1979): *Pequeña Guía de los Peces de Europa*, Omega, Bartzelona.
82. Tuck, Gerald; Heinzl, Hermann (1980): *Guía de Campo de las Aves Marinas de España y del Mundo*, Omega, Bartzelona.
83. Txillardegi (1984): *Euskal Azentuaz*, Elkar
84. Uetenak Taldeak (1989-1990): “Cuestionario de Pesca”, *Bermeo*, 7, 365-367.
85. *Vocabulario Marítimo* (1740-1992): Libresías “París Valencia”.
86. Webb, Barbara (1994): *Diccionario Náutico en 8 idiomas*, Ediciones Tutor, Madrid
87. Zenbaitek (1986): *Enciclopedia General del Mar*, Ediciones Garriga, Bartzelona.
88. Zubikarai, Augustin (1987): *Treñneru estropadak*.
89. Zubikarai, Augustin (1989): *itxas-aize. Esaldi eta iztegi antzerakoa*.
90. Zubikarai, Augustin (1991): *sits eta bits*. Gure gaiak.
91. AREJITA, A. eta la. (1983): *Bizkaieraren idatzizko arauak*. EJAZN. Gasteiz.
92. AREJITA, A. eta Beste (1989): *Bizkaierazko joskera*, EJAZN, Gasteiz.



93. ETXEBARRIA, J. M. (1995): *Bizkaialdeko lpuin-Esaundak*, Ibaizabal, Euba-Amorebieta
94. GAMINDE, I. (1989): *Ahozko Bizkaieraz*. AEK, Bilbo
95. GAMINDE, I. (1995): *Bizkaiko ahozko euskararen esaldi erduetz (Y)*. Fontes Linguae Vasconum Iraila-abendua, 70 zkia.
96. PAGOLA, R.M. (1984): *Euskalkiz Euskalki*. EJAZN, Gasteiz.
97. UEU (1983): *Euskal Dialektologiaren Hastapenak*. Iruñea
98. ZUAZO, K. (1988): "Bizkaieraren ezaugarriez gehiago", ASJU
99. BATZUK (1981) Idazkera ariketak. "Tokian tokiko euskera erduak". Labayru Ikastegia.
100. BATZUK (1997) *Mendebaldeko euskera XX. mende goienean*. Mendebalde Kultur Alkartea. Bilbo.
101. BATZUK (1999) *Euskalkien lekua literaturan*. Mendebalde Kultur Alkartea. Bilbo.